

NAFARROAKO
ESKOLA
KONTSEILUA
CONSEJO
ESCOLAR
DE NAVARRA

Txostena
Informe

2014
2015



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Nafarroako Eskola Kontseilua
Hezkuntzako Batzorde Nagusia
Consejo Escolar de Navarra
Junta Superior de Educación

Nafarroako Hezkuntza Sistemari buruzko txostena, 2014-2015 ikasturtea

Aurkibidea:

1. SARRERA	6
2.- HEZKUNTZAREN TESTUINGURUA NAFARROAN.....	8
2.1. Alderdi demografikoak	9
2.1.1. Biztanleria eta biztanleriaren osaera	9
2.1.2. Eskolatzeko adinean dagoen biztanleria	14
2.1.3. Atzerritarrak	16
2.2. Alderdi sozioekonomikoak	19
2.2.1. Barne produktu gordina	19
2.2.2. Familia errenta	21
2.2.3. Jarduera sektoreak	22
2.2.4. Lan merkatua: biztanleria aktiboa, landunak eta langabetuak	23
2.3. Gizarte eta hezkuntza alderdiak	25
2.3.1. Biztanleria helduaren ikasketa maila	25
2.3.2. Hezkuntzaren garrantzia esparru sozial eta politikoan	30
2.3.2.1. Parlamentuaren jarduera	30
2.3.2.2. Nafarroako Arartekoaren jarduerak hezkuntza arloan	39
2.3.3. Komunikabideetan landutako hezkuntzako gai nagusiak	49
2.3.3.1. Diario de Noticias de Navarra	49
3.- BALIABIDE MATERIALAK ETA GIZA BALIABIDEAK.....	53
3.1. Hezkuntzaren finantzaketa publikoa	53
3.1.1. Hezkuntza Departamentuaren aurrekontua	53
3.1.1.1. Hezkuntza administrazioaren gastu komunak	57
3.1.1.2. Irakaslaneko gastu komunen aurrekontuak	59
3.1.1.3. Bestelako gastu komunak.....	61
3.1.1.4. Sare publikoko gastuen aurrekontua.....	62
3.1.1.5. Sare pribatuko gastuen aurrekontua	64
3.1.1.6. Gastuen laburpen orokorra eta ratio esanguratsu zenbait	66
3.1.1.7. Laburpena	68
3.1.2. Konparatzeko datu orokorrak	71
3.2. Baliabide materialak	76
3.2.1. Ikastetxe publikoak. Araubide orokorreko ikasketak	76
3.2.1.1. Ikastetxe eta unitate kopuruaren oinarritzko datuak	76
3.2.1.2. Azpiegiturak hobetzeko programak	82
3.2.1.3. Ekipamenduak	85
3.2.2. Ikastetxe pribatu-itunduak. Araubide orokorreko ikasketak	86
3.2.2.1. Ikastetxe eta unitate kopuruaren oinarritzko datuak	86

3.2.3. Araubide bereziko ikasketak ematen dituzten ikastetxeak	88
3.2.3.1. Arte ikasketak	88
3.2.3.2. Hizkuntza ikastegiak	90
3.2.4. Zerbitzu osagarriak	90
3.2.4.1. Eskola garraioa	90
3.2.4.2. Eskola jantokiak	91
3.2.4.3. Eskola egoitzak	91
3.3. Giza baliabideak	92
3.3.1. Ikastetxe publikoetako irakasleak	92
3.3.1.1. Plantillaren bilakaera. Datu orokorrak	92
3.3.1.1.A. Araubide bereziko irakasleak	93
3.3.1.1.B. Orientazioko langileak	93
3.3.1.1.C. Hezkuntza premia berezietako irakasleak	95
3.3.1.1.D. Hizkuntza irakasleak	95
3.3.1.1.E. Helduen Hezkuntzako irakasleak	96
3.3.1.1.F. Erljio irakasleen kontratazioa	96
3.3.1.1.G. Erretiroak	97
3.3.1.2. Lehen Hezkuntzako ikastetxeak laguntzeko berariazko programa, egoera soziokultural ahulean dauden ikasleei eta atzeritar jatorriko ikasleei hezkuntza erantzuna emateko	97
3.3.1.3. Funtzio publikoan sartzea, mugikortasuna eta espezialitate berriak eskuratzea	98
3.3.1.4. Irakasleen administrazio araubidepeko kontratazioak (aldi baterakoak)	98
3.3.1.5. Irakasleen ordainsarien bilakaera	103
3.3.1.6. Administrazio eta Zerbitzuetako langileak	104
3.3.1.7. Unibertsitatetik kanpoko irakasleen Mahai Sektoriala eta 2001eko maiatzaren 31ko itunaren jarraipen batzordea	104
3.3.1.8. Unibertsitatetik kanpoko irakasleen Segurtasun eta Osasun Batzordea	106
3.3.2. Ikastetxe itunduetako irakasleak	108
3.3.2.1. Irakasle plantillaren bilakaera itunpeko ikastetxeetan	108
3.3.2.2. Ordainsarien taulak itunpeko irakaskuntzan	109
3.3.2.3. Enpresa erakundeak eta sindikatuak, Nafarroako itunpeko irakaskuntzan	111
3.3.3. Irakasleen gaineko intereseko ezaugarriak: Espainia eta Europa	112
3.3.3.1. Irakasleak ikastetxeetan	112
3.3.3.2. Araubide orokorreko ikasketak ematen dituzten irakasleak	113
3.3.3.3. Araubide bereziko ikasketak ematen dituzten irakasleak	115
3.3.3.4. Helduen Hezkuntza ematen duten irakasleak	116
3.3.3.5. Espainiar irakasleen gaineko bi aldagai	117
3.3.3.5.A. Sexuaren aldagaia irakasleengan	117
3.3.3.5.B. Adinaren aldagaia irakasleengan	119
3.3.4. Ikasleak/ikastaldeko ratioen bilakaera	123

4.- HEZKUNTZA PROZESUAK ETA POLITIKAK	125
4.1. Nafarroako hezkuntza administrazioaren antolamendua	125
4.2. Ikasketen antolamendua	127
4.2.1. Haur Hezkuntzako lehen zikloa	134
4.2.2. Haur Hezkuntzako bigarren zikloa eta Lehen Hezkuntza.....	136
4.2.3. DBH eta Batxilergoa	136
4.2.4. Lanbide Heziketa	137
4.2.5. Hizkuntzen ikasketa	145
4.2.5.1. Atzerriko hizkuntzak.....	145
4.2.5.2. Euskara	148
4.2.6. Eskola kirola.....	149
4.3. Aukera berdintasunerako politikak.....	159
4.3.1. Ikasleen aniztasunari erantzutea	159
4.3.2. Hezkuntza konpentsazioa	161
4.3.2.1. Atzerritar jatorriko ikasleei erantzutea	161
4.3.2.2. Ospitalizaturiko ikasleak	163
4.3.2.3. Egoera ahulean dauden ikasleak dituzten ikastetxe publiko eta itunduetarako laguntza ekonomikoak	164
4.3.3. Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna	165
4.3.3.1. Irakasleei berdintasunaren gaian prestakuntza ematea.....	165
4.3.3.2. Parte-hartzea eta lankidetzaren beste erakunde batzuekin	166
4.3.3.3. Baliabide didaktikoak	167
4.3.3.4. Lan-ildoak.....	167
4.3.4. Bekak eta ikasteko laguntzak	168
4.4. Hezkuntza kalitaterako politikak	170
4.4.1. Eskola zuzendaritza	170
4.4.2. Kalitatearen kudeaketa ikastetxeetan	171
4.4.2.1. Ikastetxe publikoak	171
4.4.2.2. Ikastetxe itunduak	182
4.4.3. Irakasleen etengabeko prestakuntza	182
4.4.4. Hezkuntza erkidegoaren parte-hartzea	193
4.4.4.1. Nafarroako Eskola Kontseilua / Hezkuntzako Batzorde Nagusia	193
4.4.4.2. Ikastetxeetako eskola kontseiluak	194
4.4.4.3. Parte-hartze sozialerako beste bide batzuk	197
4.4.5. Europar Batasuneko hezkuntza programak	203
4.4.6. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak zabaltzea	205
4.4.6.1. Teknologia Berriak eta Hezkuntza Programa (PNTE)	205
4.4.6.2. Konektagarritasuna	206
4.4.6.3. Ekipamendu informatikoa	207
4.4.6.4. IKTak curriculumean txertatzea	207
4.4.7. Hezkuntzako parte-hartzea. Irakasleentzako arreta.....	211

4.4.7.1. Hezkuntzako parte-hartzea eta irakasleentzako arreta	211
4.4.7.2. Bizikidetzarako Aholkularitza	212
4.4.7.3. Balioetan hezteko programa	214
5.- ESKOLA SISTEMAREN EMAITZAK	217
5.1. Hezkuntza sistemara sarbidea	217
5.1.1. Eskolatze prozesuaren emaitzak	217
5.1.1.1. Eskolatze prozesuaren arauketa	218
5.1.2. Araubide orokorreko ikasketetan eskolaturiko ikasleak	219
5.1.2.1. Eskolatzeari buruzko zifra orokorrak	219
5.1.2.2. Ikasleak hizkuntza ereduen arabera	222
5.1.2.3. Haur Hezkuntzako lehen zikloa	225
5.1.2.4. Lanbide Heziketako ikasleak	228
5.1.2.5. Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak.....	234
5.1.2.6. Ikasle etorkinak	240
5.1.2.7. Helduen ikasketetako ikasleak	241
5.1.3. Araubide bereziko ikasketetan eskolaturiko ikasleak	247
5.1.3.1. Hizkuntza ikasketetako ikasleak	247
5.1.3.2. Nafarroako Gobernuaren Euskararen Gaitasun Agiria (EGA).....	249
5.1.4. Arte ikasketetako ikasleak	251
5.1.4.1. Musika	251
5.1.4.2. Dantza	251
5.1.4.3. Arte Plastikoak eta Diseinua	252
5.1.4.4. Diseinuko goi mailako arte ikasketak	252
5.2. Progresioa sistema arautuan	252
5.2.1. Lehen Hezkuntza	252
5.2.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	257
5.2.2.1. Ikastalde arruntak	257
5.2.2.2. Curriculum Egokituko Unitatea – Curriculum Aniztasuna	262
5.2.3. Batxilergoa	264
5.2.4. Selektibitateko emaitzak – Unibertsitateko sarbide probak	266
5.3. Ebaluazio diagnostikoetako errendimenduaren emaitzak	270
5.3.1. 2014-2015 ikasturteko ebaluazio diagnostikoa Nafarroan	270
5.3.1.1. Lehen Hezkuntzako 3.eko banakako ebaluazioa	270
5.3.1.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2.eko ebaluazioa	298
5.3.2. Hezkuntza sistemaren emaitzak Estatuko testuinguruan	316
5.4. Aitorpenak eta sari bereziak	321

1. SARRERA


Nafarroako Eskola Kontseiluak, 2015eko abenduaren 17ko osoko bilkuran, Nafarroako unibertsitatez kanpoko hezkuntza sistemaren gaineko txosten hau onetsi zuen, 2014-2015 ikasturteari dagokiona. Horrela, Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia arautzen duen 12/1997 Foru Legean jasotako legezko aginduarekin bat egin du, eta erakundearen helburu nagusietako bat betetzen laguntzen du, hain zuzen ere, Nafarroako gizarteari Foru Komunitateko hezkuntzaren errealitatearen deskribapen oso, egiaztatu eta ordenatua eskainiz.

Aurreko ikasturteetan bezala, txostenaren edizio honetan ikuspegi sistemikoa hartu da azalpenerako. Ikuspegi honek gure hezkuntza sistemaren funtzionamendu konplexu eta dinamikoa hobeki ulertzen lagunduko du, sistemari egiten zaizkion ekarpen multzo baten konbinazio gisa deskribatuz. Horiek, barneko prozesu jakin batzuen bidez, erdietsitako emaitza edo lorpen bihurtzen dira eta errealitate sozial eta ekonomikoan eragiten dute. Hori guztia testuinguru batean gertatzen da: testuinguruak ekarpenetan eragiten du, prozesuetan ondorioak ditu eta emaitzak baldintzatzen ditu, eta horiek, era berean, modu nabarmenean eraldatzen dute testuingurua. Funtsean, hezkuntza sistema faktore anitzeko erlazio baten gisan aztertu daiteke. Bertan, ekarpenak eraginkortasunez kudeatzen badira hezkuntza prozesu eta politika egoki eta iraunkorren bidez, eginahal horren emaitzak hobetu egingen dira eta horrek era berean bere eragina izanen du testuinguruaren baldintzak hobetuko dituelako eta, ondorioz, gizarte garapena eta aurrerabidea sortuko dituelako.

Ikuspegi horrek badu abantaila bat, bat datorrela ELGAK ondoz ondoko *Panorama de la Educación. Indicadores de la OCDE* txostenetan jasotako oinarritzko eskemarekin eta hezkuntzako adierazleen Estatu mailako zein nazioarteko sistema gehienekin eta, orobat, Estatuko Eskola Kontseiluak egindako Espainiako Hezkuntza Sistemaren Txostenarekin. Beraz, errazago erka daitezke Nafarroako Foru Komunitateko datuak beste erkidego eta herrialde batzuetako hezkuntza errealitateekin.

Ondoko taulan eskematikoki azaltzen da hartutako egitura.

1. taula:



Txostenaren tenporalitateak bat egiten du 2014-2015 ikasturtearen hasiera eta bukaera formalarekin. Nolanahi ere, zenbait kasutan, ikasturteari edo aipaturiko denbora mugei egindako erreferentzia gainditzen da.

Adibidez, 4.1 atalean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean edo Estatukoan argitaratutako arauak jasotzen dira, eta horien artean egon daitezke 2015-2016 ikasturteari dagozkion arauak. Izan ere, ezinbestekoa da arauak dagokien ikasturtea formalki hasi baino lehen argitaratzea.


Beste kasu batzuetan, informazioak lotura du informazio hori eman duen iturriak berak erabiltzen dituen erreferentzia tenporalekin. Hori da, hain zuzen ere, Hezkuntza Departamentuak gauzatutako gastuei buruzko atalarekin gertatzen dena, datu horiek Nafarroako kontu orokorretatik hartuak baitira eta kontu horien izaera urtekoa baita. Hala da Parlamentuaren eta Arartekoaren jarduerari dagokien atalean ere, bi erakunde horietako memorietatik jaso baitira datuak. Hezkuntza Ministerioaren estatistika eta adierazleetatik etorritako informazioaren egoera berezia da, eskuragarri dauden daturik berrienak 2013-2014 ikasturtekoak direlako eta, kasu batzuetan, 2012-2013 ikasturtekoak.

Duela lau urtetik hona, zabaldu egin da Nafarroako ikasleek ebaluazio diagnostikoko prozesuetan (dela Nafarroako hezkuntza sistemak egindakoetan dela Estatu mailakoetan eta nazioartekoetan) lortutako emaitzak modu deskribatzailean azaltzen dituen atala. 2014-2015 ikasturteari dagokionez, Lehen Hezkuntzako 3.ean eta DBHko 2.ean Nafarroan egin den ebaluazio diagnostikoaren emaitzak sartu dira, eta ez dago PISAr buruzko atalik, aurreko ikasturtean bezala, ebaluazio hori ez delako egin.

Ohikoa denez, aurreko urteetako erreferentzia eta konparazioekin osatu da txostena. Hala, eskainitako datu segiden bidez, sistemaren askotariko adierazleen bilakaera konparatiboki azter daiteke. Bestetik, gerta daiteke testuko zati jakin batzuetan ematen diren irakasleen, ikasleen edo unitateen gaineko datuak bat ez etortzea, iturri desberdinetatik datozelako eta data desberdinetan erregistratu direlako.

Ezinbestekoa da lan honen garrantzia ulertzen duten eta txostena prestatzen laguntzen duten pertsona eta erakunde orori aitortzea egin eta eskerrak ematea. Txosten hau egiteak datuen bilketan ahalegin irmoa egitea suposatzen du. Hori ez litzateke posible Hezkuntza Departamentuko zerbitzuen, atalen eta bulegoen laguntzarik eta Idazkaritza Teknikoaren koordinazio lanik gabe eta, zentzu horretan, aipamen berezia merezi du Ikuskarpen Zerbitzuko Ebaluazio Atalak, handik baitatuz ebaluazioaren inguruko datuak. Halaber, eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuari, Nafarroako Enplegu Zerbitzuari, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuari, Nafarroako Unibertsitate Publikoari, Arartekoari, Nafarroako Ikastolen Elkarteari, guraso elkarteei eta Diario de Noticias egunkariari.

Nafarroako Eskola Kontseiluaren nahia eta desioa da txosten hau baliagarria izan dadila gure hezkuntza errealitatea hobeki ezagutu nahi duten pertsona eta instituzioendako, eta ezagutza horrek balio dezala hezkuntza sistema hobetuko duten ideiak eta ekimenak sustatzeko, parte-hartzea eta konpromisoa nagusi izanen diren testuinguru batean.



Aitor Etxarte Berezibar

2.- HEZKUNTZAREN TESTUINGURUA NAFARROAN

Aurreko urteetako txostenetan hainbatetan aipatu da hezkuntza sistemen eta beren testuinguruaren artean dagoen lotura. Testuinguruaren aldagaiek hezkuntzak pertsonengan duen eragina baldintzatzen dute, hezkuntzako azpiegiturei eta politikei eragiten diete eta hezkuntza emaitzetan eragiten dute. Baina, gainera, hausnarketa hau egiteko gero eta garrantzitsuagoak diren faktoreak daude, hala nola, migrazioak eta biztanleriaren mugimenduak, ezagutzen etengabeko garapena eta aplikazioa edota faktore ekonomikoak (merkatuen globalizazioa eta ekonomiaren krisialdi testuingurua barne). Bestetik, Nafarroako hezkuntza sistemari buruzko azken urteetako txostenek Europako esparruaren garrantzia aipatzen zuten, estatu kideek hartutako erabakiei dagokienez.

Zentzu horretan, Europa 2020 estrategiak erantzun politiko bateratu bat sustatu nahi du Batasuneko herrialdeei eragiten dieten erronka komunak aurrean eta, jakina, erantzun horrek hezkuntza politikako erabaki komunei ere eragiten die. Horregatik, azken urteetako txostenetan europar testuinguruko erreferentziak sartu nahi izan dira aztertutako parametro desberdinetarako, eta erkaketa sakonagoa egin da gure Foru Erkidegoaren eta Espainiako, Europar Batasuneko eta ELGAko erreferentzien artean.

Puntu honetan, interesgarria da gomendio berrien bidez eta proposatutako adierazle zehatzen jarraipena eginez sustatzen eta garatzen ari diren Europako Kontseiluaren ET2020 estrategiaren lau helburu nagusiak gogoraraztea, EBko herrialde guztientzako erreferentzia esparru komuna ezartzen dutelako eta, ondorioz, estatuetan zein haiek osatzen dituzten erkidego eta eskualdeetako hezkuntza administrazioetan garatzen diren hezkuntza politika guztiak baldintzatzen dituztelako.

ET2020 estrategiaren helburuak¹

ET2020 marko estrategikoa Kontseiluak finkatutako lau helburutan zertzen da. Honelaxe:

1. Hezigaien etengabeko ikaskuntza eta mugikortasuna gauzatzea.

Lehen helburu estrategiko hau formulatuz, Europar Batasunaren planteamenduak esplizituki onartzen ditu "aldaketa demografikoak eta kualifikazioak aldian-aldian eguneratu eta garatu beharrik planteatzen dituen erronkak, kualifikazio horiek zertzelada ekonomiko eta sozial aldakorretara egokitzeko".

Horregatik, bultzatzen ditu "etengabeko ikaskuntzaren ikusmoldea eta aldatetaren aurrean sentikorragoak eta munduari oro har irekiagoak izan diren hezkuntza- eta prestakuntza-sistemak".

Era berean, hezigaien, irakasleen eta irakasleen prestatzaileen mugikortasunaren alde egiten du, "etengabeko ikaskuntzaren funtsezko osagai eta pertsonen enplegarritasuna eta moldagarritasuna bultzatzeko baliabide nagusi" modura hartuz.

2. Hezkuntzaren eta prestakuntzaren kalitatea eta eraginkortasuna hobetzea.

Kontseiluak aldarrikatzen du "kalitate handiko hezkuntza- eta prestakuntza-sistema eraginkor eta bidezkoak ezinbestekoak direla Europaren arrakastarako eta enplegarritasuna hobetzeko". Horregatik, "erronka nagusia da pertsona guztiek gaitasun giltzarriak eskuratzeko aukera izatea eta, aldi berean, bikaintasuna eta erakarmena garatzea hezkuntzaren eta prestakuntzaren maila guztietan; hala eginez gero, Europako posizio sendoa gordeko du munduan".

3. Ekitatea, kohesio soziala eta herritartasun aktiboa sustatzea.

Kontseiluaren ustez, "hezkuntza- eta prestakuntza-politikek ahalbidetu beharko lukete herritar guztiek, edozein izanik ere haien inguruabar pertsonal, sozial eta ekonomikoak,

¹ Estatuko Eskola Kontseilua. 2011-2012ko Hezkuntza Sistemaren Txostena.

bizitzan zehar berriazko gaitasun profesionalak eta enplegarritasunerako beharrezkoak diren eskumen giltzarriak eskuratu, eguneratu eta garatzea eta, orobat, etengabeko ikaskuntza, herritartasun aktiboa eta kultura arteko elkarriketa sendotu beharko lukete". ET2020 estrategiari esleitutako helburua bada ere, "Europa 2020" gidalerro integratuetako batzuetatik oso hurbil dago (gidalerro horiek Estrategiarako eta behar diren erreformetarako esparru orokorragoa finkatzen dute Europar Batasuneko estatu kide bakoitzean).

4. Sormena eta berrikuntza handitzea, baita ekimenerako adorea ere, hezkuntzaren eta prestakuntzaren maila guztietan.

Helburu hau strategiaren zati modura sartzean, Kontseiluak uste du "norberaren errealizazioa errazteaz gainera, sormena ezinbesteko berrikuntza-iturria dela, hots, garapen ekonomiko iraunkorraren bultzada nagusietako bat balitz bezala onartua dena. Sormena eta berrikuntza ezinbestekoak dira enpresen garapenean eta Europak nazioartean lehiatzeko duen ahalmenean".

Planteamendu estrategiko honen inplikazioek gure herrialdeko hezkuntza praktikak lehenetsuneko jarduketara-gune berri baterantz bideratu ditzakete. Begien bistakoa da ebaluazioaren eta kontu-ematearen, eta kudeaketarekiko eta emaitzekiko gardentasunaren kulturak hezkuntza eragile guztiak bultzatuko dituela sistemaren kudeaketa orokorra gehiago koordinatu eta hobetzera eta, orobat, harekin zerikusia duten instantzia desberdinek (eta horien artean Nafarroako Foru Komunitateak) hezkuntza politikan hartuko dituzten erabakietan eraginen duela.

Jarraian, unibertsitatez kanpoko hezkuntza sistemaren egoerari buruzko aurreko txostenetan egin izan dugun bezala, aintzat hartu da hezkuntza sistemarendako eta hezkuntza sistemaren ebaluaziorako garrantzitsuak diren testuinguru-faktoreen multzo esanguratsua, zehatza ez bada ere.

2.1. Alderdi demografikoak


Biztanleriarekin lotutako adierazleak funtsezkoak dira irakaskuntza planifikatzeko. Adin-taldeen araberrako biztanleriaren banaketa, banaketa geografikoa, osaera eta jatorria, edo datu horiek etorkizunean izanen duten bilakaeraren aurreikuspena hezkuntzaren zerbitzu publikoa planifikatzerakoan kontuan izan beharreko oinarritzko datuak dira eta, beraz, hezkuntza politika diseinatzeko elementu estrategikoak.

2.1.1. Biztanleria eta biztanleriaren osaera

Herrialde edo eskualde baten biztanleria, haren kopuru osoa, lurraldean duen banaketa geografikoa, adin piramidea edo denbora tarte jakin bateko migrazio mugimenduak hezkuntza politikentzako berebiziko garrantzia duten testuinguruaren aldagaiak dira. Izan ere, eragin zuzena dute plangintzan eta erabili beharreko baliabideetan eta, orobat, horien banaketan, hezkuntza sistemaren kalitate eta ekitate mailak mantentzen saiatzeko.

Espainiako biztanleriak azken urteetan izandako bilakaerak kurba bat marrazten du. 2012. urtean iritsi zen mailarik altuenera, 46.818.216 biztanlerekin, eta harrezkero behera egin du, gaur egungo 46.439.864 biztanleetara iritsi arte, beraz, 378.352 pertsonako galera garbia izan da.

1. grafikoa: Espainiako biztanleriaren bilakaera 2006-2015



Iturria: Estatistika Institutu Nazionala

2014. urteko erroldako zenbait alderdi demografiko erakusten dituen 3. taula erreferentzia modura hartzen badugu, eta 2015. urtean zehar Espainian gertatutako bilakaera demografikoarekin erkatzen badugu, zenbait ondorio garrantzitsu atera dezakegu. Lehena hau da: 2015. urtearen hasieran Espainiak osotara 46.600.949 biztanle zituen. 2. taulak erakusten du nola zegoen banatuta 19 autonomia erkidegoetan eta hiri autonomoetan, EINEko udal erroldaren 2015eko berrikuspenaren arabera. Nafarroak, 640.154 biztanlerekin, Espainiako biztanleen %1,4 zuen.

2. taula: Espainiako biztanleriaren alderdi geografiko eta demografikoak, autonomia erkidegoen arabera. 2015. urtea

	Lurraldearen hedadura		Biztanleria			Landa eremuetako biztanleriaren ehunekoa ¹
	Km ²	Ehuneko bertikala (%)	Pertsonak	Ehuneko bertikala (%)	Biztanleriaren dentsitatea	
Andaluzia	87598	17,3	8393252	18,0	95,8	3,3
Aragoi	47721	9,4	1317504	2,8	27,6	16,6
Asturias	10602	2,1	1050917	2,3	99,1	3,7
Balear Uharteak	4992	1,0	1103959	2,4	221,1	1,1
Kanariak	7447	1,5	2098649	4,5	281,8	0,7
Kantabria	5321	1,1	584940	1,3	109,9	8,1
Gaztela eta Leon	94227	18,6	2470741	5,3	26,2	25,8
Gaztela-Mantxa	79462	15,7	2058518	4,4	25,9	15,1
Katalunia	32113	6,3	7504008	16,1	233,7	4,6
Valentziako Erkidegoa	23255	4,6	4977171	10,7	214,0	4,2
Extremadura	41634	8,2	1092066	2,3	26,2	20,2
Galizia	29575	5,8	2731406	5,9	92,4	5,1
Madril	8028	1,6	6435152	13,8	801,6	0,8
Murtzia	11313	2,2	1467049	3,1	129,7	0,4
Nafarroa	10390	2,1	640154	1,4	61,5	13,5
Euskal Autonomia Erkidegoa	7230	1,4	2188895	4,7	302,8	5,0
Errioxa	5045	1,0	316818	0,7	62,8	13,0
Ceuta	19	0,0	84263	0,2	4434,9	0,0
Melilla	13	0,0	85497	0,2	6576,7	0,0
Espainia, osotara	505985	100	46600949	100	92,1	6,0

Iturria: Estatistika Institutu Nazionala

¹ Landa eremuetako biztanleriaren ehunekoa kalkulatzeko 2.000 biztanletik beherako udalerrietako biztanleriaren ehunekoa hartu da.

Aipatu beharreko beste alderdi bat "landatartasun indizea" da: 2.000 biztanletik beherako herrietan bizi direnen ehunekoa. Espainia osoan herri txikietan bizi direnak %6 dira eta Nafarroan, aldiz, %13,5. Nafarroa landatartasun mailarik altuenetakoa duten erkidegoetako bat da.

Guztira, hazkunde begetatiboa (jaiotzak ken heriotzak), atzerriarekiko migrazio saldoa (kanpokoa) eta beste autonomia erkidego batzuekiko migrazio saldoa (barnekoa) kontuan izanik, 2014an biztanleria hazi egin zen Andaluzian, Balear Uharteetan, Kanarietan, Murziako Eskualdean eta Nafarroan, eta baita Ceuta eta Melillako hirietan ere. Nafarroan 2015. urtean, aurreko urtearekin alderatuta, %0,03 hazi da biztanleria eta, nahiz eta kanpoko migrazio saldoa negatiboa den (emigrazioa immigrazioa baino handiagoa da), saldo begetatiboa eta barneko migrazio saldoa positiboak dira.

3. taula: Autonomia erkidegoen bilakaera demografikoa 2014an

Autonomia erkidegoa	Biztanleria 2015eko urtarrilaren 1ean(*)	Biztanleria 2014ko urtarrilaren 1ean(*)	2014ko saldoak(*)		
			Begetatiboa	Kanpoko migrazioa	Barneko migrazioa
Espainia, osotara	46439864	46512199	29974	-102309	0
Andaluzia	8401567	8388875	15606	2465	-5379
Aragoi	1326937	1331301	-2183	-1761	-461
Asturias	1049754	1058975	-6265	-1613	-1342
Balearrak	1124744	115841	2713	2611	3579
Kanariak	2128647	2114845	1996	9488	2318
Kantabria	585411	587682	-1356	-423	-492
Gaztela eta Leon	2478376	2495689	-10031	-740	-6542
Gaztela-Mantxa	2062714	2075197	-175	-4085	-8223
Katalunia	7391133	7416237	10053	-37669	2511
Valentziako Erkidegoa	4939550	4956427	2362	-18849	-390
Extremadura	1091591	1096421	-1667	-759	-2404
Galizia	2734915	2747226	-10429	121	-2003
Madril	6377364	6378297	21818	-37789	15038
Murtzia	1463249	1461803	5926	-4743	263
Nafarroa	636638	636450	668	-1174	695
Euskal Autonomia Erkidegoa	2164311	2167166	-850	-5452	3447
Errioxa	313615	315223	-55	-1215	-338
Ceuta	84726	84674	704	-181	-471
Melilla	84621	83870	1140	-540	152

(*)Behin-behineko datuak

Iturria: Estadística Instituto Nacionala


Biztanleria adin-tarteen eta sexuaren arabera aztertuz gero, Nafarroan eta Espainia osoan banaketa antzekoa da. Nabarmen gutxitzen dira adin-tarte gazteenetako pertsonak erdiko adinetako (20 eta 60 urte artekoak) taldeen aldean. Horrek eragin ekonomiko eta sozial ikaragarria du bai hezkuntza plangintzarako bai eta, oro har, erabaki sozialetarako, datozen 20

urteetan 65 urtetik gorako pertsonen tasa altuena duten munduko herrialdeen artean kokatuko baikaitu biztanleriaren zahartze orokorrak.

4. taula: Biztanleria adin eta sexu taldeka. Espainia eta Nafarroa (2015eko urtarrilaren 1ean)

	Espainia osoa			Espainia osoko ehunekoak		
	Bi sexuak	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Bi sexuak	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Osoara	46.600.949	22.880.878	23.720.071	100,0	49,1	50,9
0-4	2.220.667	1.143.509	1.077.158	4,8	2,5	2,3
5-9	2.481.199	1.275.565	12.205.634	5,3	2,7	2,6
10-14	2.306.104	1.183.216	1.122.888	4,9	2,5	2,4
15-19	2.152.599	1.107.557	1.045.042	4,6	2,4	2,2
20-24	2.353.629	1.198.938	1.154.631	5,1	2,6	2,5
25-29	2.694.531	1.349.999	1.344.532	5,8	2,9	2,9
30-34	3.326.911	1.677.892	1.649.019	7,1	3,6	3,5
35-39	3.988.833	2.037.484	1.951.349	8,6	4,4	4,2
40-44	3.908.892	1.993.680	1.915.212	8,4	4,3	4,1
45-49-	3.698.814	1.862.669	1.836.145	7,9	4,0	3,9
50-54-	3.411.958	1.696.483	1.715.475	7,3	3,6	3,7
55-59-	2.978.677	1.463.072	1.515.605	6,4	3,1	3,3
60-64-	2.505.356	1.214.980	1.290.376	5,4	2,6	2,8
65-69-	2.354.443	116.090	1.238.353	5,1	2,4	2,7
70-74	1.944.498	897.766	1.046.733	4,2	1,9	2,2
75-79	1.547.814	668.845	878.969	3,3	1,4	1,9
80-84	1.423.183	569.337	856.846	3,1	1,2	1,8
≥85	1.302.841	423.737	879.104	2,8	0,9	1,89
Nafarroako Foru Komunitatea						
	Nafarroako Foru Komunitatea			Nafarroako ehunekoak		
	Bi sexuak	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Bi sexuak	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Osoara	640.154	317.727	322.427	100,0	49,6	50,4
0-4	640.154	317.727	322.427	100,0	49,6	50,4
5-9	34.848	17.789	17.059	5,4	2,8	2,7
10-14	33.006	16.896	16.110	5,2	2,6	2,5
15-19	30.693	15.672	15.021	4,8	2,4	2,3
20-24	30.594	15.671	14.923	4,8	2,4	2,3
25-29	34.077	17.124	16.953	5,3	2,7	2,6
30-34	42.992	21.739	21.253	6,7	3,4	3,3
35-39	53.610	27.629	25.981	8,4	4,3	4,1
40-44	53.153	27.604	25.549	8,3	4,3	4,0
45-49-	50.621	25.967	24.654	7,9	4,1	3,9
50-54-	46.748	23.765	22.983	7,3	3,7	3,6
55-59-	40.963	20.641	20.322	6,4	3,2	3,2
60-64-	34.888	17.398	17.490	5,4	2,7	2,7
65-69-	33.006	16.067	16.939	5,2	2,5	2,6
70-74	26.666	12.744	13.922	4,2	2,0	2,2
75-79	21.010	9.353	11.657	3,3	1,5	1,8
80-84	19.931	8.203	11.728	3,1	1,3	1,8
≥85	20.608	6.650	13.958	3,2	1,0	2,2

2. grafikoa: Biztanleria adin eta sexu taldeka. Espainia eta Nafarroa (2015eko urtarrilaren 1ean)



Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua

Bi kasuetan azpimarratzekoak dira 30etik 34 urte bitarteko adin-tartetik beherako adin piramidearen inbertsioa eta, gorago aipatutako arrazoiengatik, egoera horrek hezkuntza eta prestakuntza sistemetara bideratzen dituen eskakizunak.

Halaber, garrantzitsua da azken urtean Espainian izan den adin-tarteen bilakaerari erreparatzea, urtez urteko joerarekin alderatuz. 0-4 urteko tartean izan den beherakada handiak, jaiotza kopurua gutxitu baita, agertoki berri batean kokatzen gaitu: berrikusi egin beharko da etorkizuneko hezkuntza premien plangintza, orain arte joera hedakorra izan duena. EINren datuen arabera, 2010. urtean 6.778 haur jaio ziren Nafarroan, 2013an 2010ean baino 703 gutxiago eta 2014an 2010ean baino 601 gutxiago, hau da, ia %10 gutxiago; Asturiasekin batera (%12,5) beherakada handiena izan duen erkidegoa da.

5. taula: Hazkundera adin-tarteka eta jaiotzak erkidegoka, 2000-2014

Adin-tartekak	Biztanleria urtarrilaren 1ean		Urteko hazkundera ^(*)		Autonomia erkidegoa	2000	2005	2010	2013	2014
	2015 ^(*)	2014	Absolutua	Erlatiboa						
Oso tara	46439864	46612199	-72335	-0,16	Espainia, osotara	397	466371	486575	425715	426303
0-4	2256137	2320612	-64474	-2,78	Andaluzia	80579	91807	92201	81470	81928
5-9	2484228	2476498	5730	0,26	Aragoi	9921	11628	12940	11662	11599
10-14	2307748	2267843	39905	1,76	Asturias	6731	7482	7763	6671	6600
15-19	2152888	2140570	12317	0,58	Balearrak	9502	10925	11967	10532	10653
20-24	2318277	2374617	-56339	-2,37	Kanariak	18961	20127	18305	16859	16356
25-29	2637741	2749308	-111566	-4,06	Kantabria	4341	5267	5575	4831	4564
30-34	3267325	3456208	-188883	-5,47	Gaztela eta Leon	17874	19425	20486	17827	17860
35-39	3948802	4032770	-84167	-2,09	Gaztela-Mantxa	16723	19007	21998	19068	18236
40-44	3888532	3856819	29713	0,77	Katalunia	63807	79766	84368	71591	71523
45-49	3690395	3689856	520	0,01	Valentziako Erkidegoa	40775	50628	51684	44185	44007
50-54	3409097	3333372	75725	2,27	Extremadura	10133	9993	10128	0880	9143
55-59	2978760	2877803	100958	3,51	Galizia	19418	21097	22047	19727	19626
60-64	2508107	2491892	16215	0,65	Madril	56623	69367	73878	65343	66225
65-69	2357956	2327434	30522	1,31	Murtzia	14196	17330	18039	16105	13265
70-74	1949490	1809958	139531	7,11	Nafarroa	5262	6149	6778	6075	6177
75-79	1553295	1652238	-98944	-5,99	Euskal Autonomia Erkidegoa	17316	19698	21170	19116	19370
80-84	1425513	1403260	22253	1,59	Errioxa	2346	3038	3374	2903	2830
85-89	854988	825182	29807	3,61	Ceuta	996	1065	1192	1086	1201
90-94	356755	333079	23676	7,11	Melilla	1103	1012	1359	1509	1624
≥95	94038	88871	5166	5,81	Atzerian bizi direnak	1006	1560	1323	1275	1516


(*)Behin-behineko datuak

(*)Behin-behineko datuak

Iturria: Estatistika Institutu Nazionala

Horrenbestez, Estatistika Institutu Nazionalak 2014-2029rako eginiko datu aurreikuspenaren arabera, Nafarroako biztanleria azken hamarkadan ia %15eko hazkundea izatetik hurrengo hamarkadan %0,2ko murrizketa izatera pasatuko da.

3. grafikoa: Aurreikusitako hazkunde erlatiboa erkidegoka, 2014-2029




Iturria: Estatistika Institutu Nazionala

2.1.2. Eskolatzeko adinean dagoen biztanleria

Eskolatzeko adinean dagoen biztanleria da biztanleria osotik 0 eta 24 urte artean dutenen ehunekoa. Adin-tarte horretan daudenez hezkuntza zerbitzuak jaso ditzaketen pertsonak, hezkuntzarako garrantzi handieneko adierazle demografikoa da. Estatistikaren Institutu Nazionalak egindako Etengabeko Erroldaren Estatistikan ondorioztatzen da 2015. urtean ezaugarri horiek zituzten biztanleen ehunekoa Espainian %24,7 dela. Hiri autonomoz gain, Asturiasko eta Galiziako autonomia erkidegoek dituzte baliorik baxuenak adierazle honetan (%18,4 eta %20,1, hurrenez hurren) eta baliorik altuenak, berriz, Andaluziak eta Murziak (%27,2 eta %28,7, hurrenez hurren). Nafarroan eskolatzeko adinean daudenak %25,3 dira.

4. grafikoa: 0-24 urteko biztanleria erkidegoka (%tan). 2015. urtea




Iturria: Estatistika Institutu Nazionala

15 urteko aldian (2001. urtetik 2015. urtera bitartean) Espainian eskolatzeko garaian dauden biztanleen kopurua %1,8 jaitsi da. 2001. urtean 11.719.863 ziren eta 2015.ean, aldiz, 11.514.198. Hala ere, garai berean, Espainiako populazioak %13,3 egin zuen gora (horrek esan nahi du eskolatzeko adinean daudenen pisu erlatiboa 4 puntu jaitsi dela eta 2001. urtean %28,5 izatetik 2015. urtean %24,7 izatera pasatu dela).

Faktore hau autonomia erkidegoka aztertuz gero, ikusten da, 2001. urtearekin alderaturik, autonomia erkidego gehienetan populazio osoaren hazkunde erlatiboa positiboa dela 2015. urtean –Asturiasen (-%2,3), Gaztela eta Leonen (-%0,4) eta Galizian (-%0,1) izan ezik–, baina eskolatzeko adinean dagoen populazioaren hazkundera desberdina da autonomia erkidegoaren arabera. Hala, Asturiasek (-%22,5) eta Galiziak (-%22,3) izan zuten murrizketa erlatiborik handiena eta, aitzitik, Melillak (+%16,7), Nafarroak (+%10,5) eta Balear Uharteek (+%10,3) izan zuten gorakada erlatiborik handiena biztanle-tarte horretan, 2001etik 2012ra bitartean. Nafarroaren kasuan, aipatutako urte horietan adin guztietako biztanleen kopurua %15,1 igo zen arren, eskolatzeko garaian zeudenak %10,5 igo ziren, arestian esan den moduan.

5. grafikoa: Biztanleria osoa eta 0-24 urtekoa, erkidegoka (%tan). 2015. urtea



Iturria: Estatistika Institutu Nazionala


Nolanahi ere, aipatzekoa da azken hamarkadetan hezkuntzaren eta norbanakoen prestakuntzaren kontzepzio berri bat nagusitu dela, “bizitzan zeharreko prestakuntza” gisa definitzen dena. Ikuspegi berri honek prestakuntzako eredu tradizionala malgutzen du, eta nabarmentzen ditu ezagutzaren gizartearen ezaugarri diren bestelako prestakuntza beharrez garrantzitsu batzuk, hala nola, pertsona guztien etengabeko prestakuntza, bereziki langileena eta desgaitasuna duten pertsonena, profesionalen eguneratze zientifiko eta teknikoa, hezkuntza sistema modu goiztiarrean utzi zutenei bigarren aukera ematea, edo modu informalean zein

laneko esperientziaren bidez eskuraturiko kualifikazio profesionalak egiaztatzea. Zentzu horretan, eskolatzeko edo heziketa jasotzeko adinean dagoen biztanleria nabarmen zabalduko litzateke.

Ildo horretan, helduen prestakuntzara dedikaturiko atalean, txosten honek Lanbide Heziketako ikastetxe integratuetan eta Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren mendeiko ikastetxe edo programetan emandako lanerako prestakuntzaren eta prestakuntza jarraituaren datuak jasoko ditu.

Dagoeneko esan den gisan, hezkuntza sistemen plangintza estrategikorako ezinbestekoa da datozen urteetan eskolatzeko adineko biztanleriak izanen duen bilakaeraren datuen aurreikuspena aztertzea. Datorren hamarkadarako (2013tik 2023ra) "biztanleriaren aurreikuspenak" izeneko eragiketa estatistikoa kontuan izanik, ikusten dugu autonomia erkidego guztietan 0 eta 24 urte arteko adin-tarteko biztanleria murriztuko dela. Ceuta eta Melillako hiri autonomoak dira eskolatzeko adineko biztanleriaren hazkundera aurreikusten den lurralde bakarrak. Espainian, biztanleria hori %8,2 murriztuko da eta Nafarroan, berriz, %6 inguru.

6. grafikoa: 25 urtetik beherako biztanleriaren hazkundera erlatiboaren bilakaera. 2001etik 2023ra



Iturria: Datuak eta zifrak. 2014-2015 ikasturtea. HKM.

2.1.3. Atzerritarrak

Gure herrialdean bizi diren atzerritarrak azken urteetan hezkuntza sisteman eragin handiena eta aipagarriena izan duten faktoreetako bat dira. 2015eko urtarrilaren 1ean Espainian 4.718.864 immigrante bizi ziren, biztanleria osoaren %10,1 inguru. Nafarroan orduan 55.777 atzerritar bizi ziren, hots, biztanleria osoaren %8,7.


6. taula: Biztanleria, nazionalitateka eta sexuka. Behin-behineko erroldako datuak, 2015/01/01ean

		ESPAINIA, OSOTARA			NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA		
		BI SEXUAK	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	BI SEXUAK	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK
OSOTARA	OSOTARA	46.600.949	22.880.878	23.720.071	640.154	317.727	322.427
	ESPAINIARRAK	41.882.085	20.475.280	21.406.805	584.377	288.638	295.739
	ATZERRITARRAK	4.718.864	2.405.598	2.313.266	55.777	29.089	26.688

Iturria: *Estatistika Institutu Nazionala*

Nafarroan atzerritarren ehunekoa zertxobait jaitsi da azken hiru urteetan. Kopuru absolutuetan, azken urtean 59.550 pertsona izatetik 55.777 izatera pasatu dira (2015eko urtarrilaren 1ean). Joera hau Espainia osoan gertatzen denaren antzekoa da.


7. grafikoa: Biztanle atzerritarren bilakaera. Espainia eta Nafarroa



Iturria: *Estatistika Institutu Nazionala*

Biztanleria osoko atzerritarren ehunekoa erakusten du 8. grafikoak, erkidego eta hiri autonomoen arabera banaturik. Bost erkidegotan biztanleriaren %12 baino gehiago atzerritarrak dira, honako haueetan hain zuzen ere (ehuneko handienetik txikienera ematen dira): Balear Uharteak (%17,4), Murtziako Eskualdea (%14,2), Valentziako Erkidegoa (%14,0), Katalunia (%13,7) eta Madrilgo Erkidegoa (%12,6). Nafarroan atzerritarrak %8,7 dira, batez besteko nazionala baino puntu eta erdi gutxiago.


8. grafikoa: Biztanle atzerritarren ehunekoa, erkidego eta hiri autonomoetan



Iturria: Estadística Institutu Nazionalaren datuak. Nafarroako Eskola Kontseiluak prestatua.

Adin-tarteen araberrako banaketari dagokionez, gure herrialdean bizi diren espainiarren eta atzerritarren biztanleria-piramideak erkatuz gero, esan daiteke atzerritarren batez besteko adina anitzez ere txikiagoa dela. 20tik 44 urte bitarteko biztanleak, zehazki, atzerritarren %53,3 dira eta biztanleria autoktonoaren artean, aldiz, %32,8.

9. grafikoak: Espainiako biztanleriaren piramideak. 2015. urtea



Iturria: Nafarroako Estadística Institutua.

Nafarroako etorkinen jatorriari erreparatzen badiogu, asko jaitsi dira herrialde iberoamerikarretatik datozenak, bereziki Ekuadortik etorritakoak –azken urte hauetan estatistikaren gainean egon dira–. Aitzitik, azken urteotan asko igo dira Europako ekialdeko herrialdeetatik (Errumania eta Bulgaria) datozenak, eta Marokotik datozenak ere igo egin dira.

Datu hauek berebiziko garrantzia dute hezkuntzaren plangintzan, etorkin multzo desberdinen ezaugarri sozial, kultural eta linguistikoengatik bereziki.

7. taula: Nafarroan dauden atzerriko hamar nazionalitate nagusien aldaketa. 2000, 2005, 2010 eta 2014. urteetako datuak, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean.

	2000	2005	2010	2014	2000-14 %	2005-14 %	2010-14 %
Maroko	1.300	5.121	9.694	10.419	701,5	103,5	7,0
Errumania	193	1.969	6.599	7.530	3801,6	282,4	12,4
Bulgaria	82	2.768	6.492	6.570	7912,2	137,4	1,2
Portugal	1.597	2.588	5.912	4.150	159,9	60,4	-42,5
Ekuador	643	14.011	9.494	3.979	518,8	-71,6	-138,6
Aljeria	640	2.774	3.141	2.598	305,9	-6,3	-20,9
Kolonia	530	4.825	4.384	2.247	324,0	-53,4	-95,1
Bolivia	8	1.049	3.227	2.007	24987,5	91,3	-60,8
Brasil	229	883	1.876	1.515	561,6	71,6	-23,8
Txina	300	501	871	1.378	359,3	175,0	36,8
Herrialde horien batura	5.522	36.489	51.690	42.393	667,7	16,2	-21,9
Gainerako herrialdeak	3.666	13.393	19.679	17.157	368,0	28,1	-14,7
Atzerritarren ehunekoak, osotara	9.188	49.882	71.369	59.550	548,1	19,4	-19,8

Iturria: EIN. Nafarroako Immigrazioaren Behatoki Iraunkorra

2.2. Alderdi sozioekonomikoak

Herrialde bateko hezkuntza testuingurua zehazteko funtsezkoak dira alderdi sozioekonomikoak. Ez dira garrantzitsuak soilik hezkuntzako gastuari aurre egiteko aukeretan eragina dutelako; aitzitik, gizartearen eta lan munduaren beharrak aldakorrek direnez, jarduerak horien arabera zehazten eta lehenesten direlako dira hain garrantzitsuak.

2.2.1. Barne produktu gordina

Barne produktu gordina (BPG) adierazle makroekonomiko nagusietako bat da. Herrialde edo eskualde bateko azken ondasunen eta zerbitzuen ekoizpenaren moneta balioa tarte batez (normalean urtebete) neurtzen du. BPGa gizarte baten ongizate materialaren neurri gisa baliatzen da.

Nafarroan, 2014-2015 ikasturteari dagokion aldian, BPGaren bilakaerak portaera positiboa izan du, hazkunde apalarekin, eskura ditugun erregistroen arabera (%0,8koa 2014ko 4. hiru hilekoan eta %0,6koa 2015eko 1. hiru hilekoan), eta %2,3ko batez bestekoa metatu da urtebetean (2014ko 2. hiru hilekotik 2015eko 1. hiru hilerara bitarteko aldian). Datu horiek guztiak Espainian erregistratutakoen antzekoak dira (Espainian %2,4ko batez bestekoa urtebetean).

8. taula: BPG Nafarroan eta BPG Espainian

BPG NAFARROAN	ESKURAGARRI DAGOEN AZKEN DATUAREN DATA	NEURRI UNITATEA / Aldakuntza	AURREKO HIRUHILEKOETAKO (HH) DATUAK				UNEKO HIRUHILEKOA (HH) 2015-2HH
			2014-2HH	2014-3HH	2014-4HH	2015-1HH	
Hiru hileko BPG (aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza)	2015-2HH	% erreala	0,5	0,5	0,8	0,6	1,0
Urtez urteko BPG (aurreko urteko hiruhileko berarekiko aldakuntza)	2015-2HH	% erreala	1,6	1,8	2,1	2,3	2,8
Urteko batez besteko BPG (urtez urteko azken 4 aldakuntzen batez bestekoa)	2015-2HH	% erreala	0,1	0,9	1,5	2,0	2,3
BPG ESPAINIAN							
Hiru hileko BPG (aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza)	2015-2HH	% erreala	0,5	0,5	0,7	0,9	1,0
Urtez urteko BPG (aurreko urteko hiruhileko berarekiko aldakuntza)	2015-2HH	% erreala	1,2	1,6	2,0	2,7	3,1
Urteko batez besteko BPG (urtez urteko azken 4 aldakuntzen batez bestekoa)	2015-2HH	% erreala	0,2	0,9	1,4	1,9	2,4

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua

10. grafikoa: BPG Nafarroan eta BPG Espainian



Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua

2.2.2. Familia errenta


Biztanleko eskuragarri dagoen familia errenta honela definitzen da: herritar bakoitzak, batez beste, zergak ordaindu ondoren, bizitzeko, aurrezteko eta inbertitzeko jasotzen dituen urteko diru-sarrerak. Familien testuinguru ekonomikoa irudikatzeko adierazlerik esanguratsuenetakoa da. Enplegutik eta bestelako iturrietatik etorritako diru-sarrerak hartzen ditu kontuan. Ez du bat egiten biztanleko BPGarekin, izan ere, azken horrek ez baititu aintzat hartzen subsidioak edo laguntzak, eta aldiz, kontabilizatu egiten baititu enpresetan gelditzen diren irabaziak, ez direnak familiendako errenta eskuragarria. Hala ere, eta soilik konparazioak egin ahal izateko, grafiko batean bildu ditugu eskuragarri ditugun azken 6 urteetako datuen bilakaera eta Nafarroako, Espainiako eta EBko biztanleko BPGaren balioak.

2013. urtean, Nafarroan familien per capita errenta 27.795 eurokoa izan zen eta, batez beste, Espainian 22.519 eurokoa eta Europar Batasunean (28 herrialde) 26.600 eurokoa.

9. taula eta grafikoa: Per capita BPG

	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Navarra	29.917	28.676	28.752	28.700	27.817	27.795
España	23.858	22.819	23.214	23.005	22.562	22.519
UE-28	25.900	24.300	25.300	26.000	26.500	26.600
% Navarra/España	125,4%	125,7%	123,9%	124,8%	123,3%	123,4%
% Navarra/UE-28	115,5%	118,0%	113,6%	110,4%	105,0%	104,5%


Fuente: INE, Eurostat.



Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua

Adierazle honen bilakaerari dagokionez, bai Nafarroan bai Espainian, ia etengabeko beherakada izan da adierazitako aldian zehar (2008-2013). Dena den, txosten honi dagokion aldian (2014-2015) pixka bat hazi dela ikusi da.

11. grafikoa: BPGaren bilakaera 2013tik 2015era



Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua

Indize orokorraren bilakaera positibo hau jardueraren adierazle nagusietan ere ikusi da, esaterako, etxeetako gastuan, barne eskarian edo esportazioetan.

10. taula: Jardueraren adierazleak. Urtez urteko aldakuntza (2014-2015)

ESKARIA	2014		2015		ESKAINNTZA	2014		2015	
	3. HH	4. HH	1. HH	2. HH		3. HH	4. HH	1. HH	2. HH
Etxeetako gastua	0,29	0,41	0,51	0,58	Nekazaritza	0,01	0,02	0,02	0,02
Administrazio publikoetako gastua	0,10	0,13	0,17	0,19	Industria	0,08	0,11	0,14	0,16
Inbertsioa	0,08	0,11	0,15	0,17	Eraikuntza	0,03	0,04	0,05	0,05
Eraikuntza	0,05	0,07	0,09	0,10	Zerbitzuak	0,34	0,47	0,61	0,67
Ekipo ondasunak	0,03	0,05	0,06	0,07	Zergak	0,04	0,06	0,08	0,09
Barne eskaria	0,49	0,68	0,87	0,98					
Esportazioak	0,65	0,23	0,29	0,32					
Inportazioak	0,15	0,21	0,26	0,30					


Iturria: Nafarroako Eskola Kontseiluak prestatua.

2.2.3. Jarduera sektoreak

Agerikoa da herrialde bateko egitura ekonomikoa garrantzitsua dela hezkuntza eskaintzaren plangintzarako, testuinguruko elementu gisa, besteak beste, gizarte sistemari eta ekoizpen sistemari loturik dagoenez, hezkuntza eskaintza baldintzatzen duelako.


Estatistika Institutu Nazionaleko datuen arabera, zerbitzuen sektorea da askogatik enplegu gehien sortzen duena, baina sektore horren balioak pixka bat apalagoak dira Nafarroan (%67) Espainia osoan baino (%77).

12. grafikoa: Enpleguaren banaketa Nafarroan eta Espainian. 2014ko 4. hiruhilekoko datuak



Iturria: Nafarroako Eskola Kontseiluak prestatua.

13. grafikoa: Nafarroan Gizarte Segurantzara afiliatutako langileak, sektoreka. 2011-2015



Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua

2.2.4. Lan merkatua: biztanleria aktiboa, landunak eta langabetuak

Biztanleriaren lan jarduera hezkuntzan argien eragiten duten testuinguruko elementuetako bat da eta, era berean, hezkuntzak lan jardueran ere eragiten du. Biztanleria aktiboaren, landunen

eta langabetuen gaineko datuek, hots, lan merkatua zertzen dutenek, beste erkidego batzuk baino egoera hobean kokatzen dute Nafarroa, nahiz eta aski urrun dagoen krisi ekonomikoaren aurretik zeuden enplegu eta kalitate mailetatik. Kopuru absolututan, langabetuen kopurua jaitsi egin zen 2014tik 2015era, 3. hiruilekoko datuak hartuta 4.302 langabetu gutxiago zeudelarik. Horrek esan nahi du gure erkidegoak %13,57ko langabezia tasa duela; Espainiak, berriz, %21,18koa du.


11. taula: Landunen eta langabetuen datuak, autonomia erkidegoka, 2015eko 3. hiruilekoan.

	Landunak	Langabetuak	Jarduera tasa	Langabezia tasa
GUZTIRA	18048,0	4850,80	59,5	21,18
Andaluzia	2758,10	1281,90	58,69	31,73
Aragoi	551,1	97	58,9	14,97
Asturias	389	79,5	51,42	16,97
Balearrak	555,3	89,5	58,69	13,88
Kanariak	793,5	317,2	61,76	28,56
Kantabria	233,6	45,1	56,49	16,19
Gaztela eta Leon	959,2	190,8	54,87	16,59
Gaztela-Mantxa	745,8	245	58,66	24,72
Katalunia	3110,90	659,6	62,21	17,49
Valentziako Erkidegoa	1882,90	542,6	59,13	22,37
Extremadura	362	144,4	55,56	28,51
Galizia	1039,00	222,8	53,53	17,66
Madril	2806,40	545,3	63,93	16,27
Murtzia	535,4	164,4	59,18	23,49
Nafarroa	267,2	41,9	59,29	13,57
Euskal Autonomia Erkidegoa	875,7	139,7	56,03	13,76
Errioxa	139,9	20,7	58,78	13,59
Ceuta	27,2	12	60,32	30,59
Melilla	24,6	11,3	57,68	31,4

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua


Nafarroako egoera Estatuko gainerakoarekin konparatuz gero, antzeko egoera ikusten da bilakaerari, ukitutako sektoreei eta enplegu tasetan gizonen eta emakumen artean dauden diferentzietan dagokienez.

14. grafikoa: Espainian erregistratutako langabezia, adinaren eta sexuaren arabera, 2015eko 2. seihiilekoan



Iturria: Nafarroako Eskola Kontseiluak prestatua.

15. grafikoa: Espainian erregistratutako langabezia, sexuaren eta adin-tarteen arabera. 2015eko iraileko datuak



Iturria: Nafarroako Enplegu Zerbitzua

2.3. Gizarte eta hezkuntza alderdiak


Gizartearen hezkuntza maila eta hezkuntzarekiko eta prestakuntzarekiko itxaropenak, bistanenez, hezkuntza sistemaren prozesuetan, politiketan eta emaitzetan erabat eragiten duten testuinguruaren gizarte eta hezkuntza aldagaiak dira. Gainera, aurreko hezkuntza politiken emaitza pilatua dira.

2.3.1. Biztanleria helduaren ikasketa maila

Biztanleria helduak erdietsitako ikasketa mailak adierazten digu errealitate sozialean hezkuntza sistemak izandako eragin geroratua. Adierazle honetarako bi kategoria bereizten dira, bata orokorra, 25-64 adin-tartekoa, lan egiteko adinean diren helduena, eta bestea partziala, 25-34 adin-tartekoa, berriki produkzio-sisteman sartu direnena edo sartzear daudenena.

Datuak 1997ko Hezkuntzarako Nazioarteko Sailkapen Normalizatuaren arabera (CINE 97) eskaini dira.

16. grafikoa: Biztanleria helduaren prestakuntza maila, erkidegoka. 2014ko ehunekoak.



Iturria: Estatistika Institutu Nazionala

HKMren azken datuen arabera, Nafarroa goi mailako ikasketak erdietsi dituztenen ehuneko handiena duen erkidegoa da, bai 25-64 urteko tartean (%42,7 Nafarroan, %34,7 batez beste Espainian), bai 25-34 urteko tartean (%48,4 Nafarroan, %41,5 batez beste Espainian). Orobat, ikasketa maila baxuenei (CINE 1 eta 2) dagokionez, Foru Erkidegoa Espainiako batez bestekotik behera dago, Nafarroan 25-64 urtekoen %34,7 eta 25-34 urtekoen %24,2 baitago maila horietan, eta Espainian %43,4 eta %34,4 hurrenez hurren.

12. taula: Helduen prestakuntza maila, erkidegoka, adin-tarteen eta sexuaren arabera, 2014. urtean.

	Hombres			Mujeres		
	Inferior a 2ª etapa E. Secundaria	2ª etapa E. Secundaria	E. Superior	Inferior a 2ª etapa E. Secundaria	2ª etapa E. Secundaria	E. Superior
	2014	2014	2014	2014	2014	2014
25 - 34 años						
Andalucía	49,9	23,4	26,6	37,2	24,4	38,4
Aragón	31,8	31,2	37,0	24,5	25,4	50,1
Asturias (Principado de)	33,2	21,6	45,2	22,1	19,5	58,3
Balears (Illes)	50,4	27,2	22,4	31,4	23,8	44,8
Canarias	46,2	24,7	29,1	33,4	26,1	40,5
Cantabria	31,8	30,7	37,5	20,2	28,0	51,8
Castilla y León	39,1	27,1	33,9	25,3	23,5	51,2
Castilla-La Mancha	51,8	24,2	24,0	32,9	27,5	39,7
Cataluña	39,0	21,8	39,2	30,1	17,6	52,3
Comunitat Valenciana	40,9	24,3	34,8	27,2	27,8	45,0
Extremadura	46,5	19,6	33,9	35,3	19,5	45,1
Galicia	40,2	25,1	34,6	25,9	21,9	52,2
Madrid (Comunidad de)	24,3	27,3	48,4	19,6	25,4	55,0
Murcia (Región de)	49,2	23,6	27,2	38,6	25,3	36,1
Navarra (Comunidad Foral de)	29,4	30,9	39,6	18,9	23,8	57,3
Pais Vasco	23,5	23,3	53,2	16,1	21,9	62,0
Rioja (La)	33,1	26,5	40,4	27,2	27,7	45,1
Ceuta y Melilla	57,1	19,4	23,4	47,9	26,8	25,4

Notas:

- 1) Los resultados están basados en medias anuales de datos trimestrales.
- 2) Los datos deben ser tomados con precaución, pues los derivados de tamaños muestrales pequeños están afectados por fuertes errores de muestreo.
- 3) Las personas que además de la nacionalidad española tienen otra nacionalidad (extranjera), se incluyen en nacionalidad española.

Iturria: Estatistika Institutu Nazionala.


Gizonezkoen eta emakumezkoen artean prestakuntza mailak nola dauden banatuta begiratzuz gero, agerian gelditzen da gizonezkoen hezkuntza atzerapena, kronikoa bilakatzeko arriskua duen arazoa. 25etik 34 urte bitarteko heldu gazte horien sexuari erreparatzuz gero, egiazta daiteke 2014. urtean Estatu osoan emakumezkoen prestakuntza maila gizonezkoena baino nabarmen handiago dela.

Diferentzia hori autonomia erkidego guztietan ikusten da, batzuetan besteetan baino nabarmenago, bai goi mailako hezkuntzaren kategorian, bai Bigarren Hezkuntzako 2. etaparen azpiko prestakuntza dutenen artean.

Nafarroan joera hori nabarmenagoa da. Emakumezkoen %57,3k du goi mailako hezkuntza eta gizonezkoen %39,6k baino ez, eta tarte hori finkatu ez ezik gero eta gehiago ari da handitzen.

Bestetik, emakumezkoen %18,9k ditu Bigarren Hezkuntzako 2. etaparen azpiko ikasketak; aldiz, askoz gehiago dira ikasketa maila hori duten gizonezkoak, %29,4.

17. grafikoa: Gutxienez DBH bukatu duen biztanleriaren ehunekoak, adin-tarteka (25-34 eta 25-64), erkidego eta hiri autonomoen arabera. 2014. urtea.



Iturria: Nafarroako Eskola Kontseiluak prestatua.

Belaunaldi batetik bestera heziketa-maila handiagoetara jo den baloratzeko, Derrigorrezkoaren ondoko Bigarren Hezkuntzako maila (CINE 3-6) gutxienez osatu duten helduen proportzioa konparatzen da bi adin-tarte hauetan: 25-34 urtekoen taldea 25-64 urtekoekin konparatzea. Irudian ageri da konparazio horren 2014ko emaitza, erkidegoen eta hiri autonomoen arabera antolatua. Konparazio horretan autonomia erkidegoak ordenaturik ageri dira, Derrigorrezkoaren ondoko Bigarren Hezkuntza gutxienez osatu duten 25etik 34 urte bitarteko heldu gazteen ehunekoaren arabera.

Erkidego guztietan ikusten da talderik gazteenak prestakuntza maila handiagoak eskuratzen ari direla beraz, osotara, hobekuntza handia izan dela esan daiteke. 25etik 34 urte bitarteko biztanleen %64,8k gutxienez erdi edo goi mailako ikasketak dituzte eta, aitzitik, 25etik 64 urte bitartekoen %55,4k. Inguruabar honek adierazten du batez besteko prestakuntza maila hobetu egin dela belaunaldi batetik bestera.

Nafarroako balioak adierazitakoen antzekoak dira. Aztertutako adin-tarteetan %64,2tik %72,2ra igaro da. Batez besteko nazionalarekin dagoen aldea txikiagoa da 25etik 64 urte bitarteko biztanleen prestakuntza maila Estatuko handiena delako, Madrilekoarekin eta Euskadikoarekin batera. Hala ere, azpimarratzekoa da biztanleriaren hezkuntza maila oro har hobetu bada ere, 25 eta 34 urte bitartekoen %27,8 gizartean eta lan merkatuan sartzan dela haietan guztiz integratuta izateko behar diren gutxienezko hezkuntza gaitasunak izan gabe.


13. taula: Bigarren Hezkuntzako ikasketak dituen 25-64 urteko biztanleria, adin-tarteka eta autonomia erkidegoka. 2014. urtea

	25-64 urte	25-34 urte
Andaluzia	47,0	55,6
Aragoi	59,7	70,6
Asturias	59,9	71,5
Balear Uharteak	53,8	60,6
Kanariak	49,8	60,4
Kantabria	63,2	74,8
Gaztela eta Leon	57,2	67,9
Gaztela-Mantxa	46,8	57,7
Katalunia	56,0	63,5
Valentziako Erkidegoa	52,6	64,0
Extremadura	40,0	55,3
Galizia	51,2	66,3
Madril	70,5	78,2
Murtzia	47,9	51,0
Nafarroa	64,2	72,2
Euskal Autonomia Erkidegoa	68,1	82,5
Errioxa	58,6	68,9
Ceuta eta Melilla	46,6	38,7

Iturria: Biztanleria aktiboaren inkesta. Estatistika Institutu Nazionala.


Hurrengo grafikoan Europako 25etik 34 urte bitarteko heldu gazteen eta 25etik 64 urte bitarteko helduen 2014ko banaketa ageri da, ehunekoetan emana eta ikasketa mailaren arabera. Europar Batasuneko herrialdeak goi mailako bigarren hezkuntzako mailak (CINE 3-6; hau da, CINE 3-4 eta CINE 5-6 kategoriei dagozkien bi ehunekoen batura) gutxienez lortu dituzten heldu gazteen ehunekoaren arabera ordenatu dira, handitik txikirako hurrenkeran. Hurrenkera horren arabera, Espainia %55,7rekin EBko herrialde gehienak baino askoz beherago dago.

18. grafikoa: Bigarren Hezkuntza bukatu duen 25-64 urteko biztanleria Europar Batasunean. 2014. urtea.



Iturria: Estatistika Institutu Nazionalaren datuak. Nafarroako Eskola Kontseiluak prestatua.

19. grafikoa: 25-34 urteko biztanleriaren banaketa ehunekotan, prestakuntza mailen arabera, EBko herrialdeetan. 2014. urtea.



Iturria: Eurostaten datuak. Nafarroako Eskola Kontseiluak prestatua.

14. taula: 25-34 urteko biztanleriaren banaketa ehunekotan, prestakuntza mailen arabera, EBko herrialdeetan. 2014. urtea.

2014. urtea	Bigarren Hezkuntza baino beheragoko maila	Bigarren Hezkuntza	Goi mailako ikasketak
	25-34 urte	25-34 urte	25-34 urte
Alemania	13,1	60,0	26,9
Austria	10,8	64,2	25,0
Belgika	18,3	39,0	42,7
Danimarka	18,1	40,6	41,2
Eslovenia	5,5	57,1	37,4
Espainia	34,9	24,0	41,1
Estonia	12,1	44,4	43,5
Finlandia	9,2	50,8	40,0
Frantzia	14,6	41,4	44,1
Grezia	15,8	47,0	37,2
Hungaria	12,7	56,4	30,9
Irlanda	13,2	35,7	51,1
Italia	27,3	49,9	22,7
Luxenburgo	14,0	37,9	48,1
Herbehereak	15,2	42,0	42,9
Polonia	5,8	52,4	41,8
Portugal	39,2	31,5	29,3
Txekiar Errepublika	5,6	65,2	29,2
Eslovakiar Errepublika	5,9	64,4	29,7
Erresuma Batua	13,9	37,8	48,3
Suedia	8,6	46,6	44,8

Iturria: Estatistika Institutu Nazionala.

Espainiako eta EBko herrialdeetako heziketa mailekin egindako konparazioan azpimarragarriak dira ezarritako talde bakoitzaren balioak. EBko batez bestekoak erdiko mailak (CINE 3 eta 4) lortu dituztenek nagusiki osatutako taldea erakusten du, buruz beherako V baten forma duena. Espainian, berriz, banaketak V itxura du, ehunekorik txikiena duen taldea tartekoa delako. EBn ia-ia %50 da eta Espainian doi-doi %25. Datu hau eragozpen handia da heziketa mailak gure herrialdeko inguru sozioekonomikoaren beharretara egokitzeko, Lanbide Heziketan tituludunik ez izateak prestakuntza enplegu-mailetara egokitzea baldintzatzen duelako eta, orobat, pertsona askok beren prestakuntza mailari dagozkion lanak baino maila apalagokoak egiten dituztelako.

2.3.2. Hezkuntzaren garrantzia esparru sozial eta politikoan

Atal honetan Nafarroako Parlamentuak eta Nafarroako Arartekoak, hots, Nafarroako bitzitza politiko eta sozialean oso garrantzitsuak diren bi erakundek, hezkuntzari dagokionez izandako jarduera jasotzen da; eta aipatzen dira erkidego mailako prentsa idatzian, Diario de Noticias egunkarian, orri gehien hartu dituzten eta intentsitate edo maiztasun handiagoz azaldu diren hezkuntzako gaiak. Horrekin hezkuntza bera zein testuinguru sozial eta politikotan ematen den azaldu nahi da.

2.3.2.1. Parlamentuaren jarduera

Atal honetan azaltzen da Nafarroako Parlamentuan unibertsitatetik kanpoko hezkuntzaren inguruan izandako jarduera. Ematen diren datuak Nafarroako Parlamentuko X. Legegintzaldiko jardueren memorian, 2014ko maiatzaren 22tik 2015eko maiatzaren 22ra bitarteko aldiari, jasotako enbren arteko laburpen bat dira.

Parlamentuko osoko bilkuran aztertutako gaiak

Foru legeak

Nafarroako Parlamentuko osoko bilkurak 39 foru lege onetsi zituen eta horietatik bat hezkuntza gaiei buruzkoa da:

- 16/2014 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, udal titulartasunekoak diren 0-3 urteko haur hezkuntzako zentronen finantzaketa arautzen duena.

Ebazpenak

Onetsitako 115 ebazpenetatik 23k hezkuntzako gaiekin zerikusia dute:

- Nafarroako Gobernuak premiatzen duena Bertsolaritza irakaskuntzan sustatzeko programa mantentzera. Hezkuntza batzordean onetsia. 2014ko maiatzaren 27an.
- Gosariak ekimenaren lana aitortzen duena eta Nafarroako Gobernuak premiatzen duena jantokirako bekak ematera. Osoko bilkuran onetsia. 2014ko ekainaren 27an.
- Nafarroako Gobernuak premiatzen duena haur eskoletarako eta berdintasun programa eta zerbitzuetarako behar adinako finantzaketa berma dezan. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko batzordean onetsia. 2014ko irailaren 9an.
- Nafarroako Gobernuak premiatzen duena ikastetxe publikoetako zuzendarien hautaketari buruzko azterlan bat egitera. Osoko bilkuran onetsia. 2014ko urriaren 9an.
- Nafarroako Gobernuak premiatzen duena hiru hilabeteko epean azterlan bat egin dezan Deikaztelun ikastetxe berri bat eraiki beharra dagoenez jakiteko. Osoko bilkuran onetsia. 2014ko urriaren 10ean.
- Nafarroako Gobernuak premiatzen duena genero indarkeriaren aurkako eskola kanpaina bat prestatzera. Osoko bilkuran onetsia. 2014ko urriaren 10ean.
- Nafarroako Gobernuak premiatzen duena une honetan duen hezkuntza politika zuzentzera. Osoko bilkuran onetsia. 2014ko azaroaren 6an.
- Nafarroako Gobernuak premiatzen duena Berdintasunean hezteko eta genero indarkeriari aurrea hartzeko plana atzera bota dezan. Osasun batzordean onetsia. 2014ko azaroaren 18an.
- Nafarroako Gobernuak premiatzen duena kontratupeko bitarteko irakasle doktorearen figura arautzera. Osoko bilkuran onetsia. 2014ko abenduaren 11n.
- Nafarroako Gobernuak premiatzen duena ikastetxe publiko eta itunduetan ikasleak onartzeko araudia aldatzera. Osoko bilkuran onetsia. 2014ko abenduaren 11n.
- Nafarroako Gobernuak premiatzen duena ikastetxeetan haurren pobrezia prebenitzeko eta kontrolatzeko sistema bat ezartzera. Hezkuntza batzordean onetsia. 2015eko urtarrilaren 21ean.

- Nafarroako Gobernua premiatzen duena Castejonen DBHko bigarren zikloa ezartzera, ikastetxe berri bat eraikitzea eta oraingo ikastetxearen instalazioak hobetzera. Hezkuntza batzordean onetsia. 2015eko urtarrilaren 21ean.
- Nafarroako Gobernua premiatzen duena 2015eko urte hasieran lan eskaintza publiko bat deitzera unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako lanpostuak betetzeko. Osoko bilkuran onetsia. 2015eko urtarrilaren 27an.
- Nafarroako Gobernua premiatzen duena Tuterako Kontserbatorioaren egituraren zehaztapenean, antolamenduan, funtzionamenduan eta finantzaketan inplikatzea. Hezkuntza batzordean onetsia. 2015eko otsailaren 3an.
- Nafarroako Gobernua premiatzen duena Elizondon Lanbide Heziketako ikastetxe integratu berri bat eraikitzea. Osoko bilkuran onetsia. 2015eko otsailaren 19an.
- Nafarroako Gobernua premiatzen duena Aiegin Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe berri bat eraikitzea. Osoko bilkuran onetsia. 2015eko otsailaren 19an.
- Nafarroako Gobernua premiatzen duena Haur Hezkuntzako lehen ziklorako hezkuntza eskaintza publikoa egitera. Osoko bilkuran onetsia. 2015eko otsailaren 19an.
- Nafarroako Gobernua premiatzen duena hiru hilabeteko epean Frantzisko Deuna IPko jolastokia estaltzeko proiektua egitera. Hezkuntza batzordean onetsia. 2015eko martxoaren 5ean.
- Nafarroako Gobernua premiatzen duena hiru hilabeteko epean Tafallako Ikastetxe Publikoko gabeziei buruzko azterlan bat egitera. Hezkuntza batzordean onetsia. 2015eko martxoaren 5ean.
- Espainiako Gobernua premiatzen duena unibertsitateko ikasketen antolamendu berria gelditzera. Osoko bilkuran onetsia. 2015eko martxoaren 12an.
- Gobernua premiatzen duena Hegoalde Ikastolako jolastokia urgentziaz estaltzera eta gimnasioko sarrerako arrapala eraikitzea. Hezkuntza batzordean onetsia. 2015eko martxoaren 18an.
- Nafarroako Gobernua premiatzen duena landa eskolen berriazko izaera onartzera. Osoko bilkuran onetsia. 2015eko martxoaren 26an.
- Nafarroako Gobernua premiatzen duena Haur Hezkuntzaren gaur egungo araudia gehiago ez luzatzera. Osoko bilkuran onetsia. 2015eko martxoaren 26an.

Erakunde mailako adierazpenak

Onetsitako 75 adierazpen instituzionaletatik ondoko hauek hezkuntzari buruzkoak dira:

- Esaten duena DBHko 3.eko ikasleek Frantziarekin trukea egiteko programan aukera berdintasuna bermatzea dagokiola Hezkuntza Departamentuari. Mahaian eta eledunen batzarrean onetsia, 2014ko ekainaren 2an.
- Testuliburuetan Nafarroaren errealitate instituzionala errespetatu dadin babesten duena. Mahaian eta eledunen batzarrean onetsia, 2014ko urriaren 6an.
- Parlamentuaren konpromisoa erakusten duena landa eskolekiko. Mahaian eta eledunen batzarrean onetsia, 2014ko azaroaren 10ean.

- Ikastetxeetan ikasleen artean ETaren terrorismoaren biktimen lekukotza hedatu dadin Espainiako Gobernuak sustatutako neurriaren alde agertzen dena. Mahaian eta eledunen batzarrean onetsia, 2015eko urtarrilaren 12an.

15. taula: Nafarroako Parlamentuko osoko bilkuran aztertutako hezkuntza gaien kopurua

Ekimen mota	Kopurua
Foru legea	1
Onetsitako ebazpenak	23
Erakunde mailako adierazpenak	4

Hezkuntza batzordeak landutako gaiak

Agerraldiak

Ondoko hauen agerraldiak izan dira, bertan adierazitakoek eskaturik:

Maiatzaren 27an:

- Eledunen batzarrak eskaturik, Euskarabideko zuzendari kudeatzailea, Nafarroako Gobernuak hizkuntza politikan dituen lehentasunei buruzko argibideak eman ditzan.

Maiatzaren 28an:

- Eledunen batzarrak eskaturik, Hezkuntzako kontseilaria, hurrengo ikasturterako (2014-2015) Haur eta Lehen Hezkuntzako aurrematrikulazioari buruzko argibideak eman ditzan.

- Eledunen batzarrak eskaturik, Hezkuntzako kontseilaria, Cintruenigoko Otero de Navascués HLHIPn eskola orduetan Guardia Zibilaren eta Gobernuaren ordezkariaren bertaratzearekin eta parte-hartzearekin egindako jardueri buruzko argibideak eman ditzan.

Maiatzaren 30ean:

- Eledunen batzarrak eskaturik, Hezkuntzako kontseilaria, Frantziarekin trukea egiteko programarako behin-behineko eskatzaileen zerrenda hautatzeko prozesuan erabili diren prozedurari eta irizpideei buruzko argibideak eman ditzan.

- Eledunen batzarrak eskaturik, Hezkuntzako kontseilaria, landa eskolen egoerari buruzko argibideak eman ditzan.

Ekainaren 17an:

- Eledunen batzarrak eskaturik, Hezkuntzako kontseilaria, Nafarroan Lanbide Heziketak gaur egun duen egoeraren diagnostikoa eskaini dezan eta 2014-2015 ikasturterako helburu eta erronkak azal ditzan.

- Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeak eskaturik, Hezkuntzako kontseilaria, Haur eta Lehen Hezkuntzako zerrendetan ingeleseko espezialitaterako kontratatutako langileak sartzeari buruzko argibideak eman ditzan.

Irailaren 17an:

- Eledunen batzarrak eskaturik, Hezkuntzako kontseilaria, bere departamentuko dimisioek Ingelesez Ikasteko Programaren (IIP) ezarpenean izanen dituzten ondorioei buruzko argibideak eman ditzan.

Urriaren 2an:

- Eledunen batzarrak eskaturik, Hezkuntzako kontseilaria, ikasturte honetan (2013-2014) Foru Komunitateko ikastetxeetan pedikulosi infestazioak prebenitzeko, kontrolatzeko eta deuseztatzeko egindako jardueri buruzko argibideak eman ditzan.

Urriaren 21ean:

- Berak eskaturik, Hezkuntzako kontseilaria, 2012-2013 ikasturtean IIP programako ikasleei egindako ebaluazioei buruzko argibideak emateko.

Urriaren 29an:

- Berak eskaturik, NUPeko Gizarte Kontseiluko burua, Unibertsitatearen eta bere inguru kultural, profesional, ekonomiko eta sozialaren arteko harremanak sustatzeko urteko jarduera planari buruzko argibideak emateko.

Azaroaren 11n:

- Eledunen batzarrak eskaturik, Hezkuntzako kontseilaria, Nafarroako ikastetxeetan liburu elektronikoa ezartzeko ekimena zertan den azal dezan.

Azaroaren 18an:

- Berak eskaturik, Hezkuntzako kontseilaria, Nafarroako hezkuntzan berdintasunean hezteko eta genero indarkeriari aurre egiteko planari buruzko argibideak eman ditzan.

Abenduaren 17an:

- Eledunen batzarrak eskaturik, Hezkuntzako kontseilaria, Sarrigurengo IPko eraikin berria eraikitze lanak gauzatzeko Hezkuntza Departamentuak eta Eguesibarko Udalak izenpetutako akordioari buruzko argibideak eman ditzan.

Otsailaren 3an:

- Berak eskaturik, Hezkuntzako kontseilaria, Nafarroako 2011-2016 Estatistika Planeko 442003 eragiketara estatistikoari, hots, Nafarroako Mapa Soziolinguistikoari, buruzko argibideak emateko.

Otsailaren 11n:

- Eledunen batzarrak eskaturik, Nafarroako Eskola Kontseiluko burua, Nafarroako hezkuntza sistemaren gaineko 2013-2014 ikasturteko txostena azal dezan.

Martxoaren 17an:

-Eledunen batzarrak eskaturik, Hezkuntzako kontseilaria, a1, a2, b1 eta b2 mailetakoa euskararen ezagutza egiaztatze ziurtagiri ofizialen sorreraren gaineko araudia prestatzeko parte-hartze prozesuari buruzko argibideak eman ditzan.

- Eledunen batzarrak eskaturik, Hezkuntzako kontseilaria, Nafarroan Batxilergoko eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzetako curriculumak ezartzen duten dekretuak prestatzeko parte-hartze prozesuari buruzko argibideak eman ditzan.

Martxoaren 25ean:

- Eledunen batzarrak eskaturik, Hezkuntzako kontseilaria, 2015-2016 ikasturterako Sarrigurengo IPko matrikulazio kanpainako datuei buruzko argibideak eman ditzan eta hurrengo ikasturtearen hasierara begira Departamentuak ikastetxe horretarako duen planteamendua azal dezan.

Lansaiok

Hainbat lansaiok egin dira, zehazki, gai hauek jorratzeko:

Ekainaren 11n:

- Irakaskuntza publikoko Unibertsitatez kanpoko Langile Irakasleen Batzordearen ordezkariak sindikal batek hezkuntzako azpiegitura publikoen egoerari eta beharrei buruzko analisian egin dezan.

Ekainaren 18an:

- Herrikoa eta Sortzen federazioetako ordezkariak hezkuntzako azpiegitura batzuetan ikusi dituzten arazoak azal ditzaten.

Ekainaren 20an:

- Pablo Sarasate Musika Kontserbatorio Profesionaleko eta Goi Mailako Musika Kontserbatorioko zuzendaritzaren ordezkariak batek bi ikastetxeetako irakasle plantillan osakerari buruzko arazoak eta konponbideak azal ditzan.

- 0-3 Plataformaren ordezkariak batek 72/2012 Foru Dekretua aldatu beharri buruzko beren iritzia azal dezan.

Irailaren 17an:

- Hezkuntzako Langile Batzordearen ordezkariak Ingelesez Ikasteko Programaren (IIP) ezarpenaren egungo egoerari buruzko balorazio bat egin dezaten eta beren proposamenak azal ditzaten.

- Hezkuntzako Langile Batzordean ordezkariak duten sindikatu batzuen (ANPE, CSIF, UGT eta ELA) ordezkariak Ingelesez Ikasteko Programaren ezarpenaren egungo egoerari buruzko ebaluazio bat egin dezaten eta beren proposamenak azal ditzaten.

Irailaren 30ean:

- Beriainen eta Noainen bizi diren Iruñeko Hegoalde Ikastolan eskolatutako ikasleen guraso taldearen ordezkariak beren egoera azal dezaten, eskola garraioari dagokionez.

Urriaren 28an:

- Eskola Kontseiluaren ordezkariak Nafarroako Hezkuntza genero indarkeriari aurre hartzeko 2014-2017ko planaren zirriborroari buruz egindako alegazioak azal ditzaten.

Abenduaren 5ean:

- Biurdana BHIko zuzendaritza taldeak eta/edo irakasleek azal dezaten zein den ikastetxearen egungo egoera toki arazoei dagokionez eta zuzendaritzak zer konponbide aurkeztu dizkion Hezkuntza Departamentuari.

Abenduaren 10ean:

- Castejongo DBHiko guraso elkartearen eta irakasleen ordezkariak batek ikastetxearen, ikasleen eta irakasleen beharrak azal ditzan, ikastetxe horretako instalazioen eta hezkuntza baliabideen gabeziei dagokienez.

- Beriaingo Ikastetxe Publikoaren eta Udalaren ordezkariak ikastetxean behar diren obrak eta ikastetxeko mantentze-lanak azal ditzaten.

Abenduaren 18an:

- Iruñeko Frantzisko Deuna Ikastetxe Publikoko eskola kontseiluaren ordezkariak ikastetxearen egoeraren berri eman dezaten.

Urtarrilaren 28an:

- Aiegiko Udalaren ordezkariak batek beren iritzia azal dezan, ikastetxe publiko bat eraikitzeko beharrari buruz.

- AEKren eta IKAREN euskaltegi sarearen ordezkariak helduen euskalduntzea eta alfabetatzea zein egoeratan den azal dezaten eta sufritzen ari diren egoera ekonomikoaren berri eman dezaten.

Martxoaren 18an:

- LAB, STEE-EILAS, CCOO eta AFAPNA sindikatuak ordezkariak informazioa eman dezaten Nafarroan Batxilergoko eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen curriculumak ezartzen duten dekretuen prestakuntzari buruz.

- APS, ANPE, ELA, CSIF eta UGT sindikatuak ordezkariak informazioa eman dezaten Nafarroan Batxilergoko eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen curriculumak ezartzen duten dekretuen prestakuntzari buruz.

Martxoaren 24an:

- Abartzuzako Ikastetxe Publikoa bultzatzeko sorturiko Hezkuntza Batzordearen ordezkariak argibideak eman ditzaten D ereduak eskolatzea eskain dadin Hezkuntza Departamentuari egindako eskaerari buruz.

Mozioak

Hainbat mozio onetsi dira eta, zehazki, horien bidez:

Maiatzaren 27an:

- Nafarroako Parlamentuak aitortzen du Nafarroako Bertsotale Elkarteak eginiko lana eta Nafarroako Gobernua premiatzen du Bertsolaritza irakaskuntzan sustatzeko programa mantentzera (Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa).

Ekainaren 20an:

- Nafarroako Gobernua premiatzen da 2014-2015 ikasturterako plantillak prestatzerakoan Pitillasko Ikastetxe Publikoan hiru talderen beharra aurrekustera, zerbitzuaren kalitatea eta ikasleendako arreta egokia bermatzeko (Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa).

Azaroaren 18an:

- Nafarroako Gobernua premiatzen da Berdintasunean hezteko eta genero indarkeriari aurrea hartzeko plana atzera bota dezan (Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa).

- Ponentzia bat sortuko da Nafarroako Gobernuari adostutako proposamen bat aurkezteko, Nafarroako hezkuntza sisteman baterako hezkuntza edo berdintasunean heztea sustatzeari eta indarkeria matxistari aurrea hartzeari buruz (Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa).

Urtarrilaren 21ean:

- Nafarroako Gobernua premiatzen da Castejonen Bigarren Hezkuntzako 2. zikloko irakaskuntzak ezartzera, DBHI berri bat eraikitzea eta oraingo ikastetxearen instalazioak hobetzera (Marisa de Simón Caballero andreak aurkezturiko mozioa).

- Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako ikastetxeetan haurren pobrezia prebenitzeko eta kontrolatzeko sistema bat ezartzera (Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa).

Otsailaren 3an:

- Nafarroako Gobernua premiatzen da Tuterako Kontserbatorioaren egiturari, antolamenduari, funtzionamenduari eta finantzaketari aktiboki inplikatzera eta dagokion erantzukizuna hartzera (Nafarroako Sozialistak, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Ezkerreko Alderdiak parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa).

Martxoaren 5ean:

- Nafarroako Gobernua premiatzen da Tafallako Marqués de la Defensa Ikastetxe Publikoaren gabeziei buruzko azterlan bat egitera eta gabezia horiek konpontzera (Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa).

- Nafarroako Gobernua premiatzen da Iruñeko Frantzisko Deuna Ikastetxe Publikoko jolastokiaren estalkirako erabilera anitzeko proiektu berritzaile bat prestatzera (Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa).

Martxoaren 18an:

- Nafarroako Gobernua premiatzen da Hegoalde Ikastolako jolastokian estalki bat eta gimnasioko sarreran arrapala bat eraikitzea (Nafarroako Sozialistak, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Ezkerreko Alderdiak parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa).

Galderak

Gai hauei buruzko galderak egin dira:

Ekainaren 17an:

- Udal eta kontzejuei diru-laguntzak emateko deialdia, Haur Hezkuntzako 2. zikloko eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoak hobetu eta birmoldatzeko obra proiektuak gauzatu ahal ditzaten (Nekane Pérez Irazabal andreak aurkezturiko galdera).

- 8-13/MOC-00177 espediente zenbakidun mozioa, Hezkuntza batzordeak 2013ko urriaren 31n onetsia, bete dadin Hezkuntza Departamentuak eman dituen urratsak (Nekane Pérez Irazabal andreak aurkezturiko galdera).

- 8-13/MOC-00176 espediente zenbakidun mozioa, Hezkuntza batzordeak 2013ko urriaren 31n onetsia, bete dadin Hezkuntza Departamentuak eman dituen urratsak (Nekane Pérez Irazabal andreak aurkezturiko galdera).

- 8-13/MOC-00175 espediente zenbakidun mozioa, Hezkuntza batzordeak 2013ko azaroaren 14an onetsia, bete dadin Hezkuntza Departamentuak eman dituen urratsak (Nekane Pérez Irazabal andreak aurkezturiko galdera).

Urriaren 21ean:

- Parlamentuak Beriaingo Ikastetxe Publikoari buruz onetsitako mozioa (Nekane Pérez Irazabal andreak aurkezturiko galdera).

- Haur Hezkuntzako lehenengo zikloko ikastetxeen titularrak diren toki entitateei dagozkien 2013-2014 ikasturteko zenbatekoen ordainketa (Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkezturiko galdera).

Azaroaren 11n:

- Murietako eskolaren itxiera (Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera).

Martxoaren 25ean:

- Beriaingo Ikastetxe Publikoko premiei buruz udal teknikariek prestatutako memoria (Nekane Pérez Irazabal andreak aurkezturiko galdera).

Bisitaldiak

Hezkuntza batzordeak bisitaldi hauek egin ditu:

Ekainaren 19an:

- Deikazteluko Virgen de Nieves Ikastetxe Publikoa.

Irailaren 9an:

- Pitillasko Ikastetxe Publikoa.

Urriaren 7an:

- Víctor Pradera Paderborn Ikastetxe Publikoa.

Azaroaren 21ean:

- Buztintxuri Ikastetxe Publikoa.

Urtarrilaren 8an:

- FP Elizondo LH BHI Lanbide Heziketako Ikastetxea.

Urtarrilaren 9an:

- Tafallako Marqués de la Real Defensa Ikastetxe Publikoa.

Urtarrilaren 23an:

- Iruñeko Frantzisko Deuna Ikastetxe Publikoa.

Otsailaren 24an:

- Iruñeko Hegoalde Ikastola.

Martxoaren 4an:

- Iruñeko Salesianos Ikastetxe Integratu Politeknikoa.

Martxoaren 10ean:

- Abartzuzako Ikastetxe Publikoa.

Martxoaren 17an:

- Iruñeko Andrés Muñoz Garde Hezkuntza Bereziko Ikastetxe Publikoa.

Martxoaren 24an:

- Izaba, aste zuriko eskola kanpaina ezagutzeko.

Martxoaren 25ean:

- Larraintzarko Ikastetxe Publikoa (Ultzama).

16. taula: Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza batzordeak landutako gaien kopurua

Ekimen mota	Kopurua
Foru legerako egitasmoak	0
Agerraldiak	19
Lansaiok	17
Mozioak	10
Galderak	8
Bisitaldiak	13

Nafarroako Parlamentuaren oroitidazki osoa, txosten honetan aipatzen dena, webgune honetan dago:

<http://www.parlamentodenavarra.es/inicio/publicaciones/memorias-de-actividad.aspx>

2.3.2.2. Nafarroako Arartekoaren jarduerak hezkuntza arloan

Aurkeztutako kexak

Aldi honetan, 2014-2015 ikasturteari dagozkionez, hezkuntza arloko 91 kexa jaso ditu Nafarroako Arartekoak.

Honako hauek dira kexak eragin dituzten gertakari nagusiak:

- **Hezkuntzaren plangintzarekin lotutakoak:**
 - Sarrigurengo Ikastetxe Publikoko leku falta (2 kexa).
 - Tuterako Anunciata ikastetxean lerro berri bat irekitzeko eskaera, 27 ikasle gelditu baitira itxaron zerrendan (3 kexa).
 - Buztintxuri Ikastetxean D ereduko PAI programan lerro berri bat irekitzeko eskaera, 13 ikasle leku gabe gelditu baitira.
 - Nafarroako eskola mapa aldatzeko eskaera, Lekunberri-Larraungo Ibarberri Ikastetxe Publikoaren erreferentziako ikastetxea berriz ere Leitzako Amazabal BHI izan dadin.

- Murietako Ikastetxe Publikoa berehalakoan eta alde zuzenetik jakinarazi gabe itxi dute, ikasturtea hasi ondoren.
- Leringo Udalak herri horretako ikastetxe publikoko jolastokiaren zati bat itxi du, orain arte erabiltzaile eta herritar askok erabiltzen zuten arren.
- Desadostasuna Sarrigurengo Ikastetxe Publikoko instalazio berrietan ikasleak banatzeko moduarekin.
- Desadostasuna Nafarroako ikastetxe publikoetan Euskara irakasgaiko ikasleen ratioa Erliño irakasgairako baino handiagoa izatearekin.
- **Haur Hezkuntzako lehenengo zikloarekin (0-3 urte) lotutakoak:**
 - Hezkuntza Departamentuak Haur Hezkuntzako lehenengo zikloko ikastetxeetarako ezarritako baldintzei buruzko desadostasuna, baldintza horiek emandako zerbitzuaren kalitatea eta doakotasuna bermatzen ez dituztelakoan.
 - Garesko Udalak tarifa desberdinak eskatzen ditu, herri horretan bizi direnendako eta han bizi ez direnendako, haur eskolako zerbitzua emateagatik.
 - Oltza Zendeako Udalak tarifa desberdinak eskatzen ditu, udalherri horretan bizi direnendako eta han bizi ez direnendako, Ororbiako Haur Eskolako zerbitzua emateagatik.
 - Berriozarko Haur Eskolako tarifa igo da, aurreko ikasturtean ordaintzen zenaren aldean, Berriobeitin bizi direnendako, herri horietako udalek ez dutelako izenpetu gai honetarako lankidetzaren hitzarmen bat.
 - Estella-Lizarrako Udalaren aldetik jasotako tratua, haur eskolarekin egindako zor bat dela-eta. Zorra ordaintzeko errekerimenduak igorri dituzte kexa-egilearen semearen izenean.
 - Desadostasuna, kexa-egilearen enpresak Alloko haur eskolaren kudeaketa kontratatuzko prozedura batean aurkeztu zuen proiektu teknikoa prozeduran parte hartu zuen beste lizitatzzaile bati eman ziolako Alloko Udalak.
 - Azkoengo Udalak uko egin dio herriko haur eskolaren kudeaketa esleitzeko prozeduran parte hartu duten gainerako lizitatzzaileen proposamen ekonomikoak eta aktak entregatzeari.
 - Uharteko Udalak, haur eskolaren kudeaketa beste enpresa bati esleitu zaiola-eta, ez die informazioa eman eskola horretara doazen haurren gurasoei.
 - Alloko Udalaren balizko arau-haustea, 0-3 urteko haur eskola baten kudeaketarako kontratua hamabost eguneko epean formalizatzeari dagokionez. Gainera, ez du erantzun gai horren gaineko informazio eskaera bat.
 - Desadostasuna Azkoengo Haur Hezkuntzako lehenengo zikloko ikastetxe kudeaketaren esleipenarekin, izan ere, gainerako lizitatzzaileen eskaintzak ez zituzketen onartu beharko 2013-2014 ikasturterako prezioa aipatzen zutelako eta, beraz, kexa-egilearen eskaintza baino ez zen onargarria, hartan 2014-2015 ikasturterako prezioa aipatzen zelako.
 - Burlatako Udalari dagozkion Erripagañako bizilagun batzuek beren alaba Mendillorriko Haur Eskolara eraman nahi dute, etxetik hurbilen dutelako. Ez daude konforme eman dieten puntuazioarekin ezta alabak Burlatako Udalaren eskolan izena eman ezean ordaindu beharko duten tarifa gehigarriarekin ere.
 - Desadostasuna Nafarroako Haur Hezkuntzako ikastetxeetan ikasleak onartzeko baremoarekin, sarbidean desberdintasunak eragiten dituelako, errenta kalkulaterakoan ez delako kontuan hartzen zenbat kide dituen familia unitateak.
 - Kexa-egilearen semea ezin da Beteluko haur eskolara joan, bi urte jarraian eskatu duten arren, ikaspostu gutxiegi omen daudelako.
 - 109 guraso ez daude konforme, batetik, Uharteko 0-3 urteko haur eskolaren zerbitzua Haurtxoa enpresari esleitu zaiolako eta, bestetik, Udalak ez dituela matrikulak itzuliko esan duelako.
- **Haur Hezkuntzako bigarren zikloko ikastetxeetan ikasleak onartzearekin lotutakoak:**
 - Kexa-egileen seme-alabak ez dituzte onartu ikastetxe batean eta Hezkuntza Departamentuak ez du kontrolatzen ikasleak onartzeko irizpideak ongi aplikatzen ote diren (2 kexa).
 - Kexa-egilearen alaba ez dute onartu hautatutako hiru ikastetxeetako batean ere.

- Alaba eskolatu nahi zuten ikastetxean ikaspostu kopurua handitzeari buruzko informazio faltagatik, ez zuten eskatu ikastetxe horretan sartzea.
 - Kexa-egilearen semea ez dute onartu eskatu zituzten hiru ikastetxeetako batean ere, Tuteran.
 - Kexa-egilearen alabak ezin izanen du Hendaian ikasten jarraitu, Frantziako organo administratiboen erabaki baten ondorioz.
 - Kexa-egilearen semea ez dute onartu eskatutako D ereduko ikastetxeetan eta, ondorioz, ezin izanen du euskaraz ikasi.
- **Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleendako arretarekin lotutakoak:**
 - Bigarren Hezkuntza curriculum egokitzapenekin egin dituzten ikasleek zailtasunak dituzte Lanbide Heziketako erdi mailako zikloetan sartzeko, kexa-egilearen ustez ebaluazio irizpide desberdinak dituztelako.
 - Ikastetxe batek ez dio informaziorik eman ikasle baten amari alabaren diagnostiko psikopedagogikoaren aldaketaz eta alaba curriculum bereziko unitate batean sartzeaz.
 - Hezkuntza Departamentuak ez du hezitzailerik esleitu kexa-egilearen alabari lagun diezaion. Ikasle horrek %52ko desgaitasun maila onartua du eta Sarrigurengo Ikastetxe Publikoan ikasten du.
 - Ezezkoa eman diote kexa-egilearen eskaerari. Uharteko Virgen Blanca IPn ikasten duen bere alabari berriazko sostengua handitzeko (zaintzailea eta logopeda) eskatu zuen.
 - Ez dituzte erantzun kexa-egilearen eskaerak. Mendillorriko HLHIPn ikasten duen bere semeak jasotzen dituen logopedaren banakako saioak gehitzeko eskatu zuen.
 - Hezkuntza Departamentuak eta NHBBZk ez diote behar den erantzuna ematen kexa-egilearen hamabi urteko semearen berriazko egoerari, zeina haren gaitasun handien ondoriozkoa baita.
 - Hezkuntza Departamentuak zaintzailea ukatu du kexa-egilearen hiru urteko semearen ikastetxerako. Haurrak 1 motako diabetes mellitusa du.
 - Guraso batzuk ez daude ados beren semea hezkuntza bereziko ikastetxe batean eskolatzeko proposamenarekin.
- **Batxilergoarekin eta Lanbide Heziketarekin lotutakoak:**
 - Iruñeko Iturrama BHIIn ez dituzte Pirinioetako ibarretako ikasleak onartu. Ikasle horiek, beren bizitokia dela-eta, diskriminazioa pairatzen dute onarpen prozeduran.
 - Corellako Arte Eskolan goi mailako prestakuntza ziklo bat kendu da, eskolen hasieraren bezperan, kaltetutako familiei alde aurretik jakinarazi gabe (2 kexa).
 - D ereduan ikasten duten ikasleak itxaron zerrendan paratu dituzte, Frantziarekiko truke programa batean onartutako ikasleen behin-behineko zerrendan, frantziar ikasleak ez daitezen joan soilik D eredia ematen duten ikastetxeetara.
 - Eskatu da Nafarroan erroldatutako pertsonen lehentasuna izan dezaten "on line" modalitateko prestakuntza zikloetako postuetan sartzeko.
 - Kexa-egilearen alaba, Irunberrin bizi dena, ez dute onartu Iruñeko Iturrama BHIIn.
 - Kexa-egilearen adingabeko semearen klase berean, Oinarrizko Lanbide Heziketako ziklo batean, ikasle adinez nagusiak onartu dituzte.
 - Ikasle batek goi mailako prestakuntza ziklo batean ikaspostua lortzeko eskubidea galdu du, Hezkuntza Departamentuaren jarraibideak segitzeagatik prestakuntza ikastaro batean matrikulatu delako.
 - Batxilergoko Filosofia irakasgaiko azterketa arrunt bat eskola orduetatik kanpo egin dute.
 - Iruñeko Iturrama institutu publikoko ikasle adingabeen irudi eskubideak eta ohorerako eskubideak urratu dituzte, Estatu mailako telebista kate pribatu batek grabatu eta hedatu baititu, ikastetxearen edo gurasoen baimenik gabe.
 - Hezkuntza Departamentuak ez ditu erantzun hainbat eskaera, Bigarren Hezkuntzako instituetan "Ekonomiako departamentu didaktikoa" sortzeko galdetzen dutenak.
 - Hezkuntza Departamentuak 2015-2016 ikasturterako truke programaren deialditik bazter utzi ditu DBHko 3.eko D ereduko ikasleak.
 - Kexa-egilea ez dago konforme bere semeak ez duelako ikasposturik lortu Batxilergo artistikoan, Plaza de la Cruz BHIIn.

- **Eskola garraioarekin eta jantokiarekin lotutakoak:**
 - Kexa-egileak bizi diren herrietan, Noainen eta Beriainen, ez dago D eredurik eta, halere, ukatu egin diete eskola garraioko zerbitzurako finantzaketa beren etxetik hurbilen dagoen hizkuntza eredu hori ematen duen ikastetxe publikora joateko.
 - Antsoingo eta Iruñeko udalek eta Hezkuntza Departamentuak ez dute kexa-egileen jantoki gastuak ordaintzeko diru-laguntzarik ematen, ikasle horiek ez daudelako dagokien ikastetxe publikoan eskolatuta eta ez delako egiaztatu egoera sozioekonomiko ahulean daudenik.
 - Etxauriko goiko aldean bizi diren eta, PAI programa ematen duen ikastetxe hurbilena denez, Zizur Nagusiko Catalina de Foix Ikastetxe Publikora doazen ikasleek ez dute ez eskola garraiorako finantzaketarik ez jantokirako laguntzarik (2 kexa).
 - Desadostasuna Cardenal Ilundáin IPn, Haur Hezkuntzako ikasle berrientzat, eskola-jantokiko zerbitzuko postuak banatzeko egin den zozketarekin.
 - Eskola Departamentuak ez du onartzen kexa-egileak eskola jantokiko tarifak ordaintzeko jasotzen zuen prestazioa.

- **Unibertsitateko ikasketekin lotutakoak:**
 - Kexa-egileak ikasketekin jarraitzea eskatu du eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak ezezkoa eman dio, nahiz eta soilik bost irakasgai gelditzen zaizkion bukatzeko eta egiten ari den ikasketa plana desagertzeko bidean den.
 - Kexa-egileak bidegabetzat jotzen dituen tasak ordaindu behar dizkio Nafarroako Unibertsitate Publikoari Gizarte Laneko Graduaren titulua eskuratzeko. Unibertsitateak zenbateko jakin batzuk eskatzen dizkio dagoeneko eginak eta bere garaian ordainduak zituen kredituen "onarpenagatik" (bi kexa).
 - Nafarroako Unibertsitate Publikoak ez du onartu ordutegi murriztuko ikasle gisa matrikulatzeko eskaera bat.
 - Zailtasunak daude Madrilen dagoen Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalako (UHUN) egoitza zentralarekin telefonoz harremanetan jartzeko.
 - Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalak (UHUN) luzatutako agiri bat ez da baliozkoa idazkaritzaren sinadurak ez omen datozelako bat.
 - Salamancako Unibertsitateak uko egin dio kexa-egileari master baten matrikulagatik ordaindutako zenbatekoak itzultzeari. Hari ezinezkoa zaio klaseetara joatea, ustekabeko eritasun baten ondorioz.
 - Espainian ezinezkoa da San Petersburgoko Unibertsitatean lortutako Turismoko lizentziadun titulua homologatzea, homologazio hori lortzeko kontabilitate irakasgaia gainditu behar delako, eta Espainiako unibertsitate batzuek irakasgai horretan matrikulatzea galarazten dutelako, dagoeneko ez delako irakasten Turismoko diploma.
 - Kexa-egileak Nafarroako Turismo Eskolan egin zituen ikasketen espedientea galdu da eta, aurrerago eskola hori desagertu zenez, ezinezkoa da ikasketa horiek egiaztatzeko ziurtagiri bat lortzea.
 - Hezkuntza Departamentuak ez du erantzun kexa-egilearen eskaera. Batxilergoan ohorezko matrikula lortzeagatik unibertsitateko tasetan dagokion deskontua jaso nahi du, goi mailako ikasketak atzerrian egin arren.
 - Kexa-egilea ez dago ados Nafarroako Unibertsitate Publikoak 2008ko ekainaren 23ko Gobernu Kontseiluaren erabakiko xedapen iragankorraz egiten duen interpretazioarekin, 2013-2014 ikasturteko sari bereziak gainerako ikasle promozioen baldintza berdinekin lortzeko aukera galarazten diolako.
 - Kexa-egilearen ustez neurrigabeko tasak eskatzen dizkio Nafarroako Unibertsitate Publikoak Gizarte Laneko unibertsitate ikasketetatik Giza Zientzien adarreko beste ikasketa batzuetara pasatzeko.
 - Ez dute onartu unibertsitatez aldatzeko kexa-egilearen eskaera. Nafarroako Unibertsitate Publikoan ikasi nahi zuen Zuzenbideko gradua.

- **Bekekin lotutakoak:**
 - Hezkuntza Departamentuak eta Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak bekek ukatu dizkiote kexa-egilearen alabari, derrigorrezko ikasketen ondoko unibertsitatez kanpoko

ikasketetarako, ez dagoelako matrikulatuta hurrengo kurtsoan eta ondare-mugak gainditzen dituelako.

- Hezkuntza Departamentuak beka ukatu dio kexa-egilearen semeari, unibertsitateko ikasketetarako, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak beka ukatu diolako. Ministerioaren ukoaren arrazoia "Zerga Agentzien identifikazio ekonomiko-eza" izan da.

- Hezkuntza Departamentuak egoitzarako beka ukatu dio kexa-egilearen semeari, zeina barneko ikasle moduan bizi den Isterria Hezkuntza Bereziko Ikastetxean, astelehenetik ostiralera.

- Kexa-egilea ez dago ados Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak deitu dituen "Nafarroa-Nazioarteko Praktiketarako Bekak. Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetan praktikak egitea prestakuntzan" izeneko beken oinarri arautzaileetako eskakizun jakin batzuekin, deialditik kanpo uzten dituelako, adina dela-eta, aurreko deialdian parte hartzerik izan ez zuten ikasleak, oraindik prestatzen jarraitzen dutenak eta unibertsitateko ikasketekin loturarik ez duten lanetan dihardutenak.

- Azken urteetan Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak ez ditu deitu "Nafarroako Master Bekak", atzerriko ikastetxe bikainetan master ikasketak finantzatzeko helburua zutenak, onuradunek gero Nafarroara ekar ditzaten han eskuratutako prestakuntza eta talentua.

- Hezkuntza Ministerioak unibertsitate ikasketetarako beka bat eman dio kexa-egilearen alabari eta beldur dira Nafarroako Gobernuak ez ote dion kenduko Nafarroako Zerga Ogasunarekin zor bat duelako ordaintzeko.

- Kexa-egilea ez dago ados Zerga Agentziak igorri dion errekararekin, beka baten itzulketagatik, zorra ez diotelako helbide zuzenean jakinarazi.

- Kexa-egilea ez dago ados Hezkuntza Departamentuak 2013-2014 ikasturterako egoitza beka bat ukatu ziolako, egoitza gastuak agiriarekin ez justifikatzeagatik.

- Hezkuntza Departamentuak ezezkoa eman dio beka baten itzulketagatik ordaindu beharreko zorra zatitzeko eskaera bati.

- Kexa-egilea ez dago konforme Hezkuntza Departamentuak ikasketetarako laguntza ukatu diolako, horrekin batera ez duelako eskatu Hezkuntza Ministerioraren laguntza. Errenta eskuragarriaren kontzeptua ez da berdina bietarako.

- Kexa-egilea ez dago ados bere alabak 2011. urtean jaso zuen garraiorako beka bat itzultzeko eskatu diolako Hezkuntza Departamentuak.

- Kexa-egilea ez dago ados Hezkuntza Departamentuak ikasketetarako beka ukatu diola-eta, ez duelako behar bezala eskatu Hezkuntza Ministerioaren edo Eusko Jaurlaritzaren beka.

● **Hizkuntzeekin lotutakoak:**

- Postu bat esleitzerakoan izandako irregulartasunak, ingeleseko erdi mailako udako ikastaro baterako, Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialean.

- Kexa-egilearen alaba Lisboan ikasten ari da, Erasmus programarekin, eta Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialak uko egin dio ingeleseko deialdi bereziko ahozko proba, C1 mailakoa, egiteko eguna aldatzeari.

- Desadostasuna Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialean egindako C1 mailako ingeleseko azterketa baten zuzenketarekin.

- Desadostasuna Hizkuntza Eskola Ofizialeko matrikularen prezioan izandako igoerarekin, hogeita bost euro sartu dituztelako "Konpentsazio kuotagatik" eta liburutegia erabiltzeagatik.

● **Musikarekin lotutakoak:**

- Ez da izan deialdirik, gutxienez duela hamar urte, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan irakaslanean sartzeko eta, ikasleen iritziz, jasotzen duten irakaskuntzaren kalitateari eragiten dio.

- Garesko Udalak musika eskolan tarifa desberdinak eskatzen dizkie herrian bizi direnei eta kanpokoei.

- Berriobetitiko Udalak hango herritarrek musika eskolara joan ahal zitezen Berriozarko Udalarari ematen zion diru-laguntza kendu du.

- Berriozarren urtebetez erroldatuta egotea eskatzen dute musika eskolan sartu ahal izateko.

- Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioak uko egin dio kexa-egileari matrikularen dirua itzultzeari, beste kontserbatorio batean onartu zutelako matrikula deuseztatu eta gero.
- **Eskoletako bizikidetzarekin lotutakoak:**
 - Kexa-egilea ez dago ados Mendabiako institutuan, bizikidetzarako jarrera kaltegarria egotzirik, bere semeari jarri zioten zigorrarekin eta eskolatik bost egunez kaleratzearekin.
 - Balizko eskola-jazarpena, kexa-egilearen zortzi urteko semearen aurka.
 - Irakasle batek ikasle bati emandako tratu desegokia, negarrez utzi baitzuen.
 - Kexa-egilea ez dago ados ikastetxe itundu batean ikasten duen bost urteko bere semeari, ustez egin dituen baina frogatu ez diren gertakari batzuegatik, ezarri dizkioten zigorrarekin: behin betiko aldatu dute beste ikasgela batera eta bertan behera utzi dute jantoki zerbitzua erabiltzeko eskubidea.
 - Guraso batzuk ez daude ados Alesbesko El Castellar Ikastetxe Publikoan ikasten duen hamaika urteko beren alabari irekitako zigor espedientearekin. Gurasoen ustean, egoera eragin duten gertakariak ez dira zigor hori mereziko lukeen arau-haustea.
 - Kexa-egilea ez dago ados Iruñeko San Juan de la Cadena IPn ikasten duen beren semeari ezarritako zigorrarekin, uste baitu neurrigabea dela eta indarreko araudian ezarritako legezko prozedurari jarraitu gabe jarri diotela.
 - Kexa-egilea ez dago ados Nafarroako Eskola Politeknikoko Lanbide Heziketako ikasle bati ikastetxeko zuzendariarekin izandako ustezko eztabaida bategatik ezarri zaion zigorrarekin, bidegabekoa dela uste duelako eta datorren urtean unibertsitateko ikasketetan matrikulatzea galaraziko diolako.
 - Kexa-egilea ez dago ados Iruñeko ikastetxe itundu batean ikasten duen bere semeari ezarritako zigorrarekin: ez diote utziko ikasturte bukerako bidaiara joaten.

17. taula: Arartekoak jasotako kexak. 2014-2015 ikasturtea

Kexaren gaia	Kopurua
Hezkuntzaren plangintza	11
Haur Hezkuntzako lehen zikloa (0-3 urte)	14
Ikasleen onarpena Haur Hezkuntzako bigarren zikloan	7
Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzako arreta	8
Batxilergoa eta Lanbide Heziketa	13
Unibertsitateko ikasketak	13
Bekak	12
Hizkuntzak	4
Musika	5
Eskoletako bizikidetzak	8
Eskola garraioa eta jantokia	5

Herritarren proposamenak zerbitzu publikoak hobetzeko

-Hizkuntza Eskola Ofizialeko tarifetan salbuespen bat ezar dadila desgaitasuna duten pertsonentzat.

Gomendioak, iradokizunak eta betebeharrak legalen gogorarazpenak

Ondoko gai hauekin loturik:

- Sarrigurengo Ikastetxe Publikoko leku falta.
- Ikastetxe batean ikaspostu gabe gelditutako ikasleak (Haur Hezkuntzako bigarren zikloko lehenengo ikasmilan, D ereduko PAI programan) eta ikastetxean beste lerro bat irekitzeko eskaera.
- Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren mendeko ikastetxeetako DBHko 3.eko ikasleek 2014-2015 ikasturtean Frantziarekin trukeak egiteko programaren deialdiko behin-behineko zerrenda.
- Corellako Arte Eskolan, Dekorazio Lanen Proiektuetako eta Zuzendaritzako goi mailako prestakuntza zikloa kendu dute.
- Murietako Ikastetxe Publikoa itxi dute, ikasturte barruan.
- Haur eskolen (0-3 urte) baldintzak.
- Ablitasko haur eskola bateko kudeaketa zerbitzua kontratatzeko espedientea.
- Berriozarko haur eskolan ordaindu beharreko zenbatekoaren igoera.
- Oltza Zendeako haur eskolan aplikatzen den tarifa.
- Kexa-egileak bere gain hartu beharreko gainkostua, ezarritako tarifekiko, bere haurrak Iruñeko haur eskola batean matriculatuta daudelako eta Eguesibarren bizi direlako.
- Kexa-egileak bere bi haurrak Garesko haur eskolara joan daitezzen ordaindu beharrekoa.
- Uharteko ikastetxe baten kudeaketari eta hezkuntza proiektuari buruzko informazio falta, eta orain arte han lan egin duten hezitzaileak mantentzea.

Hezkuntza Departamentuari

Ikasleak ikastetxeetan onartzea

Honekin loturik:

- Cardenal Ilundáin Ikastetxe Publikoan, Haur Hezkuntzako bigarren zikloan ikasleak onartzeko prozesua.
- Eskolen zonifikazioa eta eskolen mapan aldaketa zehatz bat egiteko eskaera, Lekunberriko erreferentziako ikastetxea berriz ere Leitzako BHI izan dadin.
- Ez dituztenak onartu Haur Hezkuntzako bigarren zikloa ikasteko hautatutako hiru ikastetxeetako batean ere.
- Ez dituztenak onartu Iturrama BHI.
- Iruñeko BHI batean, Batxilergoan, ez dituzte onartu Pirinioetako ibarretako ikasleak. Ikasle horiek, beren bizitokia dela-eta, diskriminazioa pairatzen dute.
- Tuterako ikastetxe batean ez dituzte onartu 27 familiaren seme-alabak.
- Ikastetxe publiko baten jarduketak, ikasle bat Bigarren Hezkuntzako etaparako curriculum bereziko unitate batean sartzeko neurriagatik.
- Kexa-egileen semearen onarpenerako balorazioa, Burlatako Ermitaberri Ikastetxe Publikoan.
- Matricularen zenbatekoa itzultzeko ezezkoa, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan.

Beteluko Udalari

- Kexa-egileen semea berek hautatutako haur eskolan onartzeari buruz.

Eskola garraioa eta jantokia

Honekin loturik:

- Eskola garraioko zerbitzuaren finantzaketa eza, Beriaindik eta Noaindik (kexa-egileak bizi diren herriak) Iruñean dagoen Hegoalde Ikastolara.

- Kexa-egileen hurrek ez dute ez eskola garraioko zerbitzurik ez jantokirako laguntzarik. Etxaurin bizi dira eta Zizur Nagursiko Catalina de Foix Ikastetxe Publikoan ikasten dute.
- Kexa-egilearen haurrentzako diru-laguntza, eskolako jantoki zerbitzurako.

Batxilergoa eta Lanbide Heziketa

Honekin loturik:

- Kexa-egileak Diagnosi Klinikoen Laborategiko goi mailako prestakuntza zikloan ikaspostu bat lortzeko aukera galdu du, goi mailako zikloetan sartzeko prestakuntza ikastaroan matrikulatuta egotearen ondorioz.
- Kexa-egilearen semeari Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutu batean ezarritako zigorra, zehazki, bost egunerako kaleratzea.
- Ez dute erantzun kexa-egilearen eskaera, Batxilergoan lortu zuen ohorezko matrikularekin loturikoa.

Eskolako garraioko eta jantokiko zerbitzu osagarriak

Honekin loturik:

- Inplikaturako ikastetxe publikoko Haur Hezkuntzako ikasle guztiek eskolako jantoki zerbitzua berdin jaso ahalko dutela bermatzeko neurriak hartzeari buruz.

Hezkuntzaren plangintza

Honekin loturik:

- 2015-2016 ikasturterako truke programaren deialditik bazter utzi dituzte DBHko 3.eko D ereduko ikasleak.

Haur Hezkuntzako lehen zikloa (0-3 urte)

Honekin loturik:

- Kexa-egilearen hiru urteko semeak, 1 motako diabetes mellitusa duenak, zaintzaile bat behar du.

Eskoletako bizikidetzak

Gizarte Politiketako Departamentuari

Honekin loturik:

- Iruñeko Iturrama institutu publikoko ikasle adingabeen irudi eskubideen eta ohorerako eskubideen balizko urraketa, telebista kate pribatu batek grabatu eta hedatu baititu, ikastetxearen edo gurasoen baimenik gabe.

Hezkuntza Departamentuari eta Nafarroako Unibertsitate Publikoari

Honekin loturik:

- Kexak aipatzen duen kredituen onarpenagatik eskatutako prezio publikoaren minorazioa, diploma edo lizentziako titulua graduko titulu bihurtzeko.
- Ikastetxe publiko batean kexa-egileen bost urteko semeari ezarri dizkioten zigorrak (behin betiko aldatu dute beste ikasgela batera eta ikasturtea bukatu arte jantokiko zerbitzua erabiltzeko eskubidea galdu du). Adingabeak ukatu egiten ditu zigorra eragin duten ustezko gertakariak eta, gainera, ez zituen ikusi ez tutore batek ez ikastetxeko irakasle batek ere.
- Kexa-egilearen alabari ikastetxe publiko batean irekitako zigor espedienteak.
- Eskola politekniko baten zuzendaritzak kexa-egileari ezarritako zigorra, ikastetxeko zuzendariarekin izan zuen eztabaida baten ondorioz.
- Kexa-egilearen semeari ikastetxe itundu batean ezarritako zigorra: ez diote utziko ikasturte bukerako bidaiara joaten.

Bekak

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuari

Honekin loturik:

- "Nafarroa-Nazioarteko Praktiketarako Bekak. Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetan praktikak egitea prestakuntzan" izeneko beken deialdiko 8.1 artikuluko d), e) eta f) idatz-zatietan ezarritako eskakizunak (deialdia Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren zuzendari nagusiaren apirilaren 29ko 88. Ebazpenaren bidez onetsi zen).
- "Nafarroako Master Bekak" ez deitzeari buruz.
- Kexa-egilearen semeari emandako beka baten itzulketa.

Hezkuntza Departamentuari

Honekin loturik:

- Kexa-egilearen semeari unibertsitateko ikasketetarako beka bat ukatu diote.

Unibertsitateko ikasketak:

Nafarroako Unibertsitate Publikoari

Honekin loturik:

- Industria Ingeniaritzako ikasketak jarraitzeko eskaera batek jaso duen ezezkoa.

Hizkuntzak

Hezkuntza Departamentuari

Honekin loturik:

- Kexa-egilearen alabari Hizkuntza Eskola Ofizialean ahozko azterketa baten eguna aldatzea ukatu diote.
- Ez dute onartu ordutegi murriztuko ikasle gisa matrikulatzeko eskaera bat.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoak 2008ko ekainaren 23ko Gobernu Kontseiluaren erabakiko xedapen iragankorraz egiten duen interpretazioak 2013-2014 ikasturteko sari bereziak gainerako ikasle promozioen baldintza berdinekin lortzeko aukera galarazten dio kexa-egileari.

Musika

Garesko Udalari

Honekin loturik:

- Musika eskola publikoetan bizilekuaren arabera ematen duten tratu diskriminatzailea.

Hezkuntza Departamentuari

Honekin loturik:

- Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan irakasleak aldi baterako kontratatzeko zerrendak "izoztuta" daude.
- Matrikularen zenbatekoa itzultzeko ezezkoa, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan.

Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzako arreta

Hezkuntza Departamentuari

Honekin loturik:

- Kexa-egileak eskatu duen egoitza beka ematearen gainean. Hezkuntza Bereziko ikastetxe batean barneko ikasle moduan bizi den semearentzat eskatu du.
- Kexa-egilearen alabari berariazko sostengua (zaintzailea eta logopedia) gehitzeko eskaerak jaso duen ezezkoa eta Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroko balorazioaren emaitzari buruzko informazio falta.
- Ez dituzte erantzun kexa-egilearen eskaerak. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko batean ikasten duen bere semeak jasotzen dituen logopediako banakako saioak gehitzea eskatu du.
- Hezkuntza Departamentuko Ikuskapen Zerbitzuak eta NHBBZk uko egin diote kexa-egilearen semeak duen egoerari hezkuntza esparruan erantzuteari.

Askotarikoak

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuari

Honekin loturik:

- Nafarroako Foru Komunitateko irakaskuntzaren sare publikoan ezker abertzaleak duen eraginari buruz Guardia Zibilak prestatu duen txostenaren kopia osoaren eskaera.

Estella-Lizarrako Udalari

Honekin loturik:

- Kexa-egilea ez dago ados udal horren aldetik jaso duen tratuarekin, haur eskolarekin duen zor bat dela-eta.

Hezkuntza esparruan ofizioz egindako jarduketak

- Nafarroako Foru Komunitateko irakaskuntzaren sare publikoan ezker abertzaleak duen eraginari buruz Guardia Zibilak prestatu duen txostena.
- Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko matrikularen zenbatekoa ez itzultzea, matrikula deuseztatu ondoren.
- Testuliburuak eskuratzeko Departamentuko zerbitzuetatik ikastetxeetara igorritako jarraibideak edo kudeaketa irizpideak, jarraibide horiek liburu dendak bidegabe diskriminatu ditzaketelakoan, argialetxeen aldean.

Ondoko taulak itundutako irakaskuntzako irakasleen ordainsariak jasotzen ditu, 2010. urtetik 2015. urtera. Jasotako kopuruak hileko ordainsari gordina adierazten dute. Kontuan izan behar da urteko ordainsari gordina 14 soldata oso eta bertsuren ordainketaren ondorioa dela.

2012an, Nafarroako Gobernuaren Erabaki bidez baimena eman zitzaion Hezkuntzako kontseilariari ondoko akordioa bere gain hartu, gauzatu eta jarraitzeko: "Akordioa funts publikoz erabat edo partzialki sostengaturiko Irakaskuntza Pribatuko Enpresen V. Lan Hitzarmenak eragindako irakaskuntza itunduko sektorean, apirilaren 20ko 14/2012 Errege Lege-dekretuaren eta beste neurri batzuen aplikazioa zehazteko". Akordio horrek irailaren 1etik aurrera ordainsariak batez beste %2,5 jaitea ekarri zuen.

91. taula: Itunpeko ikastetxeetako irakasleen ordainsari-taulen bilakaera, 2011. urtetik 2015. urtera (milaka eurotan)

		2011	2012		2013	2014	2015
			Urt-abuz	Ir-aben			
Haur Hezkuntzako irakasleak	Hileko soldata	1.992,69	1.992,69	1.942,87	1.942,87	1.942,87	1.942,87
	Antzinasuna	41,95	41,95	40,9	40,9	40,9	40,9
	Guztira	2.034,64	2.034,64	1.983,77	1.983,77	1.983,77	1.983,77
Lehen Hezkuntzako irakasleak	Hileko soldata	1.992,69	1.992,69	1.942,87	1.942,87	1.942,87	1.942,87
DBHko 1. zikloa, Hezkuntza Berezia	Antzinasuna	41,95	41,95	40,9	40,9	40,9	40,9
	DBHko 1. zikloko osagarria	114,88	114,88	112,02	112,02	112,02	112,02
	Guztira	2.149,52	2.149,52	2.095,79	2.095,79	2.095,79	2.095,79
DBHko 2. zikloko eta Batxilergoko irakasleak	Hileko soldata	2.204,57	2.204,57	2.147,32	2.147,32	2.147,32	2.147,32
	Antzinasuna	52,44	52,44	51,13	51,13	51,13	51,13
	Batxilergoko osagarria	85,35	85,35	85,35	85,35	85,35	85,35
	Guztira	2.342,36	2.342,36	2.283,80	2.283,80	2.283,80	2.283,80
Lanbide Heziketako irakasleak, goi eta erdi mailako graduetakoak	Hileko soldata	2.204,57	2.204,57	2.147,32	2.147,32	2.147,32	2.147,32
	Antzinasuna	50,76	50,76	49,49	49,49	49,49	49,49
	Osagarria	85,35	85,35	85,35	85,35	85,35	85,35
	Guztira	2.340,68	2.340,68	2.282,26	2.282,26	2.282,26	2.282,26
Lanbide Heziketako irakasle agregatuak	Hileko soldata	2.095,16	2.095,16	2.042,78	2.042,78	2.042,78	2.042,78
	Antzinasuna	49,37	49,37	48,14	48,14	48,14	48,14
	Guztira	2.144,53	2.144,53	2.090,92	2.090,92	2.090,92	2.090,92

Iturria: Baliabide Ekonomikoen Zerbitzua

92. taula: Ikastolen Elkarteko irakasleen ordainsariaren bilakaera, 2011. urtetik 2015.era

			2011 ²⁴	2012 (iraila)	2013	2014	2015
Haur eta Lehen Hezkuntzako Irakasleak	Titularrak	Hileko soldata	2.027,98	1.978,16	1.978,16	1.978,16	1.978,16
		Antzinasuna	43,86	42,81	42,81	42,81	42,81
		Guztira	2.071,84	2.020,97	2.020,97	2.020,97	2.020,97
	Espezialistak	Hileko soldata	1.885,83	1.836,00	1.836,00	1.836,00	1.836,00
		Antzinasuna	43,86	42,81	42,81	42,81	42,81

		Guztira	2.029.69	1.878.81	1.878.81	1.878.81	1.878.81
DBHko irakasleak	1. zikloko irakasleak	Hileko soldata	2.327.30	2.270.05	2.270.05	2.270.05	2.270.05
		Antzinasuna	52.37	51.29	51.29	51.29	51.29
		Guztira	2.379.67	2.321.34	2.321.34	2.321.34	2.321.34
	2. zikloko irakasleak	Hileko soldata	2.327.30	2.270.05	2.270.05	2.270.05	2.270.05
		Antzinasuna	52.37	51.29	51.29	51.29	51.29
		Guztira	2.379.67	2.321.34	2.321.34	2.321.34	2.321.34
Batxilergoko irakasleak	Irakasle titularrak	Hileko soldata	2.327.30	2.270.05	2.270.05	2.270.05	2.270.05
		Antzinasuna	52.37	51.29	51.29	51.29	51.29
		Guztira	2.379.67	2.321.34	2.321.34	2.321.34	2.321.34
Psikologoak eta pedagogoak		Hileko soldata	2.327.30	2.270.05	2.270.05	2.270.05	2.270.05
		Antzinasuna	52.37	51.29	51.29	51.29	51.29
		Guztira	2.379.67	2.321.34	2.321.34	2.321.34	2.321.34

Iturria: Nafarroako Ikastolen Elkarte

²⁴ Ikus daitekeenez, 2011 urtean ez da igoserarik izan ordainsarrietan.

3.3.2.3. Enpresa erakundeak eta sindikatuak, Nafarroako itunpeko irakaskuntzan

Enpresa erakundeak

- ANEG: Asociación Navarra de Educación y Gestión
- CECE: Confederación Española de Centros de Enseñanza
- NIE: Nafarroako Ikastolen Elkarte
- UECOE: Cuatro Vientos

Ikastetxe pribatuen hitzarmeneko sindikatuak

93. taula: Sindikatuen ordezkariak, 2014-2015 ikasturtea

	Ordezkariek
FSIE- SEPNA	76 (%45,78)
UGT	64 (%38,55)
ELA-STV	23 (%13,86)
Atxiki gabeak	2 (%1,20)
LAB	1 (%0,60)

Ikastolen hitzarmeneko sindikatuak

94. taula: Nafarroako ikastolen hitzarmeneko sindikatuen ordezkariak, 2014-2015 ikasturtea

	Ordezkariek
LAB	42 (%91,67)
ELA	4 (%8,33)


Iturria: Nafarroako Ikastolen Elkartea

3.3.3. Irakasleen gaineko intereseko ezaugarriak: Espainia eta Europa

3.3.3.1. Irakasleak ikastetxeetan

2012-2013 ikasturtean Espainian irakaslanean aritu ziren unibertsitatez kanpoko irakasleen ehunekotako banaketa erakusten du hurrengo grafikoak, ematen dituzten ikasketen eta ikastetxeen titulartasunaren arabera bereizita. Irakasle kopuru osotik, sektore publikoak (%72) sektore pribatuak (%28) baino zati handiagoa hartzen du. Ikasketen araubideari dagokionez, irakaslerian araubide orokorreko ikasketetako irakasleek (%93,5) dute pisu handiena, araubide berezikoaren (%5,1) eta Helduen Hezkuntzakoaren (%1,4) oso gaitetik. Aurreko ikasturtearen aldean osotara irakasle kopurua murriztu da, 19.855 irakasle gutxiagorekin, hots, %2,7ko aldakuntza erlatiboarekin. Kopuru esanguratsuenak araubide orokorreko ikasketetakoak dira, ikastetxe publikoetan 21.899 irakasleko jaitziera izan baita (-%4,4) eta ikastetxe pribatuetan 4.266 irakasleko igoera (+%2,3).

33. grafikoa: Irakasleen banaketa, ematen dituzten ikasketen eta ikastetxeen titulartasunaren arabera. Espainia. 2013-2014 ikasturtea




Iturria: Hezkuntza sistemaren egoerari buruzko 2015eko txostena, Estatuko Eskola Kontseiluak prestatua

3.3.3.2. Araubide orokorreko ikasketak ematen dituzten irakasleak

2013-2014 ikasturtean, 670.934 irakasle aritu ziren araubide orokorreko ikastetxeetan zuzeneko irakaskuntzan lanean, horietatik 477.150 (%71,5) ikastetxe publikoetan eta 193.784 (%28,9) ikastetxe pribatuetan. Ikasketen araberrako banaketari erreparatuta, ikusten da ugarienak Haur eta Lehen Hezkuntza irakasten dutenak direla (335.025 irakasle, irakasleriaren %49,9) eta hurrengoak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa irakasten dutenak (264.852 irakasle, irakasleriaren %39,5). Azken sail horretan sartuta daude ikastetxeetatik kanpoko jardueretan Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programak ematen dituzten irakasleak. Irakasleen %9,2k (61.787) Haur eta/edo Bigarren Hezkuntza eta, aldi berean, Bigarren Hezkuntza eta/edo Lanbide Heziketa irakasten dituzte, eta gehiago dira ikastetxe pribatuetan (43.429, %22,4) publikoetan baino (18.358, %3,8). Hezkuntza Berezian 9.270 irakasle ari dira, unibertsitatez kanpoko araubide orokorreko ikasketetan lan egiten duten guztien %1,4. Kopuru horretan Hezkuntza Bereziko berariazko ikastetxeetako irakasleak zein ikastetxe arruntetako Hezkuntza Bereziko berariazko ikasgeletakoak sartzen dira.


34. grafikoa: Araubide orokorreko irakasleak, ematen dituzten ikasketen eta ikastetxeen titulartasunaren arabera, Espainian. 2013-2014 ikasturtea



Iturria: Hezkuntza sistemaren egoerari buruzko 2015eko txostena, Estatuko Eskola Kontseiluak prestatua

Hurrengo grafikoak araubide orokorreko irakasleen banaketa erakusten du, erkidego eta hiri autonomoka, irakasten dituzten ikasketen erreferentziarekin. Azpimarra daiteke irakasle gehien dituzten erkidegoak Andaluzia (126.649) eta Katalunia (106.274) direla, eta zerrenda horretan hurrengoak Madrilgo Erkidegoa (86.546) dela.

35. grafikoa: Araubide orokorreko irakasleak, ematen dituzten ikasketen arabera, erkidego eta hiri autonomoka banatuta. 2013-2014 ikasturtea




Iturria: Hezkuntza sistemaren egoerari buruzko 2015eko txostena, Estatuko Eskola Kontseiluak prestatua

Irakasleriak 2003-2004 ikasturtetik 2012-2013ra izandako bilakaerari buruz, aipagarria da 96.482 irakasleko igoera izan dela, beraz, epe horretan %16,9ko hazkunde erlatiboa izan dela, nahiz eta azken urtean kopurua murriztu den, grafikoan ikusten den bezala. Ikastetxe motaren arabera, bilakaera honakoa izan da: ikastetxe publikoetan 55.621 irakasleko igoera izan da eta pribatuetan 40.861 irakasleko igoera; %13,3 eta %26,9ko hazkunde erlatiboa hurrenez hurren.

Erkidego eta hiri autonomoetako bakoitzean araubide orokorreko ikasketak ematen dituzten irakasleen kopuruaren hazkunde erlatiboari dagokionez, hauek dira hamarkada horretan hazkunde erlatibo handiena izan duten erkidegoak: Errioxa (%34,7), Murtziako Eskualdea (%31,3), Katalunia (%26,1) eta Melillako Hiria (%24,7). Titulartasun pribatuko ikastetxeetako irakasle kopuruari dagokienez, nabarmenena Murtziako Eskualdean (%52,1), Andaluzian (%48,87), Errioxan (%46,4) eta Madrigo Erkidegoan (%45,9) izandako hazkundea da.

36. grafikoa: Araubide orokorreko ikasketetako irakasleriaren bariazio indizea, ikastetxeen titulartasunaren arabera, erkidego eta hiri autonomoka banatuta. 2013-2014 ikasturtea 2004-2005 ikasturtea=100)




Iturria: Hezkuntza sistemaren egoerari buruzko 2015eko txostena, Estatuko Eskola Kontseiluak prestatua

3.3.3.3. Araubide bereziko ikasketak ematen dituzten irakasleak

Araubide bereziko ikasketetan sartzen dira Arte ikasketetako espezialitate desberdinak (Arte Plastikoak eta Diseinua, Musika, Dantza eta Arte Dramatikoa), Hizkuntza ikasketak eta Kirol ikasketak. 2012-2013 ikasturtean, ikasketa horietan osotara 36.591 irakasle eman zituzten eskolak. Horien artean talde handiena Arte ikasketetako irakasleena da (30.494 irakasle, araubide bereziko irakasleria osoaren %83,3), bigarren tokian hizkuntza eskola ofizialetako irakasleak daude (5.320 irakasle, %14,5) eta, azkenik, Kirol ikasketetakoak (777 irakasle, %2,1).

37. grafikoa: Araubide bereziko ikasketetako irakasleak, ikasketa motaren eta ikastetxeen titulartasunaren arabera, Espainia osoan. 2013-2014 ikasturtea




Iturria: Hezkuntza sistemaren egoerari buruzko 2015eko txostena, Estatuko Eskola Kontseiluak prestatua

Bestetik, irakasleak honela daude banatuta ikastetxeen titulartasunaren arabera: %82k ikastetxe publikoetan irakatsi zuten (30.711 irakasle) eta %18k ikastetxe pribatuetan (6.752 irakasle). Gainera, hizkuntza eskola ofizialetako (%100) eta Arte ikasketetako (%80,7) irakasle gehienak ikastetxe publikoetan ari dira eta, aldiz, kontrakoa gertatzen da Kirol ikasketetan, gehienak (%74,9) ikastetxe pribatuetan ari baitira.


Araubide honetako ikasketak ematen dituzten irakasleen banaketa erkidego eta hiri autonomo bakoitzean zein den aztertuz gero, ikusten da erdiak baino gehiago (%56,1) lau erkidegotan banatuta daudela: Katalunia (21,0 %), Andaluzia (13,9 %), Madrilgo Erkidegoa (11,3 %) eta Valentziako Erkidegoa (9,9 %).

38. grafikoa: Araubide bereziko ikasketetako irakasleriaren bariazio indizea, ikastetxe motaren arabera, erkidego eta hiri autonomoka banatuta. 2013-2014 ikasturtea



Iturria: Hezkuntza sistemaren egoerari buruzko 2015eko txostena, Estatuko Eskola Kontseiluak prestatua

39. grafikoa: Arte ikasketa arautuetako irakasleak, ikastetxe motaren eta titulartasunaren arabera, erkidego eta hiri autonomoka banatuta. 2013-2014 ikasturtea




Iturria: Hezkuntza sistemaren egoerari buruzko 2015eko txostena, Estatuko Eskola Kontseiluak prestatua

3.3.3.4. Helduen Hezkuntza ematen duten irakasleak

2013-2014 ikasturtean 10.196 irakasle aritu ziren Helduen Hezkuntzan. Horietatik 9.693k (%95,1) ikastetxe edo ekimen publikoetan irakatsi zuten eta 503k (%4,9) ikastetxe edo ekimen pribatuetan. Lurralde batzuetan ikastetxe edo ekimen publikoetan baino ez daude irakasleak (Andaluzian, Asturiasko Printzerrian, Balearretan, Kanarietan, Kantabrian, Gaztela-Mantxan, Murtziako Eskualdean, Nafarroako Foru Komunitatean, Ceutan eta Melillan). Hurrengo grafikoan ikastetxeak titulartasunaren arabera banaturik agertzen dira, erkidego eta hiri autonomo bakoitzean. Ikasketa mota honetan jende gehien duten autonomia erkidegoak


Andaluzia, Valentziako Erkidegoa, Katalunia, Madrilgo Erkidegoa, Euskal Autonomia Erkidegoa, Gaztela eta Leon, Aragoi eta Extremadura dira.

40. grafikoa: Helduen Hezkuntzan irakasten duten irakasleak, ikastetxearen titulartasunaren arabera, erkidego eta hiri autonomoka banatuta. 2013-2014 ikasturtea



Iturria: Hezkuntza sistemaren egoerari buruzko 2015eko txostena, Estatuko Eskola Kontseiluak prestatua

41. grafikoa: Helduen Hezkuntzan irakasten duten irakasleen bilakaera, ikastetxearen titulartasunaren arabera, Espainian. 2004-2005 ikasturtetik 2013-2014 ikasturtera




Iturria: Hezkuntza sistemaren egoerari buruzko 2015eko txostena, Estatuko Eskola Kontseiluak prestatua

3.3.3.5. Espainiar irakasleen gaineko bi aldagai

3.3.3.5.A. Sexuaren aldagaia irakasleengan


Araubide orokorreko ikasketetan, emakumeek %82tik gorako presentzia erlatiboa dute Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan. Bigarren Hezkuntzan emakumeak %56 baino gehiago dira.

42. grafikoa: Araubide orokorreko ikasketak. Emakumeen ehunekoa irakaslerian, ematen dituzten ikasketen eta ikastetxeen titulartasunaren arabera, Espainian. 2013-2014 ikasturtea




Iturria: Hezkuntza sistemaren egoerari buruzko 2015eko txostena, Estatuko Eskola Kontseiluak prestatua

43. grafikoa: Emakumeen presentzia erlatiboa araubide orokorreko ikasketetako irakaslerian, ematen dituzten ikasketen arabera, erkidego eta hiri autonomoka banatuta. 2013-2014 ikasturtea



Iturria: Hezkuntza sistemaren egoerari buruzko 2015eko txostena, Estatuko Eskola Kontseiluak prestatua

44. grafikoa: Emakumeen presentzia erlatiboa irakaslerian, irakasten duten ikasketak mailaren arabera, Europar Batasuneko herrialdeetan. 2013. urtea




Iturria: Hezkuntza sistemaren egoerari buruzko 2015eko txostena, Estatuko Eskola Kontseiluak prestatua


3.3.3.5.B. Adinaren aldagaia irakasleengan

Irakasleen adina funtsezko aldagaia da hezkuntza sistemaren beharretarako, ordezkatzeko tasak zein bilakaera zehaztu ahal izateko.

Estatu osoan 2012-2013 ikasturtean zehar araubide orokorreko ikasketak eman zituzten irakasle guztiak kontuan izanik, irakasleen %7,9k 30 urte baino gutxiago zuten, irakasleen %30,1ek 30 eta 40 urte bitarteko adinak, %29,7 40 eta 50 urte bitarteko adin tartean zeuden eta, azkenik, irakasleen %32,3k 50 urtetik gora zuten.

45. grafikoa: Araubide orokorreko ikasketetako irakasleen ehunekotako banaketa Espainian adinaren, ikastetxearen titulartasunaren eta sexuaren arabera banatuta. 2013-2014 ikasturtea. Beheko aldean: Araubide orokorreko ikasketetako irakasleen ehunekotako banaketa Espainian adinaren arabera, irakasle kidegoetan banatuta. 2012-2013 ikasturtea





Iturria: Hezkuntza sistemaren egoerari buruzko 2015eko txostena, Estatuko Eskola Kontseiluak prestatua

Egoera hau ikastetxe publikoetako eta pribatuetako irakasleen artean dagoenaren parekoa da, baina ikastetxe pribatuetako irakasleak publikoetakoak baino gazteagoak dira. Ikastetxe publikoetako irakasleen %34,2k 40 urtetik behera dute eta, aldiz, pribatuetako irakasleen %45,1ek. Bestetik, ikastetxe publikoetako irakasleen %35,0k 50 urte edo gehiago dute eta ikastetxe pribatuetan, berriz, irakasleen %27,0k dute 50 urtetik gora.

Bigarren Hezkuntzako irakasleen kasuan, irakasle kidegoa heldua dela esan daiteke, talde ugariena bitarteko adinekoena delako (%37,4k 40-49 urte) eta irakasle gutxi daudelako muturreko adin-taldeetan, (30 urtetik behera %2,8 eta 60 urtetik gora %4,6).

Maisu-maistren kidegoa Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegokoarekin alderatuz gero, ikusten da lehenengoan pisu erlatibo handiagoa duela 30 urtetik beherako irakasleen taldeak (%10,1).


Irakasleen batez besteko adina konparatuz gero, Estatu mailan eta erkidego eta hiri autonomoen artean desberdintasun nabarmenak ikusten dira.

Estatu osoan irakasle talde gazteena, 30 urtetik beherakoa, kopuru osoaren %13,2 da. Espainian batez beste baino irakasle gazte gehiago daude Katalunian (%17,1), Nafarroako Foru Komunitatean (%16,8), Madrilgo Erkidegoan (%15,7), Andaluzian (%15,4), Murtziako Eskualdean (%14,9), Gaztela-Mantxan eta Aragoian (%13,4). Aldiz, batez bestekotik oso beherako ehunekoak dituzte Asturiasko Printzerrian (%6,2), Extremaduran (%5,1) eta Kanarietan (%4,8).

Kontrako muturrean, 60 urte edo gehiagoko irakasleak %4,2 dira Estatu mailan, eta honetan ere alde handiak daude lurralde batetik bestera. Nagusienen tarteko irakasleen ehunekoa Estatuan batez beste baino askoz handiagoa da erkidego hauetan: Ceutan (%8,8), Galizian (%8,1) eta Asturiasko Printzerrian (%7,3). Batez besteko horretatik oso behera daude, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoa (%2,1) eta Katalunia (%2,7).


Bigarren Hezkuntzako irakasleen ehunetako banaketari dagokionez, 30 urtetik beherakoen taldea kopuru osoaren %4,1 da. Bigarren Hezkuntzako irakasle gazteen ehunekoa Estatu batez bestekoa baino bi puntutik gora dago Nafarroako Foru Komunitatean (%6,5). Aldiz, batez bestekotik oso beherako ehunekoa dute Asturiasko Printzerriak (%1,7) eta Galiziak (%1,4). Ostera, 60 urte edo goragokoak Estatu mailan %4,1 dira, eta hemen ere alde handiak daude lurralde batetik bestera. Nagusienen tarteko irakasleen ehunekoa Estatuan batez beste baino askoz handiagoa da erkidego hauetan: Galizian (%6,9), Ceutan (%9,6) eta Asturiasen (%7,1).

46. grafikoa: Irakasleen ehunekotako banaketa adinaren arabera, erkidego eta hiri autonomoka banatuta. 2012-2013 ikasturtea




Iturria: Hezkuntza sistemaren egoerari buruzko 2015eko txostena, Estatuko Eskola Kontseiluak prestatua

47. grafikoa: Bigarren Hezkuntzako irakasleen ehunekotako banaketa adinaren arabera, erkidego eta hiri autonomoka banatuta. 2012-2013 ikasturtea




Iturria: Hezkuntza sistemaren egoerari buruzko 2015eko txostena, Estatuko Eskola Kontseiluak prestatua

48. grafikoa: Lehen Hezkuntzako (CINE 1) irakasleen ehunekotako banaketa adinaren arabera, Europar Batasuneko herrialdeetan. 2013. urtea



Iturria: Hezkuntza sistemaren egoerari buruzko 2015eko txostena, Estatuko Eskola Kontseiluak prestatua

49. grafikoa: Bigarren Hezkuntzako (CINE 2-3) irakasleen ehunekotako banaketa adinaren arabera, Europar Batasuneko herrialdeetan. 2013. urtea



Iturria: Hezkuntza sistemaren egoerari buruzko 2015eko txostena, Estatuko Eskola Kontseiluak prestatua

3.3.4. *Ikasleak/ikastaldeko ratioen bilakaera*

95. taula: Ratioen (ikasleak/ikastaldeko) bilakaera Nafarroan, 2009-2010 ikasturtetik 2013-2014ra, publikoa/itundua

	2009-2010	2010-2011	2011-2012	2012-2013	2013-2014
Haur Hezkuntzako 2. zikloa					
Publikoa	17,7	17,6	18,0	18,5	18,8
Itundua	23,7	23,7	23,7	24,2	24,46
Lehen Hezkuntza					
Publikoa	17,5	17,5	17,6	18,1	18,4
Itundua	24,5	24,4	23,9	24,2	24,5
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza					
Publikoa	21,7	21,1	21,1	22,1	22,5
Itundua	25,4	25,5	25,7	25,6	27
Batxilergoa					
Publikoa	24,2	26,7	26,8	28,5	28,02
Itundua	26,0	26,7	26,7	28,7	28,82
Lanbide Heziketa ²⁴					
Publikoa	19,8	20,4	20,7	22,7	23,4
Itundua	19,4	20,8	20,7	21,3	23,14
Berme soziala					
Publikoa	11,4	10,3	9,8	daturik ez	daturik ez
Itundua	11,6	10,9	11,1	daturik ez	daturik ez
Hezkuntza Berezia ²⁵					
Publikoa	4,4	4,4	4,4	4,7	4,42
Itundua	4,9	5,0	5,1	4,5	4,92
Berme soziala Hezkuntza Berezian ²⁶					
Publikoa	5,3	6,2	6,5	daturik ez	daturik ez
Itundua	8,0	7,6	6,2	daturik ez	daturik ez


²⁴ 2007-2008 ikasturtea: hemen sartu dira araubide arrunteko ikasleak eta helduen/gaueko araubideko ikasleak.²⁵ Soilik berariazko ikastetxeak.²⁶ Hemen sartu dira berariazko ikastetxeetako ikasleak eta araubide orokorreko ikastetxeetakoak.

4.- HEZKUNTZA PROZESUAK ETA POLITIKAK

4.1. Nafarroako hezkuntza administrazioaren antolamendua

Ondoko eskemek Hezkuntza Departamentuaren antolamendu egitura jasotzen dute.

Egitura berria, 2015eko urrian, ondokoa da:



96. taula: Hezkuntza Departamentuko atalak eta bulegoak

	Atal kopurua	Bulego kopurua
Idazkaritza Tekniko Nagusia	4	5
Unibertsitateen eta Hezkuntzako Teknologien Zerbitzua	2	5
Giza Baliabideen Zerbitzua	3	2
Baliabide Ekonomikoen Zerbitzua	3	6
Hezkuntzako Azpiegituren Zerbitzua	3	5
Hezkuntzako Plangintzaren Zerbitzua	3	
Antolamenduaren eta Aukera Berdintasunaren Zerbitzua	3	7
Hizkuntzen eta Arte Ikasketen Zerbitzua	3	5
Ebaluazioaren, Kalitatearen, Prestakuntzaren eta Bizikidetzaren Zerbitzua	3	3
Lanbide Heziketaren Zerbitzua	3	5
Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua		2

Iturria: Idazkaritza Tekniko Nagusia

Hezkuntzako ikuskapena

Ikuskapen Zerbitzuaren jarduerak ondoko ebazpenak ezartzen ditu: 485/2014 Ebazpena, urriaren 6koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren Urteko Jarduketa Plana onesten duena, 2014-2015 ikasturterako.

Ikuskatzaile plantillaren bilakaera azpiko taulan jasotzen da:

97. taula: Ikuskatzaile plantillaren bilakaera, 2010-2011 ikasturtetik 2014/2015era

Ikasturtea	2010-2011	2011-2012	2012-2013	2013-2014	2014-2015
Lanpostuak	28	25	24	25	25
Beteak	28	25	24	25	25

Iturria: Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua

4.2. Ikasketen antolamendua

2014ko irailaren 1etik 2015eko abuztuaren 31ra Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuarekin loturiko honako administrazio egintza hauek onetsi ditu:

98. taula: 2014-2015 ikasturtean onetsitako administrazio egintzen laburpena

Jatorria	Foru aginduak	Ebazpenak
Idazkaritza Tekniko Nagusia	36	3
Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusia	22	831
Zuzendari nagusia	5	
Giza Baliabideen Zerbitzua (eskuordetzaz bereak direnak zenbatu gabe)	3	16
Hezkuntzako Azpiegituren Zerbitzua		291
Hezkuntzako Parte-hartzearen, Irakasleentzako Arretaren eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zerbitzua	3	53
Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko Atala		
Baliabide Ekonomikoen Zerbitzua	11	471
Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusia	1	30
Zuzendari nagusia		
Giza Baliabideen Zerbitzua (eskuordetzaz bereak direnak zenbatu gabe)		2
Hezkuntzako Azpiegituren Zerbitzua		25
Unibertsitateen eta Hezkuntzako Teknologien Zerbitzua		
Hezkuntzako Plangintzaren Zerbitzua		
Baliabide Ekonomikoen Zerbitzua	1	3
Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen Zuzendaritza Nagusia	72	685
Zuzendari nagusia	8	
0-3 urteko Haurren eta Landa Eskolen Atala		1
Lanbide Heziketaren Zerbitzua		20
Hizkuntzen eta Arte Ikasketen Zerbitzua		7
Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua		4
Antolamenduaren eta Aukera Berdintasunaren Zerbitzua		4
Unibertsitateen, Kalitatearen eta Prestakuntzaren Zerbitzua		21

Iturria: Hezkuntza Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusia.

Koadroan ageri dira, proposatu dituen unitatearen arabera, foru aginduek eta ebazpenek jorratutako gaiak.

2014-2015 ikasturteko araurik garrantzitsuenak azaltzen dira jarraian²⁷:

Nafarroako Aldizkari Ofiziala:

- 2/2014 EBAZPENA, urtarrilaren 21ekoa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta Lehen Hezkuntzako ikasketak egin behar dituzten ikasleak ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan onartzeko prozeduraren jarraibideak,

²⁷ Hezkuntza Departamentuko Idazkaritza Teknikoak emaniko datuak.

egutegia eta eskabide ereduak onesten dituen, 2014-2015 ikasturterako.

- 4/2014 EBAZPENA, otsailaren 3koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana. Ebazpen hark Haur Hezkuntzako lehen zikloa ematen duten ikastetxeek egutegia eta ordutegia prestatzeko jarraibideak onetsi zituen, 2014-2015 ikasturterako.
- 54/2014 EBAZPENA, otsailaren 17koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, ingeleseko eta frantseseko atal elebidunen programen deialdia egiten duena, ikastetxe publiko gehiago sar daitezzen, eta programa horiek 2014-2015 ikasturtean emateko oinarriak ezartzen dituen.
- 55/2014 EBAZPENA, otsailaren 18koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, ingeleseko eta frantseseko atal elebidunen programen deialdia egiten duena, sare itunduko ikastetxe gehiago sar daitezzen, eta programa horiek 2014-2015 ikasturtean emateko oinarriak ezartzen dituen.
- 77/2014 EBAZPENA, otsailaren 24koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide ikasketen erdi eta goi mailako heziketa zikloetan sartzeko Gaitasun Artistikoaren 2014ko Probarako deialdia egiten duena.
- 120/2014 EBAZPENA, martxoaren 21ekoa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, erdi eta goi mailako heziketa zikloetako eta goi mailako heziketa zikloetan sartzeko prestakuntza ikastaroko ikasketak egin behar dituzten ikasleak 2014-2015 ikasturterako ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan onartzeko prozeduraren jarraibideak, egutegia eta eskabide ereduak onesten dituen.
- 156/2014 EBAZPENA, apirilaren 22koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, jardunean ari diren langileei zuzendutako lanbide heziketaren eskaintza arautzen duena 2014-2015 ikasturterako, lanbide heziketako tituluak lortzen laguntzeko.
- 157/2014 EBAZPENA, apirilaren 22koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, 2014-2015 ikasturtean Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan musikako goi mailako arte ikasketak egiteko sarrera proben deialdia egiten duena.
- 12E/2014 EBAZPENA, apirilaren 23koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, 2014-2015 ikasturtean irakasleen etengabeko prestakuntza programan hezkuntza berritzeko proiektuetarako deialdia erregulatuko duten arauak onesten dituen.
- 182/2014 EBAZPENA, maiatzaren 7koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, 2014-2015 ikasturtean diseinuko goi mailako arte ikasketak egiteko berriazko sarrera probetarako deialdia egiten duena.
- 184/2014 EBAZPENA, maiatzaren 9koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, jarraibideak ematen dituen 2014-2015 ikasturteko eskola egutegia eta ordutegi orokorra prestatzeko, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako bigarren zikloan, Lehen Hezkuntzan, Hezkuntza Berezian, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan ikasketa arautuak ematen dituzten ikastetxeetarako.
- 185/2014 EBAZPENA, maiatzaren 9koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, 2014-2015 ikasturterako eskola egutegia prestatzeko jarraibideak onesten dituen Helduen Oinarrizko Hezkuntzako ikastetxe publikoetan eta ikasgeletan ematen diren irakaskuntzetarako eta ikastetxe publiko baimenduetan ematen diren Helduentzako Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzetarako.
- 216/2014 EBAZPENA, maiatzaren 19koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, 2014-2015 ikasturtean Nafarroako Foru Komunitateko Lanbide Heziketako ikasketak, Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide ikasketak eta araubide bereziko kirol irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxei dagozkien

eskola egutegia eta ordutegi orokorra prestatzeko jarraibideak onesten dituena.

- 219/2014 EBAZPENA, maiatzaren 19koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, 2014-2015 ikasturtean Iruñeko eta Tuterako hizkuntza eskola ofizialetan eta Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialean emanen diren hizkuntza ikasketei dagokien eskola egutegia prestatzeko jarraibideak onesten dituena.
- 51/2014 FORU AGINDUA, ekainaren 2koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko lurralde eremuan diren Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako irakaskuntzen ezarpena eta ordutegia arautzen dituena.
- 236/2014 EBAZPENA, ekainaren 3koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitatean Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloetan ikasketak egin behar dituzten ikasleak ikastetxe publikoetan, pribatu itunduetan eta irabazi asmorik gabeko erakundeetan onartzeko prozeduraren jarraibideak, egutegia eta eskabide eredu arautzen dituena, 2014-2015 ikasturterako.
- 256/2014 EBAZPENA, ekainaren 11koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, 2013-2014 ikasturtean eskolaldi etengabea edo malgua baimenduta zuten ikastetxeei baimena luzatzen diena 2014-2015 ikasturterako.
- 286/2014 EBAZPENA, ekainaren 25ekoa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako bigarren zikloa, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa ematen duten ikastetxe publikoen antolaketa eta funtzionamendua 2014-2015 ikasturtean arautzeko jarraibideak onesten dituena.
- 401/2014 EBAZPENA, ekainaren 27koa, Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiak emana, ikastetxe itunduetako Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan "A" eremuan euskara irakasten duten irakasleentzako eskola orduak onesten dituena, 2014-2015 ikasturterako.
- 16/2014 FORU LEGEA, uztailaren 1ekoa, udal titulartasunekoak diren 0-3 urteko haur hezkuntzako zentroen finantzaketa arautzen duena.
- 57/2014 FORU DEKRETUA, uztailaren 2koa, abuztuaren 23ko 47/2010 Foru Dekretua aldatzen duena. Dekretu hori Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetako ikasleen eskubide eta eginbeharrei eta ikastetxe horietako elkarbizitzari buruzkoa da.
- 325/2014 EBAZPENA, uztailaren 9koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, jarraibideak onesten dituena 2014-2015 ikasturtean honako hauek arautzeko: batetik, Helduen Oinarrizko Hezkuntzako ikastetxe publikoen eta ikasgelen antolaketa eta jarduna, eta bestetik, ikastetxe publiko baimenduetan Helduentzako Bigarren Hezkuntzako ikasketak, hala bertaratzeko modalitatekoak nola urrutikoak, emateko modua.
- 60/2014 FORU DEKRETUA, uztailaren 16koa, Nafarroako Foru Komunitatean Lehen Hezkuntzako irakaskuntzarako curriculum arautzen duena.
- 359/2014 EBAZPENA, uztailaren 22koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, eriondoan dauden ikasleei hezkuntza arreta etxean emateko laguntzetarako deialdiaren oinarriak onesten dituena 2014-2015 ikasturterako.
- 361/2014 EBAZPENA, uztailaren 23koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, azterketa bateratuak prestatzeko, balioztatzeko eta pilotajea egiteko prozedura arautzen duena, baita 2014-2015 ikasturtean zereginak estandarizatu eta banatzeko saioen antolaketa ere.
- 381/2014 EBAZPENA, uztailaren 25ekoa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen Zuzendaritza Nagusiaren zuzendari nagusiak emana. Honen bidez onesten dira Iruñeko eta Tuterako hizkuntza eskola ofizialen antolaketa eta jarduna 2014-

2015 ikasturtean arautzeko jarraibideak.

- 382/2014 EBAZPENA, uztailaren 25ekoa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana. Honen bidez onesten dira Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialaren antolaketa eta jarduna 2014-2015 ikasturtean arautzeko jarraibideak.
- 468/2014 EBAZPENA, uztailaren 31koa, Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiak emana, 2014-2015 ikasturteko eskola-garraioaren zerbitzua antolatzeke eta haren funtzionamendurako jarraibideak onesten dituena.
- 405/2014 EBAZPENA, abuztuaren 12koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitatean ezarritako araubide bereziko kirol-irakaskuntzetara sartzeko proba espezifikoa arautzen dituena eta horietarako deialdia egiten duena, 2014-2015 ikasturterako.
- 407/2014 EBAZPENA, abuztuaren 12koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana. Honen bidez, 2014-2015 ikasturtean Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioaren antolaketa eta jarduna arautzeko jarraibideak eta Europako Goi Mailako Hezkuntzaren Esparruari egokitzeko arauak onesten dira.
- 408/2014 EBAZPENA, abuztuaren 13koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, 2014-2015 ikasturtean Pablo Sarasate Musika Kontserbatorio Profesionalaren eta Nafarroako Dantza Eskolaren antolaketa eta jarduna arautzeko jarraibideak onesten dituena.
- 72/2014 FORU AGINDUA, abuztuaren 22koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan, pribatuetan eta pribatu itunduetan Lehen Hezkuntzan ari diren ikasleak ebaluatu eta hurrengo mailara pasatzeko arauak ezartzen dituena.
- 73/2014 FORU AGINDUA, abuztuaren 22koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Bigarren Atzerri Hizkuntza Lehen Hezkuntzako laugarren mailatik aurrera ematea baimentzeko prozedura arautzen duena Nafarroako Foru Komunitateko lurralde eremuan diren ikastetxeetan.
- 67/2014 FORU DEKRETUA, abuztuaren 27koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren hizkuntza ikasketen C1 mailarako curriculumak ezartzen duena Nafarroako Foru Komunitatean.
- 434/2014 EBAZPENA, abuztuaren 28koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, hezkuntza sistemaren Lanbide Heziketako irakaskuntzak eta Hasierako Lanbide Kualifikazio Programak ematen dituzten ikastetxe publikoen antolaketa eta funtzionamendua 2014-2015 ikasturtean arautzeko jarraibideak onesten dituena.
- 435/2014 EBAZPENA, abuztuaren 28koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana. Honen bidez arte plastikoaren eta diseinuaren lanbide irakaskuntzak ematen dituzten arte eskolen antolaketa eta jarduna 2014-2015 ikasturtean arautzeko jarraibideak onesten dira.
- 577/2014 EBAZPENA, irailaren 26koa, Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiak emana, "Lehen Hezkuntzako ikasleen aztura eta balioen garapen-mailaren adierazle sistema" argitaratzea onesten duena.
- 485/2014 EBAZPENA, urriaren 6koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren Urteko Jarduketa Plana onesten duena, 2014-2015 ikasturterako.
- 1546/2014 EBAZPENA, 2014ko urriaren 14koa, Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreak emana. Haren bidez agintzen da argitaratzeko "Gobernu Kontseiluaren Erabakia, Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasleen kanpoko praktikak arautzen dituen Arautegia aldatzen duena". 2014ko urriaren 14ko Gobernu Kontseiluak hartutako erabaki baten bidez onetsi zen.

- 502/2014 EBAZPENA, urriaren 16koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, Arte Irakaskuntzen ikastetxe publikoetako Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko jarraibideak onesten dituena.
- 503/2014 EBAZPENA, urriaren 16koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, Iruñeko eta Tuterako Hizkuntza Eskola Ofizialetako eta Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialeko Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko jarraibideak onesten dituena.
- 504/2014 EBAZPENA, urriaren 16koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean dauden Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako, Hezkuntza Bereziko ikastetxe publikoetako eta Helduen Oinarrizko Hezkuntzako ikastetxe publikoetako Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko jarraibideak onesten dituena.
- 505/2014 EBAZPENA, urriaren 16koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean dauden Bigarren Hezkuntzako institutuetao eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutuetao Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko jarraibideak onesten dituena.
- 508/2014 EBAZPENA, urriaren 17koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, ikastetxe itunduetako Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko eta zuzendaria izendatzeko jarraibideak onesten dituena.
- 93/2014 FORU AGINDUA, urriaren 21ekoa, Hezkuntzako kontseilariak emana. Honen bidez arautzen dira Nafarroako Foru Komunitateko araubide bereziko kirol irakaskuntzetako ikasleen ebaluazioa, titulazioa eta egiaztapen akademikoa.
- 561/2014 EBAZPENA, azaroaren 3koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitatean heziketa zikloa 2013-2014 ikasturtean bukatu duten ikasleei hezkuntza sistemako lanbide heziketako ikasketen eta arte plastikoetako eta diseinuko lanbide ikasketen sari bereziak emateko deialdia egiten duena.
- 563/2014 EBAZPENA, azaroaren 3koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, Haur eta Lehen Hezkuntzako zenbait ikastetxe publiko eta itunduri ingelesez ikasteko programak ezartzeko baimena ematen duena.
- 104/2014 FORU DEKRETUA, azaroaren 5ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa aldatzen duena.
- 576/2014 EBAZPENA, azaroaren 5ekoa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana. Honen bidez onesten da 2014-2015 ikasturterako Hezkuntza Bereziko beka eta laguntzen deialdia.
- 622/2014 EBAZPENA, abenduaren 1ekoa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Gobernuaren Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) eskuratzeko 2015eko deialdiak onesten dituena, eta azterketa egiteko eskubideengatik ordaindu beharreko tarifa ezartzen duena.
- 665/2014 EBAZPENA, abenduaren 15ekoa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Hezkuntza Sistemako Lanbide Heziketaren irakaskuntzen Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleen ebaluazioa, titulazioa eta egiaztapen akademikoa arautzen dituena.
- 3/2015 EBAZPENA, urtarrilaren 15ekoa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, Hezkuntza Departamentuko Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzan ingelesez ikasteko programetan eskolak ingelesez eman behar dituzten irakasleen gaitasun proben deialdia onesten duena.
- 8/2015 FORU AGINDUA, otsailaren 4koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako

Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta Lehen Hezkuntzako ikasketak egin behar dituzten ikasleak ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan onartzeko prozedura arautzen duten oinarriak onesten dituena.

- 25/2015 EBAZPENA, otsailaren 5ekoa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana. Honen bidez deialdia egiten da 2015. urtean Lanbide Heziketako, arte plastikoetako eta diseinuko heziketa zikloetan eta kirol irakaskuntzetan sartzeko probetarako.
- 28/2015 EBAZPENA, otsailaren 11koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana. Honen bidez 2015erako deialdia egiten da, Nafarroako Foru Komunitatean Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalako zenbait kualifikaziori lotuta dauden lanbide gaitasunak ebaluatu eta egiaztatzeko prozedurarako.
- 8/2015 FORU DEKRETUA, otsailaren 18koa, apirilaren 2ko 31/2007 Foru Dekretua aldatzen duena. Horren bidez, unibertsitatez kanpoko ikasketak ematen dituzten Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan ikasleak onartzeko arauak ezartzen dira.
- 45/2015 EBAZPENA, otsailaren 23koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana. Honen bidez proba libreetarako deialdia egiten da, 18 urtez gorako pertsonak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua zuzenean eskuratzeko, Nafarroako Foru Komunitatean, 2015ean.
- 24/2015 FORU AGINDUA, martxoaren 3koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Hezkuntzako kontseilariaren abenduaren 2ko 202/2010 Foru Agindua eta Hezkuntzako kontseilariaren ekainaren 24ko 57/2013 Foru Agindua aldatzen dituena. Lehendabizikoan, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuaren menpeko ikastetxe publikoetako zuzendariak hautatu, ebaluatu eta haien izendapena berritzeko arauak eman ziren eta, bigarrean, Nafarroako Foru Administrazioak Hezkuntza Departamentuaren menpeko Lanbide Heziketako ikastetxe bateratu publikoetako zuzendariak hautatu, ebaluatu eta haien izendapena berritzeko arauak eman ziren.
- 28/2015 FORU AGINDUA, martxoaren 17koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Erdi eta Goi Mailako heziketa zikloetako ikasketak eta goi mailako heziketa zikloetan sartzeko probetarako prestakuntza ikastaroa egin behar dituzten ikasleak ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan onartzeko prozeduraren oinarriak onesten dituena.
- 651/2015 EBAZPENA, martxoaren 18koa, Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak emana. Honen bidez merezimendu-lehiaketarako deialdia onesten da, Irakasleentzako Laguntza Zentroetako (ILZ) zuzendari eta aholkulari izateko lanpostuak zerbitzu eginkizunen araubidean betetzeko.
- 102/2015 EBAZPENA, martxoaren 20koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, goi mailako arte ikasketetan sartzeko heldutasun probarako deia egiten duena 2015. urtean.
- 24/2015 FORU DEKRETUA, apirilaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen curriculumak ezartzen duena.
- 25/2015 FORU DEKRETUA, apirilaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitatean Batxilergoko irakaskuntzen curriculumak ezartzen duena.
- 46/2015 FORU AGINDUA, maiatzaren 15ekoa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko lurralde eremuan diren Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako irakaskuntzen ezarpena eta ordutegia arautzen dituena.
- 47/2015 FORU AGINDUA, maiatzaren 15ekoa, Hezkuntzako kontseilariak emana. Honen bidez, Nafarroako Foru Komunitateko lurralde eremuko ikastetxeetan, Batxilergoko irakaskuntzen ezarpena arautzen da, egitura garatzen eta ordutegia finkatzen.
- 50/2015 FORU AGINDUA, maiatzaren 21ekoa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Hezkuntza Departamentuaren eta Nafarroako Unibertsitatearen arteko lankidetzak hitzarmenaren testua onesten duena, unibertsitateko ikasleei atzerriko hizkuntzak

egiaztatzeko.

- 52/2015 FORU AGINDUA, maiatzaren 22koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, otsailaren 28ko 127/2014 Errege Dekretuaren laugarren xedapen gehigarrian aipatzen diren lanbide heziketako prestakuntza programak, “Lanbide Heziketa Bereziko zikloak” deituak, arautzen dituen hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleentzat, Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan.
- 53/2015 FORU AGINDUA, maiatzaren 22koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Oinarrizko Lanbide Heziketaren antolaketa, onarpena eta garapena arautzen dituen Nafarroako Foru Komunitatean.
- 54/2015 FORU AGINDUA, maiatzaren 22koa, Hezkuntza kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Ikaskuntza eta Errendimendua Hobetzeko Programak arautzen dituen.
- 253/2015 EBAZPENA, maiatzaren 29koa, Giza Baliabideen zuzendari nagusiak emana, “Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen ohitura eta balioen garapen mailarako adierazleen sistema” argitaratzea onesten duena.
- 37/2015 FORU DEKRETUA, ekainaren 11koa, martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretua aldatzen duena. Horren bidez, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako lehen zikloa arautu eta hori ematen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak eta ziklo horren hezkuntza edukiak ezarri ziren.
- 72/2015 FORU AGINDUA, abuztuaren 7koa, Hezkuntzako kontseilariak emana. Honen bidez, helduentzako batxilergoko irakaskuntzak araubide presentzian eta urrutiko araubidean ematea arautu eta antolatu da Nafarroako Foru Komunitatean.

Estatuko Aldizkari Ofiziala

- Ebazpena, 2014ko irailaren 30ekoa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen Estatu Idazkaritzak emana, Batxiler eta Baccalauréat titulu bikoitzaren programari buruzko jarraibideak xedatzen dituen 2014-2015 ikasturterako.
- 894/2014 Errege Dekretua, urriaren 17koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoko 134.1.c) artikuluan ezarritako zuzendaritza-funtzioan aritzeari buruzko prestakuntza-ikastaroaren eta zuzendaritza-eskumenak eguneratzeko ikastaroen ezaugarriak garatzen dituen.
- ECD/2159/2014 Agindua, azaroaren 7koa, Espainiako Hezkuntza Sistemaren lanbide-heziketako lanbide-moduluen arteko baliozkotzeak eta aplikazio-neurriak ezartzen dituen, eta berariazko lanbide-heziketako ikasketen baliozkotzeak zehazteari buruzko 2001eko abenduaren 20ko Agindua —zein Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorraren urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren ondorioa baita— aldatzen duena.
- Ebazpena, 2014ko azaroaren 26koa, Ebaluazioako eta Lanbide Heziketako Zuzendaritza Nagusiak emana, Erljio Islamikoaren irakaskuntzako curriculuma –Lehen Hezkuntzako– argitaratzen duena.
- 1105/2014 Errege Dekretua, abenduaren 26koa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko oinarrizko curriculuma ezartzekoa.
- ECD/65/2015 Agindua, urtarrilaren 21ekoa, lehen hezkuntzako, derrigorrezko bigarren hezkuntzako eta batxilergoko eskumenen, edukien eta ebaluazio-irizpideen arteko harremanak deskribatzen dituen.
- Ebazpena, 2015eko otsailaren 11koa, Ebaluazioko eta Lurralde Lankidetzako Zuzendaritza Nagusiarena, Erljio Katolikoaren irakaskuntzako curriculuma –Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako– argitaratzen duena.
- Ebazpena, 2015eko otsailaren 13koa, Ebaluazioko eta Lurralde Lankidetzako Zuzendaritza Nagusiarena, Erljio Katolikoaren irakaskuntzako curriculuma – Batxilergoko– argitaratzen duena.

- 4/2015 Errege Lege Dekretua, martxoaren 22koa, enplegurako lanbide-heziketaren sistema presaz erreformatzeko lan-arloan.
- 197/2015 Errege Dekretua, martxoaren 23koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan aipatzen diren ikasketetako titulu akademiko eta profesionalak emateari buruzko abenduaren 4ko 1850/2009 Errege Dekretua aldatzen duena.
- ECD/699/2015 Agindua, apirilaren 15ekoa, azaroaren 14ko 1619/2011 Errege Dekretuko eranskinak aldatzen dituena. Errege Dekretu horren bidez unibertsitate-mailako Eliza Zientzietako ikasketa eta titulazioen eta Espainiako unibertsitate-titulu ofizialen arteko baliokidetzen erregimen berria ezarri zen, Espainiako Estatuaren eta Egoitza Santuak 1979ko urtarrilaren 3an irakaskuntzaren eta kultura gaien inguruan sinatutako Akordioan xedatutakoa betez.
- ECD/711/2015 Agindua, apirilaren 15ekoa, Lehen Hezkuntzako ebaluazio agiri ofizialen elementuak eta ezaugarriak ezartzen dituena, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioko kudeaketa esparrurako.
- Ebazpena, 2015eko ekainaren 3koa, Ebaluazioko eta Lurralde Lankidetzako Zuzendaritza Nagusiarena, Erljio Ebanjelikoaren irakaskuntzako curriculuma –Haur Hezkuntzako– argitaratzen duena.
- Ebazpena, 2015eko ekainaren 3koa, Ebaluazioko eta Lurralde Lankidetzako Zuzendaritza Nagusiarena, Erljio Ebanjelikoaren irakaskuntzako curriculuma –Lehen Hezkuntzako– argitaratzen duena.
- ECD/1361/2015 Agindua, uztailaren 3koa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko curriculuma ezartzen duena Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioko kudeaketa esparrurako, eta ikasketa horiek ezartzeko modua, etengabeko ebaluazioa eta etapetako hainbat antolaketa alderdi arautzen dituena.
- 665/2015 Errege Dekretua, uztailaren 17koa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta araubide bereziko ikasketetan irakasteari buruzko eta irakasleen hasierako prestakuntzari eta Bigarren Hezkuntzako irakasle kidegoen espezialitatei buruzko xedapen jakin batzuk garatzen dituena.
- Ebazpena, 2015eko uztailaren 23koa, Ebaluazioko eta Lurralde Lankidetzako Zuzendaritza Nagusiarena, Erljio Ebanjelikoaren irakaskuntzako curriculuma – Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako– argitaratzen duena.

4.2.1. Haur Hezkuntzako lehen zikloa

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan azpimarratzen da Haur Hezkuntza borondatezkoa dela eta hezkuntza-asmoa duen eta ez nahitaez eskola-asmoa duen bi ziklotan antolatutako etapa modura hartzen da.

Haur Hezkuntzako lehen zikloa borondatezkoa da eta haren helburua da 16 astetik 3 urte bitarteko haurren afektu-, mugimendu- eta ezagutza-gaitasunen eta komunikazioaren eta hizkuntzaren garapen orekatua lortzen laguntzea.

Lege horrek, 15. artikuluan, administrazio publikoak premiatzen ditu poliki-poliki lehen zikloko ikaspostuen eskaintza handitzera, administrazioen artean koordinatzera, eta ezartzera zein baldintzatan egin daitezkeen hitzarmenak toki entitateekin, beste administrazioekin eta irabazi asmorik gabeko entitate pribatuekin. Halaber, hezkuntza administrazioek Haur Hezkuntzako lehen zikloko hezkuntza edukiak zehaztu behar dituzte eta ziklo hori ematen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak arautu, irakasleko ikasle kopuruari, instalazioei eta ikaspostu kopuruari dagokienez.

Ekainaren 30eko 806/2006 Errege Dekretuak egutegi bat zehazten du hezkuntza sistemaren antolamendu berria ezartzeko. Errege dekretuko 4. artikuluan esaten denari jarraituz, Haur Hezkuntzako lehen zikloa ezarri aurretik eta, betiere, 2007ko abenduaren 31 baino lehen, Haur

Hezkuntzako lehen zikloa ematen duten zentroek bete beharreko baldintzak ezarri behar zituzten hezkuntza administrazioek.

Horrenbestez, Nafarroako Foru Komunitatean honako foru dekretua onetsi zen: 28/2007 Foru Dekretua, martxoaren 26koa, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako lehen zikloa arautzen duena eta hori ematen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak eta ziklo horren hezkuntza edukiak ezartzen dituena.

Nafarroako Gobernuak foru dekretu honen bidez lortu nahi du Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeak kalitatezko hezkuntza guneak izatea, hiru urtetik beherako haurrei, familiekin batean, beren nortasuna eta gaitasunak garatzeko prozesu ezin hobe eskaintzeko, ongizate eta segurtasuneko esparru batean.

Foru Dekretu horrek ez ditu hiru urtetik beherako haurrei ohikotasunez arreta ematen dieten zerbitzu guztiak arautzen; izan ere, 13.2 artikuluan, ondokoa ezartzen du: "Foru dekretu honen aplikazio esparrutik kanpo daude 0 urtetik 3 urtera bitarteko haurrentzat diren eta foru dekretu honetan ezarritako betebeharrak eta baldintzak betetzen ez dituzten aisia, arreta edo zaintzako zerbitzu edo establezimenduak".

Horrekin batera, Nafarroako Gobernuaren nahia da ikastetxeak Foru Komunitateko aniztasun geografiko eta kulturalari egokitutako zerbitzua izatea, antolaketa malgua izan dena, familiei erantzuteko gai izan dena, familiako eta laneko eginbeharrak bateratzeko erraztasunak emanez, Haur Hezkuntzako bigarren zikloan ere gerta daitekeen bezala. Hori hala izanik ere, eginbeharrak bateratzeko aukeren gainetik, haurren afektu, mugimendu, adimen, gizarte eta komunikazio gaitasunen garapen orekatua da garrantzitsua.

Aipatutako foru dekretu horrek, hezkuntza edukiez gainera, ezartzen du zein izan diren Haur Hezkuntzako zikloa emanen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak ikasle-irakasle ratioari, instalazioei eta ikaspostu kopuruari dagokienez. Gainera, haur eskola publikoak sortzeko prozedura ezartzen da, eta Haur Hezkuntzako ikastetxe pribatuak baimentzeko prozedura.

Era berean, hiru urteko trantsizio aldia ezartzen da, ikasketa hauek ezarri zirenetik hasita (2008-2009 ikasturtea) 3 urtetik beherako haurrak hartzen dituzten ikastetxeak, dekretuak indarra hartzen duenean, eskatutako betebeharrak egoki daitezela eta, udal titulartasuneko ikastetxeei dagokienez, ikastetxea sortzeko eskaera egin dezaten eta, ikastetxe pribatuei dagokienez, hura baimentzeko eska dezaten.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren eta martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretuaren babesean onetsi zen 107/2010 Foru Agindua, ekainaren 29koa, Hezkuntzako kontseilariak emana. Foru agindu horren bidez udal titulartasuneko Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeen kudeaketa eta ekipamendua finantzatzeko asmoz, Hezkuntza Departamentuaren eta toki entitateen artean lankidetzak hitzarmenak sinatzeko oinarriak ezarri ziren.

Oinarri horietan ezartzen dira modulu aplikagarriak eta Hezkuntza Departamentuak eta toki entitateek ikastetxeen finantzaketan nola hartzen duten parte.

Arestian aipatutako trantsizio aldia bukatu zen eta oraindik ikastetxe askok ikastetxea sortzeko edo baimentzeko eskaera egin gabe zuten. Horrek, okerki, araudi berri bat sortzea eragin zuen, ikastetxeek bete beharreko beharkizunak murriztu zituena, hiru urtetik beherako haurren balizko kalitate, osasun eta segurtasun baldintzen kalterako.

Abuztuaren 7an indarra hartu zuen uztailaren 25eko 72/2012 Foru Dekretuak, hots, martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretua aldatzen duenak. Dekretu honek hiru urteko aldi iragankor bat ezartzen du martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretuak indarra hartu baino lehenago Haur Hezkuntzako lehen zikloa ematen ari ziren eta ordura arte sortzerik edo baimena lortzerik izan ez zuten ikastetxe publikoak eta pribatuak sorrera edo baimena eskatzeko, izan ikastetxe publiko edo pribatu, eta martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretu horretan ezarritako beharkizunak

orokorretara egokitzeko; jardunean segi dezakete baldin eta uztailaren 25eko 72/2012 Foru Dekretu berriko lehen xedapen iragankorreko beharkizunak betetzen badituzte.

Haur Hezkuntzako lehen zikloa emateko eskaturiko titulazioei dagokienez, otsailaren 12ko 132/2010 Errege Dekretuan ezarritakoa biltzen du eta unitate bakoitzeko ratioak hiru urteko epe baterako igotzen ditu. Gainera, foru dekretu berriak onartzen du badirela haurrei arreta emateko modu berriak eta diru-laguntzak emateko berariazko araubidea xedatzen du, sortu gabe egonik ere, proposamen pedagogikoari eta haurrei arreta zuzena ematen dieten profesionalen titulazioei dagokienez beharrezkoak diren beharkizunak betetzen dituzten udalen jabetzapeko ikastetxeetarako.

Aipatutako foru dekretu horrek indarra hartzearen ondorioz, eta postu publikoen eskaintzaren gehikuntza sustatzeko eta haien finantzaketa errazteko, Hezkuntzako kontseilariaren abuztuaren 27ko 79/2012 Foru Agindua onetsi zen. Foru agindu horren bidez ezarri ziren Hezkuntza Departamentuaren eta toki entitateen artean lankidetzak hitzarmenak izenpetzeko oinarriak, udal titulartasuneko Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeen kudeaketa finantzatzeko asmoz.

Ekainaren 29ko 107/2010 Foru Agindua indarririk gabe uzten duen foru agindu horrek diru-laguntzen kudeaketa arintzeaz gainera, diru-laguntzetarako araubide desberdinak ezartzen ditu, bereizketa eginez sortutako ikastetxeen eta Hezkuntza Departamentutik diru-laguntzak jadanik jasotzen zituzten sortu gabeko ikastetxeen artean.

Azken horientzat, diru-laguntza deialdi bat argitaratu da. Honela, Hezkuntza Departamentuak udal titulartasuneko ikastetxeen finantzaketan laguntzen jarraitzen du, hala, ikastetxe horiek 0-3 urteko ikasleei arreta emateko zerbitzua eskaintzen jarraitu ahal dezaten.

Gainera, oraindik badaude 72/2012 Foru Dekretuaren arabera "aisia, arreta edo zaintzako establezimenduak" deitzen diren zentroak, hezkuntzaren aldetik arautu gabe, ikuskatu gabe eta zentsatu gabe daudenak. Datu eta kontrolik ezak ezinezkoa egiten du establezimendu horietan eskolatuta dauden hiru urtetik beherako haur batzuen ongizate fisiko eta emozionala zein den jakitea eta arautzea.

4.2.2. Haur Hezkuntzako 2. zikloa eta Lehen Hezkuntza

Ziklo hau uztailaren 1eko 16/2014 Foru Legeak arautzen du, udal titulartasunekoak diren 0-3 urteko Haur Hezkuntzako zentroyen finantzaketa arautzen duenak.

Haur Hezkuntzako bigarren zikloaren xedea da haurren garapen fisikoan, afektiboan, sozialean eta intelektualean laguntzea. Arreta emanen zaie, pixkana-pixkanaka, garapen afektiboari, mugumenduari eta gorputza kontrolatzeko azturei, komunikazioaren eta hizkuntzaren adierazpenei, bizikidetzaren eta gizarte harremanen oinarritzko arauari, eta ingurune ezaugarri fisiko eta sozialen aurkikuntzari. Gainera, haurrei beren buruaren gaineko irudi positibo eta orekatua eratzten eta beren adinari dagokion autonomia pertsonal maila eskuratzen lagunduko zaie.

Lehen Hezkuntzaren xedea da ikasleek ahozko adierazpena eta ulermena, irakurketa, idazketa eta kalkulua ikastea eta kulturaren oinarritzko ideiak, bizikidetzako aztura, estudiatzeko eta lan egiteko aztura, zentzu artistikoa, sormena eta afektibitatea eskuratzea. Horrela, ikasleen nortasuna garatzen lagunduko duen prestakuntza integrala bermatu eta haiek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari etekina ateratzeko moduan prestatuko dira.

4.2.3. DBHko 2.a eta Batxilergoa

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren xedea da ikasleek kulturaren oinarritzko elementuak eskuratzea, batez ere haien alderdi humanistiko, artistiko, zientifiko eta teknologikoak; ikasteko

eta lan egiteko ohiturak garatzea eta sendotzea; ondoko ikasketak egiteko eta lan munduan sartzeko prestatzea; eta herritar bezala dituen eskubideak eta betebeharrak gauzatzeko prestatzea.

Batxilergoa

Batxilergoaren xedea da ikasleei prestakuntza, adimen eta giza heldutasuna, ezagutzak, eta abileziak ematea, gizarte eginkizunak garatzeko eta bizitza aktiboan sartzeko aukera izan dezaten, erantzukizunez eta behar bezalako gaitasunarekin. Era berean, ikasleak goi mailako ikasketetan sartzeko gaituko ditu.

Helduen Hezkuntza

Helduen hezkuntzaren helburua da hemezortzi urtetik gorako guztiei beren ezagutzak eta gaitasunak eskuratu, eguneratu, osatu edo hedatzeko aukera ematea, beren garapen pertsonal eta profesionalerako.

Helduen hezkuntzaren helburuak ondokoak dira:

- Oinarrizko prestakuntza eskuratzea eta hezkuntza sistemaren ikasketetarako sarbidea erraztea.
- Lanbide prestakuntza hobetzea edo beste lanbide batzuetan jarduteko prestaketa eskuratzea.
- Gaitasun pertsonalak eta herritar gisa parte hartzeko gaitasuna garatzea.
- Gizarte-bazterkeriaren arriskuak (sektorerik ahulenenak bereziki) zuzentzea.
- Zaharrenei beren gaitasunak gehitzeko eta eguneratzeko aukera ziurtatzea.
- Gatazka pertsonalei, familiakoei eta sozialei aurrea hartzea eta gatazka horiek era baketsuan konpontzea, gizonen eta emakumeen arteko benetako eskubide eta aukera berdintasuna sustatuz.

4.2.4. Lanbide Heziketa

Lanbide Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoak, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, eta hura aldatu zuen Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeari buruzko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak ezarritakoaren esparruan, ikusten dugu Lanbide Heziketaren eredia etengabe eraldatzen eta egokitzen ari dela. Nafarroan, Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza sistemaren esparruan Lanbide Heziketaren antolamendua eta garapena arautzen dituen maiatzaren 26ko 54/2008 Foru Dekretuaren bidez hasi zen Lanbide Heziketako ikasketen antolamendu eta garapen prozesua.

Gure inguruko herrialde garatuak aldaketa estrategikoak sartzen ari dira lanerako prestakuntza eta kualifikazioa zerbitzu eta ekoizpen sektoreen eskarien aldaketetara, langileen kualifikazioa egokitzeko beharrera, eta Lanbide Heziketako ikasketekin loturiko prestakuntza eskariaren gehikuntzara egokitzeko. Ildo horretan, Hezkuntza Departamentuko Lanbide Heziketaren Zerbitzuak badaki herritarren lanbide kualifikazioak garrantzi estrategikoa duela gure komunitateko garapen ekonomikorako, eta horrek Lanbide Heziketako Sistema egokitu eta ezartzea eskatzen du, erronka berriei erantzun ahal izateko.

Nafarroan Lanbide Heziketako ikasketak bi mailatan garatzen dira:

- Lehenengoa Estatu mailakoa da. Alderdi desberdinetatik Estatuaren arau esparruari egindako ekarpenekin du zerikusia. Ekintza horien artean azpimarragarriak dira Energia eta Uraren sektoreko kualifikazioen eta lanbide familia horretako tituluen diseinua. Gaur

egun Lanbide Heziketaren Batzorde Tenikoan eta Lanbide Orientaziokoan parte hartzen ari gara, non ondoko hauek lantzen diren: hezkuntza sistemaren Lanbide Heziketako ikasketen antolamenduarekin loturiko alderdiak, Lanbide Heziketako tituluak eta espezializazio ikastaroak, eta lanbide informazioa eta orientazioa. Era berean, Kualifikazioen Institutu Nazionalarekin lankidetzan jarraitzen dugu, lanbide kualifikazioen berrikusketa eta eguneratze prozesuan.

- Bigarren maila Nafarroako esparruan ekintzak eta proiektuak garatzearekin loturik dago, gure komunitatean Lanbide Heziketako Sistema garatzeko helburuarekin. Horri dagokionez, Nafarroako Gobernuaren 2005eko apirilaren 4ko Erabakia aipatu behar da, "Lanbide Heziketa eta Kualifikazioen Sistema Nazionala" garatzearen gainekoa. Erabaki horrek oinarriak ezarri zituen gure komunitateko hezkuntza sistemaren Lanbide Heziketako ikasketak gaur egun dauden bezala antolatzeko eta garatzeko, kualifikazioen sistema garatzeko, Lanbide Heziketako ikastetxe integratuak sortzeko, lanbide gaitasunen ebaluazio eta egiaztapen prozesua ezartzeko, hezkuntza sistemaren Lanbide Heziketako ikasketen eskaintza malgutzeko neurriak garatzeko, bizitzan zeharreko prestakuntza hobetzeko xedearekin, eta Lanbide Heziketan aniztasunarekiko arreta garatzeko.

Lanbide gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatze prozedurari dagokionez, abuztuaren 27ko 66/2014 Foru Dekretua aipatu behar da, lanbide gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatze prozedura Nafarroako Foru Komunitatean ezartzeko arauak finkatzen dituena. Foru Dekretu hori Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuaren eta Hezkuntza Departamentuaren arteko lankidetzaren emaitza da eta aukera emanen du Nafarroan lanbide gaitasunak ebaluatzeko sistema berekia abian jartzeko. Modu horretan, ebaluazio deialdiak azkarrago eginen dira eta langile gehiagok lotu ahal izanen dute egiaztapena. Aurreko hori egin daiteke lanbide gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatze deialdiak administrazio publikotik kanpoko entitate eta taldeen artean sustatzeko aukera ematen duelako.

Bizitzan zeharreko prestakuntza hobetuko duten malgutasun neurriak garatzeari dagokionez, Nafarroan Lanbide Heziketako tituluak lortzeko aukera ematen duten moduluko proba libreak eskaini dira, lehen aldiz Lanbide Heziketako heziketa zikloak ezarri zirenetik. Nafarroan hartu den neurri berri hori, jada existitzen direnei gehitzen zaie: jardunean ari diren langileei zuzenduriko Lanbide Heziketako eskaintza eta Lanbide Heziketako onlineko eskaintza.

Aniztasunarekiko arreta Lanbide Heziketan 2014-2015 ikasturtean gauzatu da, Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloen ezarpenaren bidez. Horretarako, ukitutako irakasleek proiektuetan oinarrituriko ikaskuntza-irakaskuntza metodologiaren eta gamifikazioaren gaineko prestakuntza jaso dezaten sustatu da, Lanbide Heziketako ziklo horiek garatzeko alderdi estrategiko gisa. Era berean, maiatzaren 22ko 52/2015 Foru Aginduaren bidez oinarriak ezarri dira hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei ematen zaien prestakuntza, ondorio guztietarako, Lanbide Heziketako ikasketatzat jo dadin, horretarako Nafarroan Lanbide Heziketa Bereziko zikloak sortuz.

Azkenik, 2014-2015 ikasturtean Lanbide Heziketako ikasketetarako Hezkuntza Departamentuak zehazturiko gainerako garapen ildo estrategikoekin jarraitu da, hala nola berrikuntza teknologiko eta didaktikoa, nazioartekotzea eta ekintzailtza.

2014-2015 ikasturtean, aurrerapen hauek gertatu dira ondoko ataletako bakoitzean:

1.- Ikastetxe integratuak.

Irailaren 4ko 63/2006 Foru Dekretuak arautzen ditu Nafarroan Lanbide Heziketako ikastetxe integratuak. Foru Dekretu horren bidez, baimena eman zen 2006-2007 ikasturtetik aurrera ikastetxe integratu pilotuak abian jartzeko, modu esperimentalean. 2010-2011 ikasturtean amaitu zen proiektu pilotu esperimental hori, Hezkuntzako kontseilariaren abenduaren 1eko 198/2010 Foru Aginduarekin. Foru Agindu horrek Hezkuntza Departamentuaren mendeko ikastetxe integratu publikoak izendatu zituen eta Nafarroako ikastetxe integratu publikoen sarea sortu zuen. Ikastetxeak honako hauek izan ziren:

Ikastetxe integratu politeknikoak

- "Donapea" Ikastetxe Integratu Politeknikoa.
- "Virgen del Camino" Ikastetxe Integratu Politeknikoa.
- "ETI" Ikastetxe Integratu Politeknikoa.
- Lizarrako Ikastetxe Integratu Politeknikoa.
- "Tafalla" Ikastetxe Integratu Politeknikoa.

Ikastetxe integratu sektorialak

- Energia Berriztagarrien Goi Mailako Ikastetxe Integratua.
- Nekazaritza eta Basogintzako Ikastetxe Integratua.
- "Nafarroako Lanbide Eskola Tekniko Sanitarioa-ESTNA" Ikastetxe Integratua.
- "María Ana Sanz" Administrazio, Merkataritza eta Informatika Ikastetxe Integratua.

Ondoz ondoko foru aginduen bidez, 2012-2013 eta 2013-2014 ikasturteetan ikastetxe integratu publiko berriak izendatu ziren:

- "FP Sakana LH" Ikastetxe Integratu Politeknikoa (58/2013 Foru Agindua, ekainaren 24koa)
- "San Juan-Donibane" Ikastetxe Integratua (58/2013 Foru Agindua, ekainaren 24koa)
- "Hezitzaile Eskola" Ikastetxe Integratua (58/2013 Foru Agindua, ekainaren 24koa)
- "Burlada FP" Ikastetxe Integratua (87/2013 Foru Agindua, urriaren 8koa)

Era berean, 2012-2013 eta 2013-2014 ikasturteetan lehen ikastetxe integratu pribatuak izendatu ziren:

- "Politécnico Salesianos" Ikastetxe Integratu Pribatua (1/2013 Foru Agindua, urtarrilaren 3koa)
- "Cuatrovientos" Ikastetxe Integratu Pribatua (15/2014 Foru Agindua, otsailaren 19koa)

Nafarroako Gobernuaren 2014ko uztailaren 2ko bi erabakiren bidez 2014-2015 ikasturtetik aurrera ikastetxe bereizketak gertatzen dira. Alde batetik, Elizondoko "FP Elizondo LH" Bigarren Hezkuntzako Institutua sortzen da, Lekarozko eta Elizondoko "Lekaroz-Elizondo" Bigarren Hezkuntzako Institutuko egoitzan ematen diren Lanbide Heziketako irakaskuntzak bereizteagatik; eta, bestetik, "FP Lumbier" Bigarren Hezkuntzako Institutua sortzen da, Zangozako eta Irunberriko "Sierra de Leyre" Bigarren Hezkuntzako Institutuko Lanbide Heziketako irakaskuntzak bereizteagatik. Bereizketaren bidez Bigarren Hezkuntzako bi institutu berri sortzeko prozesu hori aurretiko urratsa izan da 2015-2016 ikasturtean zehar Nafarroako ikastetxe integratu publikoen sarea zabaltzen jarraitzeko.

2014-2015 ikasturtean zehar Estatuaren oinarritzko araudiak ikastetxe integratuei ematen dizkien berezko ekintzak garatzen jarraitu da eta, orobat, Hezkuntza Departamentuak lanbide prestakuntzaren arloan ezarritako ildo estrategikoekin loturiko ekintzak, batez ere ekintzailetak sustatzeari dagozkionak (2011-2012 ikasturtean hasi ziren ekintza horiek garatzen).

2.- Gaitasunaren egiaztapena.

Lan esperientziaren edo prestakuntza ez-formalaren bidez lortutako lanbide gaitasunak ebaluatze eta egiaztatze prozedura Lanbide Heziketaren eta Kualifikazioen Sistema Nazionalaren tresnetako bat da eta uztailaren 17ko 1224/2009 Errege Dekretuak arautzen du. Lanbide gaitasunak ebaluatze eta egiaztatze prozedura Nafarroako Foru Komunitatean ezartzeko arauak finkatzen dituen abuztuaren 27 66/2014 Foru Dekretuak garatzen du Errege Dekretu hori Nafarroan.

2014-2015 ikasturtean zehar Nafarroan burutu diren deialdiak departamentu arteko lankidetzara sistema baten bidez egin dira, Hezkuntza Departamentuko Lanbide Heziketaren Zerbitzuaren eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Prestakuntza Zerbitzuaren artekoa, eta ondoko ebazpenek arautu dituzte:

- 95/2014 Ebazpena, martxoaren 5koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, 2014rako deialdia egiten duena,

Nafarroako Foru Komunitatean Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionaleko zenbait kualifikaziori lotuta dauden lanbide gaitasunak ebaluatu eta egiaztatzeko prozedurarako.

- 668/2014 Ebazpena, abenduaren 19koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, handitu egiten dituen mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta egiteko lanbide gaitasunak ebaluatu eta egiaztatzeko prozedurarako plaza kopurua. Prozedura hori martxoaren 5eko 95/2014 Ebazpenaren bidez arautu zen.

95/2014 Ebazpenaren bidez ondoko postuak deitu dira:

- 30 postu, lanbide kualifikazio hauetan: "SAN025-2 Osasun arloko garraioa" eta "SAN122-2 Osasun laguntza biktima askoko gertakarietan eta hondamendietan".
- 150 postu, lanbide kualifikazio hauetan: "SSC089-2 Laguntza soziosanitarioa etxean" eta "SSC320-2 Gizarte eta osasun laguntza erakunde sozialetan mendekotasun egoeran dauden pertsonen".

Deialdi honetan esku hartu duten ikastetxe integratu publikoak "Nafarroako Lanbide Eskola Tekniko Sanitarioa-ESTNA" II eta "Hezitzaile Eskola" II izan dira.

Abenduaren 19ko 668/2014 Ebazpenak deialdiko postu kopurua handitu du, Europako Gizarte Funtzaren eta Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren kofinantzaketari esker:

- 250 postu, lanbide kualifikazio hauetan: "SSC089-2 Laguntza soziosanitarioa etxean" eta "SSC320-2 Gizarte eta osasun laguntza erakunde sozialetan mendekotasun egoeran dauden pertsonen".

Era berean, 2014-2015 ikasturtean abuztuaren 27ko 66/2014 Foru Dekretuan oinarritutako lehen deialdia abian jarri da, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiaren otsailaren 11ko 28/2015 Ebazpenaren bidez arautua. Aholkularitza fasea 2014-2015 ikasturtean egin da eta ebaluazio eta egiaztapen fasea 2015-2016 ikasturtean amaituko da. Honako postu hauek deitu dira:

- 30 postu "ELE257_2 Behe tentsioko instalazio elektriko muntaketa eta mantentze-lanak" lanbide kualifikazioan.
- 20 postu "IMA040_2 Hozteko instalazioen muntaketa eta mantentze-lanak" lanbide kualifikazioan.

Deialdi honetan esku hartu duten ikastetxe integratu publikoak "Virgen del Camino" IIP eta "San Juan-Donibane" II izan dira.

3.- Ekintzailtza sustatzea

2011-2012 ikasturtean Nafarroako Lanbide Heziketako ikasketak garatzeko ildo estrategiko gisa, "ekintzailtza sustatzea" sartu zen, Lanbide Heziketako ikasleen espiritu ekintzailea sustatu eta garatzeko helburuarekin. Ezarpen faseak ondokoak izan dira:

- 2012-2013 ikasturtea. Metodologia berri bat diseinatu zen, tresna eta guzti. Metodologia hori Lanbide Heziketako zazpi ikastetxe integratutan saiatu zen "Enpresa eta ekimena" moduluaren bitartez.
- 2013-2014 ikasturtea. Metodologia berri hori goi mailako Lanbide Heziketako ziklo eta ikastetxe guztietara hedatu zen, "Enpresa eta ekimena" moduluaren bitartez. Horretarako, "Lanerako Prestakuntza eta Orientazioa" eta "Enpresa eta ekimena" moduluak bigarren mailako curriculumean elkartu ziren.

- 2014-2015 ikasturtea. Metodologia erdi mailako Lanbide Heziketako ziklo guztietara hedatu zen, “Enpresa eta ekimena” moduluaren bitartez eta, kasu honetan ere, “Lanerako Prestakuntza eta Orientazioa” eta “Enpresa eta ekimena” moduluak bigarren mailan elkartu ziren.

Horrela, 2014-2015 ikasturtean, erdi eta goi mailako ziklo guztiak ekintzailtza sustatzen duen curriculumaren eta metodologiaren egitura berriari egokituta daude.

4.- 2014-2015 ikasturtean ezartzeko onetsi diren Lanbide Heziketako tituluak.

Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalak Lanbide Heziketako tituluak diseinatzeko Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak erabiltzen duen oinarrizko erreferentzia ematen du. Hala, aurretiaz onetsitako lanbide kualifikazioak dira dagozkien errege dekretuen bidez ezartzen diren titulu berrien oinarria.

Nafarroan lanean ari gara tituluak gure gizarte, lan eta ekonomia baldintzetara, eta Hezkuntza Departamentuak planteatzen duen didaktika eta antolamendu ikuspegira egokitzeko, titulu bakoitza egituratzen duten lanbide kualifikazioez gain, oinarrizko prestakuntza osagarria ere kontuan hartuta, hori guztia prestakuntza pertsonal sendoa izanen duten profesionalak sortzeko helburuarekin.

Horrela, 2014-2015 ikasturtean Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalean oinarrituriko ondoko titulu berriak ezarri ziren:

Oinarrizko lanbide tituluak

- Zurgintzako eta Altzarigintzako oinarrizko lanbide teknikaria.
- Arte Grafikoetako oinarrizko lanbide teknikaria.
- Ile-apainketako eta Estetikako oinarrizko lanbide teknikaria.
- Elektrizitate eta Elektronikako oinarrizko lanbide teknikaria.
- Ibilgailuen Mantentze-lanetako oinarrizko lanbide teknikaria.
- Nekazaritza eta Lorezaintzako eta Lore-konposizioetako oinarrizko lanbide teknikaria.
- Sukaldaritzako eta Jatetxeetako oinarrizko lanbide teknikaria.
- Fabrikazio eta Muntaketako oinarrizko lanbide teknikaria.
- Elikagaien Industrietako oinarrizko lanbide teknikaria.
- Bulegoko Informatikako oinarrizko lanbide teknikaria.
- Eraikinak Zaharberritzeko eta Mantentzeko oinarrizko lanbide teknikaria.
- Administrazio Zerbitzuetako oinarrizko lanbide teknikaria.
- Merkataritza Zerbitzuetako oinarrizko lanbide teknikaria.

Teknikari tituluak

- Natur Ingurunea Ustiatzeko eta Kontserbatzeko teknikaria.
- Ile-apainketako eta Ile-kosmetikako teknikaria.
- Beroa Sortzeko Instalazioetako teknikaria.
- Hozteko eta Girotzeko Instalazioetako teknikaria.
- Aurreinprimaketa Digitaleko teknikaria.

Bestalde, 2014-2015 ikasturtean zehar hurrengo ikasturtean ezarri beharreko ondoko tituluak landu dira:

Oinarrizko lanbide tituluak:

- Nekazaritza eta Abeltzaintza Jardueretako oinarrizko lanbide teknikaria.

Teknikari tituluak:

- Inprimatutako Produktu Grafikorako Laguntzako teknikaria.
- Merkataritza Jardueretako teknikaria.
- Hondeaketa eta Zundaketetako teknikaria.
- Inprimaketa Grafikoko teknikaria.

Goi mailako teknikari tituluak:

- Zentral Elektrokoetako goi mailako teknikaria.
- Gizarte Integrazioko goi mailako teknikaria.
- Zuzendaritzarako Laguntzako goi mailako teknikaria.
- Salmenten eta Merkataritzako Guneen Kudeaketako goi mailako teknikaria.
- Diagnostikorako Irudiko eta Medikuntza Nuklearreko goi mailako teknikaria.
- Laborategi Kliniko eta Biomedikoko goi mailako teknikaria.

5.- Berrikuntza teknologikoa Lanbide Heziketan

Azken urteotan, Hezkuntza Departamentuko Lanbide Heziketaren Zerbitzuak berrikuntza teknologikoaren ildo estrategikoa hartu du eta berrikuntzarako sare baten bidez Nafarroako Lanbide Heziketako ikastetxe guztiak koordinatzen ditu. Horrela, sistematikoki eguneratu eta arintzen da teknologia sortu berrien eta berritzaileen sarrera Lanbide Heziketako ikastetxeetan. Hori guztia, gure komunitatearen garapenean eta berrikuntzan parte hartuko duten teknikari kualifikatuen prestakuntza hobetzeko helburuarekin.

2014-2015 ikasturteko jarduera nagusiak honako hauek izan dira:

- Lanbide Heziketako ikastetxeen ekipamendua. Ekintza horren bidez, teknologia sortu berriak Lanbide Heziketako ikastetxeetan sartu dira, teknologiak Lanbide Heziketako titulu berrien edukietara egokitu dira eta segurtasun arauetatik kanpo dauden ekipoak ordeztu dira.
- Berrikuntza eta ekintzailtza proiektuen deialdia, Europako Gizarte Funtsak eta Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak kofinantzatuz.

Deialdi honetan hautatu diren proiektuak ondokoak dira:

- “Cobotraining. Plataforma abierta de formación en robótica colaborativa” proiektua. Tuterako ETI IIPn garatuko da.
- “Aprende a cooperar – cooperar para aprender. Implementación del aprendizaje cooperativo” proiektua. Iruñeko “Hezitzaile Eskola” IIn garatuko da.
- “Integración de los talleres en el sistema de gestión de calefacción en edificios de válvulas sectorizadas con alimentación mediante células peltier” proiektua. Imarkoingo Goi Mailako Lanbide Heziketako Energia Berriztagarrien IIn garatuko da.
- “Generación de contenidos digitales educativos para entornos virtuales y gamificación de una unidad de tratamiento de aire (uta)” proiektua. Iruñeko “Virgen del Camino” IIPn garatuko da.

6.- Bizitzan zeharreko prestakuntza hobetuko duten malgutasun neurriak garatzea.

Aurreko ikasturteetan helduendako Lanbide Heziketako eskaintzak izan dira, batez ere lanbide sektore jakin bateko langileei zuzenduak. Eskaintza horiek "Jardunean ari diren langileei zuzenduriko Lanbide Heziketako eskaintza" eta "LHko onlineko eskaintza" izan dira. 2014-2015 ikasturtean aurretik daudenak osatzen dituen neurri berri bat hartu da, Lanbide Heziketako ikasketen eskaintza malgutzeko neurriak garatzeko ildo estrategikoaren barnean, bizitzan zeharreko prestakuntza hobetzen, herritarren egoera pertsonal eta profesionalari egokitzen eta hezkuntzaren eskaintza eta kalitatea hobetzen lagunduko duena.

Lanbide Heziketako tituluak lortzeko aukera emanen duten moduluko proba libreak deitzea izan da hartutako neurria. Lanbide Heziketako heziketa zikloak ezarri zirenetik, Nafarroan deialdi hori egiten den lehen aldia da. Deialdi irekia izan da eta Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiaren maiatzaren 12ko 188/2014 Ebazpenaren bidez arautu da. Bertan 2014-2015 ikasturterako ondoko postuak deitu dira:

- 120 postu Mendekotasuna duten Pertsonentzako Arretako teknikari tituluko ondoko moduluetakoko bakoitzerako: "0210 Mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako arreta antolatzea", "0214 Komunikaziorako laguntza", "0215 Etxeko laguntza", "0216 Osasun arreta", "0213 Arreta eta laguntza psikosoziala", "0217 Arreta higienikoa".
- 60 postu Osasun Larrialdietako teknikari tituluko ondoko moduluetakoko bakoitzerako: "0052 Ibilgailuaren alde zuzenduriko mantentze-lan mekanikoa", "0054 Osasun arloko ekipamendua", "0055 Hasierako osasun arreta larrialdi egoeretan", "0057 Eriak ebakatu eta lekualdatzea", "0058 Laguntza psikologikoa larrialdi egoeretan", "0056 Osasun arreta berezia larrialdi egoeretan".

Esku hartu duten ikastetxeak izan dira, lehen kasuan, "Hezitzaile Eskola" II eta, bigarren kasuan, "Nafarroako Lanbide Eskola Tekniko Sanitarioa-ESTNA" II. Mendekotasuna duten Pertsonentzako Arretako teknikari tituluko moduluen kasuan 143 pertsona matrikulatu dira eta, Osasun Larrialdietako teknikari tituluko moduluen kasuan, 109.

2014-2015 ikasturtean beste malgutasun neurri hauek ere hartu dira:

- Jardunean ari diren langileei zuzenduriko Lanbide Heziketako eskaintza, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiaren apirilaren 22ko 156/2014 Ebazpenaren bidez arautua. 50 postu deitu dira "Mendekotasun egoeran daudenei arreta egiteko" erdi mailako heziketa zikloan eta 25 "Gizarte Integrazioko" goi mailako heziketa zikloan.
- Lanbide Heziketako onlineko eskaintza. 2014-2015 ikasturteko deialdia Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiaren ekainaren 2ko 229/2014 Ebazpenaren bidez onetsi da. Modalitate honetan eskaintako zikloak izan dira, erdi mailakoak: "Osasun Larrialdiak" eta "Sistema Mikroinformatikoak eta Sareak", eta goi mailakoak: "Turismoko ostatuak kudeaketa", "Haur Hezkuntza", "Marketina eta publizitatea" eta "Automatizazioa eta Robotika Industrialak". 586 izan dira 2014-2015 ikasturtean Lanbide Heziketako zikloetan onlineko prestakuntza modalitatean ikasten aritu diren helduak.

7.- Oinarrizko Lanbide Heziketa - Lanbide Heziketa Berezia

2014-2015 ikasturtean lehen aldiz ezarri dira LOMCEk LOEn sartu dituen Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloak. Hauek dira haien garapenerako ildo estrategikoak:

- Aniztasunari arreta ematea. Aniztasunarekiko arretaren printzipioak Oinarrizko Lanbide Heziketa antolatzen du, eta ikasleei dagokion egiaztatzea edo titulazioa lortzeko aukera emanen dien hezkuntza inklusiborako eskubidea ahalbidetzen du.

- Prestakuntzako plan pertsonalizatuak. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak banakakoa izan behar du eta ikasleen beharrei eta ezaugarriei egokitu behar zaie.
- Proiektuetan oinarrituriko ikaskuntza (POI) sustatzea. Hezkuntza Departamentuak sustatzen du Oinarrizko Lanbide Heziketan erabiltzen diren lan metodologiek ikasleei beren bizitzan zeharreko prestakuntzari aurre egiteko eta beren enplegagarritasuna hobetzeko tresnak eman diezazkietela eta sarean arituko den gizarte batean elkarlanean ikasteko gai egingen dituzten abileziak garatzen lagundu diezaietela.
- Gamifikazioa sustatzea. Hezkuntza Departamentuak sustatzen du Oinarrizko Lanbide Heziketan gamifikazioa erabiltzea eta proiektuetan oinarrituriko ikaskuntzan (POI) txertatzea, ikasleen eta irakasleen gozamina eta hezkuntza parte-hartzea ahalik eta handiena izan dadin, ikasleek beren ikaskuntzarekiko duten konpromisoa hobetzeko.

Era berean, 2014-2015 ikasturtean hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleek orain arteko programetan (LHPB / HLKPB) jaso duten prestakuntza Nafarroako hezkuntza sistemako Lanbide Heziketako ikasketetan txertatzeko aukera emanen duen araudia landu da. Horretarako, Hezkuntzako kontseilariaren 52/2015 maiatzaren 22ko Foru Agindua garatu da, otsailaren 28ko 127/2014 Errege Dekretuaren laugarren xedapen gehigarrian aipatzen diren lanbide heziketako prestakuntza programak, "Lanbide Heziketa Bereziko zikloak" deituak, arautzen dituen hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleentzat, Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan.

99. taula: Lanbide Heziketako ikastetxe integratuetako ikasleak, 2014-2015 ikasturtea.

Ikastetxe integratua	Ikasleak
"ETI" IIP	1.038
"Donapea" IIP	818
"María Ana Sanz" Administrazio, Merkataritza eta Informatika II	703
"Virgen del Camino" IIP	612
"Burlada FP" II	594
"Nafarroako Lanbide Eskola Tekniko Sanitarioa - ESTNA" II	586
Tafallako IIP	437
"Hezitzaile Eskola" II	412
Lizarrako II Politeknikoa	412
Nekazaritza eta Basogintzako II	318
"San Juan – Donibane" II	299
"FP Sakana LH" IIP	128
Energia Berriztagarrien Goi Mailako II	118
"Politécnico Salesianos" II pribatua	637
"Cuatrovientos" II Pribatua	492
Guztira	7.604

Iturria: Lanbide Heziketaren Zerbitzua. Lanbide Heziketaren Plangintza, Antolamendu eta Garapenerako Atala

Hezkuntza sistemako Lanbide Heziketako titulazioak / heziketa zikloak

100. taula: 2008-2009tik 2014-2015erako aldian eskainitako teknikari eta goi mailako teknikari tituluen kopurua.

Ikasturtea	Erdi maila (Teknikari titulua)	Goi maila (Goi mailako teknikari titulua)	Guztira
2008-2009	31	46	77
2009-2010	32	46	78
2010-2011	34	48	82
2011-2012	32	47	79
2012-2013	32	48	80
2013-2014	34	51	85
2014-2015	37	51	88

Iturria: Lanbide Heziketaren Zerbitzua. Lanbide Heziketaren Plangintza, Antolamendu eta Garapenerako Atala

4.2.5. Hizkuntzak ikastea

4.2.5.1. Atzerriko hizkuntzak

Hezkuntza Departamentuak sustatutako ikaskuntza programak atzerriko hizkuntzetan. Atzerriko hizkuntzetan ikasteko programa eleaniztunetan indarreko curriculumak bi hizkuntzatan edo gehiagotan koordinaturik ematen da. Programa horiek Haur Hezkuntzako bigarren zikloan hasten dira eta Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan ematen zaie jarraipena.

Horien artean daude Haur eta Lehen Hezkuntzako ingelesez ikasteko programak (IIP), HKKMren eta British Councilen arteko hitzarmenari atxikiriko ikastetxeak barne, Bigarren Hezkuntzako ingeleseko eta frantseseko atal elebidunak eta, 2013-14 ikasturteetik aurrera, alemanez ikasteko programak (AIP) eta Batxilergoko titulazio bikoitzeko Bachibac programa.

IIP programetan ingelesez gutxienez curriculumeko %35 ematen da (10 saio) A/G eremuan. D eremuan, berriz, %18 (5 saio) Haur Hezkuntzan eta %21 eta %28 artean Lehen Hezkuntzan.

Bigarren Hezkuntzan atzerriko hizkuntzan ikasteko programetan, HKKM-BC-n eta ingeleseko eta frantseseko atal elebidunetan, hizkuntzakoak ez diren irakasgaiak ematen dira ingelesez edo frantsesez. Ikasleak ikasketa mota hauetan sar daitezke DBHko 1. mailan, behar den hizkuntzan duten jakite-maila zein den gutxi gorabehera neurtu ondoren.

Frantseseko ataletan, atzerriko bigarren hizkuntza baita, programan Frantsesa irakasgai sendotzen da DBHko 1. eta 2. mailetan, ordu gehiagorekin. DBHko 3. eta 4. mailetan irakasgai bat edo batzuk ematen dira frantsesez.

101. taula: Haur eta Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan programa eleaniztunak ematen dituzten ikastetxeak.

Ikastetxea Lehen Hezkuntza	Programan ari diren ikasle kopurua			Zein mailatara arte ematen den
	HH	LH	Guztira	
Elvira España IP (Tutera)	200	377	577	LH 6
Cardenal Ilundáin IP (Iruña)	257	481	738	LH 6
Azpilagaña IP (Iruña)	119	257	376	LH 6

Añorbeko IP	3	42	45	LH 6
Lorenzo Goikoa IP (Atarrabia)	172	250	422	LH 5
José M.ª de Huarte IP (Iruña)	67	130	197	LH 5
Catalina de Foix IP (Zizur Nagusia)	164	312	476	LH 5
Camino de Santiago IP (Zizur Nagusia)	149	232	381	LH 5
Doña Mayor de Navarra IP (Iruña)	220	338	558	LH 5
Hilarión Eslava IP (Burlata)	131	158	289	LH 4
Beriaingo IP	119	143	262	LH 4
San Miguel IP (Noain)	239	244	483	LH 4
Otero de Navascués IP (Cintruénigo)	297	387	684	LH 4
Remontival IP (Lizarra)	137	217	354	LH 4
Huertas Mayores IP (Tutera)	152	186	338	LH 4
Ermitagaña IP (Iruña)	117	147	264	LH 4
San Francisco Javier IP (Elizondo)	86	76	162	LH 3
Buztintxuri IP (Iruña)	338	244	582	LH 3
Sarrigurengo IP	558	272	830	LH 3
Rochapea IP (Iruña)	152	106	258	LH 2
Griseras IP (Tutera)	148	95	243	LH 2
Monte San Julián IP (Tutera)	115	63	178	LH 1
Mendillorri IP (Iruña)	124	53	177	LH 1
Iturrama IP (Iruña)	66	33	99	LH 1
Los Sauces-Sahats IP (Barañain)	77	42	119	LH 1
Luis Gil IP (Zangoza)	103	54	157	LH 2
San Juan IP (Irunberri)	13	21	34	LH 3
Mendialdea I IP (Berriozar)	183	58	241	LH 1
San Juan de la Cadena IP (Iruña)	132	0	132	5 urte
El Lago de Mendillorri IP (Iruña)	73	0	73	5 urte
Eulza IP (Barañain)	105	0	105	5 urte
Urraca Reina IP (Artaxoa)	39	0	39	5 urte
Félix Zapatero IP (Valtierra)	56	0	56	5 urte
Blanca de Navarra IP (Lerín)	29	0	29	5 urte
Virgen del Soto IP (Caparros)	102	0	102	5 urte
Alfonso X El Sabio IP (San Adrián)	182	0	182	5 urte
Santa Bárbara IP (Elo)	11	9	20	LH 2
Juan de Palafox IP (Fitero)	60	0	60	5 urte
Cerro de la Cruz IP (Cortes)	79	0	79	5 urte
Nuestra Señora del Rosario IP (Sartaguda)	26	0	26	5 urte
San Babil IP (Ablitas)	49	0	49	4 urte
San Juan de Jerusalén IP (Cabanillas)	28	0	28	5 urte
Teresa Bertrán de Lis IP (Cadreita)	33	0	33	4 urte
Virgen de La Oliva IP (Zarrakaztelu)	52	0	52	4 urte
Santa Vicenta María IP (Cascante)	65	0	65	4 urte
Jose Luis Arrese IP (Corella)	140	0	140	4 urte
Doña Álvaro Álvarez IP (Faltzes)	39	0	39	4 urte
Ángel Martínez Baigorri IP (Lodosa)	37	0	37	4 urte
Santa María IP (Los Arcos)	32	0	32	4 urte
Nuestra Señora de los Dolores IP (Mendabia)	66	0	66	4 urte
San Pedro IP (Mutiloa)	76	0	76	4 urte
Obanosko IP	12	0	12	4 urte
Juan Bautista Irurzun IP (Azkoien)	124	0	124	4 urte
Garesko IP	82	0	82	4 urte
Virgen de las Nieves IP (Sesma)	16	0	16	4 urte
Marqués Real de la Defensa IP (Tafalla)	66	0	66	4 urte
Ricardo Campano IP (Viana)	65	0	65	4 urte
El Castellar IP (Alesbes)	66	0	66	4 urte
San Veremundo IP (Villatuerta)	23	0	23	4 urte
San Bartolomé IP (Martzilla)	52	0	52	4 urte
Virgen de la Cerca IP (Andosilla)	17	0	17	3 urte
Francisco Arbeloa IP (Azagra)	39	0	39	3 urte
Elías Teres IP (Funes)	45	0	45	4 urte
Santos Justo y Pastor IP (Fustiñana)	19	0	19	3 urte
Virgen Blanca IP (Uhart)	50	0	50	4 urte

HEZKUNTZA PROZESUAK ETA POLITIKAK

Santa Ana IP (Mélida)	12	0	12	4 urte
Ntra. Sra. del Patrocinio IP (Milagro)	27	0	27	3 urte
Honorio Galilea IP (Monteagudo)	5	0	5	3 urte
Raimundo Lanas IP (Murillo el Fruto)	7	0	7	5 urte
Príncipe de Viana IP (Erriberri)	25	0	25	3 urte
Ximénez de Rada IP (Arrada)	14	0	14	4 urte
Ntra. Sra. de la Asunción IP (Santakara)	12	0	12	4 urte
Beireko IP	7	0	7	5 urte
Amor De Dios (Burlata)	16	0	16	3 urte
Calasanz Eskolapioak (Iruña)	54	0	54	3 urte
Compañía de María (Tutera)	90	0	90	3 urte
Esclavas Del Sagrado Corazón (Iruña)	47	0	47	3 urte
Hijas de Jesús (Iruña)	54	0	54	3 urte
Irabia-Izaga (Iruña)	135	0	135	3 urte
La Milagrosa (Lodosa)	28	0	28	3 urte
La Presentación (Atarrabia)	22	0	22	3 urte
Liceo Monjardín (Iruña)	112	0	112	3 urte
Luis Amigó (Mutiloa)	110	0	110	3 urte
Mater Dei (Aiegi)	46	0	46	3 urte
Miravalles-El Redín	167	0	167	3 urte
Regina Pacis (Burlata)	21	0	21	3 urte
San Cernin (Iruña)	108	0	108	3 urte
Sta. Catalina Labouré (Iruña)	12	0	12	3 urte
Sta María la Real - Maristas (Sarriguren)	109	0	109	3 urte
Vedruna (Iruña)	56	0	56	3 urte
Guztira	7.989	5.018	13.007	
Bigarren Hezkuntza, ingelesa				
Ikastetxea		Ikasle kopurua		Ezarpen maila
Arantzako IP	9		DBH 2	
Reyno de Navarra DBHI (Azagra)	60		DBH 4	
Barañaingo BHI	74		DBH 3	
Toki Ona BHI (Bera)	152		DBH 4	
Ibaialde BHI (Burlata)	56		DBH 4	
Valle de Aragón DBHI (Zarrakaztelu)	16		DBH 1	
La Paz DBHI (Cintruénigo)	31		DBH 2	
Alhama BHI (Corella)	81		DBH 4	
Bardenas Reales DBHI (Cortes)	44		DBH 4	
Pablo Sarasate BHI (Lodosa)	81		DBH 4	
M. de Villena BHI (Martzilla)	157		DBH 4	
Elortzibar BHI (Noain)	35		DBH 2	
Plaza de la Cruz BHI (Iruña)	209		BATX 1	
Basoko BHI (Iruña)	89		DBH 4	
Navarro-Villoslada BHI (Iruña)	194		DBH 4	
Julio Caro Baroja BHI (Iruña)	70		DBH 4	
Eunate BHI (Iruña)	112		DBH 4	
Padre Moret-Irubide BHI (Iruña)	254		BATX 1	
Ribera del Arga BHI (Azkoien)	100		DBH 4	
Río Ega BHI (San Adrián)	100		DBH 4	
Benjamín de Tudela BHI	184		DBH 4	
Valle del Ebro BHI (Tutera)	211		BATX 2	
Zizurko BHI	250		DBH 4	
San Francisco Javier Ikastetxea	283		DBH 4	
Calasanz-Eskolapioak Ikastetxea	162		DBH 4	
Miravalles-El Redín Ikastetxea	157		DBH 4	
Vedruna Ikastetxea	24		DBH 4	
Irabia-Izaga Ikastetxea	291		DBH 4	
Nuestra Señora del Huerto Ikastetxea	341		DBH 4	
Guztira	3.827			
Bigarren Hezkuntza, frantsesa				
Arantzako IP	9		DBH 4	

Toki Ona BHI (Bera)	20	DBH 4
Alhama BHI (Corella)	20	DBH 4
Mendaur DBHI (Doneztebe)	80	DBH 4
Eunate BHI (Iruña)	70	DBH 4
Benjamín de Tudela BHI	49	BATX 1
Valle del Ebro BHI (Tutera)	104	DBH 4
Zizurko BHI	106	DBH 4
Guztira	458	

Iturria: Hizkuntzen eta Arte Ikasketen Zerbitzua

4.2.5.2. Euskara

Eskolatzeko hizkuntza ereduak:

Nafarroako irakaskuntza ez-unibertsitarioan euskararen sartzea eta erabiltzea arautzen duen maiatzaren 19ko 159/1988 Foru Dekretuak, Euskarari buruzko Foru Legea garatuz, A, B eta D hizkuntza ereduak definitzen ditu.

A hizkuntza eredian gaztelaniaz ematen da irakaskuntza eta euskara irakasgai bezala izaten da, maila, etapa eta modalitate guztietan.

B hizkuntza eredian zati batean euskaraz ematen da irakaskuntza, gaztelania irakasgai bezala izaten da eta irakasgai batean edo gehiagotan ere irakas-hizkuntza gaztelania da, ikasketen, zikloaren edo etaparen arabera.

D hizkuntza eredian irakaskuntza osorik euskaraz ematen da, gaztelaniako irakasgaia izan ezik.

Aurrekoetz gain, hizkuntza eremuaren arabera, bada G izeneko beste eredu bat, non ez dagoen ez euskarazko ez euskararen irakaskuntzarik.

Aipatutako foru dekretuan eremu euskaldunerako A, B eta D ereduak baimentzen dira eta, beraz, nahitaezkoa da euskararen irakaskuntza; eremu mistorako A, B, D eta G ereduak baimentzen dira eta eremu ez-euskaldunerako A eta G ereduak.

Eredu bakoitzean eskolatzen den ikasle kopuruari dagokionez, D eredia ikasle gehien hartzen dituen eredia da. B ereduak oso ikasle gutxi ditu.

102. taula: Eskolatzeko datuak euskarazko ereduetan, 2014-2015 ikasturtean

	D (+B+IIP D)	Ehunekoa	A (+IIP A)	Ehunekoa	Guztira Nafarroan
HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA	16.598	27,50	12.818	21,24	60.353
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA	6.359	24,05	2.565	9,70	26.444
BATXILERGOA	2.079	23,05	390	4,32	9.018
ERDI MAILA	74	1,80			4.115
GOI MAILA	97	2,01			4.164
Hezkuntza Berezia	23	7,32	4	1,27	314
Beste batzuk					1.965
GUZTIRA	25.230		15.776		106.373

%	23,72		14,83		100
---	-------	--	-------	--	-----

Iturria: Euskara Atala

4.2.6. Eskola kirola

Azken urteotan, Europar Batasunean eta bestelako herrialde industrializatuetan egindako ikerketa desberdinetan, ikusi da haurren eta nerabeen gaur egungo egoera fisikoa nabarmenki txikiagoa dela duela 20-30 urteko sektore bereko herritarrenarekin alderatuta. Esate baterako, gaur egungo haur eta nerabeen erresistentzia kardiobaskularra ikasleek 1980. urtean zutena baino %10-15 txikiagoa da. Nerabezaroan are handiagoa den egoera fisikoaren murrizketa hori bi arrazoi hauengatik gertatzen da:

Elikadura azturen aldaketagatik, orain animalia-jatorriko gantza eta azukre elaboratu gehiago jaten baita, eta karbohidratodun jaki gutxiago jateagatik.

Elikadura aldatzearekin eta jarduera fisikoa murriztearekin loturiko egoera fisiko txikiagoak herrialde industrializatu guztietan haurren obesitateak ikaragarri gora egitea ekarri du. Hainbat osasun erakundeek haurren obesitatea benetako epidemiatzat dute eta uste dute premia, lehenetsunez eta indarrez heldu beharreko lehen mailako arazoa dela, bestela, gaur egungo haur obesoei lehenago eta larritasun handiagoz obesitatearekin eta sedentarismoarekin loturiko gaixotasunak (miokardio infartua, giltzaduretako gaixotasunak, kardiobaskularrak, garunekoak, diabetesa, etab.) pairatuko dituztelako, eta gainerako haurrek baino bizi itxaropen eta kalitate txikiagoa izanen dutelako. Gaixotasunen gehikuntza horrekin batera osasun eta gizarte gastua ere ikaragarri handituko da. Aitzitik, frogatu da haur obesoei egokituriko jarduera fisikoko programak abian jartzeak haur horien egoera fisikoa handitzen duela eta obesitatea murriztu.

Espainiako haurrak ez daude arazo honetatik guztiz kanpo. Izan ere, azken urteotan haurren obesitateak ikaragarri egin du gora, Europako Mediterraneo aldeko beste herrialde batzuetan bezala. Bartzelonako Nutrizioaren Ikerketa Zentroak berriki egin duen ikerketa baten arabera, Espainiako eskola nesken %49k eta 6 eta 18 urte bitarteko eskola neska-mutilen %38k ez dute inolako kirolik egiten beren aisialdian.

Nafarroa ere ez da arazo honetatik kanpo gelditzen. Osasunbideak duela gutxi ikerketa bat egin du osasun etxeetako historia klinikoen datuak baliatuta eta ikusi du Nafarroan 15 urtetik beherako adingabeen %20k dutela obesitatea edo gehiegizko pisua. Zifra horiek duela 50 urtekoak (%7 inguruk zuen obesitatea) baino askoz ere altuagoak dira eta Europako Mediterraneo aldeko beste herrialde batzuetakoak, hala nola Grezia edo Italiakoak, antzekoak. Gainera, Nafarroan obesitatea duten adingabeen ehuneko altuagoa da mendi eremuetan, Tuterako eskualderen batean eta bertakoak ez diren eskola haurren artean.

Herrialde industrializatueta haurren obesitateari aurre egiteko gomendioak

Haurren obesitatearen epidemiari aurre egiteko, herrialde industrializatuak ondoko ekintzak burutzen ari dira:

- Haurrak, nerabeak, familiak eta, oro har, herritarrak elikadura osasuntsuaren eta ariketa fisikoa egitearen onuren eta behararen gainean heztea zenbait ekintzaren bidez, esate baterako:
 - Eskola haurrentako elikadurari eta ariketa fisikoari buruzko hezkuntza gidak prestatuz.
 - Eskola menuak hobetuz eta eskola jantokietako sukaldariak eta zaintzaileak heziz.
 - Ikastetxeen barnean edo haien inguruan, azukredun edariak edo pastelak, opilak edo gozokiak saltzen dituzten makinak edo dendak debekatuz.

- Familiak konbentzitzen, seme-alabei ez diezaieten uzi egunean 2 ordu baino gehiago egoten telebistaren edo ordenagailuaren pantailaren aurrean (haurrek obesitatea izateko aukera handiagoa dute egunean 2 ordu baino gehiago egoten badira).
- Ariketa fisikoaren eta kirolaren praktika estimulatu, erraztu eta sustatzea, hiru jarduketa ildori jarraituz:
 - Ikastetxera oinez edo bizikletaz joan daitezela erraztuz eta sustatuz. Horretarako, botere publikoak eskola haurren joan-etorrietarako irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzen ari dira, zebra-bideak gehituz oinezkoendako edo, bide bereziak, bizikletaz joaten direnendako. Era berean, hiri batzuetan ikastetxera elkarrekin oinez joanen diren haur taldeak antolatzen ari dira, eskola ibilbideen bidez. Ingalaterran egindako zenbait ikerketatan ikusi da eskolara oinez edo bizikletaz joaten diren haurrek egoera fisiko hobea dutela motordun ibilgailuetan joaten direnek baino.
 - Eskoletan astean ematen den Gorputz Hezkuntzako eskola ordu kopurua eta eskola horietako esfortzuaren intentsitate erlatiboa gehituz. Europako Parlamentuak gomendatzen du nerabeei gutxienez Gorputz Hezkuntzako 3 ordu ematea astean. Europako iparraldeko herrialde nahikok gomendio horiei jarraitzen diete, baita gainditu ere, esate baterako, Frantziak (astean 4 ordu Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan). Batez ere erresistentzia kardiobaskularra landu behar da, hori baita gaur egungo eskola haurren kalitate fisiko murriztuena.
 - Eskolaz kanpoko orduetan jarduera fisikoa erraztuz, antolatuz edo sustatuz, batez ere lehiaketa antolatuetan parte hartzen ez duten haurrentzat. Jarduera fisiko honek balio beharko du eskola haurrek intentsitate ertain edo altuko 45 minutuko ariketa fisikoa egin dezaten, batez beste, gutxienez astean 3 egunez, eta lehentasunez gizarte, ekonomia edo kultura maila baxuagoa duten eremuetan bultzatu behar da.

Egoera honekin, funtsezkoa da jada abian dauden (Gorputz Hezkuntzako eskolak, eskola horien euskarri den araudia, eskolaz kanpoko jarduerak, kirol jarduerak, etab.) edo gero eta hedatuagoa dagoen epidemia honi aurrea hartzeko egituratu behar diren proposamenen gainean hausnarketa sakona egitea.

Nafarroako ikasleek gaur egun jasotzen duten eskola jardueren eskaintza oso zabala dela esan daiteke, bai kopuruari bai aniztasunari begiratuta.

Ikastetxeek, kirol elkarteek eta kirol etxeek, kirol federazioek eta administrazioak berak, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuaren bidez, aisialdiko zein lehiaketazko kirol eskaintza interesgarri askoa aurrera daramate. Era berean, udalek eta kirol mankomunitateek irakaskuntza eskaintza egiten dute, txikienei zuzenduta, kirol eskolen eta aisialdiko lehiaketen bidez.

Ikasleen %45ek ohikotasunez kirolen bat egiten dutela diote. Hala ere, parte-hartze horretan aldeak daude. Askoz sarriago eta gehiago egiten dute kirola mutilek eta, bi sexuetan, 12 urtetik aurrera poliki-poliki behera egiten du ehunekoak. Herri handietan hiriguneetatik urrun dauden herri txikietan baino handiagoa da parte-hartzea. Baina herri txikietako parte-hartze eskasa ez da, pentsa litekeen bezala, parte-hartzaile edo instalazioen faltagatik, jarduerak antolatzeko inplikaturako helduen faltagatik baizik.

Jarraian eskola kiroleko programa nagusiak azaltzen dira:

1.- Nafarroako Kirol Jokoak

Programa hau 9 eta 18 urte bitarteko Nafarroako ikasleei zuzenduta dago. Urte osoan zehar egiten da, asteburuetako lehiaketen eta jardueren bidez.

Kirol Administrazioak eskolan sustaturiko kirol programen artean programa hau da bolumenik handiena duena parte-hartzeari, kirol modalitateei, instalazioen erabilerari eta antolaketan parte hartzen duten langile eta eragileei dagokienez. Nafarroako toki entitateekin eta kirol federazioekin (33 federazio) lankidetzan antolatzen da eta, horri esker, 22.000 parte-hartzaile baino gehiago ditu programak kiroleko 49 modalitate/espezialitateetan. Programaren helburu nagusiak ondokoak dira:

- Nafarroako herritar guztiei deialdiko kategorietan eta modalitateetan kirola egiteko bide ematea, eta kirolaren prestakuntza eta hezkuntza arloak bultzatzea.
- Parte-hartzaileen ezaugarriei egokitzen zaien kirol jarduera eskaintzea, integrazioa ahalbidetzea eta kirolaren balioak sustatzea.
- Adin horietan ezarpen eskasa duten edo izaera ludikoa duten kirol modalitateak sustatzea.
- Etorkizuneko proiektzioa duten kirol talentuak antzematea.
- Pixkana-pixkanaka teknikarien prestakuntza exijitzea, klubetako eta parte hartzen duten taldeetako arduradunek gero eta prestakuntza handiagoa izan dezaten beren eginkizunak hobeto burutzeko.
- Batez ere Benjamin kategorian, planteatzen diren jarduerak prestakuntza alderdiak nabarmendu behar dituzte.

Gaur egun izan bada jardueraren arduradun diren teknikarien prestakuntzarako plan berezi bat, teknikari horiek eskola taldeak zuzentzeko eta dinamizatzeke gaitzeko.

Programaren eskaintzan sartzen diren kirol modalitate/espezialitateak ondokoak dira: urpeko jarduerak (igeriketa hegatsekin), xakea, atletismoa (krosa eta pista), badmintona, saskibaloia, eskubaloia, beisbola, txirrindularitza (lur orotako bizikleta, errepidekoa, pistakoa), kirol egokituak, neguko kirolak (iraupeneko eskia), mendi eta eskalada kirolak (orientazioa, ibilaldi neurtuak, eskalada), eskrima, futbola (zelai-futbola, areto-futbola eta emakumezkoen 8 futbola), gimnastika (erritmikoa eta artistikoa), golf, herri kirolak, hipika, judo eta lotutako kirolak, karatea, igeriketa (igeriketa, igeriketa sinkronizatua eta waterpolo), padela, irristaketa (abiadura eta hockeya), pilota (esku-pilota, zesta punta, erremontea, goma-paleta, larru-paleta, pala motza eta trinketa), piraguismoa, taekwondo, tenisa, ping-ponga, arku-tiroa, triatlota (triatlota eta duatlota), bela eta boleibola.

Ondoko taulan parte-hartzearen bilakaera ikus daiteke:

103. taula: Parte-hartzea Nafarroako Kirol Jokoetan

Urtea	2009-2010	2010-2011	2011-2012	2012-2013	2013-2014	2014-2015
Edizioa	XXIII	XXIV	XXV	XXVI	XXVII	XXVIII
Parte-hartzea	19.877	20.661	21.581	22.500	21.273*	22.012*

Iturria: Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutua.

*Taulan jasotako zifrei begiratzen badiegu, ikusten da Nafarroako Kirol Jokoetako parte-hartzea txikiagoa izan zela XXVIII. edizioan XXVI. edizioan baino. Azkeneko edizioan programan parte hartzeko izena eman zuten eskola haurrak bakarrik zenbatu dira, deitutako modalitate bakoitzean garatutako espezialitateak edo lehiaketa sistemak kontuan hartu gabe, eta hori da parte-hartzaileen kopuruan dagoen aldearen zergatia.

2.- Eskoletako kirol kanpainak

Ingurune naturalean egiten dira, ikasturtean zehar, eskola egunetan eta gutxi gorabehera astebete irauten dute. 8.500 ikaslek baino gehiagok parte hartzen dute. Kanpaina hauen helburua da jende gutxi egiten dituen kirolak egiten hastea. Kirola egiteaz gainera, kanpaina hauen helburua ere bada ikasleek Nafarroako txoko berriak aurkitzea eta erkidegoko beste eskualde batzuetatik datozen gazteekin elkarrekin egotea. Hori guztia ingurumen arloko gaien sustapena eta sentsibilizazioa ahaztu gabe.

2.1.- Iraupeneko eskiaren eskola kanpaina.

Belaguan eta Zaraitzun egiten da eta Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleei eta eskola adinean dauden eta desgaitasun fisiko, psikiko edo sentsoriala dutenei dago zuzenduta.

2015. urtean XXXI. edizioa egin zen eta 5.090 ikaslek hartu zuten parte. Kanpainetan aitzindariena da eta 31 urte hauetan 121.127 irakaslek eta ikaslek hartu dute parte; "aste zuriaz" ari gara.

2.2.- Naturan egindako jardueren eskola kanpaina.

Baztanen egiten da eta bertan DBHko 3. eta 4. mailako ikasleek parte hartzen dute. Urarekin eta natura ingurunearekin zerikusia duten jarduera hauek egiten dituzte: raftinga, piragua, hidrospeeda, arroila-jaitiera eta harizti batean zintzilik jarritako plataformen zirkuitua, Abentura Parke izenarekin ezagutua. Martxoan, apirilean eta maiatzean egiten da, hiru egunez.

2015. urtean XIX. edizioa egin zen eta 2.143 ikaslek hartu zuten parte. 29 urte hauetan 23.274 irakaslek eta ikaslek hartu dute parte "aste berdea" izenarekin ezagutzen den kanpaina honetan.

2.3.- Belako eskola kanpaina.

Allozko urtegian egiten da martxoaren bukaeratik uztail hasiera arte. Optimist eta Vaurient modalitateetan, kanpaina honetan parte hartzen dute Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleek eta desgaitasun fisiko, psikiko edo sentsorialak dituzten ikasleek.

Belaontzi bat ibiltzen ikasten da, oinarrian bada ere. Horrez gainera, natura errespetatzearekin, materiala zaintzearekin eta bizikidetzarekin zerikusia duten jarduera osagarriak egiten dira irakasleekin eta beste ikastetxe batzuetako parte-hartzaileekin.

2015. urtean XXII. edizioa egin zen eta 1.449 ikaslek hartu zuten parte. 20 urte hauetan 20.043 irakaslek eta ikaslek hartu dute parte "aste urdina" izenarekin ezagutzen den kanpaina honetan.

104. taula: Eskola kanpainen bilakaera

Urtea	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Eskia	5.339	5.188	5.171	4.255	4.882	5.090
Natura	2.205	2.298	2.118	1.890	1.737	2.143
Bela	1.509	1.585	1.583	1.559	1.476	1.449
GUZTIRA	9.053	9.035	8.872	7.704	8.095	8.682

Iturria: Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutua.

2.4.- Eskola kiroleko programa

Aurrekoen programa osagarria da eta kirol ekintzan hezkuntzaren balioak sustatzeko xedea du. Programaren helburu nagusia aisialdiko jarduera fisikoak sustatzea da, nolahi ere, jarduera horiek hezkuntzaren eta aisialdiaren alderdiak uztartu behar dituztelarik. Hala, aztura fisiko bat sortuko da eta

adinean aurrera egin ahala hurrek kirola modu jarraituan egitea bultzatuko da eta, ondorioz, bizimodu osasungarria sustatuko da eta haurren obesitatea eta sedentarietatea bezalako fenomenoak saihestuko dira.

Ikastetxea, eta zehatzago esanez Gorputz Hezkuntzaren departamentua, da programa oinarritzen den ardatza. Ikastetxeak prestatu eta praktikan jartzen duen gorputz eta kirol jardueren proiektua departamentu horrek diseinatu, koordinatu eta gainbegiratuko du eta ikastetxeko hezkuntza eta kirol proiektuan txertaturik egon beharko du. Horretan guztian ezinbestekoa da ikastetxeko kirol koordinatzailea.

Programaren babesean egiten diren gorputz jarduerak gizarte-integratioko, osasuneko, ongizateko eta jostetako baliabide bilakatu behar dute; horrela, lagungarriak izanen dira pertsonaren prestakuntza eta hezkuntza integralerako eta haren nortasuna garatzeko. Balioak sustatuko ditu, besteak beste, norberaren ahalegina, lana taldean egitea, lankidetzeta, solidaritatea, tolerantzia, etsaiari errespetua izatea, joko garbia eta genero berdintasuna.

Egin diren bost edizioetan 18.800 ikaslek baino gehiagok hartu dute parte programan; azpimarratzekoa da nesken parte-hartze handia, hirurogeita hamar gorputz eta kirol jarduera baino gehiago egin baitituzte.

105. taula: Eskola kiroleko programaren bilakaera

Ikasturtea	Ikastetxeak	Parte-hartzaileak
2009-2010	14	2.444
2010-2011	24	3.268
2011-2012	28	5.600
2012-2013	41	6.000
2013-2014	0	0
2014-2015	0	0

Iturria: Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutua.

3.- Haurren obesitateari aurrea hartzeko kanpaina

“Jolastu, jan eta jokatu Trankirekin” haurren obesitateari aurrea hartzeko kanpaina 2005-2006 ikasturtetik hona egiten ari da Nafarroan. Iruñeko eta Iruñerriko lau ikastetxetan (Iturramako Ikastetxe Publikoa, Atarrabiako Lorenzo Goicoa Ikastetxe Publikoa, Iruñeko San Ignacio Ikastetxea eta Iruñeko Liceo Monjardín Ikastetxea –lehenago Urtsulinak–) eginiko proiektu pilotu batekin hasi zen.


2012-2013 ikasturtean duela sei urte kanpaina hasi zuten eta 2001. urtean jaiotako diren ikasleen datu antropometrikoak bildu ziren.

- Liceo Monjardín ikastetxea (lehen Urtsulinak) (esku-hartze taldea)
- San Ignacio Ikastetxea (Jesuitak) (esku-hartze gabeko taldea)
- Iturramako Ikastetxe Publikoa (esku-hartze taldea)
- Atarrabiako Lorenzo Goicoa Ikastetxe Publikoa (esku-hartze gabeko taldea)
- Altsasuko Zelandi Ikastetxe Publikoa (esku-hartze gabeko taldea)
- Etxarri Aranazko Andra Mari Ikastetxe Publikoa (esku-hartze taldea)
- Urdiaingo Ikastetxe Publikoa (esku-hartze gabeko taldea)

Lortutako datuek esaten digute osotara (n=262, 2010. urtean eta 2012. urtean izan ezik -urte haietan 261 eta 259 izan ziren hurrenez hurren) hasieran gehiegizko pisuaren indizea %34,4

zela eta obesitate indizea %11,8. Bost urteren buruan gehiegizko pisua %26,7ra eta obesitatea %3,8ra jaitsi dira eta pisu arrunta hasierako %53,8tik %69,5era pasatu da. (1. taula)


50. grafikoa: Pisu orokorraren bilakaera, 2007-2013.



Iturria: Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutua.

Datu horiek esku hartutako ikastetxeetan eta esku hartu gabeko ikastetxeetan eta sexuaren arabera banatuz ikusten da esku hartutako ikastetxeetako mutilen artean hasieran gehiegizko pisua %25,4koa zela eta obesitatea %16,9koa. Azterlanaren bukaeran lortutako emaitzen arabera, gehiegizko pisua %27,1ekoa da eta obesitatea %5,1ekoa, eta pisu arrunta hasierako %57,6tik bukaerako %67,8ra pasatu da. Gehiegizko pisuaren gorakada hori gertatu da obesitate kasu batzuk gehiegizko pisuko kasu bilakatu direlako (2. taula). Nesken taldean beherakada ez da hain nabaria abiapuntuan txikiagoa zelako gehiegizko pisua edota obesitatea zuten nesken kopurua; hori hala izanik ere gehiegizko pisua %12tik %10era jaitsi da.


51. grafikoa: Pisuaren bilakaera esku hartutako ikastetxeetan, mutilak, 2007-2013.



Iturria: Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutua.

Esku hartu gabeko ikastetxeen guztizko datuak aztertuz gero, ikusten da gehiegizko pisuko mutikoak hasieran %20,8 zirela eta %16,7 izaten bukatu dutela eta obesitatearen kasuan, berriz, %9,7tik %4,2ra jaitsi da indizea. Hartara, pisu arrunta %69,4tik bukaeran %79,2 izatera pasatu da (3. taula). Nesken kasuan ere gehiegizko pisua zein obesitatea jaitsi dira.

52. grafikoa: Pisuaren bilakaera esku-hartzerik gabeko ikastetxeetan, mutilak, 2007-2013.



Iturria: Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutua.

Bukatzeko, esan dezakegu "Jolastu, jan eta jokatu Trankirekin" kanpaina Lehen Hezkuntzako sei urteetan aplikatu zaiela Nafarroako 262 haurri eta horrek gehiegizko pisuaren eta obesitatearen indizeetan jaitsiera nabarmena ekarri duela eta, ondorioz, pisu arruntaren indizearen igoera, 1999. urtean jasotako lehenengo lagina aztertu zenean ikusi zen bezalaxe.

Azterlan pilotu honen emaitza itxaropentsuek balio beharko lukete epe laburrean ahaleginak haurren obesitatearen kontrako borrokan erabiltzeko edo, bestela esanda, hemendik urte batzuetara heldu direnean gehiegizko gantzarekin lotutako eritasunaren eta hilkortasunaren kontrako borrokan erabiltzeko. Izan ere, lehen bi urteetan lortutako aurretiko emaitzetan oinarrituz, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak, Hezkuntza Departamentuarekin elkarlanean, programaren zati bat egin du –azken lau urteetan eta ikasturte batean edo bitan– Nafarroako beste 27 ikastetxe publikotan eta itunpeko 6 ikastetxetan. Haurren obesitateari aurrea hartzeko programaz baliatu diren nafar neska-mutikoak 1.850 izan dira azken urte hauetan.

Horrenbestez, esan daiteke kanpaina honek eragin positiboa izan duela urteetan zehar eta planteatutako helburua bete dela, hau da, esku-hartze "integrala" egitea eta hartan inplikatzeko irakasleak, gurasoak, inguruak eta haurrak eta, orobat, prebentzioa bultzatzea obesitateari aurka egiteko metodori onena bezala. Horretarako zenbait material erabiltzen da (irakasleen gida didaktikoa eta haur ipuinak Lehen Hezkuntzako ziklo bakoitzerako) eta horietan elikadura osasungarriarekin zerikusia duten gomendioak ematen dira eta eguneroko bizitzan jarduerak fisiko gehiago egin behar dela esaten da.

Nahi izanez gero, material horiek ondoko loturan ikus daitezke:

http://www.navarra.es/home_es/Temas/Deporte/Publicaciones/Publicaciones+tecnicas/Campana+de+obesidad+infantil.htm

Horretaz gainera, ikastetxean beste jarduerak batzuk egiten dira, irakasleak, gurasoak eta ikastetxea oro har zuzenean inplikatzen dituztenak:

- Lehen Hezkuntzako 1. mailan ikasten ari diren 6 urteko haurrei ikasturtearen hasieran eta bukaeran antropometriak egitea.
- Eskola jantokiko menuen azterketa eta hobetzeko proposamenak.
- Familiei hitzaldiak ematea bizimodu osasungarrien gainean, beren seme-alabek ikasgelan landutako edukiak sendotzearen.

Urtero kanpaina egindako lanari jarraipena ematearren, 2009-2010 ikasturtean jarduerak osagarri bat abiatu zen, aurreko urtean landutako edukiak sendotzeko helburuarekin. Jarduera hori "Aste osasungarria" deitzen da eta Lehen Hezkuntzako 2. mailan ikasten ari direnendako prestatu da, horiek izan baitziren aurreko ikasturtean programan parte hartu zutenak.

Proposamen honetan haurrei, irakasleei, jantokiko langileei eta familiei zuzendutako zenbait jarduera sartu dira.

Eginen diren jarduerak ondokoak dira:

- Haurrentzat:
 - Elikaduraren oinarrizko kontzeptuak bilduko dituen errefortzuko lantegi teoriko-praktikoa: koloreen lantegia.
 - Ipuinen pertsonaien bidez Kamhisibairen teknika San Juan de la Cadena Ikastetxeko ikasleek antzeztea.
 - Olinpiada osasungarria, ikasitakoa aplikatzeaz gainera, haurrek askotariko jarduera fisikoak egiteko.
- Familientzat eta haien ondorengoentzat:
 - Kanape dibertigarriak prestatzeko lantegi praktikoa.
- Programan interesa duten zaintzaile eta irakasleentzat:
 - Elikaduraren oinarrizko kontzeptuen azterketa, inkesta baten bitartez, eta kontzeptu horiek indartzea prestakuntzako solasaldi baten bitartez.

2014-2015 ikasturtean zehar, 16 ikastetxetan urteko esku-hartzea egin zen. Ondoko taulan, zer ikastetxetan lan egin den xehatzen da eta, orobat, zenbat haur pisatu eta neurtu diren.

106. taula: Hainbat ikastetxetan egindako antropometriak, 2014-2015 ikasturtean zehar.

ESKU HARTUTAKO IKASTETXEA	ANTROPOMETRIA KOPURUA		
	IKASLEAK OSOTARA	MUTILAK	NESKAK
Tuterako Compañía de María Ikastetxea	83	34	49
Lesakako Irain IP	13	6	7
Cadreitako Teresa Beltrán IP	18	8	10
Lodosako La Milagrosa Ikastetxea	14	6	8
Zarrakazteluko IP	18	7	11
Iruñeko Jesuitinas Ikastetxea	51	26	25
Atarrabiako Lorenzo Goicoa IP	48	25	23
Larraintzarko Obispo Irurita IP	29	15	14
La Compasion Escolapios Ikastetxea	68	35	33
Tafallako Escuelas Pías Ikastetxea	34	16	18
Hilarión Eslava IP	37	16	21
Iturramako IP	24	15	9
Vianako Ricardo Campano IP	18	7	11
Iruñeko Calasanz Ikastetxea	45	22	23
Luis Amigó Ikastetxea (LH 6)	57	35	22
Iruñeko Calasanz Ikastetxea (LH 6)	26	14	12

Iturria: Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutua.

“Aste osasungarria” jarduera 5 ikastetxetan landu zen, guztira 18 ikasgeletan. Ikastetxe horietako batzuk bigarren urtez jarraian ari ziren kanpainen parte hartzen.

Ikastetxe hauetan landu zen:

- Lorenzo Goicoa IP
- Liceo Monjardin Ikastetxea
- Iturramako IP
- Burlatako Hilarión Eslava IP
- Luis Amigó Ikastetxea

4.- Beste programa batzuk:

Nafarroako Igeriketa Federazioak, zenbait udalekin lankidetzan (batez ere Iruñekoa eta Iruñerrikoak), Eskolako Igeriketa Kanpaina antolatzen du, Lehen Hezkuntzako 2.eko eta 3.eko ikasleei zuzendua. Kanpaina horren helburua da ikasleak ur ingurunean moldatzea (oinarrizko maila batean) eta igeriketaren kirol modalitate ezberdinetan (igeriketa, waterpolo, igeriketa sinkronizatua) hastapena ematea. Azken kanpainen 2.500 ikasle inguruk parte hartu dute.

Halaber, Nafarroako Futbol Federazioak futbol txapelketak antolatzen ditu: benjaminen aretoko futbol txapelketan 52 taldek eta 541 ikasleak parte hartzen dute, 10-11 urteko mutilen futbol txapelketan Nafarroa osoko 239 taldek eta 3.150 ikasle inguruk, eta benjaminen futbol 8-ko txapelketan 919 ikasle inguru biltzen dituzten 60 taldek.

Futbito Txiki txapelketa 6 eta 11 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago eta arau bereziak ditu, lehiaren eta konpetitibitatearen gainetik parte-hartzea eta jolasa indartzeko. 290 taldek parte hartzen dute.

Osasuna Fundazioak Aste Santuko eta udako campusak eta Futbol Eskola antolatzen ditu, 6 eta 12 urte arteko haurrentzako.

Lehiaketa mailan, Eskola Arteko Futbol Txapelketak arrakasta handia du. Nafarroa osoan banatutako ikastetxeetako 60 taldek parte hartzen dute.

5.- Adingabeen kirol praktikaren gaineko araudia.

Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak eskola kirolaren alorrean dituen helburuen artean, adingabeen kirol praktikarekin loturiko alderdiak arautuko dituen araudia onestea dago. Maiatzaren 30eko 326/2011 Ebazpenaren bidez, adingabeentzako kirolaren oinarrizko esparru autonomikoa onetsi zen. Agiri horren bidez eskolako ikasleentzako gorputz eta kirol jarduerarako programak sustatzen dituzten guztientzako lantresna bat eratu nahi da eta haren helburua da proiektu horiek izan behar dituzten funtsezko ezaugarriak eta proiektu horiek prestatu eta garatzeko beharrezkoak diren oinarrizko ildoak ezartzea. Horri jarraikiz, aurtengo dekreturako proiektu bat prestatzen hasi dira, Nafarroako Foru Komunitatean adingabeen kirol jarduera publikoak arautzen dituen. Proiektu horren helburuak honako hauek dira:

- Publikoari irekitako kirol jardueren garapenean, ordenamendu juridikoak adingabeen ematen dizkien eskubideak errespetatu eta gauzatu daitezkeen bermatzea.
- Publikoari irekitako kirol jardueretan eta lehiaketetan parte hartzen duten adingabeak babestea eta arriskuak prebenitzea, sustatuz, besteak beste, istripuen prebentzioa, arriskuak mugatzea, kirol begiraleen eta entrenatzaileen prestakuntza eta kualifikazio teknikoa, adingabeen kirol jardueren ardatz izan behar duen hezkuntza xedearen kontra doazen jokabide desegokien zehapena eta kirolari adingabeen osasun estaldura.
- Kirol jardueren bidez adingabeak balioetan hezi daitezkeen sustatzea.
- Sustatzea eta zaintzea adingabeentzat diren edo adingabeak parte-hartzaile dituzten kirol jarduera publikoak pertsonaren garapen harmoniko eta orekatura

bideratuak eta adingabeen egoera fisikoaren, gaitasunen eta hezkuntza beharren araberakoak izan daitezzen.

- Nafarroako Kirolari buruzko Foru Legeko arauetan ezarritakoaren onuradun izan daitezkeen eskola adineko kirol programak zehaztea.
- Adingabeak babestea eta defendatzea beren interesen kontrakoak diren edo beren interesei erantzuten ez dieten xedeetarako erabiltzen badira.

6.- Eskola adineko kirolari buruzko gomendioak

Nafarroako Eskola Kontseiluak 2009-2010 ikasturtean txosten bat prestatu zuen, bere ekimenez, Kirol Ikasketei buruz, eta txosten hartan eskola adineko kirolari buruzko atal bat agertzen zen. Honako gomendioak eman ziren esparru horrentzat:

- Jarduera fisikorako eta kirolerako prestakuntza goiz hasi behar da, derrigorrezko eskolatze etapan. Halaber, pertsonaren hezkuntza integralaren zati gisa ulertu behar da, aldi berean aztura osasungarriak eta kirol jarduera ere sustatzen dituen.
- Kirolak hezkuntza esparru egokia ematen du pertsonen prestakuntzan oso garrantzitsuak diren balio indibidualak eta sozialak eskuratzeko: ahalegina, hobetzea, autoestimua, autokontrola, diziplina, portaera etikoa, ardura, talde lana, inklusioa, elkartasuna, laguntasuna, kooperazioa, tolerantzia, errespetua, berdintasuna... Ondorioz, kirolaren irakaskuntzak eta eskola adineko kirol ekintzak, eskolan eta eskolaz kanpo, balio horiek eskuratzeko sustatu behar dute eta lehentasuna eman kirolaren hezkuntzako eta aisaldiko alderdiei lehiarekin lotutako alderdien gainetik. Eskolak ez ezik, familiek eta kirol jarduerak antolatzen dituzten erakundeek eskola adineko kirol ekintzari buruzko ikuspegi horretan inplikatu beharra dute.
- Ikasleei zuzendutako jarduera fisikoen eta kirol jardueren eskaintza zabala dago. Hala ere, hainbat arrazoiengatik, Nafarroako ikasle guztiek ez dituzte aukera berak. Programa horiek antolatzen diharduten erakunde publiko eta pribatuak hori kontuan izan behar dute eta kirola egiteko aukerak mugatzen dituzten egoerak konpentsatzen saiatu. Bereziki, gomendagarria dirudi neurriak hartzea ondoko egoerak konpentsatu ahal izateko: ezgaitasuna, baliabide ekonomikoen falta, dinamizazioan inplikaturako pertsonen falta eta kirol instalazioak erabiltzeko aukera falta.
- Aztertu egin behar da Nafarroako ikasleek zergatik uzten dioten kirola egiteari 12 urtetik aurrera eta emakumezkoek zergatik duten interes gutxiago kirolean. Sektore horietan jarduera fisikoaren eta kirola egitearen onurak bultzatzeko ekimenei ekitea komeni da.
- Ikastetxeak eskola kirolaren programen oinarritzko ardatz izan behar du, bere hezkuntza proiektu propioarekin, koherentzia gorderik.
- Eskola adineko kirolean hainbat lagunek parte hartzen dute entrenatzaile edo begirale gisa, eta pertsona horiek askotariko prestakuntza profilak eta kirol esperientzia dituzte. Eskola kirolean prestakuntza planak sartu beharra dago pertsona horien gaitasuna hobetzeko egiten dituzten lanetarako, bai entrenamenduari loturikoetarako bai ikasle taldeak animatzeari eta zuzentzearekin loturikoetarako. Prestakuntza hori bereziki beharrezkoa da begirale nerabeen kasuan.
- Ikasleei zuzendutako jarduera fisikoko eta kirol jarduerako programetako alderdi zenbaiten gaineko araudia garatu beharko litzateke; zehaztu egin beharko lirateke zenbait kontu, adibidez, zein baldintza bete behar dituzten, jardueren tipologia, mediku zaintza, segurtasuna edo teknikarien prestakuntza.

4.3. Aukera berdintasunerako politikak

4.3.1. Ikasleen aniztasunari erantzutea

Aniztasunari erantzuteari buruzko Nafarroako araudi esparrua Hezkuntzako kontseilariaren ekainaren 13ko 93/2008 Foru Aginduan jasotzen da. Foru agindu horrek Nafarroako Foru Komunitateko Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan aniztasunari nola erantzun arautzen du. II. kapituluaren ikastetxeetan Aniztasunari Erantzuteko Plana prestatzeko irizpideak zehazten dira.

Zein ikasleri eragiten dien.

Aniztasunari Erantzuteko Planak ikasle guzti-guztiei, beraien aniztasunean, eman beharreko erantzuna hartu behar du kontuan. Bereziki, kausa desberdinengatik irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuetan behar bezala aurrera egiteko arazoak dituzten ikasleak hartu behar ditu kontuan, ikasle horiek ohiko jarduerak osatzeko baliabide eta laguntzak beharko dituzte eta. Ikasle horien artean daude hezkuntza sostenguko premia berariazkoak (iraunkorrak zein iragankorrak) dituztenak:

- Egoera sozioekonomiko edo soziokultural ahulean dauden ikasleak.
- Adimen gaitasun handiko ikasleak.
- Desgaitasun fisiko, psikiko edo sentsorialengatik hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak. Horien artean sartuta daude ikastetxe arruntetan erantzuna jasotzen dutenak, berariazko ikastetxeetan erantzuna jasotzen dutenez gain.

107. taula: Ikasle kopuru osoaren eta HPBak dituzten ikasleen arteko erlazioa.

	2000	2010	2011	2012	2013	2014
Ikasleak	80.098	99.053	100.610	106.462	103.400	106.387
Hezkuntza sostenguko premia berariazkoak dituzten ikasleak	191	633	1.436	1.691	1.738	1.799
Hezkuntza sostenguko premia berariazkoak dituzten ikasleen ehunekoa, ikasle kopuru osoarekiko	0,24%	0,64%	1,42%	1,59%	1,68%	1,69%

Iturria: Antolamenduaren eta Aukera Berdintasunaren Zerbitzua

Aniztasunari Erantzuteko Planaren xedeak.

Ikastetxeari tresna lagungarria ematea laguntzak planifikatu eta antolatzeko, baliabide pertsonalak lehentasunen arabera banatu ahal izateko eta laguntzak horrelako neurrien beharra duten ikasleen premietara (taldekoetara zein indibidualetara) egokitzeko.

Hezkuntzak aniztasunari ikasgelan eta ikasgelatik kanpo erantzun diezaion, lehentasunak ezartzeko irizpideen zehaztapena gidatzea; hezkuntza erantzun hori hainbat ekintza koordinatuz emanen da (orientazioa, tutoretza, irakasleen, tutoreen eta arloetako irakasleen jarduna, eta irakasle arrunten eta espezializatuen laguntza).

Atzerritar jatorriko ikasleen eta egoera soziokultural ahulean dauden ikasleen harrerarako eta inklusiorako neurriak eta jarraibideak ezartzea, irakasle taldeak adostutako Harrera Planaren barruan.

Ikasturtean zehar agertu daitezkeen premia berriei erantzuteko, aldaketak sartzeko ahalbidetzen duen planifikazioa aurreikustea, antolaketa neurri malguak sartuta, irakasle arrunten eta espezialisten esku-hartzeak unean uneko beharren arabera moldatu daitezten.

Aniztasunari erantzutearen eraginkortasunaren barneko ebaluazioa gidatzea, eta hobetu beharreko alderdiak identifikatzea.

Ezgaitasunekin loturiko hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak eskolatzea.

Ikasle horiek nola eskolatu zehazteko erabakiak hartzeko prozesu jakin bat jarraitu behar da, bermatu dadin ikasle bakoitzaren ezaugarrientzat egokiena den hezkuntza erantzuna emanen dela, betiere, testuinguru ahalik eta normalizatuenean.

Oro har, ikaslea ikastetxe arruntean eskolatzea proposatuko da ikaslearen hezkuntza premia bereziei (HPB) ikastetxeetako ohiko baliabideekin erantzuten ahal bazaie (eskolako orientatzailea, Pedagogia Terapeutikoko irakasleak, Entzumeneko eta Hizkuntzako irakasleak eta, hala dagokionean, zaintzailea, fisioterapeuta eta NHBBZko kanpoko laguntzak).

Aldiz, ikaslearen HPBei erantzuteko eta etengabeko banakako laguntza baldintzak eta ikastetxe arrunt batek ezin eskaini dituen ekintza bereziak behar direnean, ikaslea Hezkuntza Bereziko ikastetxe batean eskolatzea proposatuko da. Hori gertatzen da ikasleak egokitzapen oso esanguratsuak behar dituzenean bere adinaren arabera dagokion curriculum ofizialeko arloetan.

Eskolatzeko modalitateak. Antolaketa motak.

Bi modalitate daude. Modalitate horiek curriculumaren egokitze maila desberdinei dagozkie, kasu bakoitzean behar diren laguntza mota eta mailaren arabera:

1.- Ikastetxe arruntean / Antolaketa motak:

Lehentasunezko ikastetxea.

Garapenaren nahaste orokorrak dituzten ikasleentzako berariazko ikasgelak.

Haur eta gazteen eguneko ospitaleko terapia- eta hezkuntza-programa.

Curriculum bereziko unitateak (CBU).

Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programa Bereziki ikastetxe arruntean (HLKPB).

2.- Hezkuntza Bereziko ikastetxean / Antolaketa motak:

Hezkuntza Bereziko ikasgela, landa eskualdeetan.

Hasierako Lanbide Kualifikaziorako Programa Bereziki (HLKPB) Hezkuntza Bereziko ikastetxean.

Helduarora Igarotzeko Hezkuntza Programak (HIHP).

Eskolatzeko modalitatea zehazteko irizpideak.

Ikastetxeetako orientatzaileek identifikatuko eta baloratuko dituzte HPBak, eta ikasle bakoitzaren premien arabera eskolatzeko modalitatea eta jardueren plan egokienak proposatuko dituzte.

Ebaluazio psikopedagogikoaren bidez erabakitzen ahalko dira kasu-kasuan beharrezkoak diren egokitzapenen mota eta maila, baldintzak eta laguntzak (espezializatuak ala ez) eta, beraz, baldintza eta laguntza horiek ohikoagoak ala ezohikoagoak izanzen diren. Balorazio hori erabakigarria izanzen da eskolatzeko modalitate bat ala beste, eta modalitate horren barruan antolaketa mota bat ala beste, proposatzeko.

Aniztasunari erantzuteko baliabide arruntak Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan.

1.- Haur eta Lehen Hezkuntza.

Ikasleek, orokorrean, denbora guztia ikasgela arruntetan egiten dute, murgiltze eta erantzun normalizatuko prozesu baten barruan.

Lehen Hezkuntzan, arau orokor gisa eta hasierako ebaluazioa ikusirik, ikasturte bateko atzerapen orokorra duten ikasle sartu berriak adinagatik dagokien mailan sartu ordez, urtebete gazteagoen mailan sartuko dira. Ziklo batetik gorako curriculum atzerapena dutenek, beheragoko mailan sartzeaz gainera, beren premien arabera laguntza jasoko dute.

Bigarren eta hirugarren zikloetan irakasle arruntek, lehentasunez, aniztasunari erantzuteko orduetan, atzerritar jatorriko ikasleen errefortzuak egiten dituzte, harrera- eta irakas-hizkuntza irakasteko programak garatuz, eta curriculum atzerapena dutenentzako laguntza lanak ere egiten dituzte.

2.- Bigarren Hezkuntza.

Ikastetxeek, lehenik eta behin, etapa horretan aniztasunari erantzuteko baliabide eta neurri orokor arruntak izanen dituzte. Zuzendaritza taldeek zainduko dute horren premia duten atzerritar jatorriko ikasleei eta egoera ahulean dauden ikasleei erantzuteko programak ezarriko direla.

Hezkuntza erantzunaren neurrien artean dago aukerako irakasgaien eskaintza. Horri esker arlo instrumentaletan curriculumeko errefortzua egin daiteke eta, aldi berean, ikasleen interesen, motibazioen eta gaitasunen aniztasunari erantzun.

Horren premia duten ikasleak aurrez ikusita dauden berariazko neurrietan sartzen ahal dira (Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programak, Curriculum Egokituko Programa eta Curriculum Aniztasuneko Programak).

4.3.2. Hezkuntza konpentsazioa

4.3.2.1. Atzerritar jatorriko ikasleei erantzutea

Ikasleak gure hezkuntza sisteman sartzeko prozesua.

1. Ikasle etorkinentzako informazio gida.

Agiri honen xedea da eskolatzeko adinean dauden hurrekin Nafarroara iristen diren familiei laguntzea, ezagutu ditzaten gure erkidegoak hezkuntzan eskaintzen dizkien aukera guztiak eta horri buruz erabaki ahal dezaten. Hezkuntza sistema eta haren ezaugarriak deskribatzen ditu, ikastetxeen antolaketari buruzko zenbait alderdi azaltzen ditu, ikasleen eskubide eta eginbeharrak azaltzen ditu, eta ikasleentzako eta familientzako interesekoak izan daitezkeen datuak ematen ditu.

Hainbat hizkuntzatan argitaratzen da (gaztelania, frantsesa, ingelesa, errusiera, errumaniera, bulgariera, arabiera, euskara) eta ikastetxeetan familiei aurreneko harrera egiten laguntzen du. Hezkuntza Departamentuan eta webgunean ere eskura dute ikastetxeek, tokiko eskolatzeko batzordeek eta zeinahi kontsulta egin beharra duen orok.

2. Atzerritar jatorriko ikasleei harrera egiteko programa

Ikasleek hainbat zailtasun izan ditzakete, hala nola:

- Ama-hizkuntza ez den hizkuntza bat ikasi eta egunero erabili beharra ikasketa prozesu osoan.
- Erreferente kultural desberdinak: eskolak eskainitakoa eta etxean aurkitzen dutena, sarritan bizitzaren eta jarduteko moduaren gaineko bi ikusmolde desberdinetatik

datozenak eta, nola kudeatzen diren arabera, aberasteko zein gatazkarako bide izan daitezkeenak.

- Maila akademiko desberdinak: batzuetan kurtso bateko edo gehiagoko curriculumeko atzerapena dute, adinagatik dagokienarekiko.
- Herrira edo auzora egokitzeko arazoak, sozializazioa oztopatzen dutenak: batzuetan ez dute adiskiderik edo beti beren nazionalitateko pertsonekin izanen dituzte harremanak.
- Beren erreferentzia sozialak eta afektiboak hein handi batean galtzen dituzte, horrek dakarren desoreka emozionalarekin.
- Prekariatate ekonomikoaren, langabeziaren, etxebizitza baldintzen eta abarren eragina.

Harrera Programaren lehentasunezko helburua ikasle guztien inklusioa lortzea da, ikastetxe bateko hezkuntza lanean esku hartzen duten guztien parte-hartzearen eta konpromisoaren bitartez. Hezkuntza sisteman lehenbizikoz sartzen diren ikasleei harrera egokia egitea da ikasle horiei garapen pertsonalerako, kulturalerako eta sozialerako espazio bat eskaintzea, ikastetxeek emandako balioen trukearen eta bultzadaren bidez.

“Ikasle etorkinei harrera egiteko programa” (IEHEP) delakoaren xedea irakasleak orientatzea da, programa bera prestatu edo eguneratu, arduradunak eta zuzenean inplikaturako pertsonak zehaztu edo helburuak zedarritzeko orduan. Proposamen hori Aniztasunari Erantzuteko Planean sartu behar da.

Programak ondoko alderdiak garatzen ditu:

- Hezkuntza erkidegoa kultura arteko hezkuntzan sentsibilizatzea.
- Ikastetxean familiari harrera egiteko orientabideak.
- Hasierako ebaluaziorako eta ikaslea talde bati atxikitzeke orientabideak.
- Ikasgelan harrera egitea.
- Curriculumean sartzea.
- Antolaketa eta funtzionamendua.
- Kulturen arteko gaitasunak garatzea.
- Estrategia metodologikoak.
- Harrera egiteko programaren ebaluazioa.

Harrera programa, informazio gida bezala, webgunean eskuragarri dago ikastetxeek erabili dezaten, eta ikastetxeek aldatzen ahal dute programa hori prestatzeaz edo berrikustez arduratzen den irakasle taldearen irizpidearen arabera.

3. Hasierako ebaluazioa Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. Hizkuntza eta Matematika ebaluatzeke protokoloak

Antolamenduaren eta Aukera Berdintasunaren Zerbitzuak Hasierako ebaluaziorako protokoloak eskaintzen ditu. Agiri horien xedea da Lehen Hezkuntzako edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako edozein mailatan sartuko diren ikasleen gaitasun eta ezagutza batzuk ebaluatzeke tresna bat ematea ikastetxeei, hezkuntza prozesuari bermekin ekiteke, eta curriculum atzerapena aurreikusi eta gutxitzeko.

Osozara 16 ebaluazio koaderno dira, curriculumeko Matematika arloa edo Hizkuntza arloa Lehen Hezkuntzako 2., 3., 4., 5. eta 6. mailatan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailatan ebaluatzeke. Agiri hauekin irakasleei proben eredu bat ematea da asmoa,

kontuan izanik emandako eredia ikastetxe, ikasgela, ikastalde eta ikasle bakoitzarentzat egokitzen ahal dela.

Koaderno bakoitzaren edukia honakoa da: proben helburuak, edukiak, eduki blokeak, probak aplikatzeko jarraibideak eta curriculumeko Matematika arloa eta Hizkuntza arloa modu egokian ebaluatzeko irizpideak, curriculumeko gaitasunen adierazleen koadroa, talde osoko erregistroa eta hasierako ebaluaziorako eskala.

Matematika ebaluatzeko protokoloak gaztelaniaz zein euskaraz daude eskuragarri. Agiri horiek guztiak Departamentuaren webgunean daude, interesa dutenen eskura.

4. Lehen Hezkuntzako ikastetxeak laguntzeko berariazko programa, egoera soziokultural ahulean dauden ikasleei eta atzerritar jatorriko ikasleei hezkuntza erantzuna emateko.

Egoera soziokultural ahulean dauden ikasleentzako eta atzerritar jatorriko ikasleentzako laguntza neurriak aniztasunari erantzuteko neurri arrunten osagarriak dira, eta haien berariazko premietan dute jatorria.

Neurri horiek Hezkuntzako kontseilariaren ekainaren 13ko 93/2008 Foru Aginduan jasotzen dira. Foru agindu horrek Nafarroako Foru Komunitateko Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan aniztasunari nola erantzun arautzen du.

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe jakin batzuek atzerritar jatorriko eta egoera ahuleko ikasleen kopuru esanguratsua dutenez, Hezkuntza Departamentuak ikastetxe horiek laguntzako irakasleez hornitu ditu. Laguntzako irakasleek irakasle arruntei laguntzen diete curriculumeko atzerapen handia duten ikasleei eta gaztelania ez dakiten ikasleei erantzun egokia ematen.

5. Gaztelania irakas-hizkuntza gisa irakastea Lehen Hezkuntzan

Haur eta Lehen Hezkuntzako ia ikastetxe guztietan laguntzako irakasleak arduratzen dira baldintza egokiak sortzeaz atzerritar jatorriko ikasleek irakas-hizkuntza ikas dezaten, Nafarroako hezkuntza sisteman hura jakin gabe sartzen badira.

Irakasle hauen lanak etapak berezko dituen curriculumeko alderdien irakaskuntzarekin ez ezik irakas-hizkuntzaren ikaskuntzaren jarraipenarekin du zerikusia. Hizkuntza hori ikasteko garrantzitsua da irakasleekiko harremana afektiboa eta loturazkoa izatea.

Ikastetxe gehienetan laguntzako irakasleek curriculumeko Hizkuntza arloan eta Matematika arloan (biak arlo instrumentalak dira) atzerapena duten ikasleei laguntzen diete, tutorearen lana osatuz.

4.3.2.2. Ospitalizaturiko ikasleak, 2014-2015 ikasturtea

108. taula: Ospitalizaturiko ikasleak, 2014-2015 ikasturtea.

	Haur Hezkuntza	Lehen Hezkuntza	DBH	Derrigorrez koaren ondokoa	Guztira
Virgen del Camino ospitaleko arretak	187	251	62		500
Haur eta gazteentzako Eguneko Ospitaleko eta Ospitaleko Unitate Psikiatrikoko arretak		15	73	16	104
Etxeko arretak		9	25		32
Guztira	187	278	160	16	636

Iturria: Antolamenduaren eta Aukera Berdintasunaren Zerbitzua.

4.3.2.3. Egoera ahulean dauden ikasleak dituzten ikastetxe publiko eta itundueterako laguntza ekonomikoak

109. taula: Egoera ahulean dauden ikasleen arretarako diru-laguntzak, 2014-2015 ikasturtea.

Xedapenaren epealdia Ebazpena	Ikastetxe onuradunak		Ikasle onuradunak		Guztira
	Haur eta Lehen Hezkuntza	Bigarren Hezkuntza	Haur eta Lehen Hezkuntza	Bigarren Hezkuntza	
410/2014 Ebazpena Ikastetxe publikoak ²⁸	124	41	7.214	2.520	138.787,20
175/2014 Ebazpena Ikastetxe itunduak ²⁹	360 ordu 59 ikastetxe				645.004,66
704/2014 Ebazpena Ikastetxe itunduak ³⁰	56		1.355		413.000,00
366/2015 Ebazpena Secretariado Gitano fundazioa					18.000,00
Guztira					1.214.792,86

Iturria: Antolamenduaren eta Aukera Berdintasunaren Zerbitzua.

Hezkuntza Berezirako berariazko laguntzak

110. taula: Hezkuntza Berezirako Nafarroako Gobernuaren bekak eta laguntzak. 2013-2014 ikasturtea

	Eskaerak		Emandakoak		Emandako zenbatekoa, guztira (eurotan)
	G	E	G	E	
Haur Hezkuntza	94	31	16	7	16.180,00
Lehen Hezkuntza	141	74	33	19	35.705,30
Hezkuntza Berezia	115	74	80	48	59.895,00
DBH	37	18	4	5	6.939,00
GMHZ	0	0	0	0	0,00
EMHZ	3	0	0	0	0,00
Batxilergoa	2	2	0	1	1.500,00
HLKP	15	15	4	6	5.059,00
CBU	12	12	4	4	5.238,50
GNO	49	19	29	7	7.009,50
Guztira	468	245	170	97	137.526,30

Iturria: Antolamenduaren eta Aukera Berdintasunaren Zerbitzua.

²⁸ Egoera sozioekonomiko ahulean dauden ikasleei laguntzeko, ikastetxe publikoei esleituriko diru-laguntzak.

²⁹ Egoera ahulean dauden ikasleei laguntzeko, laguntza-irakasleen orduak kontratatzeko esleituriko diru-laguntzak.

³⁰ Egoera sozioekonomiko ahulean dauden ikasleei laguntzeko, ekipamendu pertsonalerako eta eskola jantokirako ikastetxe itunduei esleituriko diru-laguntzak.

Aurreko taulan bildutako Hezkuntza Bereziko laguntzak ondoko ebazpen honek arautu ditu: 576/2014 Ebazpena, azaroaren 5ekoa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, 2014-2015 ikasturterako Hezkuntza Bereziko beka eta laguntzak emateko deialdia onesten duena.

4.3.3. Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna

4.3.3.1. Irakasleei berdintasunaren gaian prestakuntza ematea

Hezkuntza Departamentuko Baterako Hezkuntzako taldeak (Hezkuntzako Parte-hartzearen, Irakasleentzako Arretaren eta Bizikidetzaren Atalaren mende dagoenak) unibertsitatez kanpoko ikastetxeetarako eta irakasleentzako prestakuntza diseinatzen eta garatzen du, etapa eta maila guztietako ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuetan zein ikastetxeen antolakuntzan eta ikastetxeen eta hezkuntza erkidegoaren arteko harremanetan berdintasuna txertatzeko. Bizikidetzarako Aholkuritzak ere esparru honetan laguntzen du, atal berean txertaturik.

Bizikidetzarako Aholkularitzak 2014-2015 ikasturtean zehar osotara erantzun dituen kontsultetatik 25 genero indarkeriarekin lotuta daude. Ikusi da adin goiztiarretan eta Hezkuntza Bereziko eskoletan genero indarkeriko kasuek gora egin dutela.

Kasuen %75 Bigarren Hezkuntzan gertatu dira, hots, 12 eta 16 urte bitarteko ikasleen artean. Garapen ebolutiboa dela eta, adin horretan hasten dira ustez generoarekin loturiko gizarte rola jokatzeko. Horregatik, atal honetan bereziki garrantzitsuak dira etapa horri zuzenduriko genero indarkeria prebenitzeko jarduketara ildo guztiak.

Kezkagarria da Hezkuntza Bereziko ikastetxeetan genero indarkeriko kasuak izatea. Egoera horiek agerian jartzen dute irakaskuntza horietan hezkuntza afektibo-sexualaren inguruko prestakuntza emateko beharra.

111. taula: Irakasleei zuzendutako Baterako Hezkuntzako taldearen prestakuntza

Jarduera	Parte-hartzaileak	G	E	Ikastetxeak
INFORMAZIO HITZALDIA: Baterako hezkuntzaren hastapenak I: Zer da batera hezteko eta zergatik batera hezi?	148	23	125	8
INFORMAZIO HITZALDIA: Baterako hezkuntzaren hastapenak II: Batera nola hezi?	87	14	73	5
INFORMAZIO HITZALDIA: Genero indarkeria eskola eremuan	16	5	11	1
MINTEGIA: Baterako hezkuntzaren diagnostikoko hobekuntza arloen berrikuspena	26	3	23	1
MINTEGIA: Baterako Hezkuntza integratzeko sentsibilizazioa eta hasierako diagnostikoa	5	0	5	1
IKASTAROA: Nesken eta mutilen arteko komunikazio trebetasunak lantzea	9	2	7	1
ONLINE IKASTAROA: Ziberjazarpena, grooming-a eta sexting-a; gure ikasleen segurtasunerako eta pribatutasunerako mehatxu berriak	48	11	37	
IKASTAROA ILZn: Genero indarkeriari aurrea hartzea ikasgelan	31	6	25	
IKASTAROA ILZn: Kirol praktikako genero estereotipoak haurtzaroan eta nerabeztaroen: desparekotasunak hauteman eta prebenitzea	10	0	10	

IKASTAROA ILZn: IKTak, telesailak, bideo-jokoak eta ikus-entzunezko produktuak: baterako hezkuntzako tresna pedagogikoak haiek aztertu eta erabiltzeko	19	3	16	
IKASTAROA ILZn: Kulturarteko hezkuntza baterako hezkuntzan	8	1	7	
GUZTIRA	407	68	339	17

Iturria: Bizikidetzeta Atala

Banakako prestakuntzan guztira 106 pertsonak hartu dute parte (95 emakumek eta 21 gizonek).

Ikastetxean emaniko prestakuntzan 301 pertsonak hartu dute parte (244 emakumek eta 47 gizonek):

- 0-3 urteko haur-eskola 1ek.
- Haur eta Lehen Hezkuntzako 137 ikastetxek.
- DBH eta Batxilergoko 3 institutuk.

Gehitu behar dugu bizikidetzako prestakuntza jardueren programan mota orotako indarkeriaren prebentzioa sartzeko delako, genero indarkeria barne, eta, orobat, balioetan hezteko, hezkuntza emozionala eta gatazkak modu baketsuan ebazteko.

4.3.3.2. Parte-hartzea eta lankidetzeta beste erakunde batzuekin

- Parte-hartzea Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak deitzen duen autonomia erkidegoen arteko urteko "Intercambia" topaketan. Parte-hartzea "Berdintasunaren bilakaera eta genero indarkeriaren prebentzioa nerabezaroan" gaiaren gaineko ikerketan eta lantaldean (ikerketak-ekintza), Eskola Bizikidetzaren Estatuko Behatokiarekin, Genero Indarkeriarako Gobernuaren Ordezkaritzarekin eta Konplutense Unibertsitatearekin (Psikologia Prebentiboko Unitatea) lankidetzan. Ikerketa horretan 19 ikastetxe publikok eta pribatuk parte hartu dute.
- Emakumeenganako indarkeriaren aurka jarduteko foru legearen zirriborroan ekarpenak jasotzea.
- Lankidetzan aritzea Mendabiako Joaquín Romera DBHI "Plurales" europar proiektuan parte hartzeko hautatzeko orduan, programaren jarraipena egitea eta otsailaren 28an eta martxoaren 1ean Madrilen egin zen "Berriazko esku-hartze ereduaren analisia" mintegira bertaratzea. Mintegi hori Osasun eta Hezkuntza ministerioek antolatuta zuten.
- Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritzaren plan ZUZENTZAILEA (Guardia Zibila, Polizia Nazionala, Foruzaingoa, Udaltzaingoa...).
- Osasunaren, Zerbitzuen eta Berdintasunaren Ministerioko Aukera Berdintasunen Zuzendaritza Nagusiak eskatutako informazioa ematea, Estatuak CEDAW batzordearen aurrean (emakumearen kontrako diskriminazio mota guztiak ezabatzeko Nazio Batuen hitzarmena) aurkeztu behar dituen aldizkako txostenak prestatzeko (2014ko apirila).
- Emakumezkoen genitalen mutilazioari aurre egiteko protokoloaren aplikazioa.
- Coeducando blogaren kudeaketa. Blog horretan baterako hezkuntzaren arloko esperientziak partekatzen dira.
- Berdintasunaren unitate teknikoak ezartzen parte-hartzea mahai teknikoan (Zerbitzuko zuzendaria) eta lantaldean (atalburua), diagnostiko instituzionala egiteko, ondoren datuak aztertzeke eta Hezkuntza Departamentuaren txostena prestatzeko.

- “Genero zeharkakotasuna Administrazioan” ikastaroan parte hartzea. Indarkeriaren aurkako gaur egungo legea aldatzeko profesionalen lantaldean parte hartzea. Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) Gizarte Lanaren Departamentuko generoaren gaineko ikerketa taldea.
- Parte hartzea, Osasun Departamentuarekin eta Gizarte Politiken Departamentuarekin batera, “Profesionalentzako gida: hezkuntzaren, osasungintzaren eta gizarte zerbitzuen arteko lankidetzaren protokoloa, haur eta nerabeentzako arretari buruzkoa” agiriaren prestaketan.
- “Baterako hezkuntzako jardunbide onenen” saria.

4.3.3.3. Baliabide didaktikoak

- Prestakuntzako materialak.

Materialak, hots, testuak, irakurketa fitxak eta ikasgelako lana, Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzarako lan proposamen zehatzak dituztenak.

- Maleta ibiltariak.

Prestakuntza jardueretan parte hartzen duten ikastetxeei eskaintzen zaien baliabidea. Liburutegi ibiltari txiki bat da. 8 maleta desberdin dira. Haur eta Lehen Hezkuntzarako eta Bigarren Hezkuntzarako prestatu dira, euskaraz eta gaztelaniaz idatzitako materialez horniturik daude eta ikastetxean hilabete batez edo biz egoten dira. Maleta bakoitzaren barnean bi kutxa daude: bata, "Hezkidetzarako ideiak" izenekoa, irakasleendako liburu eta materialekin, eta bestea, "Hazteko liburuak" izenekoa, ikasleendako haur eta gazte literaturarekin eta material digitalekin. Materialen funts osoa 700 ale baino gehiagokoa da.

- Coeducando bloga.

<http://dpto.educacion.navarra.es/coeducando/> bloga programan parte hartzen duten ikastetxe guztien artean trukeerako eta ikaskuntzarako gune birtuala da. Blog horretan aurki daitezke materialak, erreferentziak, loturak eta, bereziki, ikastetxeek programaren esparruan garatzen dituzten jardunbide egokiak, Baterako Hezkuntzako Jardunbide Onenen sarietan aitortzen direnak; programan parte hartzen dutenek bozketaz ematen dituzte sari horiek.

4.3.3.4. Lan-ildoak

- Ikastetxeen artean esperientzien eta jardunbide egokien trukea sustatzen jarraitzea.
- Irakasleentzako prestakuntza jarduerekin jarraitzea.
- Baterako hezkuntzako sentsibilizazioa, azterketa eta diagnostikoa eskaintzea eskatzen duten ikastetxeei edo pertsonei.
- Interesa duten ikastetxeei baterako hezkuntzako mailetak eskaintzen jarraitzea, eta bloga erabili eta eguneratzea.
- Baterako hezkuntzaren gaineko informazioa edo baliabideak eskatzen dituzten ikastetxeei arreta ematen jarraitzea.
- Nafarroako hezkuntzan berdintasunean hezteko eta genero indarkeriari aurre egiteko plana prestatu eta aplikatzea.

4.3.4. Bekak eta ikasteko laguntzak

Nafarroako Gobernuako laguntza osagarri orokorrak

520/2014 EBAZPENA, irailaren 5ekoa, Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiak emana. Ebazpen horren bidez onetsi da 2014-2015 ikasturterako beken deialdi orokorra, derrigorrezko ikasketen ondoko unibertsitatez kanpoko ikasketak eta unibertsitateko ikasketak egiten dituzten ikasleentzat.

112. taula: Erdi mailako eta goi mailako ikasketetarako Nafarroako Gobernuaren beken deialdi orokorra, 2010-2011 ikasturtetik 2014-2015 ikasturtera

Ikasturtea	2010-2011	2011-2012	2012-2013	2013-2014	2014-2015
1. ESKARIAK, GUZTIRA (Ikasleak)	7.180	12.889	7.589	8.287	8.513
2. EMANDAKO BEKAK, GUZTIRA	3.147	3.331	3.756	4.295	4.384
2.1 Unibertsitatez kanpoko mailetan	1.298	1.441	1.383	1.591	1.577
2.2 Unibertsitateko mailetan	1.789	2.147	2.284	2.585	2.697
2.3. Master ikasketetan	60	73	89	119	110
3. EMANDAKO ZENBATEKOA, GUZTIRA	5.090.626	6.175.045	6.496.589	6.323.331	6.761.538
3.1 Unibertsitatez kanpoko mailetan	972.334	1.078.180	1.003.574	1.023.339	1.050.414
3.2 Unibertsitateko mailetan	3.951.072	4.941.700	5.216.967	4.961.232	5.401.531
3.3. Master ikasketetan	167.220	155.165	276.048	338.760	309.593
4. ORDAINDUTAKO ZENBATEKOA, GUZTIRA	2.408.637	2.928.240	3.208.153	2.902.253	3.060.256
4.1 Unibertsitatez kanpoko mailetan	380.458	398.228	394.841	378.714	395.161
4.2 Unibertsitateko mailetan	1.957.743	2.483.721	2.724.982	2.374.064	2.581.377
4.3. Master ikasketetan	70.436	46.291	88.330	149.475	83.716
5. BEKA KOPURUA UNIBERTSITATEZ KANPOKO MAILETAN					
5.1 IKASKETAK					
Beka kopurua	112	158	154	262	178
Zenbatekoa	28.710	49.814	47.971	102.302	60.173
5.2 GARRAIOA					
Beka kopurua	1.034	1.147	1.058	1.173	1.222
Zenbatekoa	499.720	530.042	477.308	502.416	559.024
5.3 JANTOKIA					
Beka kopurua	14	40	26	32	20
Zenbatekoa	6.604	18.102	10.898	10.795	7.913
5.4 EGOITZA					
Beka kopurua	207	222	208	241	200
Zenbatekoa	421.618	456.411	431.188	360.705	337.606
5.5 BEREZIA					
Beka kopurua	18	27	43	66	91
Zenbatekoa	15.682	23.811	36.209	47.121	85.697
ZENBATEKOA UNIBERTSITATEZ KANPOKO IKASKETETAN, GUZTIRA (*)	972.334	1.078.180	1.003.574	1.023.339	1.050.414

HEZKUNTZA PROZESUAK ETA POLITIKAK

6. BEKA KOPURUA UNIBERTSITATEKO MAILETAN, KONTZEPTUKA					
6.1 IKASKETAK					
Beka kopurua	1.719	2.012	2167	2.471	2595
Zenbatekoa	2.224.747	2.814.464	3.004.195	3.051.253	3.380.981
6.2 GARRAIOA					
Beka kopurua	288	435	457	449	466
Zenbatekoa	156.282	253.128	266.024	237.709	268.840
6.3 JANTOKIA					
Beka kopurua	165	244	158	145	132
Zenbatekoa	58.406	97.823	61.579	54.137	53.151
6.4 EGOITZA					
Beka kopurua	798	898	954	1.087	1.050
Zenbatekoa	1.491.316	1.752.032	1.866.058	1.604.625	1.662.762
6.5 BEREZIA					
Beka kopurua	14	17	13	10	23
Zenbatekoa	20.321	24.253	19.111	13.508	35.796
ZENBATEKOA UNIBERTSITATEKO IKASKETETAN, GUZTIRA	3.951.072	4.941.700	5.216.967	4.961.232	5.401.531
7. BEKA KOPURUA MASTER IKASKETETAN					
7.1 IKASKETAK					
Beka kopurua	59	72	83	117	109
Zenbatekoa	91.843	91.160	176.428	239.923	223.641
7.2. GARRAIOA					
Beka kopurua	14	17	16	26	14
Zenbatekoa	14.037	14.843	12.919	20.503	10.365
7.3. JANTOKIA					
Beka kopurua	9	8	1	12	4
Zenbatekoa	3.680	3.294	665	5.448	1.452
7.4. EGOITZA					
Beka kopurua	29	24	42	42	42
Zenbatekoa	57.660	45.868	86.036	66.746	72.494
7.5 BEREZIA					
Beka kopurua					1
Zenbatekoa					1.642
ZENBATEKOA MASTER IKASKETETAN, GUZTIRA	167.220	155.165	276.048	338.760	309.593

Iturria: Baliabide Ekonomikoen Zerbitzua

Hezkuntza Berezirako berariazko laguntzak

Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiaren azaroaren 5eko 576/2014 Ebazpenaren bidez, 2013-2014 ikasturterako Hezkuntza Bereziko beka eta laguntzen deialdia onetsi zen eta gehienez ere 180.000 euroko gastua baimendu zen.

Estatu mailako laguntzak

113. taula: HKKMren laguntzak hezkuntza premia berezietarako

Ikasturtea	2010-2011	2011-2012	2012-2013	2013-2014	2014-2015
Eskaera kopurua	734	702	835	882	977
Emandako laguntzen kopurua	431	467	581	619	654
Laguntzen zenbatekoa	510.512,71	525.883,65	668.316,51	719.285,40	754.554,56

Iturria: Ikastetxeen eta Ikasketetarako Laguntzen Zerbitzua

114. koadroa: HKKMren ikasketetarako beka eta laguntzen bilakaera, deialdien arabera

Ikasturtea	Bekak		Laguntzak ⁵	
	Zenbatekoa (milaka €-tan)	Onuradunak	Zenbatekoa (milaka €-tan)	Onuradunak
2001-02	638.629	499.661	88.271	788.923
2002-03	636.293	463.047	88.769	821.963
2003-04	647.881	458.892	91.385	833.685
2004-05	722.630	450.031	97.863	877.491
2005-06	732.393	435.721	104.061	923.694
2006-07	835.446	475.855	109.862	962.885
2007-08	917.302	503.412	114.449	955.979
2008-09	1.144.258	582.842	126.374	1.027.705
2009-10	1.276.158	677.794	127.981	998.564
2010-11	1.470.510	738.368	128.797	994.590
2011-12	1.618.570	793.358	129.872	975.330
2012-13	1.484.132	768.838	68.570	396.781
2013-14	1.408.158	777.394	64.766	298.261
2014-15 (behin-behinekoa)	1.410.238	757.027	46.313	122.508

Iturria: Datuak eta zifrak, 2001-2014 ikasturteak. HKKM

4.4. Hezkuntza kalitaterako politikak

4.4.1. Eskola zuzendaritza

Ikastetxe publikoetako zuzendarien hautaketa

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuaren mendeko ikastetxe publikoetako zuzendariak hautatu, ebaluatu eta haien izendapena berritzeko prozesua arautzen duen lege esparrua Hezkuntzako kontseilariak abenduaren 2an emandako 202/2010 Foru Agindua eman zuen.

Foru agindu horretako 2.2 artikulua zera adierazten zuen: "Urtero, Hezkuntza Departamentuak deialdia eginen du zuzendari postuak hutsik gelditzen diren ikastetxeetako zuzendariak hautatzeko".

Hezkuntzako kontseilariaren martxoaren 3ko 24/2015 Foru Aginduaren bidez, aipatutako 2.2 artikulua aldatu zen. Testua honela idatzita geratu zen: "Hezkuntza Departamentuak aldia behin deialdia eginen du zuzendari postuak hutsik gelditzen diren ikastetxeetako zuzendariak hautatzeko".

2014-2015 ikasturtean zehar, Hezkuntza Departamentuak ez du Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuaren menpeko ikastetxe publikoetako zuzendariak hautatu, ebaluatu edo haien izendapena berritzeko deialdirik egin.

4.4.2. Kalitatearen kudeaketa ikastetxeetan

4.4.2.1 Ikastetxe publikoak

Ikastetxe publikoen kalitate sareak.

Politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeari buruzko abenduaren 29ko 21/2005 Foru Legeak ebaluazio-sistema publikoa sortu eta garatzeko behar diren neurriak ezartzen ditu, bai Nafarroako Administrazio Publikoak diseinatu eta gauzatutako politika publikoak, bai administrazio horiek -zeinek bere eskumenen esparruan- nafar herritarrei emandako zerbitzuen kalitatea ebaluatuko dituen.

Hezkuntza Departamentuari dagokio hezkuntza sistemaren kalitatea eta etengabeko hobekuntza zehaztu eta antolatzea, ikastetxe publikoek beren autonomiaz baliaturik egiten ahal dituzten ekintzak galarazi gabe.

Eskumen horren esparruan, Hezkuntza Departamentuak baimendu zuen "Kalitatea kudeatzeko sistemen hedapena" izeneko programa abian jartzea Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emaniko martxoaren 6ko 230/2006 Ebazpenaren bidez.

Programa horrekin aipatutako foru legea eta haren ondorengo arau-garapena bete nahi izan zen eta, bereziki, jarraibideak eman ziren zerbitzuen gutunak egiteko, eskaera eta erabiltzaileen asetzaren maila aztertzeke eta kexen, erreklamazioen eta iradokizunen sistema eraginkorra garatzeko.

Antolamenduaren Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiaren azaroaren 23ko 458/2010 Ebazpenaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan "Kalitatea kudeatzeko sistemen hedapena" izeneko programa jarraitzeko baimena eman zen eta "Kalitatearekiko konpromisoa" eta "Ikastetxe bikaina" aitorpenak emateko arauak ezarri ziren.

Era berean, europar esparruan, estatu kideetako gobernuen ordezkariak, 2007ko azaroaren 15ean egindako bileran, hitzartu zuten zuzentze-funtzioak betetzen dituzten irakasleek, irakasteko gaitasunak eta esperientzia izateaz gain, ikastetxeak kudeatu eta zuzentzeko kalitate handiko prestakuntza eskura dezaten bermatzeko ahaleginak egitea.

Hezkuntzako kontseilariaren uztailaren 5eko 63/2013 Foru Aginduaren bidez, ikastetxeetan Kalitatea Kudeatzeko Sistema bat ezartzea ahalbidetuko duen ereduak ezarri eta arautzen da; eredu hori arau propio baten arabera eginen da, hots, "Ikastetxeen Kalitatea Kudeatzeko Sistema-2013 Araua", zeinak "Kalitatearekiko konpromisoa", "Kalitatezko ikastetxea" eta "Ikastetxe bikaina" aitorpenak emateko bete beharreko gutxienezko baldintzak zehazten dituen.

Hezkuntzako kontseilariaren otsailaren 5eko 10/2015 Foru Aginduaren bidez, aitorpenen indarraldia aldatzen da eta "Kalitatezko ikastetxea" eta "Ikastetxe bikaina" aitorpenak berritzeko


KKSaren kanpo ikuskapena ezartzen da. Kanpo ikuskapen hori Hezkuntza Departamentuko Prestakuntzaren eta Kalitatearen Atalak eginen du.

2014-2015 ikasturtean bi kalitate sare berri sortu dira: N9C1 sarea, ikastetxeena, eta N9C2 sarea, non Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialak (NUHEO), Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroak (NHBBZ) eta irakasleen laguntzarako bost zentroek (ILZ) parte hartzen duten.

Guztira 128 ikastetxe, hots, Nafarroako unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoen %54, parte hartzen ari dira gaur egun dauden 17 kalitate sareetako batean. Sare horietako 6 modu autonomoan ari dira erabateko kalitaterantz lan egiten etengabeko hobekuntzaren bidez, eta gainerako 11k ikastetxeetan kudeaketa sistemak ezartzeko programako aholkulari tekniko batek koordinatzen ditu. Sareetan parte hartzen duten ikastetxeak askotarikoak dira:


- Eskolatzte maila: Lehen Hezkuntzako ikastetxeen %60, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen %20, Lanbide Heziketako ikastetxeen %8, eta gainerakoak hizkuntza eskola ofizialak eta baliabide zentroak dira. Nabarmentzekoa da Lanbide Heziketako ikastetxeen %100 kalitate sareetan daudela.
- Hizkuntza eredua: G ereduko %65, D ereduko %26 eta DG ereduko %9.
- Eremu geografikoa: Tuteran bi sare daude, Tafallan bat, Lekarozen bat eta Iruñean zazpi.

53. grafikoa: Kalitate sareetan dagoen ikastetxe kopurua



Iturria: Ebaluazioaren, Kalitatearen, Prestakuntzaren eta Bizikidetzaren Zerbitzua

54. grafikoa: Kalitate sareetan dagoen ikastetxe kopuruaren bilakaera denboran zehar



Iturria: Ebaluazioaren, Kalitatearen, Prestakuntzaren eta Bizikidetzaren Zerbitzua

P: Lehen Hezkuntza, S: Bigarren Hezkuntza

FP: Lanbide Heziketa
IDIOM: hizkuntza eskola ofizialak
B: Batxilergoa
REC: baliabide zentroak

115. taula: Kalitate sareetan dauden ikastetxe publikoen kopurua, eskolatzeko mailaren eta hizkuntza ereduaren arabera.

Redes autónomas					N5E	N6C	N6E	N6EL	N6T1	N6T2	N7C	N7E	N8C	N9C1	N9C2	
Bera Toki Ona BHI	Cintruénigo La Paz	Berriozar IESC de Berriozar	Beriáin CPEIP de Beriáin	Zzur Mayor HLHIP Erreniega	Lerín Doña Blanca de Navarra	Garralda Garraicako DBHI	Earañáin Eulza	Alteasu/Alteasu H.LHIP Zelandi	Arantza HLHIP Arantza	Bañuel Santa Ana	Abitae San Babi	Arajona Urraca Reina	Arbizu HLHIP Arbizu	Pamplona Escuela Oficial de Idiomas	Murillo el Fruto Raimundo Lanas	Pamplona CAP Pamplona
Pamplona-IES Julio Caro Baroja	Cortes-Bardonahe Reales	Corella-Alhama	Cintruénigo-Oloro de Navascués	Villava- HLHIP Atargi	Locosa-Angel Martínez Raignori	Larriainza-Larriainza-UBHI	Earañáin-Loa Saucos	Etxarri-Aranatz- HLHIP San Donato	Bera- HLHIP Ricardo Baroja	Cascante-Santa Vicenta Maria	Arguedas-Sancho Ramirez	Barésain-Martin Azpilicuet	Berriozar- HLHIP Mendialdea I	Villava-Pedro de Atarrabia	Berriozar- CPEIP Berriozar Mendialdea I	Tafalla- CAP Tafalla
Pamplona-CIP Donapea II P	Peralta-Ribera del Arga	Estella-Lizarracip de Estella	Noáin- San Miquel		Los Arcos-Santa Maria	Ochagavia-DBHI	Pamplona-Cardenal Ilundain	Jauntsarais- HLHIP Oihanzabal	Doneztebe/Santesteban HLHIP San Miguel	Cortes-Cerro de la Cruz	Azagra-Francisco Arbeloa	Derbinzana-Rio Arga	turmendi- HLHIP Arrano Berza	Pamplona-Azpilagaña	Estella/Lizarracip- HLHIP	Tudela- CAP Tudela
Pamplona-BHI Iturrama	Sanguesa-Sierra de Leyre	Marcilla-Marqués de Villena	Pamplona-Mendillorri		Mendavia-Joaquin Romero	Pamplona-CPEIP Amalur Itastola HLHIP	Pamplona-Frmitagaña	Lakuntza-HI HIP Luis Fuentes	Elizondo-HI HIP San Francisco Javier	Murchante-Mardones y Magaña	Casasillas-San Juan de Jerusalén	Caparrosa-Virgen del Goto	Lekunberri-HI HIP barberri	Pamplona-Padre Moret-Iruñide	Lerza-HI HIP Crieta	Estella/Lizarracip- CAP Estella
Pamplona-IES Navarro Villanueva		Pamplona-CIP Mara Ana Sanz	Pamplona-Pedernorn Pradera		Noáin-Valle de Elorz-Florizabar	Elizondo-IES FP Elizondo IH BHI	Pamplona-Iturrama	Pamplona- HLHIP Mendigoiti	Lesaka- HLHIP Irain	Veltierra-Félix Zapatero	Fustiñana-Santos Justo y Pastor	Cadreita-Teresa Bertrán de Lis	Pamplona- HLHIP Pabli Larraizar	Sarriuren-Sarriuren	Tafalla-Marqués de la Real Defensa	Pamplona-CREENA
Pamplona-Plaza de la Cruz		San Adrián-Alfonso X El Sabino	Villava-Lorenzo Goicoa		Pamplona-ESINA		Pamplona-San Juan de la Cadena	Zubiri- HLHIP Xabier Zubiri		Caracatillo-Valle del Aragón	Tudela-Huertas Mayores	Falco-Doña Alvara Alvarez	Jrdain- HLHIP Jrdaingo Terri Eskola	Milagro-Nuestra Señora del Patrocinio	Tudela-Griseras	Pamplona-LOIANA
Pamplona-Donibane			Ribaforada-San Bartolomé				Pamplona-Pedro de Urava	Ansoain-Ezkaba HLHIP				Funes-Elías Terés	Olazagutía/Olazti- HLHIP Domingo Bados	Villafranca-El Castellar	Buriada-IES Ibañalde	
Tafalla- CIP de Tafalla			Azagra-Reyno de Navarra				Pamplona-IES Dasoko					Marcilla-San Bartolomé	Buriada- HLHIP Ermitaberri		Peralta-Juan Bautista	
Tudela-Benaimín de Tudela			Alsasu/Alsasu- FP Sakana				Pamplona-CI Agrofloreo: al					Mendigorria-Julián María Espinal CICOZ				
Tudela CIP ETI			Imárcoain Noáin- CI de FP Superior de Energías Renovables									Clite-Príncipe de Viana				
Tudela-Valle del Ebro			Lumbier-IES FP Lumbier									Pitilla-CPEIP Pitillas				
Burlada CI Burladé FP			Pamplona CIP Virgen del Camino										Estella/Lizarracip- BHI Tierra Estella			
													Tudela-Escuela Oficial de Idiomas			

2014-2015 ikasturtean aldaketa hauek izan dira antolaketari dagokionez:

- Kalitate sare berriak: bi sare berri, N9C1 eta N9C2, non 13 ikastetxe eta baliabide zentro ari diren: Uharteko Virgen Blanca HLHIP, Leitzako Erleta HLHIP, Tafallako Marqués de la Real Defensa, Tuterako Griseras HLHIP, Azkoiengo Juan Bautista Irurzun, Iruñeko ILZ, Tafallako ILZ, Tuterako ILZ, Lizarrako ILZ, Lekarozko ILZ, NHBBZ eta NUHEO.
- Sarez aldatu diren ikastetxeak: sei ikastetxe sarek aldatu dira beren ezarpen mailara egokitzeko. Elizondo (Baztan) - Lekaroz-Elizondo BHI, Iruña - Amaiur Ikastola HLHIP ikastetxeak N4E saretik N5E sarera igaro dira, KKSren aitortpenak eskuratu ahal izateko. Iruña - Nekazaritza eta Basogintzako Ikastetxe Integratua (N5C), Iruña - Basoko BHI (N3), Iruña - Pedro de Ursua (N8C) ikastetxeak N6C sarera igaro dira "Kalitatearekiko konpromisoa" aitortpenerako baldintzak prestatzeko.

Kalitate sareen gaineko mintegiak eta prestakuntza ikastaroak.

KKSak arrakastaz ezartzeko, Nafarroako 128 ikastetxe publikok sareko lan kolaboratiboaren paradigma berria sartu behar izan dute beren jardun profesionalean. Lehentasunezko hobekuntza arloen artean, ondokoak proposatzen dira:

- Kudeaketa sistemak erraztea eta modernizatzea prozesuen araberako kudeaketaren bidez, prozesuen mapa berriz ere finkatuz, mapan jasotako prozesuak diseinatuz eta haien aginte koadroa zehaztuz.
- IKT tresna berrien gaineko ezagutza eta prestakuntza handitzea, ikastetxeen kudeaketa eta emaitzen hobekuntza errazteko.

Kalitatearen Bulegotik ikastetxeetan KKSak garatu, ezarri eta hobetzera zuzenduriko 25 prestakuntza ekintza antolatu dira:

- 14 sareko mintegi egin dira: prozesuen araberako kudeaketa, ikastetxeetan KKSak garatu eta ezartzeko autoebaluazioa eta sareko prestakuntza.
- Kalitatearen kudeaketako hasierako prestakuntza ikastaroa, zuzendaritza berrientzat eta kalitatearen arduradunentzat.
- EFQM ereduaren eta Nafarroako Bikaintasunerako Fundazioaren "Bikaintasunarekiko konpromisoa" aitortpenaren aurkezpen jardunaldia.
- "Zuzendaritzaren proiektua" ikastaroa.
- "Kalitatea kudeatzeko sistemaren barne-auditoretza" mintegia.
- "Kalitatea kudeatzeko sistemak hezkuntzan" online ikastaroa.
- "EFQM eredia eta antolaketa hobetzeko plana" ikastaroa.
- Hezkuntza kudeaketako IKT tresna kolaboratiboaren gaineko prestakuntza:
- Hezkuntza kudeaketako tresnak. Haien erabiltzeko (Google Drive) oinarrizko prestakuntza Iruñean, Tuteran eta Tafallan.
- Google Drive aurreratua, kalitatea kudeatzeko ikastetxeendako tresna gisa; Iruñean eta Tuteran egin zen.
- Sarea kudeatzeko tresnen gaineko ikastaroa, kalitateko aholkulariendako.

Gainera, Prestakuntzaren eta Kalitatearen Atalak KKSekin loturiko 11 prestakuntza ekintza antolatu ditu, batez ere lan mintegiak ikastetxeetan.

Prestakuntzari dagokionez, bereziki garrantzitsua izan da “KKSaren kanpo ikuskapena egiteko egiaztapena lortzeko programa”. Programa horren helburua izan da KKSaren kanpo ikuskapenaren prozesua egiteko egiaztapena duten langile talde bat egitea eta “Kalitatezko ikastetxea” eta “Ikastetxe bikaina” aitortpenak berritzeko eskaerei erantzutea, otsailaren 5eko 10/2015 Foru Aginduaren arabera.

Ondoren, 2014-2015 ikasturtean egindako KKSekin loturiko prestakuntza jardueretatik abiatuta lortu diren emaitzak aurkezten dira.

116. taula: 2014-2015 ikasturtean egindako prestakuntza jarduerak.

Izen-emateak	723604		
Parte-hartzaileak	628		
Ziurtagiri kop.	505	Parte-hartzaileen ehunekoa, izena emandakoen kopuruarekin alderaturik	%87
Ziurtatutako ordu kopurua	17.310	Ziurtagirien ehunekoa, parte-hartzaileen kopuruarekin alderaturik	%80

Iturria: Kalitatearen Bulegoa

117. taula: 2013-2014 eta 2014-2015 ikasturteetan egindako ikastaroen alderaketa.

Ikastaroa	2013-14	2014-15	2013-14	2014-15
Izen-emateak	604	723		
Parte-hartzaileak	570	628		
Ziurtagiri kop.	461	505	Parte-hartzaileen ehunekoa, izena emandakoen kopuruarekin alderaturik	%94 %87
Ziurtatutako ordu kopurua	15.551	17.310	Ziurtagirien ehunekoa, parte-hartzaileen kopuruarekin alderaturik	%81 %80

Iturria: Kalitatearen Bulegoa

Lortutako emaitzen arabera, ikus daiteke ziurtatutako prestakuntza-ordu kopurua igotzea, 15.551tik 17.310era. Hori gertatu da bai prestakuntza eskaintza bai parte-hartzaileen kopurua handiagoak izan direlako.

Ez da aldaketa esanguratsurik izan parte-hartzaile kopuruarekiko ziurtagirien ehunekoa, %81etik %80ra igarotzea. Hala ere, murriztu da izena emandakoen kopuruarekiko parte-hartzaileen ehunekoa, %94tik %87ra.

Ondoko taulan sareetan parte hartzen duten ikastetxeak eta burutzen dituzten prestakuntza ekintzak ageri dira.

118. taula: Kalitatearen gaineko prestakuntza sareetan parte hartzen duten ikastetxeak, 2014-2015 ikasturtea

Sarea	Edukia	Ikastetxe kopurua eta ezaugarriak
N1	Prozesuen araberrako kudeaketako sarea	22 ikastetxe: 9 Haur eta Lehen Hezkuntzakoak, 7 Bigarren Hezkuntzakoak eta 6 Lanbide Heziketakoak.
N2		
N3		
N4C		

Gaztelani

a	"Ikastetxeko autoebaluazioa" ikastaroa	
N4E Euskara		
N5C Gaztelania		7 ikastetxe: 3 Bigarren Hezkuntzakoak eta 4 Lanbide Heziketakoak.
N5E Euskara	"Kalitatea Kudeatzeko Sistemen Hedapena" izeneko programaren diseinuarekin eta ezarpenarekin jarraitzea.	8 ikastetxe: 3 Haur eta Lehen Hezkuntzakoak, 4 Haur Hezkuntzakoak, Lehen Hezkuntzakoak eta 1 Bigarren Hezkuntzakoak.
N6C Gaztelania	"Kalitatea Kudeatzeko Sistemen Hedapena" izeneko programaren diseinuarekin eta ezarpenarekin jarraitzea.	9 ikastetxe: 6 Haur eta Lehen Hezkuntzakoak, 2 Bigarren Hezkuntzakoak eta 1 Lanbide Heziketakoak.
N6E Euskara		Haur eta Lehen Hezkuntzako 7 ikastetxe.
N6EL Lekaroz Euskara		Haur eta Lehen Hezkuntzako 5 ikastetxe.
N6T1 eta N6T2 Tutera Gaztelania		N6T1. 6 ikastetxe: 5 Haur eta Lehen Hezkuntzakoak eta 1 Bigarren Hezkuntzakoak. N6T2. Haur eta Lehen Hezkuntzako 6 ikastetxe
N7C Gaztelania	"Kalitatea Kudeatzeko Sistemen Hedapena" izeneko programaren diseinuarekin eta ezarpenarekin jarraitzea.	13 ikastetxe: 11 Haur eta Lehen Hezkuntzakoak, 1 Bigarren Hezkuntzakoak eta Tuterako Hizkuntza Eskola Ofiziala (HEO).
N7E Euskara	"Kalitatea Kudeatzeko Sistemen Hedapena" izeneko programaren diseinuarekin eta ezarpenarekin jarraitzea.	Haur eta Lehen Hezkuntzako 8 ikastetxe.
N8C Gaztelania	Kalitatea kudeatzeko sistemaren diseinuarekin eta ezarpenarekin jarraitzea	7 ikastetxe: 4 Haur eta Lehen Hezkuntzakoak, 2 Bigarren Hezkuntzakoak eta Iruñeko HEO.
N9C1	Kalitatea kudeatzeko sistemaren diseinuarekin eta ezarpenarekin jarraitzea	8 ikastetxe: 7 Haur eta Lehen Hezkuntzakoak eta 1 Bigarren Hezkuntzakoak
N9C2	Kalitatea kudeatzeko sistemaren diseinuarekin eta ezarpenarekin jarraitzea	7 ikastetxe: 5 ILZ, NUHEO eta NHBBZ.

Iturria: Kalitatearen Bulegoa

Kalitatea Kudeatzeko Sistemen gaineko araudia

Honako hau da indarrean dagoen araudia:

- 63/2013 Foru Agindua, uztailaren 5ekoa, Hezkuntzako kontseilariak emana, IKKS-2013 Araua onesten duena, hots, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan kalitatea kudeatzeko sistemak garatu, ezarri eta aitortzeko baldintzak arautzen dituena.
- 10/2015 Foru Agindua, otsailaren 5ekoa, Hezkuntzako kontseilariak emana, uztailaren 5eko 63/2013 Foru Agindua aldatzen duena.

Uztailaren 5eko 63/2013 Foru Aginduko IV. kanpituluak Kalitatea Kudeatzeko Sistema (KKS) ikastetxe publikoetan ezartzeko programa arautzen du.

Programa honen bidez, Hezkuntza Departamentuak Kalitatea Kudeatzeko Sistema (KKS) ezarri nahi du, Erabateko Kalitatearen edo Bikaintasunaren bidez kudeatzea aukeratu duten ikastetxeek antolaketa eta jardunean dituzten beharrei doiturik.

KKSA ezarri nahi duten Foru Komunitateko ikastetxe publikoek kalitate sareetan sartu behar dute. Sare horiei kalitate sareak koordinatzen dituzten pertsona talde batek ematen die aholkularitza. Uztailaren 5eko 63/2013 Foru Aginduko 19. artikulua arautzen du "Kalitatearekiko konpromisoa", "Kalitatezko ikastetxea" eta "Ikastetxe bikaina" aitortzen eskuratu ahal izateko ikastetxeek Prestakuntzaren eta Kalitatearen Atalari KKSA ebaluatzeko egin behar dioten eskaera. Ebaluazioa Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak egiten du.

Programa honetan sartzen diren ikastetxeak sare batean egiten dute lan, IKKS 2013 Arauaren arabera kudeaketa sistemak ezartzean modu koordinatuan aurrera egiteko. Hurrenez hurreneko lau faseetatik pasatzen dira.

- 1. fasea: kalitatea kudeatzeko printzipioei hurbiltzea, batez ere irakaskuntza-ikaskuntza prozesuekin loturik, ikastetxeen hurbileko esperientziatik abiatuta.
- 2. fasea: fase honetan prozesuak zehaztu, ezarri eta hobetuko dira, modu sistematiko eta osoan, "Kalitatearekiko konpromisoa" edo "Kalitatezko ikastetxea" aitortzen lortzeko aukera ematen duen kanpo ebaluaziora aurkezteko xedearekin.
- 3. fasea: ezarritako kudeaketa sistema osoa eguneratuta mantenduko da, Zerbitzuen Gutuna prestatuko da eta, "Ikastetxe bikaina" aitortzen eskuratu nahi duten ikastetxeen kasuan, ikastetxeko autoebaluazioa egiten da.
- 4. fasea: fase honetan ikastetxeek erabateko kalitateranzko kudeaketa sistemetan sakontzen jarraituko dute, etengabeko hobekuntzaren bidez (jardunbide onak, tresna informatikoak, irakaslanerako orientazioa...), modu autonomoan.

Kalitate sareetan sartzen diren ikastetxeek klaustrokide bat kalitatearen arduradun izendatzeko konpromisoa hartzen dute. Lan hori burutzeko bere ordutegi pertsonalaren barnean Hezkuntza Departamentuak zehazten dituen irakastordua izanen ditu. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeek 4 irakastordu dituzte eta Bigarren Hezkuntzakoek eta Lanbide Heziketakoei 6 irakastordu.

Kalitate sareen programaren koordinaziorako eta aholkularitza teknikorako kalitate sareetako koordinatzaile talde bat dago, Hezkuntza Departamentuak zehazten dituen ordu dedikazioa eta aitortzen dituen.

Programak jarraitzen duen arauak ikastetxeetako hezkuntza jardunaren esparru garrantzitsuenen kudeaketa sustatzen du, prozesuetan oinarrituriko ikusmoldea hartuz. Halaber, kudeaketa eremua errazten du, Bikaintasunaren esparru desberdinak bere baitan hartzen baititu, hala nola, lidergoa, plangintza estrategikoa, pertsonak, baliabideak, prozesuak, bezeroak eta emaitzak.

Arau honetan zehazturiko betebeharrak bateragarriak dira ISO 9001:2008 eta EFQM moduko beste eredu estandarizatueta xedatutakoekin.

Gero eta gehiago direnez KKS aitortzen dituzten ikastetxeak eta aitortzen horiek berritzeko xedearekin, Hezkuntzako kontseilariaren uztailaren 5eko 63/2013 Foru Agindua aldatu da. Foru agindu horren bidez, IKKS-2013 Araua onetsi zen, hots, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan kalitatea kudeatzeko sistemak garatu, ezarri eta aitortzeko baldintzak arautu ziren.

Aldaketak otsailaren 5eko 10/2015 Foru Aginduan jaso ziren. Bi nabarmendu behar dira:

- Aitortzen indarraldia hiru ikasturteetatik lau ikasturtera luzatzen da.

- Prestakuntzaren eta Kalitatearen Atala arduratuko da “Kalitatezko ikastetxea” eta “Ikastetxe bikaina” aitortzen berritzeko KKSaren kanpo ikuskapenaren prozesua planifikatzeaz eta egiteaz, eta lan horretan Hezkuntza Departamentuaren egiaztapena lortu duten langileek parte hartuko dute.

Kanpoko aitortzenak

2014-2015 ikasturtean Hezkuntza Departamentuko sareetako ikastetxe zenbaitek kanpoko aitortzenak jaso dituzte, honako entitate hauek emanak:

- Nafarroako Bikaintasunerako Fundazioa: Tuterako ETI IIP Europako Bikaintasuna 400+ zigilua berritu du. Beste sei ikastetxek “Bikaintasunarekiko konpromisoa” aitortzen jaso dute.
- Bureau Veritas Certification: Julio Caro Baroja BHIK “Pentazitatearen Nazioarteko Arau Teknikoa, maila aurreratua” eskuratu du. Aitortzen hori jaso duen Nafarroako ikastetxe bakarra da eta Espainiako gutxietako bat.
- Hezkuntza Departamentua: 15 ikastetxek Hezkuntza Departamentuaren IKKS 2013 Arauaren araberrako aitortzenak eskuratu dituzte. Uztaillaren 5eko 63/2013 Foru Aginduak jasotzen du arau hori. Zortzi ikastetxek “Ikastetxe bikaina” maila goreneko aitortzena lortu dute, bi ikastetxek “Kalitatezko ikastetxea” aitortzena eta, lehen aldiz, bost ikastetxek Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak egindako “Kalitatearekiko konpromisoa” aitortzena eskuratu dute, gainbegiratze prozesu baten bidez.

119. taula: Ikastetxe publikoek lortu dituzten kanpoko kalitate aitortzenak. 2014-2015 ikasturtea

Aitortzen mota	Luzatzen duen erakundea	Ikastetxeak
Nafarroako Bikaintasuna 400+	Nafarroako Bikaintasunerako Fundazioa	Tutera - ETI IIP
Bikaintasunarekiko konpromisoa	Nafarroako Bikaintasunerako Fundazioa	Los Arcos - “Santa María” HLHIP Atarrabia - Lorenzo Goicoa HLHIP Elizondo - San Francisco Javier IP Mendillorri - Pedro de Ursua BHI Lesaka - Irain Eskola Publikoa Altsasu - Zelandi Herri Eskola
Pentazitatea Ereduaren Arau Teknikoa (NTMP 001)	Bureau Veritas Certification	Iruña - Julio Caro Baroja BHI
“Ikastetxe bikaina” IKKS 2013 Araua	Hezkuntza Departamentua	Bera - Toki-Ona Bigarren Hezkuntzako Institutua Iruña - Iturrama BHI Iruña - Navarro Villoslada BHI Iruña - San Juan-Donibane BHI Iruña - Mendillorriko HLHIP Iruña - Paderborn Victor Pradera Atarrabia - Lorenzo Goicoa Atarrabia - Atargi Haur eta Lehen HIP
“Kalitatezko ikastetxea” IKKS 2013 Araua	Hezkuntza Departamentua	Cortes - Cerro de la Cruz Zarrakastelu - Valle del Aragón

“Kalitatearekiko konpromisoa” IKKS 2013 Araua	Hezkuntza Departamentua	Iruña - Basoko BHI Iruña - Nekazaritza eta Basogintzako Ikastetxe Integratua Garralda - Ntra.Sra.De Orreaga Haur eta Lehen HIP Doneztebe – San Miguel Haur eta Lehen HIP Lesaka - Irain Eskola Publikoa
---	-------------------------	---

Iturria: Kalitatearen Bulegoa

120. taula: Ikastetxe publikoek lortu dituzten kanpoko kalitate aitortzen kopuruaren bilakaera, 2011tik 2015era

Kanpoko aitortzenak	2011	2012	2013	2014	2015
Europako Kalitatea (EFQM 200dik aurrera)	1		1	5	6
ISO 900:9008 ziurtagiria	10	4	1	2	
Europako Bikaintasuna (EFQM 400+tik aurrera)	2	1		1	1
“Ikastetxe Bikaina”, Hezkuntza Departamentua	4	3	2	5	8
"Kalitatezko ikastetxea", Hezkuntza Departamentua	4	4	5	4	2
“Kalitatearekiko konpromisoa”, Hezkuntza Departamentua					5

Iturria: Kalitatearen Bulegoa

Zerbitzuen gutunak

Politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeari buruzko abenduaren 29ko 21/2005 Foru Legearen IV. kapituluak zerbitzuen gutunak arautzen ditu.

Foru lege horren 21. artikuluko 3. atalak adierazten du zerbitzuen gutunen onespena Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN (NAO) argitaratuko dela, orok horren berri izan dezan.


121. taula: Berriki beren zerbitzuen gutunak onetsi dituzten ikastetxeak

Santa Ana HLHIP	Buñuel
Valle del Aragón DBHI	Zarrakastelu
Santa Vicenta Maria HLHIP	Cascante
Cerro de la Cruz HLHIP	Cortes
Mardones y Magaña HLHIP	Murchante
Félix Zapatero HLHIP	Valtierra

Zerbitzuen gutunen onespeneraren iragarkia NAOren 186. zenbakian, 2015eko irailaren 17koan, argitaratu zen.

Grafiko hauetan 2014-2015 ikasturtera arte eskuratu diren kanpoko aitortzenen datuak ikus daitezke:

Aitortpena	Ikastetxe kopurua
ISO	10
IKKS	49
EFQM 200+	6
EFQM 300+	2
EFQM 400+	8
EFQM 500+	1
ZG	49
EFQM Konprom	12



ISO: Estandarizaziorako Nazioarteko Erakundea; EFQM: European Foundation for Quality Management; IKKS: Ikastetxeen Kalitatea Kudeatzeko Sistema; ZG: Zerbitzuen gutuna

4. Intereseko datu orokorrak

Ondoko taulan kalitate sareen bilakaera jasotzen da, 2010-2011 ikasturtetik 2014-2015 ikasturtera:

122. taula: Ikastetxe publikoetako kalitate sareen datuak, 2010-2011 ikasturtetik 2014-2015 ikasturtera

Ikasturteak	2010-2011	2011-2012	2012-2013	2013-2014	2014-2015
Parte hartu duten ikastetxeak	113	115	119	116	128
Emandako prestakuntza orduak	522,5	530	869	789	739
Kalitaterako prestakuntza jardueretan parte hartu duten pertsonen kopurua	320	330	369	362	460
Sareetan dauden pertsonen kopurua	248	252	209	259	256
Jasotako prestakuntza orduak	12.540	13.356	15.882	12.179	17.310
Bilera kopurua, mailaka:					
N1	7	5		7	7
N2	9	7	7	7+7	4
N3	5	5	7	1	1
N4	14	7+7	7+7		
N5C		7	7		
N5E	7	7	7+	7	7

N6	28	7+7	7+7+7+7+7 7	7+7+7+7+7+7 7+1	7+7+7+7+7
N7		5+5	7+7	7+7	7+7
N8				7	7
N9					7+7
Bilerak, guztira	70	69	91	86	89

Iturria: Kalitatearen Bulegoa

4.4.2.2. Ikastetxe itunduak

Ikastetxe pribatuak kanpoko aitoren hauek lortu dituzte:

123. taula: Ikastetxe itunduak lortu dituzten kanpoko kalitate aitorenak, 2014-2015 ikasturtea

Aitoren mota	Luzatzen duen erakundea	Ikastetxeak
2014ko Bikaintasunaren Nafarroako saria	Nafarroako Bikaintasunerako Fundazioa	UHUNek Tuteran duen zentro elkartua
Nafarroako Bikaintasuna 500+ (berritza)	Nafarroako Bikaintasunerako Fundazioa	Cuatro Vientos Ikastetxe Integratua, Iruña
Nafarroako Bikaintasuna 500+	Nafarroako Bikaintasunerako Fundazioa	UHUNek Tuteran duen zentro elkartua
Nafarroako Bikaintasuna 400+		Santa Ana Ikastetxea, Lizarra El Molino Hezkuntza Bereziko Ikastetxea, Iruña
Bikaintasunarekiko konpromisoa		Nafarroako Segurtasun Eskola
2014ko Bikaintasunaren Nafarroako saria	Nafarroako Bikaintasunerako Fundazioa	UHUNek Tuteran duen zentro elkartua

Iturria: Nafarroako Bikaintasunerako Fundazioa eta Nafarroako Ikastolen Elkarteak.

4.4.3. Irakasleen etengabeko prestakuntza

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak esaten du etengabeko prestakuntza irakasle guztien eskubidea eta betebeharrak dela, eta hezkuntza administrazioen eta ikastetxeen ardura. Halaber, Europar Batasunaren gomendioekin bat, helburu gisa ezartzen du hezkuntza sistemaren kalitatea eta eraginkortasuna hobetzea. Irakasleen etengabeko prestakuntza funtsezko tresna da helburu hori lortu ahal izateko, ezagutzaren gizartean sortzen diren hezkuntza premia berriei erantzutea ahalbidetzen baitu.

2014-2015eko Irakasleen Prestakuntza Plana hauteman diren ikastetxeen eta hezkuntza etapa desberdinetako irakasleen beharren arabera diseinatu da. Ikasturtearen hasieran Hezkuntza Departamentuaren web orrian argitaratzen da. Zortzi irakaskuntza gaitasunetan egituratzen da:

- Zientzia gaitasuna
- Gaitasun pertsonala eta soziala
- Gaitasun didaktikoa

- Antolaketaren eta ikastetxea kudeatzeko sistemen gaitasuna
- Bizikidetza kudeatzeko gaitasuna
- Berrikuntza eta hobekuntza gaitasuna
- Komunikazio gaitasuna
- Gaitasun digitala (IKTak curriculumean txertatzea)

Haren diseinuak talde prestakuntzarako aukerak eskaini ditu, ikastetxe bakoitzean edo ikastetxeen sareetan, betiere hausnarketa baliatuz eta ebaluazioan hautemandako hobekuntza arloekin bat eta hezkuntza berrikuntzarekin lotuta.

2014-2015 ikasturtean zehar, irakasleen etengabeko prestakuntza Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren Irakasleentzako Laguntza Zentroen Sarearen eta entitate laguntzaileen bidez egin da.

Irakasleen Prestakuntza Planeko lehentasunezko ildoak eta programak 2014-2015 ikasturtean.

Irakasleen Prestakuntza Planaren helburu nagusiak dira Nafarroako hezkuntza sistemaren kalitatea bultzatzea, ikastetxeek eta irakasleek antzemandako beharrei erantzutea, eta irakaskuntzako gaitasunak hobetzea.

Hori guztia ondoko jarduera ildo hauetan egituratuko da:

- 1. ildoak: Zuzendaritza taldeen lidergoa bultzatzea irakasleen prestakuntzari dagokionez.
- 2. ildoak: Ikastetxean ematen den prestakuntza instituzionala, hobekuntza planetan jasoa, indartzea.
- 3. ildoak: Estrategiak ezartzea irakasleen hausnarketa bateraturako eta lankidetzarako, eta jardunbide egokien trukea sustatuko duten ikastetxeen arteko prestakuntza sareak sortzeko.
- 4. ildoak: Ikasgelako prozesuak hobetzera bideraturiko prestakuntza sustatzea, irakasleek ikasleei ahalik eta prestakuntzarik handiena transmititzeko.
- 5. ildoak: Irakaskuntzako gaitasun profesionalen hobekuntza sustatzea.
- 6. ildoak: Irakaslanaren kalitatea hobetzeko prestakuntzaren aldiroko ebaluazio prozeduren ezarpena bultzatzea.

Prestakuntzaren lehentasunezko ildoak lortze aldera, ondoko prestakuntza programak proposatzen dira:

- 1. programa. Bizikidetza hobetzeari, aukera berdintasunari, osasunaren sustapenari, jasagarritasunari eta beste balio sozial batzuei buruzko prestakuntza.
- 2. programa. Hezkuntza berrikuntzari eta oinarriko gaitasunak curriculumean txertateari buruzko prestakuntza.
- 3. programa. Kanpoko eta barneko ebaluazio erduei buruzko prestakuntza.
- 4. programa. Atzerriko hizkuntzetako prestakuntza didaktikoa.
- 5. programa. Hezkuntzako teknologia berrietako (HIKT) prestakuntza.
- 6. programa. Ikastetxeen kalitatea kudeatzeko prestakuntza.

Antolaketaren egitura

Irakasleen Etengabeko Prestakuntzaren Sarea

2014-2015 ikasturtean Irakasleen Etengabeko Prestakuntzaren Sareak diseinatu, koordinatu eta zuzendu du irakasleen etengabeko prestakuntza. Sare hori Unibertsitateen, Kalitatearen eta Prestakuntzaren Zerbitzuko Irakasleen Prestakuntzako Atalak, Irakasleentzako Laguntza Zentroek (ILZ) eta Jarraipen eta Ebaluazio Batzorde Teknikoek osatzen dute. Irakasleen prestakuntza programetan inplikaturik dauden Hezkuntza Departamentuko unitate organikoek ere lagundu dute diseinuan eta koordinazio lanetan.

Irakasleen Prestakuntzako Atalak Urteko Prestakuntza Plana prestatzen du eta planeko programek jarraituko dituzten irizpide orokorrak proposatzen ditu.

ILZen lehentasunezko jardueretako bat da Urteko Prestakuntza Planean jasotako jardueren antolaketaren eta garapenaren ardura beren gain hartzea beren ardurapeko eskualdean, betiere, prestakuntza prozesuen ardatz gisa ikastetxea harturik. Eskualde jakin bateko ikastetxeak ILZ bati atxikirik daude eta bakoitzari erreferentziako aholkularitza bat dagokio.

Nafarroan bost ILZ daude, eskualde ezberdinetan banaturik: Lizarra, Lekaroz, Iruña, Tafalla eta Tuter. Horrez gain, prestakuntzako 5 koordinatzaile daude, ondoko eremuetan lan egiten dutenak:

- Altsasu, Iruñeko ILZren mende.
- Corella, Tuterako ILZren mende.
- Garralda-Otsagabia-Erronkari, Iruñeko ILZren mende.
- Irunberri-Zangoza, Iruñeko ILZren mende.
- San Adrián, Lizarrako ILZren mende.

Jarraipen eta Ebaluazio Batzorde Teknikoaren eginkizun nagusia prestakuntza planen jarraipena eta ebaluazioa bermatzea da. Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuko kide batek, orientatzaile batek, ILZko zuzendaritzak eta talde pedagogikoak osatzen dute.

2014-2015 ikasturtean prestakuntza sareak 5 zuzendaritza eta 16 aholkulari ditu. ILZetako aholkulariak honela daude banatuta:

124. taula: Irakasleentzako laguntza zentroak eta haiei atxikitako aholkularien kopurua, 2014-2015 ikasturtea

ILZ	Aholkularien kopurua
Lizarra	1,5
Lekaroz	1,5
Iruña	10,5
Tafalla	1,5
Tutera	2
Guztira	16

Iturria: Unibertsitateen, Kalitatearen eta Prestakuntzaren Zerbitzua

Prestakuntza sareak ondoko profilak ditu: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, teknologia berriak, kalitatea kudeatzeko sistemak, ikus-entzunezko baliabideak eta esparruetako hainbat profil (soziolinguistika, zientziak eta matematika, arte eta teknologia, laneko osasuna, gorputz hezkuntza eta atzerriko hizkuntzak).

Gainera liberatutako bost pertsona ditu, lanaldi erdian, landa eremuetako prestakuntza koordinatzeko.

Entitate laguntzaileak

Hezkuntza Departamentuarekin lankidetzaz hitzarmenak dituzten entitateek beraien prestakuntza planak aurkeztu zituzten, horretarako aurreikusitako epean. Irakasleen Prestakuntzako Atalak onartzen eta ikuskatzen ditu plan horiek, irakasleen etengabeko prestakuntzaren planari aplikatzen zaizkion irizpide bertsuekin. Ondoko koadroan entitate laguntzaileen datuak azaltzen dira, zehazki, egindako jarduerari, parte-hartzaileei eta ziurtagiriari buruzkoak.

125. taula: Irakasleen prestakuntzako entitate laguntzaileen datuak: homologatutako jarduerak, parte-hartzaileak eta ziurtagiriak, 2014-2015 ikasturtea

Entitate laguntzaileak	Jarduerak	Parte-hartzaileak	Ziurtagiriak
Arista Fundazioa			
FETE – UGT			
Nafarroako Bikaintasunerako Fundazioa	1	18	
Sarasate Fundazioa	daturik ez	daturik ez	daturik ez
Xilema Fundazioa			0
Nafarroako Ikastolen Elkarte	daturik ez	daturik ez	daturik ez
Itxaropenaren Telefonoa	10	daturik ez	daturik ez
Udako Euskal Unibertsitatea	daturik ez	daturik ez	daturik ez
USO			
APS	daturik ez	daturik ez	daturik ez
Psikologia holistikoa	daturik ez	daturik ez	daturik ez
Guztira	daturik ez	daturik ez	daturik ez

Iturria: Unibertsitateen, Kalitatearen eta Prestakuntzaren Zerbitzua

Egindako prestakuntza jarduerak

Ondoko koadroan aurkezten da 2014-2015 ikasturtean Hezkuntza Departamentuko irakasleen etengabeko prestakuntzaren sarearen bidez egin den irakasleen etengabeko prestakuntza. Ziurtagiriak ez duten jarduerak ere sartu dira.

126. taula: Irakasleentzako laguntza zentroetako (ILZ) prestakuntza jardueren datuak: jarduerak, prestakuntza orduak, parte-hartzaileak eta ziurtagiriak, 2014-2015 ikasturtea

ILZ	Jarduerak	Parte-hartzaileak	Ziurtagiriak
Lizarra	52	571	489
Lekaroz	61	695	600
Iruña	526	9.061	7.980
Tafalla	75	791	724
Tutera	89	1249	1.071
Guztira	803	12.367	10.864

Iturria: Unibertsitateen, Kalitatearen eta Prestakuntzaren Zerbitzua

Datu orokor hauek hainbat irizpideren arabera banatzen ahal dira. Lehenengo datu multzoa jasotzen du ondoko koadroak: Irakasleentzako Laguntza Zentroen sareak etapentzako diseinatu eta antolatu dituen berariazko prestakuntza jarduerari buruzko datuak.

127. taula: Etapentzako berariazko prestakuntza jardueren datuak, 2014-2015 ikasturtea

Etapak	Irakasleentzako Laguntza Zentroak					Jarduerak
	Lizarra	Lekaroz	Iruña	Tafalla	Tutera	
Haur Hezkuntzako 1. zikloa	3	1	5	1		10
Haur Hezkuntzako 2. zikloa	2	5	21	6	5	39
Lehen Hezkuntza	5	9	36	11	3	64
DBH	8	22	86	15	14	145
Batxilergoa			6		1	7
Bigarren Hezkuntza			74		9	83
Lanbide Heziketa	1	0	10	2	1	14
Guztira	10	3	90	19	12	134

Iturria: Unibertsitateen, Kalitatearen eta Prestakuntzaren Zerbitzua.

Bigarren datu multzoa jasotzen du hurrengo koadroak: Irakasleentzako Laguntza Zentroen sareak etapa bateko baino gehiagoko irakasleentzako diseinatu eta antolatu dituen prestakuntza jarduerari buruzko datuak.

128. taula: Etapa bateko baino gehiagoko irakasleentzako prestakuntza jardueren datuak, 2014-2015 ikasturtea

	Irakasleentzako Laguntza Zentroak				Jarduerak
	Lekaroz	Iruña	Tafalla	Tutera	
Etapen artekoa	18	19	138	19	226

Iturria: Unibertsitateen, Kalitatearen eta Prestakuntzaren Zerbitzua

Hirugarren datu multzoa jasotzen du hurrengo koadroak: Hezkuntza Departamentuko unitateek diseinatu eta Irakasleentzako Laguntza Zentroetan antolatu diren prestakuntza jarduerari buruzko datuak.

129. taula: Hezkuntza Departamentuko unitateek diseinatu eta ILZetan antolatu diren prestakuntza jarduerari buruzko datuak, 2014-2015 ikasturtea

Programak	Irakasleentzako Laguntza Zentroak					Jarduerak
	Lizarra	Lekaroz	Iruña	Tafalla	Tutera	
Haur Hezkuntzako 1. zikloa	2	1	3			6
Eskola liburutegiak Irakurketa	3	3	10	3	1	20
Kalitatea	1	2	24	5	5	37
Bizikidetza	2	5	45	4	5	61
Balioetan hezteak	1	4	22	1	1	29

Zuzendaritza taldeak			11	1	1	13
Berdintasuna			5		2	7
Hezkuntza premia bereziak		1	15		3	19
Kultura aniztasuna			1			1
Eskola orientazioa			4	1	1	6
Lanbide Heziketa	1		24	1	3	29
Helduendako Hezkuntza			2			2
Hizkuntza eskolak			4		2	6
Lan osasuna	7	3	23	5	6	44
Hezkuntza Berezia	1		7		2	10
Araubide bereziko ikasketak						
EIBZ						18
Robotika						
Teknologia berriak	14	10	89	25	24	162
Guztira	32	29	289	46	56	452

Iturria: Unibertsitateen, Kalitatearen eta Prestakuntzaren Zerbitzua

Azkenik, modalitatearen arabera banatuta ematen dira irakasleentzako laguntza zentroetan antolatutako prestakuntza jardueren datuak. Jarduera horiek ILZetako prestakuntza sareak koordinatu ditu edo/eta Hezkuntza Departamentuko administrazioekin lankidetzan koordinatu dira.

130. taula: Irakasleentzako laguntza zentroetan antolatutako jardueren datuak, prestakuntza modalitatearen arabera, 2014-2015 ikasturtea

ILZ	Lizarra	Lekaroz	Iruña	Tafalla	Tutera	Guztira
Mintegia	17	16	168	25	46	272
Ikastaroak	10	8	180	22	20	240
Informazio saioak	7	3	42	1	6	59
Elkarrizketa taldeak	2	2	7		3	14
Jardunaldiak		1	19		2	22
Lantaldeak	13	29	78	24	6	150
Lantegiak	1		28	1	4	34
Guztira	50	59	522	73	87	791

Iturria: Unibertsitateen, Kalitatearen eta Prestakuntzaren Zerbitzua

Irakasleentzako Laguntza Zentroen sarearen bidez garatutako etengabeko prestakuntzaren datu orokorrez gain, beste bi koadro aurkezten dira jarraian, Hezkuntza Departamentuko beste unitate batzuek antolatu eta diseinatutako irakasleen etengabeko prestakuntzaren datuekin.

131. taula: Berriazko programetako prestakuntza jardueren datuak, Prestakuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zerbitzuari atxikitako administrazio unitateek antolatutakoak eta diseinatutakoak. 2014-2015 ikasturtea

Berriazko programak	Jarduerak	Parte-hartzaileak	Ziurtagiriak
Eskola bidaiariak	0	0	0
Ibilbide zientifikoak	0	0	0
Bikoteka irakurtzen	5	56	50
Teknologia berrien proiektuak	0	0	0
PNTE-Urruneko prestakuntza	12	1178	928
Tutoreendako ikastaroa	0	0	0
Eduki digitalen proiektu pilotua	0	0	0
Berrikuntza programak	1 ikastetxeko	478	478
Osasunerako eskolak	1 ikastetxeko	313	313
Aste berdea, urdina eta zuria	1 ikastetxeko	380	380
Lanbide Heziketa	18	31	29
Olinpiadak	10	daturik ez	daturik ez
Hezkuntzako jardunbide egokiak	daturik ez	daturik ez	daturik ez
Graduko eta masterreko irakasleen tutoretza	1/2 ikastetxeko	764	764
IIP	1 ikastetxeko + 2	757	684
Udako ikastaroak atzerrian	1	40	40
English Week	1 ikastetxeko	135	135
Atal elebidunak	1 ikastetxeko	230	230
Ekintzailatza	daturik ez	daturik ez	daturik ez
Hezkuntza arduratsua	daturik ez	daturik ez	daturik ez
Ikaskuntza zerbitzua	daturik ez	daturik ez	daturik ez
Ikaskuntza erkidegoak	daturik ez	daturik ez	daturik ez
Entrenatzaile kognitiboa	daturik ez	daturik ez	daturik ez
Euskararen autoikaskuntza	1	98	98
Guztira	daturik ez	daturik ez	daturik ez

Iturria: Unibertsitateen, Kalitatearen eta Prestakuntzaren Zerbitzua

Azkenik, ondoko koadroan, 2014-2015 ikasturteari dagozkion irakasleen etengabeko prestakuntzari buruzko guztizko datuak jasotzen dira (irakasleentzako laguntza zentroetakoak, administrazioeko beste unitateenak eta entitate laguntzaileenak).

132. taula: Irakasleen etengabeko prestakuntzari buruzko guztizko datuak. 2014-2015 ikasturtea

	Jarduerak	Parte-hartzaileak	Ziurtagiriak
ILZ	803	12.367	10.864
Hezkuntza Departamentuko zerbitzuak	173	3480	2900
Entitate laguntzaileak	daturik ez	daturik ez	daturik ez
Guztira	976	15.847	13.764

Iturria: Unibertsitateen, Kalitatearen eta Prestakuntzaren Zerbitzua.

Irakasleen etengabeko prestakuntzarako aurrekontuko gastuaren bilakaera, 2010eko ekitalditik 2015ekora, ondoko koadroan jasotzen da.

133. taula: Irakasleen prestakuntza jardueretarako aurrekontuko gastuaren bilakaera, 2010etik 2015era.

	2010. urtea	2011. urtea	2012. urtea	2013. urtea	2014. urtea	2015. urtea
Irakasleen prestakuntza jarduerak (prestakuntza programa orokorrak)	331.058,38	240.689,09	135.372,59	212.122,12	223.609,52	319.654,9
Hezkuntza berrikuntzako programak/Erreforma	43.950,50	15.565,85	21.159,13	16.800	0	39.700
Irakasleen prestakuntza hizkuntzetan (irakasleak hizkuntza modernoetan birziklatzeko programak)	293.580,88	198.738,05	178.400,00	27.342,51	20.394,29	67.798,34
Lanbide Heziketako irakasleen hobekuntza eta eguneratzea (Lanbide Heziketako irakasleak birziklatzeko programak)	106.879,75	24.335,28	25.899,71	11.921,77 ^[1]	11.597,84 ^[1]	31
Irakasleen euskara mailaren hobekuntza (irakasleek euskara hobetzeko programak)	39.992,53	19.866,96	16.895,95	5.538,35	8538,35	60
Irakasleentzako urrutiko prestakuntza (teknologia berrien programak)	209.998,17	158.655,92	131.153,00	85.000	85.000	85.000
Argitalpenak, ikerlanak eta hezkuntza esperientziak	28.446,79	5.536,55	9.383,27	0	0	0
Irakasleen prestakuntzarako banakako diru-laguntzak	54.996,59	0	0	0	0	0
Irakurketa eta idazketa plana				2.590	12.088,41	
Kalitatea				34.869,17	42.864,95	35.000
Guztira	1.108.903,59	663.387,70	518.263,65	384.262,15	392.495,7	

Iturria: Unibertsitateen, Kalitatearen eta Prestakuntzaren Zerbitzua.

^[1] Irakasleentzako prestakuntza jardueretarako kontu-sail orokorraren kargura egin da gastua eta 212.122,12 euroen barne sartuta dago.

^[1] Irakasleentzako prestakuntza jardueretarako kontu-sail orokorraren kargura egin da gastua eta 212.122,12 euroen barne sartuta dago.

³¹ Irakasleentzako prestakuntza jardueri dagozkien 319.654,98 euroen barne sartuta daude.

Azkenik, irakasleen etengabeko prestakuntzari buruzko atal hau bukatzeko, irakasleen prestakuntza programen bilakaeraren laburpena ematen da. Bertan 2008-2009 ikasturteetik 2014-2015 ikasturtera bitarteko jardueren, parte-hartzaileen eta luzatutako ziurtagiriaren kopurua eta gauzatutako aurrekontuaren datuak (milaka eurotan) jasotzen dira.

134. taula: Irakasleen prestakuntza programen laburpena, 2008-2009 ikasturteetik 2014-2015 ikasturtera

Ikasturteak	Jarduera kopurua	Parte-hartzaileak	Ziurtagiriak	Aurrekontua (milaka euro)
2008-2009	683	12.235	9.912	1.290
2009-2010	797	17.388	14.092	1.108
2010-2011	797	15.123	12.320	663
2011-2012	662	13.056	10.656	518
2012-2013	1.223	20.001	13.897	384
2013-2014	1.365	20.100	15.120	392
2014-2015	1.415	20.130	15.135	392

Iturria: Unibertsitateen, Kalitatearen eta Prestakuntzaren Zerbitzua.

IRAKASLEEN EUSKARAZKO PRESTAKUNTZA LINGUISTIKOA.

2014-2015 ikasturtean irakasleen euskarazko prestakuntza ekintzak maiatzaren 19ko 221/2014 Ebazpenaren babesean antolatu ziren. Ebazpen horren bidez, maila ez-unibertsitarioko irakasleen Euskarazko Prestakuntzarako Planaren XXXIV. deialdia onetsi zen. Halaber, Irakasleen Prestakuntza Plan Orokorraren barruan sartuta daude.

HASIERAKO HIZKUNTZA PRESTAKUNTZA

Irakasleen hasierako hizkuntza prestakuntzari dagokionez, lan baimenik gabeko autoikaskuntzako ikastaroak antolatu dira, Zubiarte Euskaltegi Publikoan eta Euskarabidean eman direnak. 98 irakaslek hartu dute parte ikastaro horietan, ondoko mailetan:

135. taula: Irakasleen hasierako prestakuntzarako autoikaskuntza ikastaroak, 2014-2015 ikasturtea

Maila		A1	A2	B1	B2	C1	Guztira
Zubiarte	Ikasleak	4	2	2	5	3	16
Euskarabidea, autokudeatua	Ikasleak	39	8	8	5	4	64
Euskarabidea, tutorearekin	Ikasleak	0	6	3	4	5	18
	Guztira	43	16	13	14	12	98

Iturria: Zubiarte, Euskarabidea eta Euskara Atala.

ETENGABEKO PRESTAKUNTZA LINGUISTIKO ETA TEKNIKOA

Euskaraz irakasten duten irakasleei zuzenduriko irakasleen euskarazko etengabeko prestakuntzaren barnean, ondoko jarduera hauek egin dira.

136. taula: Euskara linguistikoki eta teknikoki hobetzeko ikastaroak. 2014-2015 ikasturtea

2014-2015 Jarduera	Modalitatea	Orduak, guztira	Onartuak	Kopurua, jardueraren hasieran	Luzatutako ziurtagiriak		Balorazioa 1-5 eskala
					Kop.	%	
Euskara Hobetzeko Online Ikastaroa I	Online erako ikastaroa	35	37	30	26	86,66	4,18
EHOI 2: oinarriko kontsultak	Online erako ikastaroa	20	18	16	10	62,5	4,26
EHOI 2: kontsultak sakontzen	Online erako ikastaroa	25	15	11	8	72,72	4,5
Ohiko akatsak zuzentzen I, online	Online erako ikastaroa	30	34	26	17	65,38	4,48
Idatzizko ekoizpenak hobetzeko estrategiak	Online erako ikastaroa	25	32	25	19	76	4,55
Ahozko hizkuntza irakastea: praktikaren jarraipena (Altsasuko Aralarko Mikel deuna I).	Lantaldea (online eta presentziala)	35	24	24	24	100	4
Ahozko hizkuntza irakastea (Ezkaba IP)	Modulu mistoa (online, 5 orduko ikastaroarekin)	20	55	41	41	100	3,57
A eredu. Ahozko hizkuntza irakastea	Online erako ikastaroa	50	29	18	9	50	4,73
Ahozko hizkera ez-formala	Online erako ikastaroa	12	7	7	7	100	4
Euskara sustatzeko bideak: motibazioa eta ahozkoa gelan	Online erako ikastaroa	1	32	19	15	79	4,18
Euskara sustatzeko bideak: motibazioa eta ahozkoa gelan (Zubiri HH eta LH).	Online erako modulua, 4 ordu presentzialekin						
Wikiak	Online erako ikastaroa	20	28	22	15	68,18	4,6
Google baliabideak	Online erako ikastaroa	35	42	36	26	72,22	4,52
Adimen gaitasun handiko ikasleei eskolan arreta eskaini	Online erako ikastaroa	35	36	32	23	71,87	4
Arlo emozionala	Informazio	2	26	15	15	100	Ona

adimen gaitasun handiko ikasleengan (irakasleak)	saioa						
Arlo emozionala adimen gaitasun handiko ikasleengan (gurasoak)	Informazio saioa	2	30	30			Ona
GUZTIRA		377	389	307	240	Batez beste 78,89	Batez beste 4,27

Iturria: Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroa (EIBZ). Euskara Atala.

4.4.4. Hezkuntza erkidegoaren parte-hartzea

4.4.4.1. Nafarroako Eskola Kontseilua / Hezkuntzako Batzorde Nagusia

Nafarroako Eskola Kontseilua, azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legearen bidez sortua, hezkuntza erkidegoaren parte-hartze organo gorena da Nafarroako unibertsitatez kanpoko ikasketen planifikatzeari dagokionez. Bertan, hezkuntzarekin zerikusia duten sektore nagusiak daude ordezkaturak.

Eskola Kontseiluaren eginkizunik garrantzitsuena da Nafarroako Foru Komunitatean unibertsitatez kanpoko hezkuntza arautuko duten arauen egitasmoak aztertzea eta horien gainean eztabaidatzea, eta adostutako zuzenketak Hezkuntza Departamentuari jakinaraztea. Gainera, hezkuntzaren alderdi adierazgarri buruzko ikerketak eta txostenak prestatzen ditu, eta Estatu Eskola Kontseiluan parte hartzen du.

Eginkizunak:

- Hezkuntza Departamentuak igortzen dituen arauen egitasmoak aztertzea eta horiei buruz eztabaidatzea, irakaskuntzaren programazio orokorreko alderdi ezberdinen gainean legez ezinbestekoak diren irizpenak prestatzeko. Hauen inguruko egitasmoak dira:
 - Hezkuntzarekin loturiko gaiei dagokienez, Nafarroako Gobernuak onetsi beharreko erregelamendu exekutibo orokorrentzako egitasmoak edo foru legeentzako aurreproiektuak.
 - Planifikazio orokorrerako printzipioak, oinarriak eta irizpideak, ikastetxeen sorrera, aldaketa, kentzea eta lurralde banaketari dagokienez.
 - Ikastetxeen eta ikastetxeetako langile eta ekipamenduen ezaugarri buruzko araudi orokorra.
 - Ikastetxe publikoen eta ikastetxe pribatu itunduen eta diruz lagunduen finantzaketari buruzko irizpide orokorrak.
 - Hizkuntza ereduen ezaugarri eta ezarpenari buruzko xedapen orokorrak.
 - Bekei eta ikasketetarako laguntzei buruzko printzipio orokorrak.
 - Eskolaz kanpoko jardueri eta zerbitzu osagarri buruzko araudi orokorra.
 - Hezkuntza gaietan Estatuarekin edo beste autonomia erkidego batzuekin lankidetzaren hitzarmenak edo akordioak egiteko egitasmoak.
 - Hezkuntzaren kalitatea hobetzea edo desberdintasun sozial eta indibidualak konpentsatzea helburu duten xedapenak.
 - Txostenak egitea Hezkuntza Departamentuak eskatutako gaien gainean.
 - Bere ekimenez ikerketak eta proposamenak egitea, irakaskuntzaren programazio orokorrarekin lotutako bestelako gaiei buruz, eta goragokoei igortzea.
 - Urtero hau bezalako txosten bat prestatzea Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza sistemaren egoerari buruz.
 - Urtero Nafarroako Eskola Kontseiluaren jardueren memoria prestatzea.
 - IDEA aldizkaria prestatzea eta kaleratzea.

- Eskola kontseiluen topaketan jardunaldiak antolatzea.
- Estatuko Eskola Kontseiluaren osoko bilkuraren eta erkidegoetako eskola kontseiluen parte-hartze batzordearen saioetan parte hartzea.

137. taula: 2014-2015 ikasturtean egindako jarduera garrantzitsuenak

Osoko bilkuraren saioak	7
Batzorde iraunkorraren saioak	7
Emandako irizpenak	26
Bere ekimenez egindako txostenak	AFNHa Nafarroan Egokitasuna eta errepikapena Nafarroako hezkuntza sisteman Familien parte-hartzea eskolan (prestatzen)
Argitaratutako aldizkariak	41. zk.: Eskolak behar dituen irakasleak. 42. zk.: Nafarroako Lanbide Heziketaren nazioarteko dimentsioa. 43. zk.: Denentzako eskola bat.
Jardunaldiak	Nafarroako Eskola Kontseiluaren XV. jardunaldia: Denentzako eskola bat. Nafarroako Eskola Kontseiluaren XVI. jardunaldia: Zuzendaritzaren eginkizunak ikastetxeetan.
Nafarroako Eskola Kontseiluaren arratsaldeak. Hezkuntzari buruzko eztabaidak	Eskola zuzendaritzaren ereduak Europan. Eskola zuzendaritzarako behar diren gaitasunak. Ikastetxeetako zuzendaritza hobetzeko proposamenak. Familien parte-hartzea eskolako hezkuntzan. Talis 2013-ren aurkezpena Nafarroan
Parte-hartzea	Nafarroako Gazteriaren Plan Integrala.
Estatuko eta erkidegoetako eskola kontseiluen Parte-hartze Batzordea eta Estatu mailako topaketak	Parte-hartze Batzordeko eta Batzorde Delegatuko 14 bilera (egun bat baino gehiagokoak).
Autonomia erkidegoetako edo Estatuko eskola kontseiluen ekitaldiak	Ekitaldi 1era joatea

4.4.4.2. Ikastetxeko eskola kontseiluak

Eskola Kontseiluetarako hauteskundeak

- 502/2014 EBAZPENA, urriaren 16koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, Arte Irakaskuntzen ikastetxe publikoetako Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko jarraibideak onesten dituena.
- 503/2014 EBAZPENA, urriaren 16koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, Iruñeko eta Tuterako Hizkuntza Eskola Ofizialetako eta Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialeko Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko jarraibideak onesten dituena.
- 504/2014 EBAZPENA, urriaren 16koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean dauden Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako, Hezkuntza Bereziko ikastetxe publikoetako eta Helduen Oinarrizko Hezkuntzako ikastetxe publikoetako Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko jarraibideak onesten dituena.
- 505/2014 EBAZPENA, urriaren 16koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean dauden Bigarren Hezkuntzako institutuetao eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutuetao Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko jarraibideak onesten dituena.

- 508/2014 EBAZPENA, urriaren 17koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, ikastetxe itunduetako Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko eta zuzendaria izendatzeko jarraibideak onesten dituena.

Ebazpen horien V.7 atalak zera dio: “Sektore batean aurkeztutako hautagai kopurua berriro beharreko ordezkarien kopuruarekin alderatuz gero berbera edo txikiagoa bada, Hauteskunde Batzordeak besterik gabe aldarrikatuko ditu aurkeztu diren hautagaiak”.

138. taula: Eskola kontseiluetarako hauteskundeak ikastetxe publikoetan. 2014-2015 ikasturtea.

	Ikastetxe kopurua	Irakasleak		Gurasoak		Ikasleak		AZLak	
		Bozketak?		Bozketak?		Bozketak?		Bozketak?	
		Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez
Lehen Hezkuntza									
Eskola kontseilua berritu dute	136 ¹ 119	65	54	29	90	3 ²	1	3 ³	
Sektoreak osatu dituzten ikastetxeak, berritu beharrik ez badute ere	3	2	1		2				
Bigarren Hezkuntza									
Eskola kontseilua 1. aldiz hautatu dute	1		1		1		1		1
Eskola kontseilua berritu dute	18 ⁴ 17	3	14	2	15	9	8		2 ⁵
Sektoreak osatu dituzten ikastetxeak, berritu beharrik ez badute ere	8		1	2		3	2		1
Helduen Hezkuntza									
Eskola kontseilua berritu dute	2 ⁶								
Arte eskolak									
Eskola kontseilua berritu dute	2		2		2		2		
Kontserbatorioak									
Eskola kontseilua berritu dute	2		2		2	1	1		
Hezkuntza Berezia									
Eskola kontseilua berritu dute	1	1			1			1	
Hizkuntza eskolak									
Eskola kontseilua berritu dute	2	1	1				2		0 ⁷

Iturria: Unibertsitateen, Kalitatearen eta Prestakuntzaren Zerbitzua.

¹ 136 ikastetxe horietatik 16 unitate 1 edo 2 dituzten ikastetxeak dira eta ikastetxe horietan eskola kontseiluko kideak ikastetxeko zuzendaria, gurasoen elkarteko ordezkaria (gurasoen elkarrekin zuzenean esleiturikoa) eta Udaleko ordezkaria dira. Hartara, 16 ikastetxe horietan ez da bozketarik egin. Gainerako 120etatik batek ez ditu aktak bidali. Analisia gainerako 119ak kontuan hartuta egin da.

² HLHIPetan ikasleek ordezkariak izan ditzakete eskola kontseiluan, hitzarekin baina botorik gabe, Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuak ezartzen dituen baldintzetan, baina oso gutxi dira eskola kontseiluan ikasleen ordezkariak dituzten HLHIPak. Ikasleen sektorean bozketak egin dituzten ikastetxeak DBHko lehen zikloa ere ematen duten ikastetxeak izan dira, ziklo horretako ikasleak badirelako eskola kontseiluko partaide.

³ AZLen sektorea ez da ikastetxe hauetan guztietan berritu behar, 2. erdia berritzea dagokien ikastetxeetan soilik berritu behar da. Hala ere, sektore horretan bozketak egin dituzten 3 ikastetxeetan ez zuten 2. erdia berritu behar, 1.a baizik, eta hutsik zegoen postua bete dute.

⁴ Eskola kontseilua berritu duten 18 ikastetxeetatik batek ez ditu berritzearen aktak aurkeztu. Analisia gainerako 17ekin egin da.

⁵ AZLen sektorea ez da ikastetxe hauetan guztietan berritu behar, 2. erdia berritzea dagokien ikastetxeetan soilik berritu behar da.

⁶ Eskola kontseilua berritu behar zuten Helduen Hezkuntzako bi ikastetxeetatik batek ez du egin (ez zekielako egin behar zuenik) eta besteak, egin arren, ez ditu aktak bidali.

⁷ AZLen sektorea ez da ikastetxe hauetan guztietan berritu behar, 2. erdia berritzea dagokien ikastetxeetan soilik berritu behar da. Kasu honetan, bi ikastetxeek 1. erdia berritu behar zuten.

139. taula: Eskola kontseilueterako hauteskundeak ikastetxe itunduetan. 2014-2015 ikasturtea.

		Irakasleak		Gurasoak		Ikasleak		AZLak	
		Bozketak		Bozketak		Bozketak		Bozketak	
		BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ
Eskola kontseilua 1. aldiz hautatu dute	1		1		1		1		1
Eskola kontseilua berritu dute	(56) ¹ 53	24	29	25	28	21	14 ²	7	2 ³
Sektoreak osatu dituzten ikastetxeak, berritu beharrik ez badute ere	1				1				

Iturria: Antolamenduaren eta Aukera Berdintasunaren Zerbitzua

¹ Eskola kontseilua berritu duten 56 ikastetxe itunduetatik hiruk ez dituzte berritzearen aktak aurkeztu. Analisia gainerako 53rekin egin da.

² Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan ikasleak ez dira ikastetxeko eskola kontseiluko partaide.

³ AZLen sektorea ez da ikastetxe hauetan guztietan berritu behar, 2. erdia berritzea dagokien ikastetxeetan soilik berritu behar da.

BERRITASUNAK

- LOMCEk LOEren 127. artikulua testua aldatu du eta horren ondorioz ikastetxeko eskola kontseiluak orain arte zituen eskumen jakin batzuk galdu ditu (proiektuak eta arauak onetsi eta ebaluatzea, ikastetxeko urteko programazio orokorra onetsi eta ebaluatzea...).
- Halaber, berritasun gisa, LOMCEk aldatutako LOEren 56. artikuluko 1. idatz-zatiaren arabera, ikastetxe itunduetako eskola kontseiluen osieran ez dago dagoeneko Udaleko ordezkari bat.
- Azkenik, 2014-2015 ikasturtean eskola kontseiluak berritzean sektore desberdinen parte-hartzea errazteko, baimendu da hautagai kopurua bete beharreko postu hutsen kopuru

bera edo gutxiago denean bozketak ez egitea, nahiz eta hautagaiak berritu beharreko erdi desberdinetara joan, hautagaiak erdi batean edo bestean sartzeko prozedura hauteskunde batzordeak ezarriz.

ONDORIOAK

Ikastetxeetako eskola kontseiluak bi urtean behin erdika berritzen dira. Ikasturte honetan, 2014-2015ean, berritu den ikastetxe kopurua aski da baloraziorako lagin adierazgarritzat jotzeko.

Ikasturte honetako emaitzetatik ateratako datuen arabera, honako hau ondoriozta dezakegu (ondorioak, bestalde, azken urteetako antzekoak dira):

- Eskola kontseilua berritu behar duten ikastetxeen ehuneko esanguratsu batean ez da bozketarik egin aurkeztu diren hautagaizten kopurua bete beharrekoena bezainbestekoa edo txikiagoa izan delako.
- Bozketak egin diren tokietan, gurasoen sektorea da parte-hartzearen ehuneko txikiena izan duena. Interesgarria izanen litzateke parte-hartzea sustatzeko modua aurkitzea, bai kontseiluaren osaerari dagokionez bai sektore horretako ordezkariak hautatzeko bozketei dagokienez.
- Eskola kontseilua berritzera beharturik ez badaude ere, ikastetxe batzuetan diote kontseiluaren osaera osoa mantendu nahi dutela eta, hartara, sektoreetako edozeinetan sortutako postu hutsak betetzeko prozedurari ekiten diote.

4.4.4.3. Parte-hartze sozialerako beste bide batzuk

- Gurasoen Mahaia

Nafarroako Foru Komunitateko Ikasleen Gurasoen Mahaia Hezkuntzako kontseilariak maiatzaren 28an emandako 79/2008 Foru Aginduaren bidez sortu zen. Aurrerago, foru agindu hura otsailaren 4ko 14/2010 Foru Aginduaren bidez aldatu zen, ikasleen gurasoen elkarteak biltzen dituzten federazioen bitartez guraso elkartearen parte-hartzea hezkuntzaren esparruan indartzeko xedez.

Kide anitzeko organo bat da, Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza sistemari dagozkion gaien gainean informatzeaz, aztertzeaz, eztabaidatzeaz eta jarraipena egiteaz arduratzen dena. Hautazko izaera du, hots, ez du erabakiak hartzeko eginkizunik, eta bere ondorioak eta proposamenak ez dira lotesleak Hezkuntza Departamentuarentzat.

Ikasleen Gurasoen Mahaiaren helburua da Nafarroako Foru Komunitatean hezkuntza sisteman interes sozial berezikotzat harturiko gaietan ikasleen aita, ama edo legezko tutoreen elkartearen lankidetzat eta parte-hartzea, horiek parte diren federazioen bitartez.

Ondoko kideek osatzen dute:

- Hezkuntzako kontseilaria, mahaiburu.
- Hezkuntza Departamentuko zuzendari nagusiak; horietako bat, Hezkuntzako kontseilariak izendatua, buruorde ariko da mahaiburua eginkizunak betetz hura falta denean.
- Hezkuntza Departamentuaren bi ordezkari, Hezkuntzako kontseilariak izendatuak landu beharreko gaien arabera.
- Nafarroako Foru Komunitatean familia gehien bazkidegurik dituzten ikasleen gurasoen elkartearen federazioetako ordezkari bana, seira iritsi arte, betiere federazio horiek Hezkuntza Departamentuko Elkartearen eta Federazioen Zentsuan egon behar dutelarik.

2014-2015 ikasturteko bilerak eta landutako gaiak:

2015eko martxoaren 4a

- Aurreko bileraren akta onestea.
- Aztura eta balioen adierazle sistema ikastetxeetako hobekuntza planetan.
- Nafarroako Hezkuntza Sistemari buruzko txostena: nesken eta mutilen emaitzen arteko aldea
- Prestakuntza
- Irakasle elkarteak eta sindikatuak
 - CCOO: Comisiones Obreras
 - FETE- UGT: Unión General de Trabajadores
 - ANPE: Asociación Nacional de Profesionales de la Enseñaza.
 - CSI-CSIF: Confederación de Sindicatos Independientes y Sindical de Funcionarios.
 - FSIE-SEPNA: Federación de Sindicatos Independientes de Enseñanza.
 - STEILAS: Euskal Herriko Irakaskuntzako Langileen Sindikatua
 - AFAPNA: Nafarroako Administrazio Publikoetako Funtzionarioen Elkarte
 - LAB: Langile Abertzaleen Batzordea
 - ELA / STV: Eusko Langileen Alkartasuna
 - APS: Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Elkarte
 - USO: Unión Sindical Obrera
- Ikasleen gurasoen federazioak eta konfederazioak

2014-2015 ikasturteko jardura nagusiak

140. taula: Nafarroako CONCAPAK egindako jardura nagusiak. 2014-2015 ikasturtea

Jardueraren izenburua	Hartzaileak
XXXIII. Familiaren festa. Iruñean, 2015eko ekainaren 14an	Familiak eta herritarrak, oro har
Estatuko eta erkidegoetako eskola kontseiluen XXIII. topaketara joatea Pedro Baile Torrea federazioko burua joan zen	Estatu osoko Concapako buruei eta kideei zuzendua
CONCAPA IKASTETXEA 2014-2015 EMANDAKO HITZALDIAK	
Sagrado Corazón Ikastetxea Orientazioa familian Nola hitz egin seme-alabekin heriotzari buruz. Nola eragiten die seme-alabei bikotekideen arteko harremanak Nafarroako Concapak emanak, Nafarroako Agearekin lankidetzan.	(Urria-urtarrila 2014-2015) Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako laugarren, bosgarren eta seigarren mailetakoko, DBHko eta Batxilergoko ikasleen gurasoak joan ziren.

Compañía de María Ikastetxea (Tutera) Nola animatu seme-alabak irakurtzera? Noiz da komenigarria nire semeak edo alabak mugikorra izatea? Nafarroako Concapak emana, Nafarroako Agearekin lankidetzan.	Ikastetxeko 20 guraso joan ziren. 2015eko otsailean eta martxoan eman ziren.
Santa Catalina Ikastetxea (Iruña) Noiz da komenigarria nire semeak edo alabak mugikorra izatea? Nafarroako Concapak emana, Nafarroako Agearekin lankidetzan.	Gurasoei, hezitzaileei eta formatzaileei zuzendua. 2015eko otsaila eta martxo.
Santísimo Sacramento Ikastetxea (Iruña). Gurasoen lana, seme-alabek eskolan arrakasta izateko gitzarria Sexua eta nerabearoa. Sexu seguruaren arriskuak. Nafarroako Concapak emana, Nafarroako Agearekin lankidetzan.	Ikasleen gurasoei eta hezitzaileei zuzendua. 2015eko otsaila eta martxo.
Sta Luisa de Marillac Ikastetxea (Barañain) Noiz da komenigarria nire semeak edo alabak mugikorra izatea? Nafarroako Concapak emana, Nafarroako Agearekin lankidetzan.	Ikasleen gurasoei eta hezitzaileei zuzendua 2015eko otsaila eta martxo.
Carmelitas Vedruna Ikastetxea Familia-ikastetxea, nola egin lan elkarrekin seme-alaben hezkuntza hobetzeko. Nafarroako Concapak emana, Nafarroako Agearekin lankidetzan.	2015eko martxoan.

Iturria: CONCAPA-Nafarroa.

141. taula: HERRIKOAK egindako jarduera nagusiak. 2014-2015 ikasturtea

Jardueraren izenburua	Hartzaileak
1.- Eskola kontseiluak. 2.- Batzarren funtzionamendua. 3.- LOMCE. Zer jakin behar dugu, nola ulertzen du hezkuntza, zeintzuk diren aldaketak. 4.- LOMCE. Oinarrizko Lanbide Heziketa. 5.- Bullying-a, eskola jazarpena. 6.- Etxeko lanak, nola egin beren gain har ditzaten. 7.- Autoritatea, mantentzea edo galtzea. 8.- Nola egin akatsak beren gain har ditzaten. 9.- Mehatxuak, eroskeriak eta zigorrak. 10.- Amodio harreman osasuntsuak nerabearoan. 11.- Nire seme/alaba nerabearekin itunak eginez. 12.- Nire semeak/alabak araei aurre egiten die. 13.- Emozioak kontrolatzeko semaforoa. 14.- Gatazkak bikotekideen artean. Zerk sortzen dituen. 15.- Zergatik ez diegun oihu egin behar seme-alabei. 16.- Haur Hezkuntza hastea. 17.- Haurren beldurrak 18.- Haurren kasketak. Nola kudeatu? 19.- Haurren zeloak, nola jardun.	Guraso elkarten eta familien prestakuntza

<p>Zenbat ikastetxetara joan den: 50 Zenbat saio eman diren: 90 Emandako gaiak: 19 Prestakuntzan parte hartu dutenak, guztira: 1710 Prestakuntzako aurrez aurreko orduak: 135</p>	
<p>Prestatzaileak prestatzeko beste jarduera batzuk: CEAPAREN eskola bidaiariaren gaineko ikastaroa Oinarrizko gaitasunak, Burgosko Federazioa CEAPAn jasotako prestakuntza ikastaroak Gatazkak ebaztea familian Prestakuntzako eta/edo parte hartzeko beste jarduera batzuk Irakasleendako prestakuntza saioa, "Nola hobetu familiaren eta eskolaren arteko harremanak", 2015/04/25 eta 26. Berdintasunerako planaren gaineko lan mahaia, Familiaren Institutuak deitua, 2015/03/26</p> <p>Federazioaren esku-hartzea, ondokoetan: Esku-hartzeak Madrilgo erkidegoko irrati batean, 2014-2015 ikasturtean, astelehenero, ondoko gaien gainean: 1. eta 2. hiruilekoetan: gurasoendako hezkuntza gaiak. 3. hiruilekoan: CEAPAREN argitalpenak.</p>	
Jardueraren izenburua: HERRIKOAREN parte-hartzea parte-hartze organoetan.	Hartzaileak:
Agerraldiak parlamentuan hezkuntza esparruarekin loturiko hainbat gaitarako.	HERRIKOAKO zuzendaritza batzordea
Beken batzordea, hezkuntza administrazioarekin.	HERRIKOAKO zuzendaritza batzordeko kide 1
Hezkuntza itunen batzordea, hezkuntza administrazioarekin.	HERRIKOAKO zuzendaritza batzordeko kide 1
Eskolatze Batzorde Nagusia - Iruña	HERRIKOAKO zuzendaritza batzordeko kide 1
Tuterako Eskolatze Batzordea	HERRIKOAKO zuzendaritza batzordeko kide 1
CEAPAREN jardueretan parte hartzea	HERRIKOAKO zuzendaritzako kideak
Nafarroako Eskola Kontseiluaren jardueretan parte hartzea	HERRIKOAKO zuzendaritzako 2 kide
0-3 plataforma	HERRIKOAKO zuzendaritzako kideak
Gurasoen Mahaia	HERRIKOAKO zuzendaritzako 2 kide
Zuzendaritza batzordearen bilerak	HERRIKOAKO zuzendaritza batzordea
HERRIKOAKO kideen batzarra	Guraso elkarteak
Liburuen batzordea, testuliburuen doakotasuna	HERRIKOAKO zuzendaritza batzordeko kide 1
Prensa oharrak eta prentsaurrekoak, hezkuntza gaien gainekoak	Komunikabideak

Iturria: Herrikoa.

142. taula: SORTZENek egindako jarduera nagusiak, 2014-2015 ikasturtea

Jardueraren izenburua	Hartzaileak
LOMCE eta Lehen Hezkuntzako 3. mailako kanpoko probak: informazio hitzaldiak hamabost ikastetxetan baino gehiagotan.	Gurasoak, irakasleak eta ikasleak.
Sexualitate lantegiak SOLASEANekin, hiru ikastetxetan.	Gurasoak eta irakasleak.
Autoestimua eta gatazkak ebaztearen gaineko	Gurasoak eta irakasleak.

lantegiak bost ikastetxetan.	
LOMCE, eta DBHn eta Batxilergoan duen eragina.	Gurasoak, irakasleak eta ikasleak.
Nafarroako eremu ez-euskalduneko euskarazko irakaskuntzarako, garraio eta jantokirako laguntzak eskatzeko kanpaina.	Eremu ez-euskalduneko D ereduko gurasoak.
Festa Faltzesen, D eredua herri guztietara zabaltzea eskatzeko.	Gizartea, oro har.
Festa euskal eskola publiko berriaren alde, Sarrigurenen.	Gizartea, oro har.
Aurrematrikulazioa D ereduan egiteko kanpaina.	Gizartea, oro har.
HAMARRATZ dinamika. Oihal zatiekin artelan bat sortzea auzolanean, Euskal Herriaren alegoria gisa. Helburua da Nafarroa osoan euskaraz bizitzeko eta ikasteko eskubidearen eskaria sozializatzea. Sorkuntza-joskintza saioak Ziraukin, Villatuertan, Faltzesen, Sarrigurenen...	Gizartea, oro har.
Kalitatezko irakaskuntza publikoaren aldeko mota orotako mobilizazioak, hartara, LOMCEren eta Nafarroako Gobernuak ezarritako murrizketen kontra eta, zehatzago, Lehen Hezkuntzako 3.eko kanpoko proben aurka.	Gizartea, oro har, alderdi politikoak eta Nafarroako Gobernua.
Euskaraz Mintza programa, eskola ordutegian euskara aisialdian erabil dadin bultzatzeko, programa hori eman zen 19 ikastetxe publikoekin elkarlanean.	Lehen Hezkuntzako ikasleak.
Material pedagogikoa sortzea: ikasunitateak, ipuinak, proiektuak	D ereduko ikastetxeak, ikasleak eta gurasoak
D ereduko guraso elkarten koordinazioa	D ereduko guraso elkarteak
Sakanako ikastetxeen arteko topaketa Olatzagutian.	Sakanako herritarrak
LOMCE eta Lehen Hezkuntzako 3. mailako kanpoko probak: informazio hitzaldiak hamabost ikastetxetan baino gehiagotan.	Gurasoak, irakasleak eta ikasleak.
Sexualitate lantegiak SOLASEANekin, hiru ikastetxetan.	Gurasoak eta irakasleak.
Autoestimua eta gatazkak ebaztearen gaineko lantegiak bost ikastetxetan.	Gurasoak eta irakasleak.
LOMCE, eta DBHn eta Batxilergoan duen eragina.	Gurasoak, irakasleak eta ikasleak.

Iturria: SORTZEN

143. taula: FAPACENak egindako jarduera nagusiak, 2014-2015 ikasturtea

Jardueraren izenburua	Hartzaileak
Ikastaroa: "Krisi garaietan zure ezkon-harremana hobetzeko gakoak II"	Ikasleen gurasoei eta hezitzaileei zuzendua.
Familia orientazioko ikastaroa: "Lehen urratsak"	Haur Hezkuntzako 1. mailako ikasleen gurasoei zuzendua
Familia orientazioko ikastaroa: "Lehen elkarrizketak"	Haur Hezkuntzako 2. eta 3. mailako ikasleen gurasoei zuzendua
Familia orientazioko ikastaroa: "Nola hezi gure seme-alabak afektibitatearen eta sexualitatearen esparruan?"	Lehen Hezkuntzako 4. 5. eta 6. mailako ikasleen gurasoei zuzendua
Familia orientazioko ikastaroa: "Nerabezaroaurrea"	DBHko 1.eko ikasleen gurasoei zuzendua
Familia orientazioko ikastaroa: "Lehen letrak"	Lehen Hezkuntzako 1. mailako ikasleen gurasoei zuzendua
Ongintzako afaria eta zozketa Eguberritan	Ikasleen gurasoei zuzendua
Haur txokolatada	Haur Hezkuntzako ikasleen gurasoei zuzendua
Txango kulturala Madrilan	Haur Hezkuntzako ikasleen gurasoei zuzendua
Familien festa ikasturte bukaeran	Ikasleen gurasoei zuzendua

Iturria: FAPACENA

144. taula: FACCBRITISH-TIL-Ak egindako jarduera nagusiak, 2014-2015 ikasturtea

Jardueraren izenburua	Hartzaileak
Halloween: marrazki lehiaketa, antzerkia ingelesez.	Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasle guztiak
Ipuin kontalaria ingelesez federazio barruko eskoletan: askotariko antzezlanak, hezkuntza zikloari egokitua.	Haur eta Lehen Hezkuntzako 1.450 ume (58 emanaldi)

Iturria: FACCBRITISH-TIL-A

Ikasleen gurasoen elkarreentzako eta federazioentzako diru-laguntzak

145. taula: Ikasleen gurasoen elkarreentzako eta federazioentzako diru-laguntzak, 2009tik 2014ra

Urtea	Guztira	Elkarreak				Federazioak
		Publikoak		Itunduak		
		Kopurua	Zenbatekoa			
2009	244.500	169	140.607	45	47.393	56.500
2010	218.000	157	114.534	33	29.966	73.500
2011 ³²	0	179	0	31	0	0
2012	78.200	129	27.288	28	10.712	40.200

³² Deialdia bertan behera utzi zen.

2013	2013. urtean ez zen diru-laguntza hauetarako deialdirik izan	
2014	45.000	45.000

Iturria: Hezkuntza Antolamenduaren eta Berrikuntzaren Zerbitzua

146. taula: Ikasleen gurasoen elkarteak, 2009tik 2014ra

Federazioa		2009	2010	2011	2012	2013	2014
Herrikoa	Elkarte kopurua	148	150	152	166	Urte honetan ez zen diru-laguntzen deialdirik izan	170
	Elkarteko kideak	29.000	29.500	32.000	32.000		35.000
	Esleitutako zenbatekoa	27.735	23.000	0	19.250		21.373,58
Concapa	Elkarte kopurua	43	44	44	44		44
	Elkarteko kideak	20.500	22.300	23.400	22.300		23.500
	Esleitutako zenbatekoa	15.690	26.531,85	0	9.911		13.406,84
Sortzen	Elkarte kopurua	37	36	39	42		39
	Elkarteko kideak	7.120	8.572	8.278	9.797		8.822
	Esleitutako zenbatekoa	8.896	17.451,98	0	7.896		9.859,58
Facbrithis-TIL-A	Elkarte kopurua	7	8	8	9		
	Elkarteko kideak	1.444	1.597	1.600	1.750		
	Esleitutako zenbatekoa	4.177	6.516,17	0	3.143		

Iturria: Hezkuntza Antolamenduaren eta Berrikuntzaren Zerbitzua

4.4.5. Europar Batasuneko hezkuntza programak

Europa 2020, Hezkuntza eta Prestakuntza 2020 eta Rethinking Education estrategien barnean kokatzen da Erasmus+ 2014-2020 programa berria eta aurreko EIP (Etengabeko Ikaskuntzarako Programa) ordezkatzeko; hezkuntza, prestakuntza, gazteria eta kirolaren gaineko ekimenak hartzen ditu barne.

Hezkuntza esparruan maila guztiak hartzen ditu: eskola, Lanbide Heziketa, goi mailako ikasketak eta helduen prestakuntza.

Erasmus + programak Etengabeko Ikaskuntzarako Programako programak eta Nazioarteko Goi Mailako Hezkuntzakoak uztartzen ditu: Mundus, Tempus, ALFA, Edulink eta aldeko programak eta, orobat, Gazteak Martxan Programa.

Programa berri hau ikaskuntza formal eta ez-formalean zentratzen da, Europar Batasuneko mugetatik harago, nazioartekotze bokazio argi batekin, beste herrialde batzuetara irekiz pertsonen hezkuntza eta prestakuntza gaitasunak hobetzeko helburuarekin, ikasleen, irakasleen eta langileen enplegarritasuna handitzeko.

Erasmus + programaren berritasun nagusietako bat da banakako ekimenak eta diru-laguntza desagertzen direla, eta soilik izaera instituzionala izanen dutela. Irakasleek ez dute dagoeneko prestakuntzarako europar laguntza banaka eskatuko. Aitzitik, ikastetxe edo erakunde bakoitzak eskatuko du europar diru-laguntza, modu instituzionalean, eta eskaera horretan prestakuntza

jasotzeko egokitzen dituen bere ikastetxeko irakasleak sartuko ditu, betiere beharren arabera.

Gainera, Erasmus + programarekin dokumentazioa dagokion hezkuntza administrazioan paperean aurkezteko nahitaezotasuna amaitzen da eta, hartara, ez ditugu une honetan eskatzen diren datuak.

147. taula: Erasmus + programa, 2014-2015 ikasturtea

	EHPEAk onartutako eskaerak	EHPEAk esleitutako zenbatekoa
ESKOLA IKASKETETAKO ETAPA		
Irakasleen mugikortasunerako eta prestakuntzarako KA1 proiektuak	7	106.028€
KA2 elkarte estrategikoak	3	
HELDUEN HEZKUNTZAKO ETAPA		
Irakasleen mugikortasunerako eta prestakuntzarako KA1 proiektuak	0	
KA2 elkarte estrategikoak	2	.
eTWINNING		
Online senidetzeko proiektuak, EBko ikastetxeen artean	Online senidetzeko proiektuak, EBko ikastetxeen artean	Online senidetzeko proiektuak, EBko ikastetxeen artean

Iturria: Hizkuntzen eta Arte Ikasketen Zerbitzua

Beste ekimen batzuk:

- Erasmus Mundus
- Tempus
- Europass
- Europako Kontseiluaren Pestalozzi programa
- Hizkuntzen Europako zigilua
- Hizkuntzen europar portfolioa
- Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua (IHP)
- Bolonian adituak (BET)
- European Shared Tresasure (EST)

148. taula: Europako programak Lanbide Heziketan: "Leonardo Da Vinci" eta "Erasmus"

Ikasturteak	2009-2010	2010-2011	2011-2012	2012-2013	2013-2014	2014-2015
Leonardo da Vinci programa						
Ikasleak	98	149	120	90	100	221
Irakasleak	6	6	6	6	6	18
Bestelako proiektuak (kop.)	2	3	5	5	80	2
Erasmus programa						
Ikasleak	56	70	70	32	16	35

Iturria: Lanbide Heziketaren Zerbitzua. Berrikuntzaren, Enpresaren eta Lanbide Heziketa Nazioartekotzearen Atala

4.4.6. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak zabaltzea

4.4.6.1. Teknologia Berriak eta Hezkuntza Programa (PNTE)

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Atalaren ardurapean dago, duela hamar urte baino gehiagotik, PNTE bezala ezagutzen den Teknologia Berriak eta Hezkuntza Programaren kudeaketa. Bertan biltzen dira Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) esparruan garatzen dituen hainbat helburu, jarduera, baliabide eta zerbitzu.

PNTE Nafarroako Gobernuaren ekimen berezia da, izan ere, Nafarroako Gobernuaren sare, ekipamendu eta baliabide informatikoen kudeaketa korporatiboan integraturik ez dauden hainbat baliabide sartzen dira PNTEren jarduera esparruaren barruan. PNTEren ezaugarri bereizgarriak hauek dira:

- Berriazko prestakuntza duten langileak (irakasleak eta irakasle ez direnak) ari dira atalaren ardurapeko esparruetan: zerbitzarien administrazioa eta kudeaketa, sareen kudeaketa, aplikazioen garapena, hezkuntza zerbitzuak instalatzea eta kudeatzea, ikastetxe eta irakasleendako laguntza, sareen eta ekipamendu informatikoen mantentze-lanak, eta abar.
- Ikastetxeetako komunikazio sarearen planifikazioa, kudeaketa eta mantentze-lanak, Nafarroako Gobernuko sare korporatibotik kanpo, eta baita hainbat zerbitzurenak ere: DNS, posta elektronikoen zerbitzaria, web zerbitzariak, aplikazioen eta datu-baseen zerbitzariak eta abar.
- Datu lanketarako bi zentro berezitu administratzea.

EDUCA, Nafarroako Gobernuaren sare korporatiboarekin partekatua. PNTE, soilik Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Ataleko langileek kudeatua.

- Irakaskuntzan IKTak curriculumean txertatzeko berriazko ildoen eta programen diseinua eta garapena: IKTen gaineko eta bidezko urrutiko prestakuntza programa, Prestakuntzaren koordinazioa eta plangintza IKT aholkularien bidez, Teknologia berrien proiektuak, Integra IKT-Eskola 2.0, Digital-Puntu Neutroa ikasgela, PNTE Apps, web tresnen, esperientzien eta berrien hedapena, etab.
- Hezkuntza Departamentuaren ordezkartza IKTen eta Hezkuntzaren inguruko alderdien gainean eta abarretan hezkuntza administrazio publiko eta pribatuen artean antolatzen diren proiektuetan, batzordeetan eta foroetan.

- Software librearen eta teknologia irekien lehentasunezko erabilera bere ardurapeko esparru guztietan. Horrekin kostuak asko aurrezten dira eta gure interesen eta beharren arabera hornitzaileak aukeratzeko askatasun teknologikoa dago.

Jarraian Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Atalaren jarduerako lan ildo edo esparru nagusiak aipatzen dira. Haietako bakoitza labur azaldu edo definitzen da eta kasu bakoitzean datu eta zifrarik adierazgarrienak emanen dira.

4.4.6.2. Konektagarritasuna

Konektagarritasuna funtsezko garrantzia duen faktorea da ikastetxeak, irakasleak, ikasleak eta hezkuntza erkidegoko gainerako kideak Informazioaren Gizartean sartzeko eta eskaintzen dituen produktu eta zerbitzuak eskura izan ditzaten. Konektagarritasun egokirako ezinbestekoa da behar bezala diseinatzea sareen azpiegitura eta topologia, banda zabalera ongi kalkulatzeko, konexio lineen mantentze eraginkorra, eta esparru honetan gertatu daitezkeen arazoan gainean azkar eta eraginkortasunez esku hartzeko aukera ematen duen sistema. Garrantzitsua da konektagarritasun hori ikastetxe guztietan bermatzea beti. Horregatik ematen dio hain garrantzi handia PNTEk lan ildo horri, jarraian azalduko diren ekimenei eta jarduerari bitartez.

Ikastetxeen egoera konektagarritasunari dagokionez

la ikastetxe publiko guztiek dute Interneteko banda zabala, teknologia desberdinetako konexio berezietekin:

- konexioak ADSL, FrameRelay edo irrati (WiMax) bidez.
- konexioak zuntz optiko bidez.

Halaber, instalazio hori teknikoki bideragarria den egoitzetan zuntz optiko bidezko konexioak zabaltzen joan dira 2008. urtetik aurrera. Espero dugu telekomunikazioen lehiaketa berriak egoera hori aldatzea, eta banda zabal ultralasterreko konektagarritasuna ahalik eta ikastetxe gehienetara zabaltzea.

Trenza proiektua eta WIFI sareak

PNTEk epe luzerako hartu duen helburua ikastetxeen konektagarritasun unibertsala da, hau da, irakaskuntzarako edo kudeaketarako edozein espaziorik izan dezala sareko eta Interneteko konexioa. Helburu hori lortzeko tresna nagusia kableatu egituratuko Trenza proiektua izeneko da. Proiektu horren bidez ikastetxeei sare kableatuaren azpiegitura zentralizatua ematen zaie: komunikazio armairua, urrunetik kudeatu daitezkeen elektronika, segmentazioa azpisareetan, proxy-suebaki zerbitzaria eta, zenbait kasutan, zerbitzari bereziak (aplikazioetarako, fitxategietarako, segurtasun kopietarako, etab.).

Kableatu egituratuko Trenza proiektua zabaltzearen ondorioz, 2013ko irailaren 1erako ia guztiz osaturik gelditu zen instalazio mota hori gomendagarria zen ikastetxeen katalogoa (100 ikastetxe gorako ikastetxeak). Salbuespenak oso gutxi izan ziren eta horretarako arrazoiak ere bereziak, esate baterako, eraikuntzan zaharberritzeko lanak egin behar zituzten ikastetxeak edo beste egoitza berri batzuek ordezkaturiko zituzten ikastetxeak izategatik.

149. taula: Unibertsitatez kanpoko 242 ikastetxe publikoetako datu sareen profila. 2013-2014 ikasturteko datuak

Instalazio mota	Instalazio kopurua
Kableatu egituratuko Trenza proiektua komunikazio armairuarekin, elektronika kudeagarriarekin, sare segmentazioarekin eta suebakiarekin	190(*)
Trenza proiektuaren estandarrekin bat ez datozen sare kableatuak	53 (*)

(*) Kontuan izan bedi ez dutela zehatz-mehatz bat egiten instalazio kopuruak eta ikastetxeenak, nortasun hori ezartzerik uzten ez duten zenbait egoera daudelako: egoitza berean batera daudenean ikastetxe publiko bat eta DBHI bat, biak ala biak, kableatu egituratu komunarekin; elkarren artean konektatu gabeko bi egoitza dituzten ikastetxeak, bi instalazio desberdinu dituztenak, etab.

Gainera, gero eta handiagoa da konektagarritasunaren eskaria, bai ikastetxeen bai irakasleen aldetik, eta horrek bultzatuta WiFi konexioa instalatu da ikastetxeetako kableatu egituratuko proiektuetan integraturik, base kontrolatzaileen bidez kudeatzen diren haririk gabeko sARBIDE puntu-multzoen bitartez. Azken urteotan instalazioak egiteaz gainera jadanik daudenak handitu eta hobetu egin dira; ia ehun ikastetxetan Wifi konexioa dute irakasleek eta ikasleek. 2013-2014 ikasturtean zehar ikerketa bat egin zen Wifi konexioen kudeaketa zentralizatua proposatzeko helburuarekin eta 2014-2015 ikasturtean zehar eredu hori abian jartzen hasi ziren.

Sarearen gaineko jarduerak

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Atalaren lanik handienetako bat ikastetxeek egindako eskaerei erantzutea da, ikastetxeen konektagarritasuna hobetzearekin eta sareak handitzearekin eta modernizatzearekin loturik. Eskaerak dira: ikastetxe sortu berrietan edo dagoeneko existitzen diren ikastetxeen egoitza berrietan kableatu egituratu integrala zerbitzuan jartzea (Trenza proiektua), sareak handitzea, WiFi sareen handitzea edo hobekuntza barne, konektagarritasuna handitzea ikastetxeetan, sareko harguneak aktibatzea, sareko harguneen atxikipena aldatzea, sareko elektronika konpontzea edo aldatzea, proxy-suebakia instalatzea edo aldatzea, askotariko konponketak, etab.

4.4.6.3. Ekipamendu informatikoa

Ikastetxeen ekipamendu informatikoari buruzko eskumena Hezkuntza Azpiegituren Zerbitzuaren mendeko Erosketa Bulegoarena da. Informazio garrantzitsuena txosten honetako 3. kapituluko 22. taulan dago.

4.4.6.4. IKTak curriculumean txertatzea

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien eta Proiektuen Ataleko lan ildo nagusietako batek hezkuntzako prozesuetan eta ikasgeletako egunerokotasunean IKTak erabiltzearekin du zerikusia; atalak jarraian deskribatzen diren ekimenak eta jarduerak bultzatzen ditu.

Teknologia berrien proiektuak eta proiektu pilotuak

Ikastetxe publikoetara bideraturiko proiektuak bultzatzen ditu eta haien xede nagusia da IKTen erabileran hezkuntza ikerketa egitea eta IKT baliabideak berekin dituzten hezkuntza materialak sortzea. Proiektu hauen garapenean oso garrantzitsua da ILZetako teknologia berrietako aholkulariek egindako ikuskapena eta, hala behar denean, emandako laguntza eta prestakuntza; aholkulari horiek aipatutako ataleko irizpideekin elkarlan estuan aritzen dira.

Gainera, ikasgela digitala zehazten laguntzeko, ikastetxeetan esperientzia pilotuak ezarri dira, eduki digitalen eta ekipamenduaren alorretan. Ikastetxeetan egindako esperientzia pilotu horiek

orain arte ezagutzen ziren teknologia berrien proiektuak ordezkatu dituzte eta hedapen azkarra duten arlo tematikoen gaineko ezagutza handitzeko eta ezagutza hori modu eraginkorragoan trukatzeko beharrari erantzuten diote.

Prestakuntza ILZetan

2014-2015 ikasturteko Irakasleen Prestakuntza Planaren barruan, Irakasleentzako Laguntza Zentroek (ILZ) hainbat prestakuntza jarduera jarri dituzte martxan IKTei eta IKTak curriculumean txertatzeari buruz. Esparru horri buruzko datuen artean hauek dira azpimarragarrienak:

150. taula: Prestakuntza ILZetan

	2011-2012 ikasturtea	2012-2013 ikasturtea	2013-2014 ikasturtea	2014-2015 ikasturtea
Prestakuntza jarduerak	105	165	145	176
Izen-emateak	1.339	2.859	2.585	3.134
Ziurtagiriak	672	2.450	2.142	2.233

Iturria: Unibertsitateen, Kalitatearen eta Prestakuntzaren Zerbitzua

Ikasturte honetan Googleko PNTEApps tresnak sustatzen jarraitu da eta, hartara, ahalegin berezia egin da haien gaineko prestakuntzan eta ikastetxeetan bertan prestakuntza ekintza kopuru polita egin da. Turrusta erako prestakuntza eredia izan da. Lehenik, ikastetxeetan sortutako lantaldeen koordinatzaileei eman zaie prestakuntza. Gero, haiek lantaldeetara eraman dute jasotako prestakuntza.

Aurrez aurreko prestakuntzaren beste alderdi garrantzitsu bat izan da ikastetxeetako IKTen arduradunei eman zaien prestakuntza eta gaikuntza, ahal den neurrian ekipoen eta sareen konfigurazio arazoak atenditu eta konpontzen saia daitezzen.

151. taula: Batez besteko ikasle kopurua irakaskuntza/ikaskuntza lanetara bideraturiko ordenagailu bakoitzeko, autonomia erkidegoaren eta ikastetxearen titulartasunaren/motaren arabera. 2012-2013 ikasturtea.

	GUZTIRA	IKASTETXE PUBLIKOAK - Guztira	Ikastetxe publikoak - Lehen Hezkuntzako ikastetxeak	Ikastetxe publikoak - Bigarren Hezkuntzako eta LHko ikastetxeak	IKASTETXE PRIBATUAK
GUZTIRA	3,1	2,8	2,9	2,7	4,2
Andaluzia	1,9	1,8	2,2	1,5	2,5
Aragoi	2,6	2,4	2,5	2,4	3,1
Asturias	2,5	2,2	2,2	2,2	3,3
Balearrak	1,9	1,8	1,8	1,8	2,3
Kanariak	3,7	3,3	2,5	4,4	7,8
Kantabria	3,1	2,6	2,1	3,4	5,5
Gaztela eta Leon	3,5	3	2,3	4,1	5,5
Gaztela-Mantxa	2,4	2,3	1,7	3,1	3,3
Katalunia	3,9	3,4	3,2	3,6	5,2
Valentziako Erkidegoa	5,5	5	4,7	5,2	7,4
Extremadura	1,8	1,5	3,5	1	6,4
Galizia	2,7	2,5	2,7	2,3	3,7
Madril	5,9	5,9	6,6	5,4	6
Murtzia	5,9	5,3	6,2	4,7	8,7

Nafarroa	4,8	4,4	5,3	3,8	5,6
Euskal Autonomia Erkidegoa	1,7	1,6	1,7	1,5	1,8
Errioxa	3	2,8	2,7	2,8	3,8
Ceuta	2,8	2,6	1,9	3,6	4,7
Melilla	3	2,9	2,3	3,8	3,5

Iturria: Hezkuntzaren zifrak Espainian - 2012-2013 ikasturtea (2015eko edizioa)


1.- Irakasleendako eta ikasleei irakasteko erabiltzen diren ordenagailuak hartu dira kontuan batez ere.

152. taula: Batez besteko ikasle kopurua ikasleei irakastera bideraturiko ordenagailu bakoitzeko, autonomia erkidegoaren eta ikastetxearen titulartasunaren/motaren arabera. 2012-2013 ikasturtea.

	GUZTIRA	IKASTETXE PUBLIKOAK - Guztira	Ikastetxe publikoak – Lehen Hezkuntzako ikastetxeak	Ikastetxe publikoak - Bigarren Hezkuntzako eta LHko ikastetxeak	IKASTETXE PRIBATUAK
GUZTIRA	3,7	3,3	3,4	3,3	5
Andaluzia	2,1	2	2,5	1,7	2,8
Aragoi	3,1	2,9	3	2,9	3,5
Asturias	2,8	2,5	2,5	2,6	3,8
Balearrak	2,1	1,9	1,9	2	2,4
Kanariak	4,5	3,8	2,8	5,6	10
Kantabria	3,8	3,2	2,4	4,6	6,6
Gaztela eta Leon	4,3	3,7	2,7	5,3	6,9
Gaztela-Mantxa	3,4	3,3	2,3	5,3	3,8
Katalunia	4,6	4	3,6	4,4	6,3
Valentziako Erkidegoa	6,8	6,1	5,9	6,2	9,4
Extremadura	2,1	1,8	4,9	1,2	8,6
Galizia	3,1	2,8	3,2	2,6	4,1
Madril	7,7	7,6	8,8	6,8	7,8
Murtzia	7,3	6,4	7,4	5,7	11,1
Nafarroa	6	5,5	6,5	4,8	7
Euskal Autonomia Erkidegoa	1,9	1,8	1,9	1,7	2
Errioxa	3,9	3,7	3,9	3,5	4,6
Ceuta	3,5	3,3	2,5	4,5	5,1
Melilla	4	3,9	3	5,2	4,1

Iturria: Hezkuntzaren zifrak Espainian. 2012-2013 ikasturtea (2015eko edizioa)

55. grafikoa: Batez besteko ikasle kopurua ordenagailuko ⁽¹⁾ ikastetxe publikoetan, autonomia erkidegoaren arabera. 2013-2014 ikasturtea



(1) Se consideran los ordenadores destinados preferentemente al profesorado y a la docencia con alumnos.

Iturria: Datuak eta zifrak, 2015-2016 ikasturtea. HKM.

153. taula: Batez besteko irakasle kopurua ordenagailuko ⁽¹⁾, autonomia erkidegoaren eta ikastetxearen titulartasunaren/motaren arabera. 2012-2013 ikasturtea.

	GUZTIRA	IKASTETXE PUBLIKOAK - Guztira	Ikastetxe publikoak – Lehen Hezkuntzako ikastetxeak	Ikastetxe publikoak - Bigarren Hezkuntzako eta LHko ikastetxeak	IKASTETXE PRIBATUAK
GUZTIRA	2,1	1,9	2,3	1,6	2,6
Andaluzia	1,9	1,8	2,3	1,4	2,4
Aragoi	1,8	1,7	2	1,5	2,2
Asturias	2,3	2,2	2,4	2,1	2,6
Balearrak	3,4	3,2	4,4	2,5	3,8
Kanariak	2,3	2,2	2,4	2	2,9
Kantabria	2,3	2	2,4	1,7	3,5
Gaztela eta Leon	2,3	2,2	2,3	2	2,5
Gaztela-Mantxa	0,8	0,7	0,8	0,6	2,5
Katalunia	2,5	2,3	3,5	1,6	2,9
Valentziako Erkidegoa	2,8	2,7	2,4	3	3,1
Extremadura	1,1	1	1,7	0,7	2
Galizia	2,6	2,4	2,9	2,1	3,3
Madril	2,3	2,4	2,8	2,1	2,2
Murtzia	3,4	3,3	5	2,3	3,6
Nafarroa	2,7	2,9	4,2	2,1	2,5
Euskal Autonomia Erkidegoa	1,9	1,9	2,5	1,5	1,8
Errioxa	1,4	1,3	1,2	1,3	1,8
Ceuta	1,4	1,2	1	1,7	5,1
Melilla	1,1	1	0,9	1,2	2,2

Iturria: Hezkuntzaren zifrak Espainian. 2012-2013 ikasturtea (2015eko edizioa)

⁽¹⁾ Irakasleendako eta ikasleei irakasteko erabiltzen diren ordenagailuak hartu dira kontuan batez ere.

154. taula: Internet-konexioa ⁽¹⁾ duten ikastetxeen ehunekoa, ikastetxearen titulartasunaren/motaren, autonomia erkidegoaren eta konexio motaren arabera. 2012-2013 ikasturtea.

	Internet-konexioa	RDSI	ADSL	Beste konexio mota bat
GUZTIRA	99,8	5,2	86,5	16,3
Andaluzia	99,9	3,5	86,5	9,9
Aragoi	100	6,9	94,6	9,8
Asturias	100	4,2	81,6	30,5
Balearrak	99,7	8,6	95,2	9,1
Kanariak	100	2,2	87,7	9,4
Kantabria	100	5,9	91,1	8
Gaztela eta Leon	100	6,1	96	8,6
Gaztela-Mantxa	99,9	5,7	88,9	17,7
Katalunia	99,9	1,6	81,4	25,8
Valentziako Erkidegoa	98,4	2,5	95,3	8,9
Extremadura	100	10,3	82,1	16,5
Galizia	99,8	3,1	84,1	16,9
Madril	100	15,8	95,6	8,4
Murtzia	100	7,9	91,8	2,2
Nafarroa	100	9,9	82,3	10,6
Euskal Autonomia Erkidegoa ⁽²⁾	100	0	38,8	71,1
Errioxa	100	2,7	91	15,3
Ceuta	100	3,6	100	0
Melilla	100	0	100	4,3

Iturria: Hezkuntzaren zifrak Espainian. 2012-2013 ikasturtea (2015eko edizioa)

⁽¹⁾ Ikastetxe batek konexio mota bat baino gehiago izaten ahal du.

⁽²⁾ Euskal Autonomia Erkidegoan ADSLaren zutabearen beste konexio asimetriko mota batzuk ere sartzen dira: TB-Kablea, Kable-modema.

155. taula: WIFI konexioa (1) duten ikastetxeen ehunekoa, autonomia erkidegoaren eta ikastetxearen titulartasunaren/motaren arabera. 2012-2013 ikasturtea.

	IKASTETXEAK, GUZTIRA	IKASTETXE PUBLIKOAK	Ikastetxe publikoak - Lehen Hezkuntza	Ikastetxe publikoak - Bigarren Hezkuntza eta LH	IKASTETXE PRIBATUAK
GUZTIRA	80,3	79,3	77,4	84,1	83,4
Andaluzia	97,8	97,9	97,6	98,5	97,3
Aragoi	82,2	82,2	79,9	88,1	82,3
Asturias	77,4	77,1	72,6	91	78,4
Balearrak	90,2	89,4	87	96	92,3
Kanariak	60,7	57,9	59	54,7	77,6
Kantabria	78,1	81,7	79,7	87,2	67,7
Gaztela eta Leon	87,2	88	88,5	86,6	83,6
Gaztela- Mantxa	86	86,4	84,8	91,1	83,6
Katalunia	94,3	95,5	96	94,5	91,9
Valentziako Erkidegoa	72,9	66,4	65,4	68,1	88
Extremadura	69,7	68,7	63,7	83	76,9
Galizia	56,3	54,2	47,5	69,7	64,6
Madril	74,2	72,4	65,6	88,1	77,2
Murtzia	77,4	78,4	82,3	64,9	73
Nafarroa	55,6	51,5	46,2	67,9	69,7
Euskal Autonomia Erkidegoa	96,5	96,6	96,6	96,4	96,3
Errioxa	86,5	90,4	88,1	95,8	75
Ceuta	64,3	77,3	75	83,3	16,7
Melilla	73,9	68,4	66,7	71,4	100

Iturria: Hezkuntzaren zifrak Espainian. 2012-2013 ikasturtea (2015eko edizioa)

4.4.7. Hezkuntzako Parte-Hartzea, Irakasleentzako Arreta eta Bizikidetzeta

4.4.7.1. Hezkuntzako Parte-Hartzea eta Irakasleentzako Arreta

Hezkuntzako Parte-hartzearen, Irakasleentzako Arretaren eta Bizikidetzaren Atala sortu zen beste komunikazio-bide batzuk ezartzeko eta jadanik daudenak bultzatzeko Hezkuntza Departamentuaren eta gizartearen artean, bereziki hezkuntzako agenteekin: familiak, irakasleak, ikastetxeetako zuzendaritza taldeak, ikasleak, elkarteak, udalak eta entitateak, Nafarroako hezkuntzarekin loturiko ekimenak eskaintzeko eta hurbileko eskaera zuzenei erantzuteko asmoz.

Hezkuntzako kontseilariaren Kabinetearekin bereziki aritzen da elkarlanean hezkuntzan zuzenean edo zeharka esku hartzen duten agenteekin komunikazioa eta harremanak bultzatzeko, interes orokorreko hezkuntza mezu, ekimen edo proiektuak zabaltzeko, eta hezkuntzaren -bereziki hezitzaileen, irakasleen eta zuzendaritza taldeen lanaren- aintzatespen soziala sustatzeko.

Familiak eta ikastetxeek buruturiko hezkuntzako lana indartzen laguntzeko hezkuntza balioak eta herritartasun bertuteak sustatzen eta bultzatzen ditu: errespetua, ordena, ekimena,

ahalegina, ongi egindako lana, sormena, gaitasun estetikoa, leialtasuna, hobetzeko nahia, kontsumo arduratsua, frustrazioaren aurreko erresistentzia, elkartasuna, kiroltasuna eta denen onurara bideratutako herritartasun aktiboa, besteak beste.

Ikasturte honetan jarduera hauek egin dira atal honetan:

- Hezkuntzako berrien buletin digitalaren argitalpena: 35 ale ikasturtean zehar, astean behin. 8.000 harpidetik gora du (8.047, 2013ko irailean).
- Hezkuntza Departamentua sare sozialetan sartzea: kontuak sortu dira Facebook-en, Twitter-en (5.000 jarraitzaile baino gehiago) eta Pinterest-en, Scoop.it aplikazioarekin (6 “topic”) batera. Denak doakoak eta hezkuntzan aukera handikoak.
- Departamentura iristen diren hezkuntza agenteei arreta egitea: familiak, irakasleak, komunikazio-bide desberdinen bitartez bertaratzea, telefonoa, posta elektronikoa eta sare sozialak (Twitter eta Facebook): 120 kontsulta izan dira eta horietatik 11 espediente ireki dira.
- Familia Eskolen 3 edizio antolatu dira, bi lan ildorekin: bata, gurasoei eta hezitzaileei zuzendua (2 edizio) eta, bestea, aurreko ikastaroetara joan diren gurasoak prestatzaile izan daitezten prestatzeko. Burlatako eta Iruñeko udalekin lankidetzan antolatu dira Familia Eskolen edizio hauek.
- Elkarlana, Hezkuntza Departamentuko Gaztelaniaren eta Lurralde Lankidetzaren Atalarekin eta beste erakunde batzuekin (unibertsitateak, fundazioak, antolakundeak, etab.) Jakintzaren Olinpiadak eta antzeko txapelketak antolatzeko, nafar ikasleen bikaintasuna sustatu asmoz, esparru hauetan: Matematikako bi modalitate, Batxilergoa eta DBH, Biologia, Filosofia, Geografia, Kimika, Fisika, Ortografia, Marrazketa Teknikoa, Marrazketa Artistikoa.
- Elkarlana, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Atalarekin, Prestakuntzaren eta Kalitatearen Atalarekin eta bestelako erakunde arteko antolakundeekin (NUP, Iruñeko Planetarioa, Moderna Fundazioa) Zientzia eta Teknologia Berrikuntzarako Ikastetxeen Sarea diseinatu eta sortzeko. Sarea ikasturte honetan abiatu da eta hezkuntzako robotikaren eta haren didaktikaren esparruan zentratu ditu bere jarduerak.

Jarduketak:

- Creavity Camp, robotikako udako ikastaroa.
- 1. mailako mintegi-ikastaroa, hezkuntzako robotikari eta haren didaktikari buruz.
- Roboten mailegu zerbitzua.
- Jardunbide egokien jardunaldia.
- Robotika aurreratuko lantegia.

Bi webgune prestatu dira (Hezkuntzako ataria eta Scoop.it) eskolako, familiako eta gizarteko esparruetan hezkuntza balioak lantzeko materialen biltoki moduan.

4.4.7.2. Bizikidetzarako Aholkularitza

Atazak eta eginkizunak (ikus 204/2010 FA, 8. artikulua):

- Aholkularitza eta kasuei arreta ematea.
- Ikastetxeei, familieei eta ikasleei emandako aholkuak ondoko hauetan zehazten dira:
 - Hiru telefono linearekin (haietako bat doakoa).
 - Helbide elektronikoarekin.

- Familiakoekin, ikasleekin, irakasleekin eta beste zerbitzuetaoekin elkarriketa zuzenak eginez. Elkarriketa hauek taldean edo bakarka egin daitezke.
- Ikastetxeetara bisitaldiak eginez, aholkua emateko eta elkarlanean aritzeko.
- Bidezkoa denean, kanpoko zerbitzuekin koordinatuz (ikastetxeak, gizarte zerbitzuak, osasun mentala, fiskaltza, poliziak, aholkularitza juridikoa...).
- Hezkuntzako Ikuskapenarekin komunikatuz eta koordinatuz.
- Kudeaketak eta haien ondoriozko txostenak eginez.
- Aholkularitza zuzena ikastetxeei.

156. taula: Bizikidetzarako Aholkularitza: artatutako kasuak. 2011-2012 ikasturtetik 2014/2015 ikasturtera

	Eskaera kopurua					Erabilitako eredia		
	Guztira	Ikasleak	Familiak	Ikastetxeak	Beste batzuk	Telefonoa	Helbide elektronikoa	Bertaratu beharrekoa
2011-2012	262	2	77	141	42	179	20	63
2012-2013	311	0	95	153	63	211	25	75
2013-2014	286	11	78	142	54	198	21	61

Iturria: Hezkuntzako Parte-hartzearen, Irakasleentzako Arretaren eta IKTen Zerbitzua

Aurreko zifra horiei ikastetxeetan egindako zernahi aholkularitza saio gehitu behar zaizkie; saio horiek ikastetxean berean edo telefonoz egindakoak dira eta gaiak askotarikoak, batez ere prestakuntzarekin edo unean uneko gatazkak ebaztearekin lotura dutenak.

Bizikidetzak planak

Aholkularitzak bere gain hartzen duen eginkizunetako bat da ikastetxeetako bizikidetzak planak eta plan horien zehaztapenak eta urteko memoriak diseinatzeari eta aplikatzeari dagokienez sustapen eta orientazio lana egitea. Prestakuntza jardueren bitartez eta irakasleei, bizikidetzak batzordeei zein bizikidetzako arduradunei telefono eta posta elektronikoko bidez emandako aholkularitza pertsonalaren bidez burutzen da lan hori.

Irakasleen prestakuntza

Aholkularitza prestakuntza jarduerak sustatzen, diseinatzen, antolatzen eta ematen dira, Irakasleen Prestakuntza Planaren barruan. Prestakuntzan profesional askok parte hartu dute eta haien balorazioa ona izan da. Prestakuntzako 55 jarduera diseinatu dira eta haietako baten bat eman ere bai:

Jardunaldi batzuk, mintegi orokor bat, 6 ikastaro, 5 informazio saio orokor, 18 informazio saio ikastetxeetan, 18 mintegi ikastetxeetan, 6 lanetegi.

Araudia eta haren garapena

204/2010 FA eta 47/2010 FD hedatzen jarraitu da, arau horiek garatzen eta ezartzen laguntzen duten materialekin batera. Era berean, fitxa bat diseinatu da arau horien garapena eta aplikazioa baloratzeko eta Hezkuntzako Ikuskapenera igorri da ikastetxeekin erabil dezaten. 47/2010 FA aldatzen duen 57/2014 FAREN idazketan lagundu da. Hezkuntza Departamentuak sortutako Bizikidetzak Batzordean kide gisa parte hartu da.

Erakunde arteko parte-hartzea

Aholkularitzaren parte-hartzea edo lankidetzaren duten askotariko programen zerrenda:

- Itxaropenaren Telefonoarekin hitzarmena.
- Ikaskuntza-zerbitzu solidarioaren sustapena.
- Erakunde arteko protokoloa jokaera suizidei aurrea hartzeko.
- Eskola absentismoaren kasuetan jarduteko protokoloa.
- Profesionalentzako gida/hezkuntzaren, osasungintzaren eta gizarte zerbitzuen arteko lankidetzaren protokoloa haur eta nerabeentzako arretari buruz.
- Jarduteko orientazio gida. Zer egin droga kontsumoa antzematen dugunean, irakasleentzako ideiak.
- Bitartekotza sustatzeko puntu neutroko II. taldea.
- Psikologia positiboari buruzko *Comenius-a*.
- Hezkuntza arduratsuko programa.
- Nafarroako Nuevo Futuro elkartearen "Rupturas Educativas" programa.

4.4.7.3. Balioretan hezteko programak

Osasunaren sustapena / Osasunerako hezkuntza

Osasunaren sustapeneko / Osasunerako hezkuntzako jarduerak Osasun Departamentuarekin elkarlanean egiten dira, horretarako sortutako batzordeen bidez. Hezkuntza Ministerioko CNIIEn koordinaziopeko Osasunerako Eskolen Europako Sarearekin (SHE Sarea) loturik daude batzorde horiek. Batzorde horietan, Hezkuntza Departamentuaz gain, Osasun Publikorako Institutuko ordezkariak, Droga-mendekotasunaren aurkako Foru Planekoak eta Emakumeari Laguntzeko Zentroetakoak daude. SHE sarearen (Schools for Health in Europe) kide diren ikastetxeak, 2014-2015 ikasturtean: 40

Jarduera nagusiak: Ikastetxeei prestakuntza eskaintzen zaie lehentasunezko lan arloen gainean: drogomendekotasunei aurrea hartzea; elikadura, ariketa fisikoa eta bizimodu osasungarriak; hezkuntza sexual eta afektiboa; allergien aurrean jarduteko protokoloa; eskola istripuei aurrea hartzea; eta bihotz-biriketako bizkortzea. Urtean hiru topaketa egiten dira helburuak bateratzeko, jardunbide egokiak trukatzeko eta, gainera, osasuna sustatzen hiru urtetik gora daramaten ikastetxeei ziurtapena emateko.

Horrez gain, ikastetxeek plataforma batean dituzte osasuna sustatzeko material esanguratsuenak eta jardunbide egokien sorta bat.

Haurren obesitateari aurrea hartzeko eta ohitura onak hartzeko beste ekintza batzuk dira "Fruta eta barazkiak banatzeko kanpaina" eta "Trankiren kanpaina". Lehena Europar Batasunak sustaturiko proiektua da, Nafarroan Hezkuntza Departamentuak Osasun Departamentuarekin eta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuarekin lankidetzan egiten duena, eta 2014-2015 ikasturtean Haur Hezkuntzako 118 ikastetxek eta 9.873 ikaslek baino gehiagok parte hartu zuten. Bigarrena, berriz, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuarekin lankidetzan egiten da.

Ingurumen hezkuntza

Ingurumen hezkuntzako programetako jarduerak Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuaren mendeko Nafarroako Ingurumen arloko Baliabide Zentrok (CRANA) teknikariekin egiten dira. Horrez gain, harremanak izaten dira mankomunitateetako ingurumen proiektuen arduradunekin, batez ere Iruñeko eta Izarbeibarko mankomunitateetakoekin.

Ikastetxe parte-hartzaileen kopurua: 20

<p>El alumnado que se encuentra en este nivel es competente a la hora de comprender Información literal escrita, tanto en el texto expositivo, sin embargo presenta dificultades para responder a preguntas que implican interpretación, comprensión global, reflexión y valoraciones.</p> <p>Tiene serias dificultades para comprender mensajes en audio y solo es capaz de escribir alguna frase incompleta acerca del tema planteado.</p>	<p>El alumnado de este nivel responde correctamente a las preguntas del nivel 1, es decir a las preguntas que implican comprensión de la información literal, tanto en el texto narrativo como en el expositivo. Resuelve también preguntas de búsqueda de información que exigen mayor nivel de comprensión del texto.</p> <p>No obstante, tiene dificultades de comprensión global, de interpretación y de valoración de los textos. No es capaz de realizar inferencias más complejas, de relatar tres acciones que se encuentran en dos párrafos sucesivos o de interpretar similitudes y diferencias entre personajes.</p> <p>Es capaz de comprender algunos mensajes en audio así como de escribir alguna frase acerca del tema planteado.</p>	<p>El alumnado de este nivel resuelve correctamente las preguntas relacionadas con la búsqueda de información, tanto literal como no literal. Comprende globalmente el texto y es capaz de reconstruir, mediante frases dadas, la secuencia de la historia. Demuestra un nivel aceptable en relación con la reflexión sobre el contenido.</p> <p>Además, en un texto discontinuo entiende la distribución de la información y dónde buscar un tipo específico de información. Es capaz de valorar y reflexionar sobre un texto, aprovechando los datos del mismo para extraer información relevante necesaria para la aplicabilidad de su contenido.</p> <p>Es capaz de comprender mensajes en audio y de escribir textos sencillos en inglés acerca del tema planteado.</p>	<p>El alumnado de este nivel además de realizar correctamente las tareas implicadas en el nivel 3, resuelve aquellas que son más complejas.</p> <p>Resuelve bien las preguntas sobre el audio escuchado y es capaz de redactar un mensaje escrito sobre un tema propuesto de manera coherente y correcta.</p> <p>En suma, muestra competencia en las tres destrezas evaluadas</p>


Lortutako emaitza orokorrak.

284. taula: Ingeleseko hizkuntza gaitasuna

Kopuru osoa	6.441
Gaitasun proben kopurua	6.236
Neska kopurua	3.043
Mutil kopurua	3.193
Puntuaziorik txikiena	0,256
Puntuaziorik handiena	38
Batez besteko puntuazioa	21,25
Desbideratze tipikoa	8,27

Nesken batez bestekoa	22,57
Mutilen batez bestekoa	20,00
1. maila (%)	11,96
2. maila (%)	19,25
3. maila (%)	57,08
3+ maila (%)	11,71

95. grafikoa: Ingelesezko hizkuntza gaitasuna



Iturria: Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua

Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: badira 38 puntu dituztenak, eta 0,256 puntu dituztenak.

Desbideratze tipikoa 8,27koa da, hau da, batez besteko puntuazioaren %38,92; horrek esan nahi du banakako puntuazioak batez besteko puntuaziotik aldentzen direla eta eskalaren muturretan puntuazio asko dagoela, edota errendimenduak oso anitzak direla.

"Kopuru osoa"-ren eta "Gaitasun proben kopurua"-ren arteko kendurak ematen du ikastetxean ez zeudelako proba egin ez zuten ikasleen kopurua: 205.

Hamar ikasletik ia zazpi (%68,79) 3. maila edo 3+ maila erdietsi dute; gai dira beraien adinari dagozkion prozesuak gauzatzeko.

Hamar ikasletik batek baino zertxobait gehiagok (%11,96) neurri bereziak behar ditu, beheko mailan dagoelako.

Hamar ikasletik ia bi (%19,25) tarteko egoeran daude, ikasmailari dagozkion atazen parte bat egiten dute.

Banaketa, sexuaren arabera

Neskek mutilek baino 2,57 puntu gehiago erdietsi dute. Alde esanguratsua da, desbideratze tipikoaren 1/4 baino handiagoa baita.

285. taula: Ingelesezko hizkuntza gaitasuna, sexuaren arabera

Nesken batez bestekoa	22,57
Mutilen batez bestekoa	20,00

Informazio sozioekonomikoa eta kulturala

Edizio honetan ikasleek aldagai soziokultural eta ekonomikoen gaineko galdera-sorta bete dute eta hartatik atera da ISEK indize sozioekonomiko eta kulturala kalkulatzeko informazioa.

ISEKa

Galdera-sortaren xede nagusia ISEK indize sozioekonomiko eta kulturala egiteko informazioa biltzea da. Indize honek kontuan hartzen ditu PISA proiektuan eta Hezkuntza Ebaluazioaren Institutu Nazionalak autonomia erkidegoekin elkarlanean egindako diagnostiko-ebaluazio orokorretan erabilitako aldagai berak.

Indizea prestatzeko aldagaiak ondokoak dira:

- Aitaren edo amaren ikasketa maila (handiena hartzen da kontuan).
- Aitak eta amak egiten duten lana (gurasoetako edozeinen lan-kategoriarik handiena hartzen da kontuan).
- Etxean dituzten zenbait elementu (galdera-sortako 12. galdera). Lau hauek hartu dira kontuan: ordenagailu eramangarri bat; mahai gaineko ordenagailu bat; entziklopediak eta kontsultarako liburuak, ikasketetan laguntzen dizutenak; eta aldizkari espezializatuak (informatikakoak, naturakoak, literaturakoak, etab.).
- Etxean dituzten irakurketa liburuak.

Lau aldagai horiei pisu bera eman zaie eta ikasleei esleituriko puntuazioak eraldatu egin dira, batez bestekoa 0 eta desbideratze tipikoa 1 dituen banaketa normalaren arabera eta, hartara, 0 izanen da Nafarroaren batez bestekoa. Ikastetxe bakoitzari ISEK balio bat esleitu zaio; hots, ikastetxe horretako ikasleen puntuazioen batez bestekoa. Ikastetxeek -0,85 eta +0,95-en arteko ISEK balioak dituzte; horrek agerian uzten du ikastetxeen batez besteko baldintza sozioekonomikoak askotarikoak direla.

Ebaluazio azterlan guztietan egiaztatzen ari da ikasleek probetan duten errendimenduaren eta haien maila soziokulturalaren arteko korrelazioa moderatua dela. Txosten honetan ematen dira ikastetxeetako batez besteko puntuazioen eta batez besteko ISEK balioen arteko korrelazioak, gaitasun bakoitzaren arabera banatuta, eta aldagai horien arteko erregresio-grafikoak.

ISEK-errendimendua izeneko erregresio-zuzenek malda positiboa dute; horrek esan nahi du ISEKa handitu ahala batez besteko errendimenduak ere gora egiten duela. Espero izatekoa den eraginaren intentsitatea gaitasun batetik bestera aldatzen da: ISEKaren balioa igotzen den unitate bakoitza loturik dago, kasuan kasuko gaitasunerako, ikastetxearen batez besteko puntuazioaren igoerarekin: 57,178 - 29,334 - 56,653 - 38,097 eta 83,258 puntu Gaztelaniazko irakurmena, Euskarazko irakurmena, Matematika, Zientzia eta Ingeles gaitasunetan, hurrenez hurren. Hurrengo tauletan datu hori gradiente modura ageri da.

ISEKak ikastetxeen batez bestekoen arteko bariantzaren edo aldeen parte bat azaltzen du. Ondoko biderkadurak ematen du bariantza azaldua: $100 * R^2$, non R^2 erregresio-grafikoetan ageri den determinazio-koefiziente den; biderkadura hori gaitasunaren arabera aldatzen da: 43,3 - 10,4 - 57,7 - 20,7 eta 67,0 Gaztelaniazko irakurmena, Euskarazko irakurmena, Matematika, Zientzia eta Ingeles gaitasunetan, hurrenez hurren.

Esan behar da ISEKa ez dela errendimendua azaltzen duen aldagaia, baina aldagai iragarle modura erabiltzen dela, hau da, ikastetxeei puntuazioak eman dakizkieke beren ISEKaren arabera eta gero ikastetxeak lortutako balio hori benetan lortutako emaitzarekin konparatu. Ikastetxeetako txostenetan ikastetxeko puntuazioa errendimenduaren eta ISEKaren arteko erregresio-grafikoan irudikatu da eta, horri esker, lortutako puntuazioa ISEK balioaren arabera iragarritakoarekin erka dezakegu. Grafiko horretan ikastetxeek duten posizioari dagokionez, 3 kasu desberdin ditugu:

- Erregresio-zuzena baino gorago dauden ikastetxeak: haien maila sozioekonomikoaren eta kulturalaren (ISEK) arabera iragarritakoa baino batez besteko handiagoa lortu dutenak.
- Erregresio-zuzena baino beheago dauden ikastetxeak: haien maila sozioekonomikoaren eta kulturalaren (ISEK) arabera iragarritakoa baino batez besteko txikiagoa lortu dutenak.
- Erregresio-zuzenean berean dauden ikastetxeak: iragarritako puntuazioa lortu dutenak.

Grafiko hauetako informazioak ikastetxeen emaitza globalak testuinguruan kokatzen ditu, ikastetxeko ikasleen batez besteko ezaugarri soziokulturalen arabera, eta haien emaitzak Nafarroako batez bestekoarekin modu justuagoan erkatzeko aukera ematen du: ISEKa 0 baino handiagoa duen ikastetxe batek batez besteko puntuazioa (500 puntu) baino puntuazio handiagoa lortu beharko luke eta ISEKa 0 baino baxuagoa duen ikastetxe batek 500 puntutik beheko batez besteko puntuazioa lortzea espero izatekoa da. Baina ikusten ari gara ez dela beti iragarpen generiko hori betetzen, eskolako errendimenduan izaten baitira beste aldagai batzuk, hala nola, norberaren lana, ikasteko estrategiak, familiako itxaropenak, irakasleen itxaropenak, etab.


Ikastetxe bakoitzak dituen ISEK balioa eta erregresio-zuzenarekiko kokapena gorabehera, guztietan hobetu daiteke lortutako emaitza, bi aldagai horien arteko erlazioa ez baita determinista edo funtzionala; izan badira ikasleen errendimenduan eragiten duten beste aldagai batzuk. Ondorio horretara iritsi gaitzke erregresio-grafikoetan ikusten baitugu ISEK bera duten ikastetxeek emaitza desberdinak lortzen dituztela eta, beraz, ekitate desberdina dutela (ekitate da ikasleen maila sozioekonomiko eta kultural txikiagoagatik sortutako hasierako desabantailak konpentsatzeko gaitasuna). Ikastetxeko zer aldagaik eragiten duten modu batera edo bestera ikertzea interesgarria da ikastetxean berean hobekuntza neurriak hartzeko. Hala eginez gero, hezkuntza sistema osoa hobetuko litzateke.

Erregresio-zuzenak

Ikastetxeen tamaina askotarikoa denez (4-232 ikasle), erregresio-zuzenaren koefizienteak lortu dira ikastetxe bakoitzaren datuak haztatuz, ikastetxe horietako bakoitzean ebaluatutako ikasmilan matrikulaturik dituzten ikasleen kopuruaren arabera. Haztapen horrek grafikoetan azaldutako koefizienteak adierazgarriago egiten ditu eta, beraz, ondorio fidagarriak ateratzen laguntzen du.

Jarraian, gaitasun bakoitzerako grafikoak prestatu dira. Haietako bakoitzean puntu bakoitza ikastetxe bat da eta erdiko puntua (500-0) Nafarroako batez bestekoari dagokiona da.

96. grafikoa eta taula: Gaztelaniazko irakurmena-ISEK: batez besteko puntuazioaren erregresioa, ikastetxez ikastetxe




Iturria: Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua

Gaztelaniazko irakurmenean, ikastetxeen batez besteko puntuazioen arteko alderik handiena 257 puntukoa da eta ISEKean alderik handiena 1,78 puntukoa da.

R2 determinazio-koefizientea	0,433
Azaldutako bariantzaren (100*R2) ehunekoa (%)	43,3
Gradientea	57,17 puntu/ISEK unitatea
R korrelazio-koefizientea	0,658

97. grafikoa eta taula: Euskarazko irakurmena-ISEK: batez besteko puntuazioaren erregresioa, ikastetxez ikastetxe




Iturria: Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua

Euskarazko irakurmenean, ikastetxeen batez besteko puntuazioen arteko alderik handiena 184 puntukoa da eta ISEKean alderik handiena 1,65 puntukoa da.

R2 determinazio-koefizientea	0,104
Azaldutako bariantzaren (100*R2) ehunekoa (%)	10,4
Gradientea	29,33 puntu/ISEK unitatea
R korrelazio-koefizientea	0,32

98. grafikoa eta taula: Matematika gaitasunaren batez besteko puntuazioaren erregresioa, ikastetxez ikastetxe




Iturria: Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua

Matematika gaitasunean, ikastetxeen batez besteko puntuazioen arteko alderik handiena 168 puntukoa da eta ISEKean alderik handiena 1,78 puntukoa da.

R2 determinazio-koefizientea	0,577
Azaldutako bariantzaren (100*R2) ehunekoa (%)	57,7
Gradientea	56,65 puntu/ISEK unitatea
R korrelazio-koefizientea	0,76

99. grafikoa eta taula: Zientzia gaitasunaren batez besteko puntuazioaren erregresioa, ikastetxez ikastetxe




Iturria: Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua

Zientzia gaitasunean, ikastetxeen batez besteko puntuazioen arteko alderik handiena 224 puntukoa da eta ISEKean alderik handiena 1,78 puntukoa da.

R2 determinazio-koefizientea	0,207
Azaldutako bariantzaren (100*R2) ehunekoa (%)	20,7
Gradientea	38,097 puntu/ISEK unitatea
R korrelazio-koefizientea	0,455

100. grafikoa eta taula: Ingeleseko hizkuntza gaitasuna-ISEK: batez besteko puntuazioaren erregresioa, ikastetxez ikastetxe



Iturria: Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua

Ingeleseko hizkuntza gaitasunean, ikastetxeen batez besteko puntuazioen arteko alderik handiena 234 puntukoa da eta ISEKean alderik handiena 1,78 puntukoa da.


R2 determinazio-koefizientea	0,670
Azaldutako bariantzaren (100*R2) ehunekoa (%)	67,0
Gradientea	83,258 puntu/ISEK unitatea
R korrelazio-koefizientea	0,818

5.3.2. Hezkuntza sistemaren emaitzak Estatuko testuinguruan

Jarraian emandako datuei esker Nafarroa testuinguru espainiarrean kokatzen ahal da, hezkuntza emaitzen adierazle gako batzuetan oinarrituta.

Kontuan hartu dira HZKMK Hezkuntzaren Estatuko Adierazle-sistemaren bidez 2015ean argitaratu dituen datuak. Era berean, aurrerakuntzen eta trantsizioen adierazleak ere sartu dira, kasurako, egokitasun tasak (derrigorrezko eskolatzean zehar ikaslearen progresioa egokia dela adierazten dute, eta beraz, bere adinari dagokion kurtsoan dagoela).

101. grafikoa: Egokitasun tasak 10, 12, 14 eta 15 urteetan, autonomia erkidegoaren arabera. 2013-2014 ikasturtea.



Iturria: Hezkuntza Ministerioa: Hezkuntzaren zifrak Espainian. 2013-2014 ikasturtea. 2015eko edizioa.

Hurrengo parametroa errepikapen tasa da, hots, derrigorrezko ikasketetan ikasmilaren bat errepikatu duten ikasleen ehunekoa. 15 urteetan, Nafarroa egokitasun ehunekorik handienetakoa duen autonomia erkidegoa da. Grafikoa Espainiako errepikapen tasei dagokiena da, mailaren eta sexuaren arabera aztertuta. Nahitaezko irakaskuntzan emakumezkoek gizonezkoek baino gutxiago errepikatzen dute, DBHko tasak Lehen Hezkuntzakoak baino handiagoak dira eta errepikapen-mailarik handiena duen ikasmila DBHko 1.a da, %13,0rekin. Lehen Hezkuntzan gertatzen den bezala, DBHn gizonezkoen errepikapenaren ehunekoa emakumezkoena baino handiagoa da ia autonomia erkidego eta ikasmila gutzietan.

102. grafikoa: Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasle errepikatzaileen ehunekoa, sexuaren arabera. 2012-13 ikasturtea.



Iturria: Hezkuntzaren estatuko adierazle-sistema. ZKM.

Hurrengo taulan autonomia erkidego bakoitzeko errepikapen datuak ageri dira, mailaren eta sexuaren arabera. Nafarroako ehunekoak Estatuko batez bestekoak baino askoz ere apalagoak dira.

286. taula: Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasle errepikatzaileen ehunekoa, autonomia erkidegoen arabera. 2012-2013 ikasturtea.


	EDUCACIÓN PRIMARIA									EDUCACIÓN SECUNDARIA OBLIGATORIA											
	2º curso			4º curso			6º curso			1º curso			2º curso			3º curso			4º curso		
	Total	Hombres	Mujeres	Total	Hombres	Mujeres	Total	Hombres	Mujeres	Total	Hombres	Mujeres	Total	Hombres	Mujeres	Total	Hombres	Mujeres	Total	Hombres	Mujeres
España	4,7	5,3	4,1	4,0	4,5	3,5	4,5	5,2	3,7	13,0	15,0	10,6	11,7	13,2	10,1	12,0	13,2	10,7	10,0	11,6	8,6
Andalucía	5,6	6,4	4,7	4,4	4,9	3,9	4,7	5,4	3,9	16,1	18,3	13,5	19,3	22,2	16,1	17,0	19,1	15,0	15,4	18,1	12,8
Aragón	8,6	9,5	7,6	10,0	11,1	8,9	11,4	12,3	10,3	16,9	19,2	14,3	14,2	15,1	13,3	13,5	14,2	12,7	9,4	9,6	9,2
Asturias	4,6	4,7	4,5	3,6	3,7	3,5	4,3	4,8	3,7	11,1	12,7	9,4	8,2	9,2	7,1	8,5	9,4	7,6	6,0	6,6	5,3
Balears (Illes)	6,5	6,8	6,0	4,8	5,3	4,2	5,1	6,0	4,2	13,0	15,5	10,2	11,2	12,3	9,9	13,3	15,0	11,6	10,7	12,2	9,3
Canarias	5,4	6,5	4,3	5,1	5,8	4,4	5,5	6,7	4,2	15,8	18,9	12,3	10,5	11,3	9,7	11,6	13,3	10,0	7,4	8,4	6,5
Cantabria	3,8	4,3	3,2	3,1	3,5	2,6	3,6	4,8	2,2	11,1	12,6	9,4	9,1	9,7	8,4	9,3	10,4	8,1	8,2	9,3	7,1
Castilla y León	6,6	7,1	6,0	6,0	6,4	5,7	7,2	8,1	6,3	14,1	16,4	11,6	9,9	10,8	8,8	12,4	13,6	11,1	9,1	10,6	7,6
C-La Mancha	6,9	7,7	6,0	5,0	5,6	4,5	5,3	6,2	4,3	16,6	19,1	13,7	12,1	13,4	10,7	14,4	15,4	13,5	10,9	12,1	9,8
Cataluña	1,4	1,6	1,2	1,1	1,2	0,9	1,1	1,3	0,9	6,1	7,5	4,5	6,6	7,7	5,3	6,8	8,0	5,6	7,3	8,5	6,1
C. Valenciana	4,4	4,8	3,9	4,2	4,9	3,6	5,4	6,5	4,2	14,4	16,5	12,3	12,0	13,3	10,7	13,5	14,8	12,2	11,0	12,2	9,9
Extremadura	5,1	5,9	4,3	3,7	4,6	2,7	4,7	5,9	3,4	14,6	16,9	11,9	11,3	12,5	10,0	9,2	10,1	8,4	7,3	8,3	6,3
Galicia	4,3	5,0	3,5	4,2	4,6	3,8	4,3	5,0	3,4	12,5	15,2	9,5	11,2	12,7	9,4	10,0	11,2	8,7	8,7	10,3	7,1
Madrid	4,7	5,2	4,2	4,0	4,4	3,5	4,4	5,1	3,7	11,8	13,4	10,0	8,5	9,3	7,6	11,7	12,7	10,7	9,1	10,5	7,7
Murcia (R. de)	6,8	7,7	5,8	5,4	6,0	4,7	7,3	8,4	6,1	16,4	18,7	13,9	11,5	13,0	9,9	11,5	12,5	10,4	10,7	12,7	8,7
Navarra	3,7	3,9	3,5	2,6	2,8	2,5	2,8	3,5	2,2	8,6	9,6	7,4	8,1	9,9	6,2	9,1	10,2	8,1	8,4	9,5	7,3
País Vasco	3,9	4,4	3,4	3,6	4,2	2,9	3,3	3,7	2,9	8,2	10,4	5,8	7,5	8,4	6,6	6,7	7,6	5,8	5,9	7,0	4,8
Rioja (La)	3,0	3,2	2,8	2,8	2,9	2,8	3,2	3,3	3,0	13,7	16,0	11,2	9,0	9,6	8,3	10,2	11,3	9,1	6,4	7,4	5,6
Ceuta	10,4	10,1	10,7	10,8	13,6	7,9	10,8	13,6	7,9	19,3	22,2	16,3	16,0	16,7	15,1	16,4	16,8	16,1	9,7	10,8	8,7
Melilla	4,3	5,8	2,9	4,5	5,1	3,9	2,9	3,5	2,1	21,6	24,7	18,0	18,2	18,9	17,4	16,6	16,8	16,4	9,8	11,0	8,6

Iturria: Hezkuntzaren estatuko adierazle-sistema. HKM.

Era berean, goiz uztearen tasa, hots, hezkuntza goiz utzi duten 18tik 24 urte bitartekoek ehunekoa edo ikasketa mailarik handiena nahitaezko irakaskuntza dutenen ehunekoa, oso interesgarria da.

Nafarroak %11,8ko tasa du, 2014ko batez besteko nazionala (%21,9) baino askoz ere apalagoa. Tasa hau EBko herrialdeetako handiena da eta hezkuntza goiz uztearen arazoa konpondu beharreko arazorik garrantzitsuenetako bat da.


103. grafikoa: Hezkuntza eta prestakuntza goiz utzi duten 18tik 24 urte bitarteko pertsonen ehunekoa, sexuaren arabera. 2014.



Nota: Los datos deben ser tomados con precaución, pues los derivados de tamaños muestrales pequeños están afectados por fuertes errores de muestreo.

Iturria: Hezkuntzaren estatuko adierazle-sistema. HKM.


104. grafikoa: Hezkuntza eta prestakuntza goiz utzi duten 18tik 24 urte bitarteko pertsonen ehunekoa, Europar Batasuneko herrialdeetan, sexuaren arabera. 2014.



Iturria: Hezkuntzaren estatuko adierazle-sistema. HKM.

Biztanleriaren hezkuntza mailaren beste adierazle bat DBHko gradudunen kopuru gordina da, hots, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gradudun kopuruaren (haien adina edozein izanik ere) eta ikasketa horren azken ikasmailaren hasierako "adin teorikoaren" biztanleria osoaren arteko erlazioa. 2012-2013 ikasturtean, DBHko gradudunen tasa gordina %75,4koa da 15 urteko biztanleekiko. Estatuko batez bestekoaren gaineko tasak dituzten autonomia erkidegoak honako hauek dira: Extremadura, Aragoi, Madrilgo Erkidegoa, Gaztela-Leon, Galizia, Nafarroako Foru Komunitatea, Katalunia, Kantabria, Asturiasko Erkidegoa eta Euskal Autonomia Erkidegoa.

105. grafikoa. DBHko gradudunen tasa gordina, autonomia erkidegoaren eta sexuaren arabera. 2012-2013 ikasturtea




: En el gráfico las CCAA están en orden creciente según la tasa total de graduados.

Iturria: Hezkuntzaren estatuko adierazle-sistema. HKM.

Derrigorrezko eskolatzea arrakastaz betetzeari dagokionez, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko aldeei dagokienez, grafikoa ikus daiteke sexuen arteko ebakia emakumezkoen alde etengabe mantentzen dela, kasurik onenean 10 puntu baino gehiago, azken urte hauetan bilakaera positiboa bada ere. Datu hauek agerian uzten dute gizonezkoek hezkuntzan duten desabantaila honi aurre egiteko hezkuntza politikak hartu behar direla (desabantaila horrek derrigorrezkoaren ondoko ikasketetan ere segitzen du eta horrek eragiten du gure herrialdean eskola porrotak profil maskulinoa izatea).

106. grafikoa: DBHn gradua erdiesten duen biztanleriaren tasa gordinaren bilakaera.



Iturria: Hezkuntzaren estatuko adierazle-sistema. HZM.


Aurreko datu horiek egiaztatzen dira Bigarren Hezkuntzako bigarren etapako ikasketetako graduazio-tasa gordina aztertzen badugu (tasa hori Bigarren Hezkuntzako bigarren etapako ikasketetako bakoitzean graduazioa erdietsi duten ikasleen eta aipatutako ikasketa horietako azken ikasmilan hasteko adin teorikoan dauden ikasleen arteko erlazioa da).

Adierazle honetan Bigarren Hezkuntzako bigarren etapako graduazio tasak aztertzen dira. Etapa horretan bi ikasketa mota hauek daude: Batxilergoa eta Erdi Mailako Lanbide Heziketa, batxiler eta teknikari tituluak ematen dituztenak, hurrenez hurren. Bi ikasketa horiek bukatzeko adin teorikoa 18 urtekoa da.

Estatua bere osotasunean hartuta, Batxilergoko tituluak lortzen duten emakumezkoen eta gizonezkoen arteko aldea %13,4koa da (adin teorikoa duten mutilen %46,9k eta nesken %60,3k tituluak lortzen dute). Nafarroan alde hori zertxobait handiagoa da, hots, %14,7.

Erdi Mailako Lanbide Heziketako ikasketei dagokienez, datu orokorrek nesken aldeko alde txikia erakusten dute (%0,9). Nafarroan alde hori mutilen aldekoa da (%5,9): mutilak %21,7 eta neskek %15,8 dira.

107. grafikoa eta taula: Bigarren Hezkuntzako bigarren etapan (Batxilergoan eta Erdi Mailako Lanbide Heziketan) tituluak lortzen dutenen tasa gordina, autonomia erkidegoaren eta sexuaren arabera. 2012-2013 ikasturtea.



Nota: (1) Incluye: Ciclos de Grado Medio de F.P., de Artes Plásticas y Diseño y Enseñanzas Deportivas de Grado Medio.

Iturria: Hezkuntzaren estatuko adierazle-sistema. HZM


Egoera honen ondorioak hurrengo grafikoan ageri dira (grafiko horretan bildu dira goi mailako hezkuntza maila duten 30etik 34 urte bitarteko biztanleen ehunekoa, adinaren eta sexuaren

arabera). Nafarroan adin-tarte horretan dauden eta goi mailako titulazioa duten emakumezkoen eta gizonezkoen arteko aldea 20 puntukoa da.

Adin-tarte horretan dauden gizon nafarren %35,6k bakarrik du goi mailako tituluren bat (Lanbide Heziketa, diplomak, lizentziak edo graduak). Ehuneko hori estatuko batez bestekoaren antzekoa da. Aldiz, adin-tarte horretan dauden emakume nafarren ia %56k badu titulua, batez bestekoa baino 8 puntutik gora.

Inguruabar horrek agerian uzten du gure Foru Komunitateko esparru sozialetan azterketa egin beharra, etorkizuneko gure garapen estrategikoaren arabera hezkuntza arloan jarduteko lehentasunak zein diren finkatu ahal izateko.

108. grafikoa: Goi mailako hezkuntza maila duten 30etik 34 urte bitarteko biztanleen ehunekoa, autonomia erkidegoaren eta sexuaren arabera 2014. urtea.



Nota: Los datos deben ser tomados con precaución, pues los derivados de tamaños muestrales pequeños están afectados por fuertes errores de muestreo.

Iturria: Hezkuntzaren estatuko adierazle-sistema. HZM

5.4. Aitorpenak eta sari bereziak.

Ikasleei zuzendutako lehiaketak eta sariak.

Batxilergoko sari bereziak

Hezkuntza Ministerioaren uztailaren 13ko 2058/2010 Aginduaren bitartez Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritako Batxilergoko Sari Nazionalak arautu ziren eta hartan ezartzen da haietan lehia daitezkeela ikasketa horiek bukatu dituzten Hezkuntza Administrazioaren esparruan Batxilergoko Sari Berezia lortu duten ikasleak. Horregatik, Hezkuntza Departamentuak urtero deitzen ditu Batxilergoko Sari Bereziak. Batxilergoko bi ikasturteetan batez besteko nota 8,75 puntu edo gehiagokoa lortu duten Foru Komunitateko ikasleei zuzenduta dago.

Aipatutako ministerioko aginduko 4. artikuluan xedatutakoaren arabera, eskumena duten hezkuntza administrazioek Batxilergoko Sari Berezi bat eman dezakete deialdia egiten den ikasturtean, Batxilergoko bigarren ikasmilan, mila matrikulako edo bostehundik gorako zatikirako. Hala, Foru Komunitateak lau sari berezi eman ditzake, gehienez ere.

2014-2015 ikasturteko deialdian 25 ikastetxe publiko eta itundutako 48 ikasle lehiatu dira. Deialdian ezarritako azterketak egin ondoren, 2014-2015 ikasturtean Batxilergoko Sari Berezia lortu duten ikasleak honakoak dira:

- Santiago Arana Ballestar, Iruñeko Navarra Villoslada BHIkoa.

- Paula Ibarrola Gutiérrez, Iruñeko Nuestra Señora del Huerto Ikastetxekoa.
- Pablo Zorrilla Echeverría, Iruñeko Cardenal Larraona Ikastetxekoa.
- Amaia Goñi Ardanaz, Zizur Txikiko San Fermin Ikastolakoa.

Hezkuntza Ministerioak urtero ematen dituen Batxilergoko sari nazionalak bat lortzeko aukera dute, "Batxilergoko edozein modalitatetan ikasi duten ikasleei lortutako aprobetxamendu berezia aitortzeko".

Florencio de Ansoleaga saria

Florencio de Ansoleaga saria 1917an sortu zen, izen bereko iruindar arkitekto eta arkeologoak (1846-1916), Iruñean adierazgarritzat har daitezkeen hainbat eraikinen egileak, xedatutakoari jarraituz. Agindu zuen bere izena daraman fundazioaren errentetatik 200 pezetako sari bana eman ziezaietela Maisutza Eskola Normaleko (gaur egungo Nafarroako Unibertsitate Publikoko Maisu-maistra diploma) ikasketa espedienterik onena duten tituludun gizonezkoari eta emakumezkoari, eta garai hartan Iruñean zegoen institutu bakarrean (Gurutze plazakoan) Batxilergoko ikasketa espedienterik onena duen ikasleari.

Berrehun pezetako saria ez da aldatu 1917tik hona eta garai batean ekonomikoki garrantzitsua zen saria denborarekin aipatutako ikastetxeetako ikaslerik onenak publikoki aitortzeko modua izan da (2 euroko sari sinbolikoa bilakatu da).

Hezkuntza Departamentuak saria gorde du eta gaur egungo 2 euroko sari sinboliko hori 200 euroko material bibliografikoko lotearekin osatu du. Saria eratu zuenaren espiritua berreskuratzeko, Departamentuak Maisutza Eskola Normalean espedienterik onena izan duten bi tituludunei bi sariak ematea berretsi du nahiz eta jakin garai hartan Iruñeko Eskola Normalean bi atal zeudela, bata mutilena eta bestea neskena. Hartara, eta NUPen iradokizuna kontuan hartuz, bi sari horiek honelaxe emanen dira: bata, Haur Hezkuntzako Graduko espedienterik onenari, eta bestea, Lehen Hezkuntzako Graduko espedienterik onenari, sexu bereizketarik egin gabe.

2014-2015 ikasturteko Florencio Ansoleaga sariaren irabazleak honakoak izan dira:

- Ainhoa Erdozia Goñi, NUPeko Haur Hezkuntzako Maisu-maistra Graduko espediente akademikorik onena.
- Amaia Olleta Sánchez, NUPeko Lehen Hezkuntzako Maisu-maistra Graduko espediente akademikorik onena.
- Inés Zugasti Asin, Plaza de la Cruz BHIko espediente akademikorik onena.

Ortografiako Hispanoamerikar Lehiaketa

2000. urtetik hona Hezkuntza Ministerioak Ortografiako Hispanoamerikar Lehiaketaren fase nazionalerako deialdiak egin ditu, hizkuntzaren alde idatziaren, ortografiaren, garrantzia azpimarratzeko ekimen moduan, ortografia idazketa zuzenaren oinarritzat hartuz. Ebazpeneko laugarren puntuaren ezarritakoaren arabera, lehiaketak hiru fase ditu elkarren jarraian:

- Lehena: ikastetxean.
- Bigarrena: autonomia erkidegoan, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioako Zuzendaritza Probintzialean edo atzerriko Hezkuntza Kontseilaritzan.
- Hirugarrena: nazionala.

Bigarren fasean, parte-hartzaileek izena eman duten autonomia erkidegoek epaimahai bat eratuko dute eta lehiaketa antolatuko dute, nork bere jarduketa esparruan. Fase autonomikoa bukatutik, autonomia erkidegoek fase nazionalan parte hartzeko hautatu den pertsona hartan inskribatuko dute.

Lehiaketa Batxilergoko 2. ikasmilan matrikulatutako ikasleentzat da. Probak epaimahai autonomikoak lehiakideei adierazitako jarraibideen arabera egiten dira. Epaimahaiak hitzak diktatzen dituzte, txandaz txanda ortografiaren zailtasun maila igoz. Epaimahaiak berak ezarritako hitz kopurua zuzen idazten duten lehiakideak hurrengo txandara igotzen dira, irabazle bakarra gertatu arte. Esan denari jarraikiz, lehenengo postua erdiesten duen lehiakideak ordezkaturiko du Nafarroako Foru Komunitatea lehiaketaren fase nazionalan.

2014-2015 ikasturteko edizioan irabazlea Jon Liberal Huarte izan da, Burlatako Ibaialde BHIkoa.

Olinpiadak

“Olinpiadak” ikasleen interesa pizteko hezkuntza proposamenak dira. Batxilergoko hainbat diziplina akademikotan deitzen dira, ezagutza, aplikazioa eta asmamena neurtzeko proba lehiakorren bidez.

Nafarroan, gehienak, Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta Nafarroako Unibertsitateak sustatu eta antolatzen dituzte, unibertsitatearen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen arteko harremana hobetzeko. Kimikakoa, Kimikarien Aragoiko eta Nafarroako Elkargoak sustatzen du, beharbada, ikasleengan beren irakasgaiaren gaineko interesa pizteko xedez. Bestalde, TORNAMIRA Matematikako Irakasleen Elkarteak DBHko ikasleendako Matematika Olinpiada antolatzen du. Era berean, Izpiritu sortzailea - Espiritu creativo irabazi-asmorik gabeko erakundeak Sormenezko Mazarzketa Olinpiada antolatzen du. Eta 2014-2015 ikasturtean Elizbarrutiko Irakaskuntzako Idazkaritzak antolatu du Erliñoaren I. Olinpiada.

Hezkuntza Departamentuak olinpiada horien guztien garapena babestu eta hedatzen du eta, orobat, sariak irabazleei emateko ekitaldi instituzionala antolatzen du. Hala, ekitaldi instituzional honek biltzen ditu hezkuntzako agintariak eta Batxilergoko espezialitate bakoitzean hoberenak direla erakutsi duten ikasleak, haien senitartekoak, irakasleak, unibertsitateetako eta entitate antolatzaileetako ordezkariak eta agintariak. Ikasturte honetan ekitaldia estreinakoz NAPIko Pio Baroja aretoan egin da, ezinezkoa izan baita bertaratu diren 140 lagun Tronuaren Aretoan sartzea.

Fisikako Olinpiada:

1. Álvaro Cía Mina, Garesko Padres Reparadores Apaizgaitegi-Ikastetxekoa.
2. Alejandro Ruberte Sanz, Tuterako Benjamín de Tudela BHIkoa.
3. Miguel Ángel Satrustegui Gallego, Zizur Nagusiko Zizur BHIkoa.

Matematikako Olinpiada (Batxilergoa):

1. Jon Liberal Huarte, Burlatako Ibaialde BHIkoa.
2. Álvaro Cía Mina, Garesko Padres Reparadores Apaizgaitegi-Ikastetxekoa.
3. Sergio David Cía Luvecce, Iruñeko Calasanz Ikastetxekoa.

Biologiako Olinpiada:

1. Marta Chivite Lacabe, Tuterako Benjamín de Tudela BHIkoa.

2. Alberto Pezonaga Torres, Iruñeko Liceo Monjardín Ikastetxekoa.
3. Pablo Larraona Barásoain, Iruñeko Irabia-Izaga Ikastetxekoa.

Kimikako Olinpiada:

1. Álvaro Iribarren Zabalegui, Iruñeko Santa Teresa Ikastetxekoa.
2. Peio Ardáiz Galé, Iruñeko Basoko BHIkoa.
3. David Bronte Ciriza, Iruñeko Navarro Villoslada BHIkoa.

Geografiako Olinpiada:

1. Mario González Padilla, Iruñeko San Cernin Ikastetxekoa.
2. Ignacio Urbasos Arbeloa, Iruñeko San Ignacio Ikastetxekoa.
3. Nerea Bonafonte Días, Iruñeko Plaza de la Cruz BHIkoa.

Filosofiako Olinpiada:

SAIAKERAREN KATEGORIA

1. Ariana Juguera Jiménez, Martzillako Marqués de Villena BHIkoa.
2. Alberto Pezonaga Torres, Iruñeko Liceo Monjardín Ikastetxekoa.
3. Ana García Pérez, Iruñeko Plaza de la Cruz BHIkoa.

ARGAZKILARITZA FILOSOFIKOAREN KATEGORIA

1. Sara López García, Iruñeko Calasanz Ikastetxekoa.
2. Nikola Hristov Kalamov, Zizur Nagusiko Zizur BHIkoa.
3. Miguel Andía Díez, Iruñeko Irabia-Izaga Ikastetxekoa.

Marrazketa Teknikoko Olinpiada:

1. Álvaro Leciñana Soldevilla, Logroñoeko Santa María Batxilergoko Institutukoa.
2. Luis Arturo Saz Laguna, Zaragozako Escuelas Pías Ikastetxekoa.
3. Rubén Tellechea Zamanillo, Iruñeko Calasanz Ikastetxekoa.

Sormenezko Marrazketaren Olinpiada:

1. Javier Fernández Roncal, Iruñeko San Cernin Ikastetxekoa.
2. Maite Burgos Casado, Corellako Arte Eskolakoa.
3. Maite Aláez Guergué, Iruñeko Plaza de la Cruz BHIkoa.

Historiako Olinpiada:

1. Marcos Gómez García, Iruñeko Hijas de Jesús Ikastetxekoa.
2. Andrea Muro Iribarren, Iruñeko Nuestra Señora del Huerto Ikastetxekoa.

3. Javier Viñeta García, Iruñeko El Redín Ikastetxekoa.

Erlijioko Olinpiada:

1. Itziar Olagüe Barberena, Larraintzarko DBHIkoa.
2. Uxue Beunza Arano, Larraintzarko DBHIkoa.
3. Ex-aequo, Carla Ruiz Escribano, Tuterako Valle del Ebro BHIkoa eta María Jaurrieta Manresa, Zizur Txikiko Miravalles Ikastetxekoa.

Erkidego mailako faseetako irabazle guztiak fase nazionalera pasatzen dira. Urtero Espainiako hiri batean izaten da fase nazionala.

“Qué es un Rey para ti”

Fundación Institucional Española (FIES) fundazioak deitu eta Fundación Orange elkarteak babesten duen lehiaketa honetara eskulanak aurkezten ahal dira: eskulturak, muralak, marrazkiak, etab. Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. ikasmilako ikasleentzat, DBHko 1. eta 2. ikasmilakoentzat eta Hezkuntza Bereziko 18 urte bitarteko ikasleentzat da. Aurtengoa lehiaketaren XXXII. aldia izan da eta Nafarroako 19 ikastetxetako 268 ikaslek hartu dute parte.

Lanbide Heziketa eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide ikasketak

Hezkuntza sistemako Lanbide Heziketako ikasketei eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide ikasketei dagozkien sari bereziak Hezkuntzako kontseilariaren martxoaren 4ko 29/2013 Foru Aginduan araututa daude. 2014-2015 ikasturtean, 2013-2014 ikasturtean heziketa zikloa bukatu zuten ikasleek parte hartzeko deialdia egin da. Deialdi hori Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiaren azaroaren 3ko 561/2014 Ebazpenaren bidez deitu zen.

Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiaren otsailaren 23ko 43/2015 Ebazpenaren bidez eman ziren Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza sistemaren lanbide heziketako ikasketetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide ikasketetako 2014-2015 ikasturteko Sari Bereziak.

Erdi mailako heziketa zikloak:

Bederatzi sari esleitu zitzaizkien ondoko ikasleei:

- Elías Ignacio Asensio Fernández, Sistema Mikroinformatikoetako eta Sareetako teknikaria, "Informatika eta Komunikazioak" lanbide arlokoa, Lizarrako II Politeknikoko ikaslea.
- Luis del Río Porras, Mantentze-lan Elektromekanikako teknikaria, "Instalazioa eta mantentze-lanak" lanbide arlokoa, Tuterako ETI Ikastetxe Integratu Politeknikokoa.
- M^a Guadalupe Dueñas Bachiller, Erizaintzako Zainketa Lagungarrietako teknikaria, "Osasuna" lanbide arlokoa, Tuterako ETI Ikastetxe Integratu Politeknikokoa.
- Yésica Escudero Baleztena, Estetika eta Edergintzako teknikaria, "Irudi pertsonala" lanbide arlokoa, Burlatako "Burlada FP" Ikastetxe Integratukoa.
- Francisca Jiménez Quintana, Administrazio Kudeaketako teknikaria, "Administrazioa eta kudeaketa" lanbide arlokoa, San Adriango "Ega" Bigarren Hezkuntzako Institutukoa.

- Cristóbal Antonio León López, Karrozeriako teknikaria, "Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze-lanak" lanbide arlokoa, Iruñeko "Donapea" Ikastetxe Integratu Politeknikokoa.
- Miren Eukene Lozano Arteaga, Gizarte eta Osasun Laguntzako teknikaria, "Gizarte eta Kultura Zerbitzuak eta Komunitatearentzako Zerbitzuak" lanbide arlokoa, Iruñeko Nafarroako Eskola Politeknikokoa.
- Luis Pérez Suárez, Instalazio Elektriko eta Automatikoetako teknikaria, "Elektrizitatea eta Elektronika" lanbide arlokoa, Tuterako "ETI" Ikastetxe Integratu Politeknikokoa.
- Iker Remiro Salvador, Sukaldaritza eta Gastronomiako teknikaria, "Ostalaritza eta Turismoa" lanbide arlokoa, Burlatako "Burlada FP" Ikastetxe Integratukoa.

Goi mailako heziketa zikloetarako

Hamahiru sari esleitu zitzaizkien ondoko ikasleei:

- M^a Cristina Anaya Huarte, Merkataritzako Kudeaketa eta Marketineko goi mailako teknikaria, "Merkataritza eta Marketina" lanbide arlokoa, Iruñeko "María Ana Sanz" Ikastetxe Integratukoa.
- Rubén Cordón Marco, Automatizazioko eta Robotika Industrialeko goi mailako teknikaria, "Elektrizitatea eta Elektronika" lanbide arlokoa, Tuterako "ETI" Ikastetxe Integratukoa.
- Santiago Díaz López, Sukaldeko Zuzendaritzako goi mailako teknikaria, "Ostalaritza eta Turismoa" lanbide arlokoa, Burlatako "Burlada FP" Ikastetxe Integratukoa.
- Leticia Fernández Martínez, Elikagaien Industriako Prozesuetako eta Kalitateko goi mailako teknikaria, "Elikagaien Industriak" lanbide arlokoa, San Adriango "Ega" Bigarren Hezkuntzako Institutukoa.
- Bárbara García San Martín, Administrazio eta Finantzetako goi mailako teknikaria, "Administrazioa eta Kudeaketa" lanbide arlokoa, Iruñeko "Cuatrocientos" Ikastetxe Integratu Pribatukoa.
- Ismael Hernández Carceller, Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioko goi mailako teknikaria, "Fabrikazio Mekanikoa" lanbide arlokoa, Tuterako "ETI" Ikastetxe Integratu Politeknikokoa.
- Estíbaliz Ibarrola Ziganda, Eraikuntzako Proiektuetako goi mailako teknikaria, "Eraikuntza eta obra zibila" lanbide arlokoa, Iruñeko "Virgen del Camino" Ikastetxe Integratu Politeknikokoa.
- Azucena Larios Segura, Analisisien eta Kalitate Kontrolaren Laborategiko goi mailako teknikaria, "Kimika" lanbide arlokoa, Iruñeko "Donapea" Ikastetxe Integratu Politeknikokoa.
- Marta López Antón, Grabatuko eta Estanpazio Tekniketako goi mailako teknikaria, "Arte Plastikoak eta Diseinua" lanbide arlokoa, Iruñeko Arte Eskolokoa.
- Xabier Martínez Resano, Bero eta Fluido Instalazioen Mantentze-lanetako goi mailako teknikaria, "Instalazioa eta Mantentze-lanak" lanbide arlokoa, Imarkoingo Energia Berriztagarrien Goi Mailako Ikastetxe Integratukoa.

- Myriam Morales Segura, Anatomia Patologikoko eta Zitologiako goi mailako teknikaria, "Osasuna" lanbide arlokoa, Iruñeko "M^a Inmaculada" Lanbide Heziketako Ikastetxe Pribatukoa.
- David Segura Aliaga, Sareko Sistema Informatikoen Administrazioiko goi mailako teknikaria, "Informatika eta Komunikazioak" lanbide arlokoa, Tuterako "ETI" Ikastetxe Integratu Politeknikokoa.
- Sheila Tarragona Pérez, Gizarte eta Kultur Jardueren Sustapeneko goi mailako teknikaria, "Gizarte eta Kultur Zerbitzuak eta Komunitatearentzako Zerbitzuak" lanbide arlokoa, Iruñeko "Escuela de Educadores-Hezitzaile Eskola" Ikastetxe Integratukoa.

SPAINKILLS LH 2015eko txapelketak

Hezkuntza, Kultura eta Kiroleko Ministerioak trebetasun lehiaketak antolatu eta sustatzen ditu (ingelesez "skill" deitzen dira). Trebetasun horiek Lanbide Heziketa hedatzeko tresna baliotsua dira, ikasleak, irakasleak eta enpresak kitzikatzeko baliabidea eta, orobat, ekoizpen sektoreetan lanbide estandarren, kalitatearen eta berrikuntzaren bilakaeraren gainean trukerako plataforma eta eztabaida-foroa.

WorldSkill International eta WorldSkills Europe gobernuz kanpoko elkarteak dira, irabazi asmorik gabeak eta haien jarduera nagusia Lanbide Heziketan bihurtzeko lehiaketak antolatzea da. Bi antolakunde horietan ekoizpen sektoreetan aitzindari diren Lanbide Heziketako elkarteak, enpresak eta lanbide elkarteak biltzen dira, helburu hauekin: lanbide trebetasunen bilakaeraren gaineko informazioa hedatzea eta partekatzea eta mundu osoko lehiatzaileen eta adituen artean kalitatea, berrikuntza eta kultura-trukea sustatzea.

Espainia bi antolakunde horietako partaidea da. Hori dela-eta, bi urtean behin Lanbide Heziketako txapelketa nazionala (Spainskills) antolatzen du Espainiako lehiatzaileak hautatzeko. Lehiatzaile horiek Espainia ordezkatzeko dute Europako txapelketetan (EuroSkills-ak) eta mundukoetan (WorldSkills-ak) urte bikoitietan eta bakoitietan, hurrenez hurren.

Lanbide Heziketako Spainskills 2015eko txapelketan, 2015eko maiatzaren 6tik 8ra Madrilen egin zenean, autonomia erkidego eta hiri guztiek parte hartu dute. Nafarroako taldeak lortutako emaitzak honakoak izan dira:

- Brontzeko domina, "Diseinu Mekanikoko Ingeniaritza - CAD" espezialitatean. Cristian Carullo Sáenz, Lizarrako Ikastetxe Integratu Politeknikoko Mekatronika Industrialeko goi mailako zikloko ikaslea.
- Bikaintasun aipamena, "Lorezaintza paisajistikoa" espezialitatean. Josu Latorre Ripa eta Maialen Eseverri Mancho, Iruñeko "Nekazaritza eta Basogintzako" Ikastetxe Integratuko Paisajismoko eta Landa Inguruneko goi mailako zikloko ikasleak.

CONCAPAREN ORDEZ, SERGIO GÓMEZ SALVADORREK AURKEZTUTAKO BOTO PARTIKULARRA

1.- 2015eko abenduaren 17an burututako Eskola Kontseiluaren Osoko bilkuran, NHSTaren eztabaida eta bozketarako ez ziguten Batzar Iraunkorrek onartutako zuzenketan eman. Era berean, nahiz eta hiru motatakoak zirela esan, batzuk hizkuntz motakoak, besteak deskribapen erakoak eta hirugarrenak balioztatzeak, errealitatea da, azkenekoetariakoak gehiegi zeudela. Era horretan, aurretik onartutako zuzenketak ezagutu gabe, Eskola Kontseiluko kide honi eta besteei ez zitzaigun bozkatzen ari genuen bukaerako txostenaren edukia zehazki jakinten utzi. Kontseiluko Lehendakaritzak emandakoa ez denez onetsi beharreko testua, aldeko botoa ematea galarazten du.

2.-Osoko bilkurak eztabaidatutako zuzenketak, deskribapen datu batzuen ezabapena eta beste datu baloratibo batzuen sarrera suposatu zuen. Deskribapen txosten batean nahita balorazioak sartzea, txostena beraren helburuen mugak pasatzea da. Egoera hau, parlamentuko eztabaida bati dagokio, egoeraren txosten bat ematen duen erakunde kontsultibo batena baino gehiago. Ezin ditut partekatu egindako balorazio partzial eta nahasiak, hauek, eremu politikoan eztabaidatu daitezke, baina ezin dira txosten tekniko batean egon.

FRANCISCO JOSÉ FLORES PÉREZEK AURKEZTUTAKO BOTO PARTIKULARRA

Kontseiluaren Osoko bilkura, gehiengoz, NHSTa onetsi zuen, baina sinatzaileak ez zuen alde egin eta boto partikularra aurkezten du ondorengo arrazoiengatik:

1.- Txostenaren zirriborroari aurkeztutako zuzenketak, Batzar Iraunkorrenagandik aztertuak izan ondoren, ez ziren Osoko Bilkuraren kideei bidali, 4 izan ezink, bozkatzeko bidali zirenak. Besteak, onartuak, baztertuak edo ez ziren baloratu zentzu batean edo bestean, baina ez zen Kontseiluko Osoko bilkurako kideei bidali. Boto partikular hau sinatzen duenak zuzenketak ezagutzeko aukera izan zuen, eskatu baintuen, eta bidali zitzaizkidan. Osoko bilkura denez zuzenketak onetsi edo baztertzeko gai dena, eta Batzar Iraunkorra kudeaketa arintzen duen tramitea izanik, Eskola Kontseilukideren batek araudia ez dela bete esateko arriskua dago eta zuzenketak ez direla Osoko Bilkuraren esanera jarri, eta prozesuaren balio gabetasun ekimen bati sustatu ahal du honek. Horrela, Kontseiluarentzat arriskutsu izango litzateke, ez jarduerak atzera jotzeagatik bakarrik, baita Nafarroako gizarte aurrean emango zen irudi txarrarengatik.

2.- Osoko bilkurara bidalitako zuzenketa horrian, haietako kopuru handi bat onetsiak bezala agertzen ziren, Batzar Iraunkorreko kide askok erraztutako informazioaren arabera, ez ziren onetsiak izan. Egoera horrek akats eta interpretazio oker asko sortu zituen Osoko bilkuraren kideen artean, bai eztabaidan bertan, baita lehenago ere. Era berean, onetsi ez ziren beste zuzenketak, ez ziren bozkatu egin, eta horregatik, Osoko bilkuran ez zen ea baztertzeko ziren edo erretiratu egin ziren jakin.

3.- NHSTa funtsean deskribapenezko eta informaziozko dokumentu bat da, eta era honetan, eta datu horiekin, hezkuntza komunitateko kideak edo Kontseiluak berak, ekimenak hartu ditzakete dagozkien aferetan, bai informazio hobe batetarako, baita hezkuntza sistema hobetzeko ere. Osoko bilkurak onetsitako 14-15 txostenean, lehenengo zirriborroaren zuzenketa batzuk informazio garrantzitsua ezabatzen dute, eta beste alde batetik, jarduera, lege edo arauen balorazioa egiten dituztenak, Kontseilukideren baten informazio edo analisia baino gehiagorik gabe, baliozkoak, dudarik gabe, baina zehaztasun teknikoaren aurrean jarri gabe, eta honek Nafarroako Eskola Kontseilua bezalako erakundeari eskatzen zaion zehaztasuna kolonkan jartzen du. Horrela bada, txosten honen tramitazioan lehenengo aldiz, ez da ikasle bakoitzeko gastua, sare publikoan, 2014-2015 ikasturtean (5.026 €) eta itundutako eskolen sarean ikasle bakoitzeko gastua (3.311 €) agertzen. Zalantzarik gabe, arrazoi ezberdinak egongo dira gastu hau azaltzeko, baina, nire ustez, onargarria ez dena, informazioa ezabatzea da, datua azaldu beharrean. Irizpen edo aurreko analisi zehatzagorik gabeko esamolde, iritzi eta balorazioak ere sartu dira, batzuk larritasun handikoak. Adibidez, 0 eta 3 arteko haur eskoletan, bere periodo trantsitorioaren bukaeran, 0 eta 3 tarteko haurren kalitate, osasun eta seguritate baldintzen aurkakoa izan dela da. Horrela bada, Nafarroako Eskola Kontseiluak berak, araudi honen inguruko irizpen batean, analisi baten ondoren, bere egokitasuna bermatu zuen, eta orain, paragrafo batean, ikerketa hori baztertzeko da, iritzi baten

bitartez, ez irizpen edo ikerketa bat, Kontseiluaren gehiengo berriak gainditu behar duena. Horregatik, kide honek ezin du bere aldeko botoa eman 2014-2015 Nafarroako Hezkuntza Sistemaren Txostenari eta boto partikular hau aurkezten du, era publikoan ager dadin eskatuz eta txostenarekin batera.

Iruñea, 2015eko abenduaren 19an.